



Iso nahiz arre,
egizu barre

Aita Martzel Andrinua



*Lehin aditkideari
bikotz eta erromag
A. V. Martzel*

Iso nahiz arre,

egizu barre

Aita Martzel Andrinua

[Faint, illegible handwritten text in blue ink]

© Aita Martzel Andrinua
ISBN: 978-84-92413-66-9

Lege Gordailua: BI-2956-2010

Diseinua, maketazioa eta argitalpena: Erroteta - www.erroteta.com



Inprimaketa: cuatroAs.
Printed in UE.

Debekatuta dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara izan-
da ere, edizio honen Copyright-aren jabeen baimenik gabe.

**Iso nahiz arre,
egizu barre**

Aita Martzel Andrinua



ATARIKOA

Aita Martzelen lagunarte zabaleko bat gehiago nozu. Alkarregaz sarri hustu deutsagu bata besteari geure kolkoa. Udaldian egun pasa bat egin genduan eta mila eta bost autu-mautuen artean mesede hauxe eskatu eustan: Hainbat liburu eginak dodaz bizitzan zehar; laro-geigarren urtean hona zetara emon deustan gogoak. "Iso nahiz arre, egizu barre" liburutxo bat argitaratu nahi neuke, neure buruari adarra joz eta bizitzari barre eginez amaitu lurreko ibilaldia. "Atarikoa" egiten zeuk laguntzea gura neuke. Nik bai pozik be baiezkoa emon neutsan. Hemen nozu gaur, ataritik sartu eta barruko umorea txastatzen laguntzeko prest. Holako baten, aukera honen aurrean, mesedea neure buruari egitea da.

–Zelango eltxoak pikau deutsu, Martzel, laro-geigarren urtean, bizitzara begiratuta, xelebrekeri honekaz plazaratzeko?

–Bizitzan zehar gauza asko ikusi, entzun, landu eta egin dodaz. Argitaratu dodazan liburutxoetan bizitzako hainbat alderdi arakatu dodaz, baina bizitzaren barregarritzko alderdi hau landu eta batu barik euki dot, nahizta sarri erabili tarteka-marteka goxagarri batzuk. Neure bizitza luzeari eta jorratutako arloari begira, beti "damu dot" paparjoka edo eta "hau egin baneru edo ez baneru" hiletetara jo beharrean, pasadisu xelege eta barregarriak gogoratuz, neure lagunei barrez ahoa zabaltzen laguntzea, neurea lehenengo dala, interesgarri begitandu jat.

–Sarreratik itzi nozu zurtz eginda, jarri deustozun izenburuaz: "Iso nahiz arre, egizu barre". Zer pentsau emon deust. Berak dakarren maminaz jabetu nahirik jardun dot luzaroan. Zeuk be ez zenduan lehenengoan aukeratuko. Zergaitik jarri deustozu izenburu hau?

–Gaurko giroan gaur arre dinotsue eta bihar iso... azkenean ez dakizu norantz jo. Zein aldizkari hartzen dozun, albiste bardina bakotzak bere erara ipinten deutsu. Munduko baztar guztietan jazoten dan zoritxar guztia burutik behera botaten deustue, zaborrontzietan batutako zabor guztia bailitz. Ez al dago munduan albiste pozgarririk? Inoiz izan al dogu gaur baino aukera gehiago hobeto biziteko? Izenburu hori mamintsua da, alditxo baten hausnarrean jardun nahi badozu-

–Zu beti ezagutu zaitut herriz-herri sermolari lez, pulpiturik pulpitu, autor-lekuetako ezkutan, beti erlijinozko eta moralezko arazoak argitu nahirik. Orain txiste eta misteka agertzeak ez al deutsu lotsaririk eta konplexurik emoten?

–Ibilian ibilian, lotsabakotu egin naz, gaurko giroan lotsabako asko eta era askotakoak diranez, beste bat gehiago... Gainera nik neureaz maitemin-duta nago, eta hori plazaratzeak lotsa ez, poza emoten deust. Ea gizaldi bateko bizitzaldian aldikada askotako giro eta aro bizi behar izan dodaz; eta neu be sarri "konbertidu" naz. Azken urteotan, eta bizitzaren esperientzi luzea laburbatuaz, hauxe eskeintzen deustut: umetan han-hemen batutako mailukiak ziri baten sartu eta etxeko eta auzoko lagunei eskeintzen neutsezan lez. Baleiteke lehengo hasarrealdiakaz baino frutu hoberik lortutea, adarra joz eta barre eraginez.

–Gaur egun, Eleizea, Herria, Familia, Komentuak... hain egoera larrian ikusita, hori al da eskeintzen dozun laguntzarik egokiena? Baztar danetan hileta joten eta zu baztar guztiei barre eragiten?

–Horixe da, ba, sekretua: Gure artean zerbait dirala uste dabenak itxuraz, jantzieraz eta ibilkeraz euren ikututxoa eukiten dabe: bigotea, trajea, paparreko txintzarriak, kapelea eta holangoak. Eleizan bertan be zer ez! Gogora ekarri gotzainak, Aita Santua, Kardinalak eta abarrek zer txintxirrin eta txontxorren erabili ohi daben. Jakina, holako bat txistea dariola

ibiltea nahiko da goiko maila bateko arduradun ez egiteko. Ebanjelio berbeak "barriona" esan gura ei dau; Jesus beti agertzen jaku eztegu eta konbite mahai inguruan, orduko erara poza, irribarra zabalduz, buztarriak arintzen, neke eta negarrak gozatzen, besterik ez eban bilatzen.

–Holan dala, egoki deritxazu orain Euskalerriko azokara holango azaburuakaz agertzea? Ez al da hori denporea eta ahalmenak alperrik galtzea?

–Ordua izan da, beranduegi beharbada, gizonen harropuzkerien putzezko globoan txistearen orratza sartu eta barru hutsa eta itxura faltsua begibistan ipinteko. Zer dan haundia eta txikia izatea barrutik hasita erakustea. Azalez haundi diranak askotan barruz txikiak dira, eta alderantziz. Txisteak horixe dauka: itxuraz haundi nahiz txiki izan, gixona gixon, katuari mixon. Haundien artekoa da, inori ez baina, bere buruari barre egiten deutzona. Nik beti dot nahiago ondoan lagun irripartsua, betozkoduna baino.

–Barriro be badinotsut: adorea eta arpegia behar dira gaurko giroan Euskalerriko plazara holango eskeintza bategaz agertzeko, gaurko ume, gazte, sasoiko, heldu eta nagusiei barre eragiteko asmoz. Kaxkajotzat ez zaitue hartuko?

–Nobaitek holan badino, beharbada, ez gara urrun ibiliko ez bera eta ez ni. Eta egin daigun barre. Barre egiteko gai dan izaki bakarra gizakia da. Gizakiaren ezaugarrietatik bat horixe da: barre egitea. Negar beste barre egingo bagendu... Egin eta eragin bagendu... Zer dala eta ipini dabez martxan han-hemen "risoterapia" deritxoen zerbitzu horreek? Ez al da gaur apostolutzarik errezena eta beharrezkoena irribarre gozo bat eskeintzea, eta, jakina, eragitea?

–Baina, halan eta guztiz be, izango zenduzan gizarteko sail batzuk, batez be, gogoan, kolokada txiste hau antolatu eta eskeintzean. Ondo dakizunez, txisteak, bestelako gaiak eta idazkerak lez, ez dira bardinak danentzat.

–Egoki zatoz orrazira: nik, baztez be, neure adinekoak –nagusiak– izan dodaz gogotan. Alde batetik urtepean makurtuta, bestetik euren bizitzaren euskarri izan diran ohitura, sinismen eta bizilegeak hondatuta ikustean, gaurko munduko martxari jarraitu ezinean, heurak izan dodaz gogoan. Eta areago: heuren artean ikasi dodaz txiste pila bat, bizitzako esperientzi xebreak; nik batu eta eskeini egiten deutzadaz, barrez iraun dagien, alderdi baltz mingarriak menperatuz.

–Martzel, zuk nik baino hobeto dakizunez, edadetuak barrez ipintea, eleiz batzarretan txisteak kontatzen jarrea, eta hori egiten heurak ipintea... ez dozu arazo makala leporatu! Gizarteko sail horrek asko mugatzen dau zuk landu nahi izan dozun arloa.

–Bai, egia dinozu; laprastada txikia egin behar da, askoren artean, norbaitek txartzat ez hartzeko; baita ganora bakotzat hartzeko be. Pertsona nagusien adina, kulturea, pentsakeria, sinismena, esperientziak eta abar luze bat beti izan dodaz gogoan. Makatz batzuk gordinegiak izango dira batzuentzat, beste batzuentzat helduegiak; bakotxak egin behar bere aukerak; guztien haginak ere ez dira egoera bardinean egoten eta. Gainera, bizkaieraz eta euskera errezean moldatzen ahalegindu naz. Gero bakotxak erabiliko ditu, kontakeran, bere gatz eta piperminak nahastuz. Txisteak egokiago dira kontatzeko, idazteko baino.

–Banoa zure asmoak neureganduten, zure helburuaz jabetzen: "zahartzaro triste" sarri deritxogun aldikada hori zahartzaro alai eta eroangarri bihurtzea. Ez al da holan?

–Bai, bai; baina hori baino zabalago. Gaur zahar diranak eta izateko bidean atzetik datozen danak –eta kontrako martxan ez dabil inortxo be!– jakin dagigun gizakiaren alderdi pozgarri hau jorratzen eta erabilten. Mundua asko aldatu da, baina gizakiaren hutsak eta

putzak bardintsu jarraitzen dabe; orain milaka urtetan lez bardin jarraitzen dogu –eta jarraituko dabe– domiskitukun eta ez tul egiten, atze-aurretik putz egiten... eta egiten ez dau-na txarto ibiliko da.

–Holangorik! Eta lortu al dozu ezer orain arte? Zure esanetatik agerten danez, zure orain-go apostolutza berezia da, osasungarria. Gainera bardin jatorku ondo fededun, ateo eta mateo guztioi. Nori ez jako atsegin barre egitea?

–Egia dinotsut sermoi garratzakaz negar eragitea baino askoz hobetzat daukat gaur sarri entzuten dodana: “Atzo barrezka txisteak entzutean, txixak egin nebazan”, “bart gauerdira arte lo egin ezinik egon nintzan txisteak gogoratuta” “barrezka saihestetako minakaz egon nintzan”.

–Tira, baina ez da hori bakarrik izango ditxosozko Bizian Gora horretan egiten dozuena. Pulamentuzko gaiak be erabiliko dozuez, ezta?

–Bai horixe! Txiste bide honek erein behar dan lurra landu, gozatu eta girotu egiten dau. Eta hau da guk egin behar doguna; hazia erein eta hazia garatzea Jaunarena da, ez gurea. Jesus gure Maisuak be ipuin eta parabola-bide hau asko jorratu eban, “erreinuko misterioak” argitzeko; mahai inguruan sarri ikusten dogu ardua bedeinkatzen eta ugaritzen, konbiteak onartzen eta txastatzen. Baserri munduan esan ohi danez, “lurra bigunago eta harra barrurago”; txistea aparteko atxurra da bihotzak bigundu eta gozatzeko, arpegi ilun zorrotzak birbizteko.

–Neuri be sarri jazo jat berbaldi luze batetik argien ateraten dodan atala, entzundako ipuina edo txistea izan dala; eta hari lotuta dator burura erabilitako gaiaren arrastoa.

–Esanak esan, ezin da adierazo txisteak eta barre bideak daukan garrantzia. Ikargarrizko indarra dauka betozko ilunak argitzeko, saihestak nasaitzeko eta bihotzerreak gozatzeko. Jakintsuak dinoenez, pertsona bat hasarretzen danean, 34 muskulu mobidu behar ditu, eta irribarre egitean 4 bakarrik. Eta kontseju on bat emoten deuskue: “Energia aurreztu egizu, irribarre eginez”.

–Ordua izan da, Eleizearen aldetik be, beste era pozgarriago baten gauzak erakutsi eta egiteko. Pekatua gora eta inperua beheara ibili beharrean, alaitasun, itxaropen eta maitasun atxurra gehiago erabili izan balitz, beste porru batzuk agertuko ziran gure ortuetan. Zu zeu be hauts asko ateratakoa zara sasoi baten.

–Bai, gehiegi zoritxarrez! Baina hori erakutsi euskuen eta... Ordu onean jatsi gara otatik mahai ingurura. Bildurretik maitasunera bihurtu gara; derrigorrez sinistu eta bete beharreko kredo eta moraletik, otoitzean eta alkarrisketaren bidez bilaka jokatze bidean sartu gara. Adarra joz eta alderdi alaiari leku gehiago emonez, asko be pozago eta alkarren hurrago sentitzen gara. Egi danak ez dagoz esanda, eta esandako asko be ez dagoz behar dan lez ulertuta eta erakutsita. Egi potoloak eta egoera korapilatsuak askatu, argitu eta erlatibizatze, txistearen eta irribarrearen orio leuna behar da.

–Nundik eta zelan batu dozuz hainbeste txiste-miste? Ez zenduzan zeuk danak asmatuko.

–Bai zera! Handikoz-hemendikoz aurkitu edo entzun dodazanak dira gehienak. Sarri entzundako hainbeste barregarri ez dodaz sartu, jenteak ondo dakiz eta badarabilz. Jakina, nazana nazalako, eta nabilen jenteagaz nabilelako, aukera batzuk egin behar izan dodaz; kristau sinismen eta Eleiz bizitzako arbolatik batutakoak, San Pedro eta Barrabas eurak be tarteka sartuz.

–Eta zein koloretakoak aukeratu eta eskeintzen dozuz gehienbat? Zure inguruko jenteari kolore danak ez jakoz bardin jausiko.

–Ez ahaztu: ni neu naz, eta neure inguruan ibli ohi dan jentea euki dot beti gogoan. Beraz, hor doaz “zuriak” aingeruz jantzita; gazte maiteminduenak eta ezkonduenak, belarrieta-koak eta eraztunak eta guzti; beste batzuk “gorriak”, Eleizearen, Jaungoikoaren, santuen eta sakramentuen arloan batutakoak.

–Eta “berdeak” eta “marroiak”, Martzel, ez dozuz aitatu. Zergaitik ez dozuz aitatzen? Nagusien begi makalak minduten bildurrez edo?

–Hori be bada ba! “Berdeak” gordin dagozalako, heldu arte itzi dodaz. Banaka bat –gordina, baina gozo helduak– tarteka eta ezjakinean lez sartu dodaz. Zer egingo dozu, ba! Zeharo lotsabakotu barik oraindino ta...

–Benetan aldaketa itzela egin dozu zure apostolutzan! Lehengo bideak eta gaurkoak aurrez aurre jarrita, zeintzuekaz gelditzen zara?

–Lehengoak lehengorako eta gaurkoak gaurkorako. Lehengo pentsakeran eta kulturari, beste esparru guztietan lez, Eleizan be larregi erabilten genduan bildurraren bildurra. Zorionez ulertu dogu Ebanjelioa Barri Ona dala. Astoak be ahalegin gehiago egiten dau artaburua aurrean erakutsiz, atzetik makileaz emonaz baino. Gogoan hartzekoa da Salesko Frantzisko santuak esandakoa: “Euli gehiago harrapatzen dala ezti tanta bategaz, upel bete ozpinagaz baino”.

–Holan dala, zahartzaro ezitsua daroazu, bai zure bizi esperientzian, bai apostolutzan, Bizian Gora bidean.

–Egia dinotsut: nire bizitzan hauxe da aldikadarik pozgarriena eta, nire ustetan, emonkorrena, hauxe agertzen deust nire inguruan dabilen jente guztiak. Lehen izerditan ipinten nebazanak, orain ezitan ipinten dodaz. Askoren hiletak, mainak poz eta adore bihurtzen ahalegintzeak neu aldatu nau. Honetan be eredu maitagarri egin jat Joan XXIII. Aita Santua: irribarrearen gizona, ardurarik astunenak umorealdi bategaz argitu eta arinduten ebazana; bere buruari barre egiteko kapaz zan gizasemea.

–Kontuak kontu, pozik bizi zarala agertzen dozu, zahartzaroan egon arren, ez zarala jubilatatu, sasoiari lez jardunean diharduzula.

–Hori bai gero! Nik suerte haundia izan dot bizitzan. Eta poztasun hau beste askori zor deust. Horregaitik bizitzako gailur honetatik guztiei eskeintzen deust txistez osotutako eztipote hau. Ni hilda gero be, banaka batek behintzat, negar egin beharrean, barre egiten jarraituko dabe. “Praile barre eragile” ez litzake titulu desegokia izango, munduaren eta zeruaren aurrean.

–Eta amaitzeko: San Pedroren bildurrik bai? Gaur herihotzea aitatu be ez da egiten. Heriotzeari ez jako lehen besteko garrantzirik emoten. Sinistu ez edo. Zuk zelari bizi dozu hau?

–San Pedroren bildurra? Bera be beste bat izan balitz, baina pekatari onduentzat ei da zerua. Gainera misterio horreek ez dagoz nire eskuan; eta neuk dakidala eta ahal dodala, holakoei lekuri ez emoten ahalegintzen naz. Hori egin behar dauanak nik baino hobeto daki eta ahal dau. Nirea hauxe da: Jaunak emon ahala urte eta ahalmen, besteei poza emonez eta barre eraginez beterik bihurtu. Harako hari jazo jakona jazo bekita: San Pedrok Juanitori: Zer egin dozu munduan? - Nik gauza gitxi: gehien egin dodana txisteak kontatu eta barre eragin. - Nahiko da, zatoz eta jardun hemen be. Neuri be nahiko sari litxakit, zirriborro honeen eraginez, barre algarak zugar sortuko banitu.

**Besteei barre eraginez
eta neuk barre eginez**



1

Gizona da bat, eta gizona bi

On Domingo abade jauna ekinean dabil dotrina erakusten: Gizona Jaungoikoak buztinez egindakoa dala. Patxo mutikoak:

–Jauna, zelan dino nire aitak tximinoagandik datorrela?

–Hori aitaren kontua da, berak jakingo dau nundik ibili dan.

2

Belenen ala Bilbon?

Gabon jaiak hurrean, eta On Santiago abadeak badihardu Jesus Gizon egina goralduten:

–Begira zein apaltasun haundia Jesusena, Bilbon jaioteko aukerea izan, eta Belenen jaio!

3

Polizi txakurra

Txakurra! Txakurra! Hori da gaurko gorengo mailan dagoana. Eta bakotxak bere gogokoa etxera. Badoa gizon bat kalean zehar txakur tonto bategaz.

Lagun batek badinotso besteari:

–Hori ze txakur mota da?

–Polizi txakurra

–Hain tentel ganorabakoa?

–Badakizu, ba, polizi sekretuarena da ta...

4

Bat zein bi prezio bardinean

Andra-gizonak hasarre bizian kalean zehar. Kittok andreari:

–Zuk ez dozu ezer balio. Existiduko ez bazina lez. Manuelak zitaldurik:

–A zelango leloa izan zinan ni aukeratzean!

–Begira, laster ikusiko dozu. Taxi bat deitu eta badinotso:

–Ni etxera eroatea zenbat kostako jat?

–30 euro

–Eta andrea eta biok?

–Bardin.

–Ikusten Manuela? Zugaz zein zu barik, tratu bardintsua.

5

Oilasko erdia

Jatetxe baten:

- Ekarri oilasko erdi bat
- Itxaron beharko dozu ordu erdi bat edo.
- Zer ba?
- Oilasko erdia ezingo dot hil, ezta?

6

Hau bai gustukoa!

Gure Justo appetitu oneko gizona dozu. Bat, bi, hiru platerkada aitearen baten iruntziko ebazan. Eta bat amaitzen ebanean, beti eskerrona:

- Hau bai gustukoa!
- Patxi lagunak badinotso:
- Ba al dago zuretzat gustukoa ez dan platerik?
- Bai, plater hutsak.

7

Azkarrena beherazkoa

Hiru mutiko beti lez nok baino nok haundiagoa bota:

- Zer da munduko gauzarik azkarrena?
- Patxik:
- Tximista.
- Koxmek:
- Argia.
- Peruk:
- Ez tximista eta ez argia. Beherazkoa azkarrena. Lehengo baten kerixa gainean jaten nengoala, emon eustan beherazkoak. Eta tximista baino lehen etxera joan nintzan, eta komuneko argia biztu orduko, prakak zikin-zikin beherazkoaz.

8

Kotxea norena da etxean?

Patxi, erosi dozuen kotxe barria norena da?

–Neuk baneki

–Zelan ba?

–Zeuk atera kontuak: Garbia badago, andrearena; jaietan, alabearena; hautsez beterik badago, semearena.

–Eta zurea noiz?

–Tailerrera eroan edo multea ordaindu behar danean, orduan da nirea.

9

Azkenengoz jatetxe batera

Harro ebilen Kaxinto jatetxe barria martxan jarrita. Itxura polita eta apainduri asko, baina jatekoa urri, antza. Iñaki Boldro behintzat ez dago konforme.

Kaxintok txeratsu agurtzen dau:

–Zer, gaur lehenengoz ala?

–Ez, azkenengoz.

10

Ur bedinkatuaren miraria

San Felipe Neri-gana autortzera doa Joxepa:

–Gure etxean ez dago bakerik. Senarrak biraoka jarduten dau, beti da hasarre.

–Eutsi botela hau, ur bedeinkatuz beterik; eta hasarratzen danean, ur honegaz bete egizu zeure ahoa eta euki, bera baretu arte. Handik laster eskerronez Joxepa:

–Eskerrak, jauna, oso osagai ona eta merkea da. Hau bakea etxean!

12

Hori da anai arteko maitasuna

Hiru anai ziran alkar maite-maite ziranak. Zapatu arratsaldetan beti alkartzen ziran Txanbolin tabernan garagardo bana edaten. Laster anai bata Parisera joan zan eta bestea Erromara. Baina Prudentziok berak bakarrik hiru edaten jarraitzen eban, besteen izenean. Handik laster bi bakarrik

–Zer, Prudentzio, lehen hiru eta orain bi bakarrik?

–Bai, osagileak neuri galazo egin deust edatea, eta beste bien izenean edaten dodaz bi.

13

Gauzak egoki banatzea

Gizon xeblebre batek lagunartean.

–Gurean erdia ardaua eta erdia ura edaten dok.

–Nahastauta ala?

–Ez, nik ardaua eta andreak ura.

14

Tanatorioan hilaren aurrean

Hila tanatorian eta senideak bere inguruan. Lehengusuen artean:

–Zuk egoera horretan zer entzutea gura zeunke?

–Senar on bat izan nazala, auzotar zintzoa. Besteak:

–Nik enpresa ugazaba ongilea izan nazala.

–Nik haxe entzutea: “Begira, begira, mogidu egiten dok”.

15

“Anden” jarten dau ta...

Baserritarra lehenengoz doa Bilbora, maleta eta guzti. Geltokian han dabil gelditu barik batera eta bestera. Bertako arduradunak:

–Jesarri zaitetz, oraindik denpora asko falta jatzu.

–Ez, baina hor jarten dau “anden”, eta ezin da geldirik egon.

16

Ulea hazteko botika

Gaur egun gizonezkoei ulea asko eta errez jausten jakela ta, ulea hazteko botika bat asmau eben. Propaganda haundia egin eban, baina alperrik; ea inor be ez. Lagun batek badinotso:

–Aldatu egizu propagandako etiketea: *“Gorputzean ulea nahi ez dozun lekuan ez ikutu produktu honegaz”*. Eta hango erosi beharra!

17

Bustita zagozan ezkeru

Gizona menditik busti-busti eginda dator etxera. Andreak atean sartuaz batera:

–Bustita zagozan ezkeru, ekarri egizu iturriko ura. Isilik joan eta ekarri eban eta andreari burutik behera bota eutson, esanez:

–Bustita zagozan ezkeru...

18

Txurruteroen kontuak

Gizon bat eta mutil gazte bat Eibarko Isasi kalean alkartu dira.

–Zu nungoa zara?

–Eibarkoa.

–Ene, baita neu be.

–Zein kalekoa?

–Isasikoa.

–Ez da izango! Neu be bai.

–Eta zein numerokoa?

–25ekoa.

–Holangorik! Neu be bai.

–Eta zein pisukoa?

–Laugarrengoa.

–Neu be bai. Entzuten egoan batek tabernakoari:

–Zer da hau?

–Ez egin kasurik, aita-semeak dozuz; edan ezkeru, ez dabe alkar ezagutzen.

19

Kantzaubako deskantzua

Badira lana amaitu orduko, beste bi aurrean daukezanak; baita badira lana sakratua dala-ta, errespetuz ez ikututea hobetzat daukenak. Horretarikoa dozu Kalixto. Hil zanean bere panteoi gainean hauxe ipini ei eutsen: "Kalixtok hilobi honetan dau atseden: Beti egin ebana jarraitzen dau egiten".

20

Pentsinoa behera, tentsinoa gora...

Kaxinto Pazku oporraldian Saloun izan da. Hurrengo domekaz tabernan lagunartean:

–Zer Kaxinto? Zelan dagoz gauzak hortik?

–Hotelak aurtengoak zirudien; janaria uste dot igazkoa zala, prezioak datoren urtekoak.

21

Eguzkia ala iretargia?

Gizon bi mozkortuta goizaldean etxera iretargiaren argitan. Batek dino:

–Ze eguzki ederra zeruan! Besteak:

–Hau iretargi biribila! Hirugarren bat mozkorrago kalean aurkituta:

–Zu, hor ikusten gagozan hori, eguzkia ala iretargia da?

–Nik ez dakit, ez naz herri honetakoa.

22

Taxistak aitearenka baten

Abade santu bat badoa zerura, eta San Pedrok bigarren iladan ipinten dau.

Gero txaxista bat helduten da eta lehenengo iladan. Abadea kexaz:

–Zelan da hau? Baztarrak apurtzen ibili dan hau lehenengo lekuan eta ni hainbeste urte...?

–Hara, zure sermoitan jentea lotan ipinten izan dozu, eta honek, ondoan ikusi orduko, danak aitearenka ipinten izan ditu

23

Osasuntsu hil beharra

Ez zan ondo sentitzen Kerman. Baina osagileak ez eutsan txarrik ezer aurkitzen:

- Ez izan bildurrik! Ondo zagoz: bihotz, guntzurrun, biririki...
- Ederto! Holan dala, ni osasuntsu hilgo naz, ezta?

24

Esana egin ezkerro...

Peru osagileagana doa. Honek ondo begiratu ondoren:

- Oso ondo aurkitzen zaitut, Peru; lehen baino itxura hobea daukazu.
- Jakina, eukiko ez dot ba, zeuk esandakoa bete ezkerro?
- Zer esan neutsun ba?
- Botika fraskoa ondo itxita eukiteko. Zabaldu be ez dot egin.

25

Ahoa zabalik ala itxita

Andrea osagileagandik etxeratu zanean, senarrarari:

- Zenbat sufridu dodan!
- Zer ba?
- Ordu bi ahoa zabalik euki nau
- Gehiago sufriduko zenduan, itxita euki izan bazendu.

26

Andra pobre bati mesede

- Ama, 10 euro emongo deustazuz?
 - Zetarako behar dozuz?
 - Andra pobre bati emoteko.
 - Semetxo, zuk daukazu bihotza!
- Jakin leiteke nor dan andra pobre hori?
- Dendako gozo-saltzailea.

27

Burusoilari ulea ebagiten

Burusoil bat ulea ebagitera doa. Eta hainbeste ahalegin eginda gero, ule zapadunei beste eskatzen deutso. Kexu da mutil hori:

- Zelan kobratzen deustazu besteai beste, hain ule gitxi eukita?
- Zuri ez ulea ebagiteagaitik; uleak harrapatzeagaitik baino.

28

Probetxuzko operazinoa

Osagile bi alkarregaz komentatzen:

- Zenbatetan operatu dozu gizon hori?
- Hogei mila eurotan.
- Ez deutsut hori itandu: zer eukan ba?
- Horixe, hogei mila euro.

29

Judasen irudia erromes

Parroko zaharra gaixorik eta biharamonean errogatibak. Sakristauak santu bat hartu eta hor doaz solorik solo. Sekulako euri zaparradea! Guztiak bustita etxera. Aitak semeari gauzez:

- Zein santu atera dozue? Sakristira eroanda:
- Hauxe, aita. Aitak eskuak burura eroanda:
- Judas aterako zenduan ba!

30

Astoak ere danetarikoak

Misiolari bat ministroagana limosna eske: eleizatxo bat egin nahi eta dirurik ez. Ministroak adarra jo nahirik:

- Zelangoak dira zure herrian astoak?
- Batzuk txikiak ni langoak, eta beste batzuk haundiak, zu langoak.

31

Itsua ala leloa hobe?

Abade batek hasarre bizian dinotso andra pinpirin bati:

–Zuok andrazkuok, zergaitik engainau gura dozuez gizonezkoak zeuon itxureaz eta ez zentzun gehiagogaz?

–Normalago dalako gizonezkoak leloak izatea, itsuak baino.

32

Errezetea ez da errezatea

Andra bat farmaziara doa eta ugazabari egiten deutso eskaria:

–Ea, ekarri egidazu arseniko botika.

–Ezin deutsut emon, hilgarria da.

–Neure senarra hilteko da.

–Holan bada, gitxiago. Orduan argazki bat erakusten deutso: bere senarra farmazeutikoaren andreari mosu emoten.

–Ene ba! Parkatu, ez nekian errezetea be bazeunkala.

33

Margolari trebea

Pintore batek:

–Ni kapaz naz pintzelada bategaz barrez dagoana negarrez ipinteko. Entzuten egoan mutiko batek:

–Nire amak hori eta gehiago egiten dau eskoba kirtenagaz.

34

Andra eta gizon... kirieleison

Gizon bi alkarregaz berbetan. Batek botaten deutso:

–Gu biok ezkondu ezkeru, zenbat lagun izango gintzatekez berbetarako?

–Halako zera! Bi.

–Bai zera! Hamar: Kontuak atera: Zu eta zure andrea, bi; ni eta nire andrea, lau; zure andrea eta ni, sei; zure eta nire andrea, zortzi; eta gure andra biak, hamar.

35

Mozkorrak doble ikusten

Semeak aitari:

- Zelan ezagutzen da bat mozkortuta dagoana?
- Errez, seme: doble ikusten danean.
- Bai, e?
- Hara, han gizon bi datoz, mozkorrek lau ikusiko leukez.
- Ene aita! Baina gizon bakar bat baino ez badator.

36

Jenio txarraren seinalea

Gizona osagileagana, buruan koxkor bat daukala ta.

- Hau jenio txarraren seinalea da.
- Bai, egia: atzo andreak erratz kirtenagaz jo ninduan hasarre.

37

Hainbeste karolina eta virginia

Lagun batek Kontxiri:

- Gizona itzi ei dozu.
- Bai, Estatu Batuetara joan zanetik, hor ibili da Karolinitik Georgiara, Geor-
giatik Virjiniara...
- Zeuk zer egingo zeunke?
- Dabilela, bere gustura bada, hainbeste Karolina eta Virginia...

38

Argia argi ibiltzen da

Aita hiltorian egoan. Hiru seme, baina diru gitxi. Deitu hirurei eta:

- Ezin dot dirua hiruron artean banatu, gitxi da-ta; dana hirurotan trebeenari itziko deusat dana:
- Hor mahai gainean hiru txanpon. Horregaz etxea beteten dauanari emongo deusat dana. Lehenengoak lastoz bete nahi, baina ezin; bigarrenak lumazko zakuz, baina ezin; hirugarrenak kandela bat erosi eta argiz bete eban etxea.

39

Nork bista hobia

Beti ebilzan apustuan hiru lagunok. Gaur nok bista hobia zan apustua. Batek, dino:

- Herriko eleiz torrean uso bat ikusten dot. Bigarrenak:
- Bai, eta buruan zorri bat dauka. Hirugarrenak:
- Gainera arra da.

40

Jateko arina

Osagileak gaixoari: Gaurtik jateko arina behar dozu. Handik astebetara joan eta:

- Mediku jauna, gaur lehengo astean baino txarrago nago.
- Zer jan dozu?
- Berorrek esandakoa: jateko arina, erbia eta holangoak.
- Ez neutsun esan, ba, zerbait arina?
- Eta zer? Erbia baino arinagorik zer?

41

Gero eta punteri hobia

- Epaile jauna, ezin dot gehiago andreagaz.
- Zer ba?
- Aspaldiko urteetan etxeko plater danak nire buruan apurtzen ditu.
- Eta orain arte zer egin dozu etorri barik?
- Trankil egon naz, baina gero eta punteri hobia dauka.

42

Zenbat da minutu bat zeruan?

Peru zerura joan da:

- Eup! Pedro, zenbat da hemen miloi bat urte?
- Minutu bat beste.
- Eta miloi bat euro?
- Zentimo bat beste.
- Emongo al deust zentimo hori?
- Bai, hemengo minutu bat itxoiten badozu hor atean.

Atzetik zidarra, aurretik simaurra

Kezka bat eukan Perikok:

- Pobre batengana joan eta pozik hartzen zaitu; aberats batengana joan, eta jaramonik be ez. Zer dauka diruak? Lagun zintzoak erantzuten deutso:
- Begira leihotik plazara; zer ikusten dozu?
- Ama bat, karrutxoan umea daroala.
- Orain begira hor hormako ispilura:
- Zer ikusten dozu?
- Neure burua.
- Horixe da bien arteko aldea: Leihoan kristal garbia dago eta gauzak diran lez ikusten dira; ispiluko kristala aurretik garbia, baina atzetik zidarra; eta zeure burua bakarrik ikusten dozu orduan. Ulertzen?

Evaren sagarraren abisua

Joan XXIIIa Parisen Nuntzio zala jazo zan. Behin bazkari oparo batera konbidatua izan zan. Ondoan andra pinpirin bat suertatu jakon, papar-zangoak begibistan. Nuntzioak sagar bat eskeini eutson.

- Eskerrik asko, monseñore, hauxe da gustatzen jatana.
- Baina hau sagar berezia da.
- Zer ba?
- Hau Evaren sagarra da: jan ebanean konturatu zan biluzik egoala.

Enterratzailea gosez hil

Jauntxo kapeladun bat herri koxkor batera hurreratu zan, eta bertako taberna baten sartu. Zeozetatik hasi behar ta:

- Zer? Herri hau sanoa izango da, ezta?.
- Bai, urteak dira inor hil ez dala. Eta berbea amaitu orduko, funeraria autoa paretik kanposantura.
- Eta hori zer da, ba?
- Hori enterradorea da; inor hil ez eta bera gosez hil da.

46

Ondo beharrez... umea negarrez

Aita-semeak eskolako “deberrak” egiten etxean. Aitaren afana, egiten ahal dana! Azkenean badinotso semeari:

–Kontuz, gero! Maisuak ez dagiala igarri nik lagundu deutsudana. Eskolatik etxerakoan, semeak aitari:

–Aita, konfiantzaz, baina maisuak igarri deutso bakarrik ez dodazala “deber-
rrak” egin.

–Zelan ba?

–Hauxe esan deust:

–Harritzekoa da pertsona batek bakarrik hainbeste disparate botatzea”.

47

Azkenengo mosua ere ahaztu

Kaxintok 100 urte betetzean, hor joan jakoz agintari eta kazetariak. Kazetari baten ausardia kontuan hartzekoa da:

–Kaxinto, zure edadera ezkeru, hartu zenduan lehenengo mosua ere ahaztuko jatzun.

–Hori baino txarrago: azkenengoa ere noiz hartu dodan ahaztu jat.

48

Bedarrez egindako gurina

Lurjota gelditu dan “indiano” bat dozu Periko. Zeozetara jo behar, eta hauxe asmau eta lau haizetara zabaldu eban: “Harritzekoa, baina egia! Bialdu egidazu 10 euro eta erakutsiko deusut zelan egin gurina bedarrez”.

Milaka eskabide heldu jakozan. Baita berak bialdu ere abisu hau: “Erosi landa eder bat; eta gero behi pare bat; eta eroan behiak jatera. Handik batuko dozu esne zuria; ondoren ondo landu eta lortuko dozu gurina gozoa”.

49

Amaginarrebari txakurrak: umm...

Mendigain baserrian amaginarrebak odol-beroa dauka, baina atariko txakurrak hezi dau pixka bat: lehengoan ia-ia haginka egin eutsan. Harrezkero ikusten dauan bakotxean, haginak erakusten deutzaz, musika eta guzti. A zelango bakea! Auzoko batek jakin dau eta hor da txakurra erosi nahian: –Pontxio, zenbatetan saltzen deustazu txakurra? Gurean ere behar dogu holango bat, zeregin bardinerako.

50

5.000 urte hilda eta... baebilen

Arkeologo bat heldu da ostatura, han inguruko kobazuloak arakatzera, aintxinako hazur eta harrien arrastoen bila. Ostatuko etxeoandreak gauero egiten dau beragaz kontualditxo bat:

–Eta gaur zer aurkitu dozu?

–Gaur aurkitu dot orain 5.000 urteko andrazko baten matraila hazur bat.

–Zetan igarri deutzazu andrazkoarena dana?

–Oraindik baebilen...

51

Berba asko eta zeresan gitxi

Gizon bi etxeo kontuak alkarri kontaktzen:

–Gure andreak dana aitzen dau; edozeri buruz berba eta berba ekiten deutsa ordu luzeetan.

–Gureak bost ordu berbetan jardunarren, ez dau ezer ere esaten.

52

A zelango teatru xelebrea!

Badoa gazte bat teatrua ikustera eta atso biren erdiko jesarlekua hartu dau. Hasieratik atso bien marmarrak ez dauka azkenik; gorraizeak eraginda edo, gero eta zaratatsuago jarduna. Halako baten mutilak badinotse:

–Mesedez, ezin dot ondo entzun (belarrian eskua ipinita).

–Halako lotsabakoa berau! Zuri zer ardura deutsu gure konturik?

53

Txakurrak berak badaki ala?

Kaleume bi badoaz mendi aldera. Baserri baten ondotik pasakeran, hango atetxakurraren zaunka eta amorrua, kateak eten beharrean! Euretariko batek bildurtuta:

–Ni banoa atzera, txakur honek...

–Zagoz isilik! Ez dakizu ala zaharren esaerea: Txakur zaunkaria, ez da hagin-karia?

–Bai, hori holan da; neuk be badakit, baina... berak badaki hori?

54

Gauerdiko telefono deia

Gauerdian telefono deia:

–Gauon! Hori al da

56.43.78.10 telefonoa?

–Parkatu, baina ez dozu bat ere igarri.

55

Txiki jaio eta txiki hil

Haundiki bat, kapela, bigote eta guztikoa, joan da herritxo batera. Eta plaza ertzeko taberna baten sartu da zeozer hartzera. Han dagoz gizon abarkadun batzuk kontu kontari. Kapeladuna sartzean, danak mutu. Zeozelan hasi behar ta, itandu deutse kanpotar horrek:

–Zer, herri honetan jaio al da gizon haundirik? Halako baten jaso dau baten erantzuna:

–Ez, ba, Bilbon eta Donostian lez, hemen ere danak txiki jaioten dira.

56

Herrena! Herrena!

Errapel betiko korrikalaria da San Perminetan zezenen aurrean. Herren egon arren, urtero hantxe adar puntetan. Behin agertzen da kalean behera trinki eta tranka herrenka, eta zezenak hurrean. Jentearen txilioak:

–Herrena! Herrena! Ernegau dau herrenak eta orroaka badino:

–“Zagoze isilik! Aukeratu dagiala zezenak berak adarrak nori sartu.

57

Hori hizkuntza internazionala da

Badakizu Peruk eta Andonik zer gorabehera izan eben Parisera joanda? Peru txapelzalea da, ohera ere txapel eta guzti joango zan. Ederto janda gero, kalean zehar doazela haize bolada gogor batek ez deutso, ba, txapela burutik eroan! Txapel barik ez da gizona. Dendara joanda, prantzez jakin ez...Andonik badinotso: Neuk dakit pixka bat: berba gehienak "e" amaitzen dira. Dendan sartuta:

- Boiné negré para el cabecé?". Dendariak tutik ere ez. Badoaz baztarrak ikusten eta Peruk ertz bat jota, halako zarata xelebren batek urteten deutsa.
- Zu, kirtena da bat, eta lotsabakoa izatea beste bat
- Txapela zer dan ez dakianak ez daki uzterra zer dan ere. Eta dendariak:
-Qué marrano!"
- Ikusten dozu? Zure berbeta hori internazionala dozu
- Banengoan, ba, haizea aldatu ezkerre, idioma ere aldatu egiten dala.

58

Zurrungaka itzartu

- Egunon, Pedrotxu! Eta? Zek ekarri zaitu nigana?
- Hara, osagile jauna, gaueko nire zurrungak ez deuste lo egiten izten.
- Hori normala da behin edade batera ezkerre.
- Baina txarrena neu itzartuten nazala.
- Errez daukazu, beste gela batera aldatu.

59

Osagile trebea

Badoaz ama-alabak osagileagana. Hasieran esaten deutoenetik osagileak uste dau gaixorik dagoana alabea dala. Eta badinotso:

- Ea, erantzi zaitetz.
- Ni ez, jauna, nire ama da gaixorik dagoana
- Tira, ederto! Joxepa, atera mihina.

60

Burutik ahora

Ule moztaille bat da gaurko txandakoa, Joxemiel. Osagileak aztertu dau eta abisu zehatz bat emoten deutsa.

- Gaurtik ezin dozu buru-beharrik egin
- Ene ba, galdu naz, jauna! Eta zetatik biziko naz?
- Abogadua edo zara ala?
- Ez, ule moztaillea.

61

Etxean ekatxik latzena

Kazetari batek Pontxio itsas gizon jubilatatu bategaz:

- Zuk, Pontxio, zenbat ekatx gogor jasan ete dozuz itsasoan hainbeste urte-tan!
- Bai, asko izan dodaz latzak eta baltzak; baina latzena 1927. urtean. Txina, Japon, Errusia eta mila baztarretatik ibilita, familian sartzeko egarri bat bai! Banator etxera, eta gura barik jausi jatan lurrera ahoan nerabilen puru hondarra
- Eta?
- Eta dinozu? Horixe ETA: sua batetik kea bestetik, hango olatu eragina! Aspaldiko urteetan jasan dodan ekatxik mingarriena etxean, andreak zapuz-tuta.

62

Eskatu bai, eta emon ez...

- Zu, Ander, nire andrea beti dabil dirua eta dirua.
- Zetarako behar dau, ba, hainbeste?
- Ez dakit, nigandik ez dau inoiz ezer jaso ta...

63

Ustebako abisua zerutik

Jesus burumakur doa eleizara, alargun gelditu dala-ta, urteerako mezara. Kanean doala, teilatutik teila bat gainera. Hutsagaitik salbau da. Eta Jesus hori barrezka hasten da.

–Zu, zelan dozu hori? Lehen burumakur eta orain ia jota garbitu zaitu teileak eta barre?

–Egingo ez dot, ba, barre? Hor egon naz aste osoan larri: nire Joxpinixi gora ala behera joan ete dan? Eta hona hemen abisua teila eta guzti: Goitik da, antza

64

Gizona baltz, andrea zuri

Austintxok urteak daroaz monagilotzan. Behin amari agertzen deutsa bere kezka sakona:

–Ama, zergaitik doaz ezkontzara mutilak baltzez eta neskak zuriz jantzita?

–Bizitzako egunik pozgarriena dalako

–Ederto! Eta mutilak enterrura doaz ala?

65

Ikusi barik ezin izan testigu

Kasilda harrituta doa juezera, goiko bizilekuan andra-gizonak alkar joka eta hil beharrean dabilzala salatzer. Egin dabe batzarra eta han da Kasilda testigutzat deituta. Juezak:

–Zer, noiz eta zelan ikusi dozuz?

–Ez, nik ez dodaz ikusi; baina luzaroan sentidu dodaz inpernu bizian.

–Ikusi ez badozuz, ez dau balio zure testigutzak. Deabruak hartuta urten dau Kasildak juezaren aurretik. Baina amorruez atean eztropezu eginda, zereko zeretik zaratatxo batek urten deutsa. Juezak deadarka:

–Lotsabako halako hori!

–Zer, ikusi dozu ala?

–Ikusi ez, baina entzuteko modukoa bota dozu.

–Ikusi ez badozu, ez dau balio zure testigutzak.

66

Askoren askak zerbitzen

Miren baserri neska ederra jabetxe batera joan zan neskame. Etxekoandreak jakitun ipini eban zer lan izango eban:

–Hemen asko izango dozuz zerbidu beharrekoak, Miren.

–Ez ikaratu, ni lehendik nago ohituta askori jaten emoten.

–Baserri baten?

–Bai, bai: 12 pertsona eta 20 txarriei; eta hori egunean hiru bider eta urteko egun guztietan.

67

Astoa maisu

Abere-piztiak maisu-maistra onak doguz, eurei ulertzen jakin ezkerro. Gaur nor izango? Eta astoa dogu maisu. Jontxu harri ta horma eginda dago, astoa-ren atzetik sarri ibilita –batean bedarretan, bestean errotara– beragan ikusi dauanagaitik:

–Aita, zelan leiteke hau egia izan: astoak ipurzuloa biribila euki eta handik botaten dituan pastilak kuadratuak izatea?

–Bai, fabrika marka xelebrea da, seme.

68

Buztanetik tira, haginak erakutsi

Petra Kakamerke harro daukazu Pintxo bere txakurtxoagaz: buruan uletxorta polita eginda, lepoan tapagarri dotorea, hanketan kaltzerdi eta guzti. Eta ulezapa bat bai! Ez begirik, ez ahorik ez jako ikusten. Mutil batek begira-begira, badinotso Petrari:

–Jakin leiteke txakur horrek nun daukan ahoa?

–Oratu eta tira egiozu buztanetik eta berak erakutsi deutsu nun daukazan haginak.

69

Ai lorito, lorito, lumatu eta kito

Gure Joxantoniok, Amerikan izanda, lorito bat ekarri deutso amari. Handik hilabetera zelan dagoan ikustera joan zanean, badinotso amari:

–Eta gure lorittoa zer?

–Zer dinozu? Aste bitan jaten ondo emon neutsanean, berba motzak esaten ez jatan, ba, hasi? Oratu, lumatu, prijidu polito, amen Jesus eta kito.

70

Dieta da bat eta menua bi

Itsasertzeko herri baten, abadea lagunartean zurrutatatxo bat hartzen egoan. Hor nun aurretik zeharkatzen dan neska gazte galant bat, goitik zapa luzea eta behetik gona motxak ebazala. Bera ikusita, abadeari berehala urten eutson: Hori da poxpolina! Mahaiko lagunak badinotso:

–Zer? Nik uste neban zuok abadeok holango gauzei ez-ikusit egiten deutezuela. Bai agudo erantzun abadeak:

–Dietan egon arren, menuari begiratzea ez daukagu galazota.

71

Zerura baino lehen etxera

Halako ume taldea eukan On Kasimirok dotrina

orduan! Gaur zerua zer dan argitzeari emon eutson. Amaieran dator itauna:

–Nok nahi dau zerura joatea?

–Nik, nik, nik... bazan han eskua jaso beharra! Batek izan ezik.

–Eta zuk, Luisito, zergaitik ez?

–Nik ezin baietzik emon; amak esan deust seiretarako etxera joateko.

Zortzi errial... dos peseta

Azoka-perietan hamaika esan eta entzuten da! Euskaldunen erderakadak eta ostikadak jasoteko aukera ederra! Hor dozu Antoni Gernikako azokan. Bajatorko erdeldun bat eta dozena porrua zenbat dan itanduta, erantzun zuzena:

–Sei erreal

–Hable usted en cristiano

–Dos pesetas. Han entzuten egoan batek:

Antoni, sei erreal peseta bi?

–Zer ba? Eta erderazkoa euskeraz jartea neuri kosta jatana?

Aukera maukera...

Lagun bi jatetxe batera bazkaltzeko asmoz. Txuleta bana eskatu dabe. Joxto-mingok laster oratu deutso haundienari. Txanton ez dago konforme:

–Zu, konfiantzaz dinotsut: Holangoetan, lehenengo hartzen dauanak txikiena aukeratzen dau. Ez dozu, badazpada, txuleta txikiena hartu.

–Zeuk lehenengo hartu bazendu, zein hartuko zenduan?

–Nik txikiena.

–Hor daukazu, ba, edukazino eta guzti. Hainbeste kopla!

Jakin guria ez da jakituria

Jubilatuak a zer sosegatu ezina! Hor doaz Jerolimo eta lagunak Madril aldera. Museo batera joanda, hango pinturak eta kuadruak!

Laguntzen deuten gidariak, zirriborroz beteriko kuadru baten aurrean badi-notse:

–Hau landa zabal bat da eta behiak dabilz bedarra jaten. Jerolimok buruan azka eginda:

–Baina hor ez badago bedarrik.

–Ez ba, behiak jan dabe ta.

–Eta behiak nun dagoz?

–Zetan egongo dira, bedarrik ez dagoan lekuan?

Dozenaka eltxoak enterrura

Madril eta Toledo, baztarrak ikusita etxera gero... Kanpotar bat etorri jako Felipari ostatura, gaua igaroteko asmoz.

–Ba al daukazu oherik libre gauerako? Baina ez daitela egon ardi korotzik ere, gero...

–Ez, ez; esatea ere! Bat aurkitu dot eta bertan akabatu. Hurrengo goizean kanpotar hori begi gorri eta guzti jagi da, gauez ez dauala lorik egin, esanez. Felipak irribarrez egunon esanez agurtu dau

–Egunon dinozu? Zeuk eukiko dozu, nik ez behintzat

–Zer jazo jatzu?

–Zuk esan zeustan ardi bakarra akabatu zenduala; ba, nik gau osoan dozenaka akabatu dodaz. Horreek neuk hildako bakarraren hiletara etorriak izango ziran.

Etorri barria naz

Gizon bat jausi da laugarren pisutik kalera. Inguruan dabilen bat hurreratu jako:

–Zer jazo da? Jausi dana aienaka baten. Azkenerako ernegatuta:

–Ez dakit, oraintxe heldu naz ta.

Inori barre egin baino lehen...

Bai, bai: barre egin baino lehen, ikusi eu zelan habilen... Bernardo belarri haundiakaz etorri zan mundu honetara eta, jakina, haundiagotzen joan jakozan. Behin baten, lagun batek burlazahar badinotso:

–Belarri horreek ez ete dira haundiegiak gizon batentzat?

–Eta zureak, Peru, ez ete dira txikiegiak asto batentzat?

Astoa ala ni fidagarriago?

Iñakiri asto-behar bat sortu jako baserrian; baina astorik ez etxean. Auzora joanda:

- Zu, Anton, itziko deustazu astoa ordubeterako?
- Bai, pozik be, Iñaki, baina ez daukat etxean. Agurtzeko dagozala, hor un astoa korta baztarretik arrantzaka baietz esaten. Orduan Iñakik:
- Eta hori zer da?
- Zeuk esango deustazu, Iñaki: Astoaren arrantzeari ala gizon baten berbeari sinisten deustazu lehenago?

Garraxiaren prezioa

Balen neskazaharra dentisteagana doa. Holakoetan ohi danez, itzelezko garraxiak boteaz. Garraxi haundiagoak atera ebazan azkenean papereko kontua ikusi ebanean:

- Nik hau dana ordaindu? Inundik inora ere ez!
- Egia esan, zeuregatik bakarrik gehiegi izango zan; baina hor egon diran bostak, zure garraxiak entzunda, ihes egin dabe; eurenak ere zure lepora datoz.

Hobe solteru, ez prisioneru

Eusebiok 50 urte eta solteru jarraitzen eban. Sei urtean ibili zan neska lagun-tzen; baina betiko itzi eban. Soldau lagun batek, ikustera joanda, jakin guraz:

- Zer, solteru jarraitzen dozu orandik?
- Bai, oraindik eta betiko.
- Zer ba?
- Hara, neska lagunak neure urtegunean korbata bat oparitu eustan. Bera jantzi eta banoa beragana harro eta pozik. Ez neban, itxuraz, bere gustura ipini, eta harek bota eustazan botatekoak: Ganorabako, buruhaundi, astokirten... Bertan korbatea askatu eta entregau neutsan: Eutsi, txotxin horri, zoaz korbata eta guzti. Ikusten dozu zergaitik nagoan holan. Holan ere ez dozu dana zeru, baina hobe solteru, baina ez prisionero.

81

Jesus emakumeei agertu

Josuk dotrinatik etxerakoan, aitari itaun sakon bat egin eutson:

- Aita, Jesus berbiztu ondoren, zergaitik agertu jaken lehenengo emakumeei?
- Seguru ez nago, baina uste dot hauxegaitik izango zala: Emakumeei esanda, bere biztueraren albistea arinago zabalduko zalako baztar guztietara.

82

Eguneko arrautzak

Bixenta errimea da azokara joan-etorritxoa egiten. Erakustekoak egoten dira eroaten dituan arrautza gorri-gorriak! Begira-begira dagoan batek:

- Zer, Bixenta, arrautza honeek egunekoak dira?
- Bai, Paula, nik dakidala, gurean oiloak arrautzak egunez ipinten dabez.

83

Ispilua salatari ziurra da

Edurne neskatan pertxanta pinposa izandakoa da. Orain 84 urte eder hartuta pozik, baina bera zimel. Sasoi haretan, inguru haretan behintzat, ez zan ispilua ezagutzen. Bere urteguna zala ta, ispilu bat erosi eutsoen, eta gauez, berak jakin barik, gelan jarri. Edurnek, jagi orduko, ispiluan agertzen dana ikusiaz batera, badino:

- Ni ere ez nago pinposa, baina zu ere ez zagoz larrosa.

84

Gizonaz probatu, andreaz amaitu

Leonardo maisua matxista hutsa zan. Beti ebilen emakumea zelan azpiratuko, bere lepotik adarra joz. Baina, ibili eta ibili, aurkitu eban bere neurriko matrakea.

- Ea, Marikontxi, zergaitik egin eban Jaungoikoak lehenengo gizona eta gero andrea?
- Argi dago, Leandro: Jainkoak lekenengo gizonagaz proba bat egin eban, eta gero, akatsak kenduta, andrea, gizonarena hobetuta.

85

Lana sakratua da, ez ikutu

Alperrari nok lan eragin? Lehenago eskera jo edo gosez hil. Zeuk kontuak atera:

–Mesedez, gose naz, zerbait jateko?

–Lan egizu eta eukiko dozu zer jan.

–Bai, baina lan eginda, lehen baino gose gehiago. Erremedio eskasa

86

Egunez atsedeen, gauez lo

Langile bat beti “bajan”. Halako baten, Patxi bere lagunak badinotso:

–Zer, orain ere “bajan”? Zer daukazu, ba?

–Lunvago edo

–Um! “lun” hori kenduko jatzu gaur ez bada bihar; baina “vago” hori kenduko deutsun medikurik ez da jaiio.

87

Praile jantzi zeruan sartzeko

Antxolin eibatar behargin bat zan. Txanton bere laguna sozialista amorratua.

Antxolin hil zala entzun ebanean, hor doa dolumina agertzera. Eta ez dau,

ba, praile jantzita aurkitu atautean? Halako errespontsua bota eutson: Ai

Antxolin, Antxolin! Eure bizitza guztian beharra besterik egin ez, eta orain,

zeruan sartzeko, praile jantzi behar... Ederra egin deutsue!

88

Euliak hilteko hautsak

San Antonio egunez ze jentemodu ez da batzen Urkiolan! Kinkaileru, denderu, erroskileru...nahi beste bezeru. Behin gailegu bat zan, euliak harrapatzeko hauts kutxatxu batzuk saltzen ebazan. Bai agudo saldu ere baserritarren artean. Etxera joanda auspoagaz putz eta putz, hautsok zabaldu, eta euliak lehen baino bixkorrako, bat bera ere jausi barik. Baserritarren amorrua:

–Ederra sartu deusku; euliak barik, geu harrapau gaitu. Barrriro agertzen bada... Hurrengo urtean ere hantxe. Inguratu dabe, kontuak eskatzeko asmoz. Gailegu harek berak bai hautsak:

–Zelan egin dozue? Entzunda gero, horra bere erantzuna:

–Holan ez; holan baino: “Cogilis musquis, abrilis buquis, metilis pulvis, tutilis mortis”.

Ezetz sei sardina baraurik jan

Euskalduna beti izan da apustu zalea. Eta berotu ezker, zer ez jokatu? Hemen dozu Joxe Kankakilu, luzea baizen alper haundia. Behin lagun batek apustu egin eutson: Ezetz jan sei sardina baraurik. Bai laster eta binaka gain-era. Baina laugarrena jan orduko, apustu lagunak gelditu eban, esanez: Galdu dozu apustua; lehenengo sardineaz hausi dozu baraua.

Hirurok huts egin dogu

Mutil gazte bi baserri jauntxoan semeak –nok mediku karrera hobea egingo, joan dira: Jon Ingalaterrera eta Mikel Madriler. Amaituta badatoz etxera eta Bilboko Arenalean topo egin dabe. Batak baino besteak nota hobek ateratzen dabezala-ta, harro. Afaria jokatu dabe: Euren aurrean hanka zabalka doan aitita horrek zer gatz daukan. Jon hasten da:

–Horrek lepozurra halako lekutik izurratuta dauka. Eta Mikelek:

–Bai zera! Horrek guntzurrunak daukaz jota. Berari itanduko deusagu: Aitita, parkatu, gu mediku karrera eginda gatz; apustu egin dogu zuk zer gatz daukazun holan ibilteko. Honek lepozurrera jo dau, nik, oster, guntzurrunetara. Zer dinoskuzu?

–Ene semetxoak! Zuok eta neuk, hirurok huts egin dogu; neuk ere putza zala uste neban eta zirinak urten deust.

Hila hilik, bizia bizirik

Txomin hil dala eta, "petrikilo" baten bila dabilz, medikuak osatu ezin izan dauana ea berak osatzen dauan. Ahaleginak egin arren, ezin. Baina danak erregu eta erregu, eta petrikilo horrek ekin deutso barriro izerditan:

–Ekarri baso bete ardau. Arnas baten iruntzi dau.

–Ekarri beste bat. Eta bardin. Boteila bete txanpan ere ekarri eta zurrut eta zurrut, hustu eban. Azkenean ondo berotuta, biboteak igurtziaz, agurtzen ditu:

–Orain bai, orain sinisten dot hilda dagoala. Eta...petrikilo bizirik!

92

Medikurik mediku poltzia siku

Pedro Mari luzaro dabil medikurik mediku. Jatekoak gatx egiten deutso.

Batak hamarretan jateko, besteak hamabietan. Baina gero eta txarrago. Lagun bati agertu deutso:

–Zu, zein da jateko ordu ona?

–Hori jakiteko ez da medikurik behar: aberatsak nahi dauanean, pobreak ahal dauanean

93

Nahi izatea ahal izatea

Pedro Baltz begietatik txarto dabil. Osagileak behingoan ebagi gura deutso:

–Gaurtik ezin dozu ardaurik edan, likorrik gitxiago. Dirurik ez eukan ordaintzeko, eta bere etxera konbidatu dau bazkaltzera. Eta haren ardaua edan beharra! Pedro Baltz harrituta:

–Osagile jauna, dirudienez, zu ni baino txarrago zagoz begietatik, eta hori da ardaua edan beharra.

–Baina nik ez daukat osatzeko asmorik, zuk lez.

94

Hiru mediku onenak norbere eskura

Medikuak hau eta medikuak hori, euren lepotik mila histori. Baina euren artean ere danetarikoak dira. Hor dozu Joxemiel zuzen eta zintzoa. Oraingoan Joxemiel bera dago hiltzen. Hiru mediku lagun daukaz ondoan eta jentetza haundia ondoko gelan. Eurei zuzenduz badinotse:

–Nire ondoren hiru mediku onak izten deutsuedaz. (ez da esatekoa hiru mediku laguneren poza!)

–Esan, esan, Joxemiel, zugar dogu uste osoa. Eta Joxemielek hatzamarrak erabiliz, hiru osagileen izenak emoten:

–Bat, ura; bi, ariketak; hiru, dieta.

Gatxa besteei ezarri eta errabaja

Eskola bateko ume danak elgorriak jota osagileagana. Pernandoren semetxoa lehenengoa izan da. Ordainketa eguna etorri danean, Fernando pozik doa osagileagana:

–Zeozertxo errebajauko deust, ezta?

–Zer dala ta?

–Hara zure oraingo irabazirik gehienak neure semeari eskerrak izan diralako.

–Zelan dakizu hori?

–Bai, bai, berak ezarri deutse elgorria eskolako lagun guztiei.

Ondo urten dau: baina mundutik

Julen ez dabil ondo; gatx batek menperatuta dabil. Guztiak dinotsoe ebakuntza egiteko, ondo urtengo daua ta. Batez ere, bere lagunik haundienak, Lontxok:

–Neuk ere egin neban, eta hemen naukazu. Julen baietzera jarri zan: mahaian etzunda, besotik injekzinoak sartu eta apurka iluntzen doa. Eginak eginda, argitzen doa:

–Hemen nozu, Lontxo!

–Zer Lontxo eta ze Lontxo oste? Ni San Pedro naz. Hemen beste operazino bat dago.

Pintoreei zaldarra erakusten

Neskazahar batek eperdian zaldarra dauka. Bildur bat bai! Eta lotsea... Lagunak eta etxeakoak osagileagana joateko eta joateko. Dana zehatz kontau eutsoen:

–Han eukiko dozuz gizon bi zuriz jantzita eta ondo hartuko zaitue; zuk erakutsi nun zer daukazu. Besterik ezer ere ez. Joan zan, baina okerreko atetik sartu zan. Han aurkitzen ditu gizon bi zuriz jantzita. Euren aurrera joan, gonak jaso eta eperdia erakutsen deutse. Haren barre algarak! Gu ez gara osagileak, pintoreak baino. Halako kuadrúa!

Burua osatzea gatzena

Ez uste izan osagilearena beharleku erreza eta gozoa danik: min emon behar osatzeko eta gainera kobrau... Eta gaixoari sinistu eragitea?

Hor dago Koldo gaixoa –eztarri eta papar hondatuta– eta konbentzidu ezin ezetarako.

–Koldo, badakizu?

–Zer?

–Dinoenez, erretzen dabenetatik %20 hiltzen dira.

–Ez dago txarto: erretzen ez dabenetatik %80 erretzen ez dabenak hiltzen dira ta.

Hagin on bakarra eta bera kendu

Praisku baserritarrak erdi-erdiko hagin bat ederragoa! Dizdiz egiten eutson; guztiak ahora begira, eta berak ere ahalegintxoak egiten ebazan erakusten.

Dentisteagana badoa, eta ez deutso bera kentzen. Praiskuren hasarrea!

–Zergaitik kendu deustazu onik neukan hagin bakarra?

–Hara, beste danak ustelduta daukazuz, eta on bakarra danen artean galdu ez deizuen

Txoriak lez kantari
kontuak kontari



100

Eskuan euki eta bila ibili

Okulistiak bai behar dauzala bista ona eta esku trebea. Kalixto aguretu da eta begietako indarra ere moteldu jako. Okulistiak bereak eta bost egin ditu patxadaz ipinten: hiru eratako betaurrekoak agindu deutsoz.

–Kalixtok harri eta zur eginda:

–Zetarako behar dodaz hiru betaurreko mota?

–Hara, batzuk hurreko gauzak ikusteko; bigarrenak, urrunekoak.

–Eta hirugarrenak ere bai?

–Hirugarrenak galdutako betaurrekoen bila joateko.

101

Hasarre bako maitasuna

Hasarre bako maitasuna arantza bako larrosea langoa da: usain bakoa. Ander eta Joxpinixik alkar maite-maite dabe; jakina, arantza eta guzti. Holango hasarrealdi baten, badinotso andreak:

–Jakizu ni ez nintzala ibili zure atzetik.

–Ai, emazte maitea, ez ahaztu tranpea ere ez dala ibiltzen saguaren atzetik, baina hantxe jausten da.

102

Bigotea bigote, Txomin arlote

Bigotea eukiteko norbait izan behar da, edo behintzat balitz lez jokatu. Hor daukazu Jerolimo juezaren aurrera deituta, eta mutu berari begira.

–Zer dinozu, Jerolimo?

–Zera, bigoteagaitik ez balitz, nire andrearen antz haundia dozula.

–Nik ez badaukat bigoterik!

–Zuk ez, baina nire andreak bai.

103

Kaxkarra baina azkarra

Bernardo Kaxkarra deitzen eutsoen metro betera heltzen ez zan gazte bati. Aitak berak ere behin baino gehiagotan "kakanarru" deitzen eutson. Baina behin sasoi batera ezker, kakanarru nahiz narrukaka, ezkondu gura edo.. Bere gogoia agertu eutson aitari, asko kostata. Aitak errazoitu beharrean, minduta eukan puntuan ikutu eutson:

–A zelango kasta ederra aterako dokan!

–Aita, kaxkarrean ere, zuk bestekoa aterako dot.

104

Edonun ez da komuna

Joan Pedro eta Jazinta ohean dagoz lo ta lo.

Goizaldera andreak gizonari:

–Joan Pedro, ea argitu dauan edo.

–Ez, ba, dana dago ilun. Eta behin eta barriro letania bardina. Hirugarrenean, orraitino, Noeren arkako usoak lez, zerbait barruntau dau:

–Ez, ez dago argirik, baina gaztai usain bat bai!

– Ai kokolo halako hori! Nora joan zara argi bila? Hori armarioko atea da, ez leihokoa.

105

Pintto! Pintto!

Badoa Mila kalean zehar eta braust aurreko denda gainean "Charcuteria" iragarkia. Baina berak "txakurkeria" edo antzekoren bat irakurri eban. Eta oraintsu ostu deutsoen txakurtxoa jatorko gogora. Han dago begira-begira harategi aurrean eskegita dagozan saltxitxai adi. Jabeak etorri eta badinotso:

–Zer gustuko jatzuz?

–Bada aste bete txakur bat ostu deustela eta..

–Ez dozu usteko nik ostu eta hor eskegi dodala?

–Ez, ez. Baina hiru bider Pintto, Pintto deitu eta balantzaka hasi dira.

106

ASTOA BAKEGILE

Irutxulo baserrian bazan asto eder bat, baina okerra, denganiñea... Behin etxeko amaginarrebea ostikoz jo eta garbitu eban. Alde batetik negar plantak, baina bestetik... ha zer bakea! Albistea jakin baizen laster, han ziran Irutxulon hainbeste erosle, amaginarrebea garbitu eban astoa erosteko prest.

107

Tomatetan oilaskoa

Patxiko eskolamutila astozalea zan. Lagunartean behin apustu bat egin eban: Nori zein abere gehien gustatzen jakon. Bere txanda heldu jakonean, hauxe bota eban:

–Niri ere asko gustatzen jataz animaliak, baina gehien oilaskoa, tomatetan ondo jarrita.

108

Lehentxoago, gerotxoago danak hil

On Kosme Gotzain agurgarria badoa herri batera, eta bertako herritarrakaz topo egin gura ta, badoa tabernara. Zeozetatik hasi behar ta:

–Zer? Hemen asko hiltzen al dira? Bai laster erantzun Kaxpas txarrizainak:

–Hemen ere lehentxoago, gerotxoago, danak hiltzen dira, jauna.

109

Trinidade santua eta arrautza

On Prantziskori Trinidade Santua azaltzea suertatu jakon domeka baten: Bat, bi eta Hiru eta Hirurak baten...:

–Entzule maiteok, Trinidade Santua zer dan ulertu daizuen:

–Arrautza baten oskola, gorringoa eta zuringoa lez. Horra hiru gauza baten.

110

Juizioko egunez eskolarik ez

On Brauliok izerdia ateratzerainokoak egin ebazan umeei azken Juizioaren gorabeherak erakusten. Ume guztiak bildur-ikaraz dardar. Bat izan ezik: Txanton. Eskuak igurtziz irribarre egiten eban. On Braulioren hasarrea:

–Eta zuk, Txanton, barre egiten dozu?

–Parkatu, jauna, baina ni hauxe pentsatzen egon naz: holango eguna bada, bihar ez dogula eskolarik izango.

111

Eukitsu asko, emontsu gitxi

Begira zer asmau eban behin On Erramonek bere eleiztarrak ezagutzera emoteko:

–Nire parrokiako eleiztarrok ikusita, bai ondo jantzita zagozela! Sarri dinot neure kautan, ba ete dagoan inor pobrerik herrian. Baina, meza ondoren, batu dan diruari begira, besterantza jo beharra daukat:

–Ba ete dago dirudunik herri honetan?

112

Abadea eta osagilea hau bikotea!

Abadea eta osagilea betiko bikotea herriko plazan paseatzen. Halako baten, osagileak badinotso abadeari:

–Lehen dana zan abadea eta danetarako abadea. Inok jakitekotan, berak ekian ondoen herriko barri. Baina gaur egun osagileak dakiz gehiago eta hobeto.

–Bai, holan da, baina diferentzi haundi bategaz: abadeak parkatu egiten dauala eta osagileak kobratu.

113

Jainkoagaz nor eskuzabalago

Hiru abade dozuz, parrokiako diruen kontua zelan daroen alkarri esaten. Gaileguak dino:

–Erraia bat lurrean egin eta alde batera doazenak geuretzat eta besteak Jaungoikoarentzat. Katalana zuhurrago:

–Guk lurrean zirkulu bat egiten dogu; barruan jausten diranak Jaungoikoarentzat eta handik kanpokoak geuretzat. Baina euskalduna nagusi:

–Guk danak botaten deutsoguz Jaungoikoari aidera, eta aidean gelditzen diranak Berarentzat, gainerakoak geuretzat.

114

Amaren esnea umearentzat

Jitana mardul bat baserrira doa eskean:

–Jainkoaren amodioarren, esne pixka bat umearentzat. Matilde etxeoandreak, errukiturik, botela bete esne emoten deutso. Jitaneak bai arin zurrut!

Joxpa etxeoandrea hasarre:

–Ez deustazu esan, ba, umearentzat?

–Bai, baina umeak edaten badau, berarentzat bakarrik izango zan; amak edaten badau bientzat izango da.

115

Hainbeste zoro bidean

Juanito txoferrak irratiz entzuten dau albiste bildurgarri bat:

–Kontuz! Zoro bat dabil berea ez dan kotxe bategaz errepidean.

–Ene ba! Bat bakarrik? Nik hainbeste ikusi dodaz eta orain arte ikusi barik egon zaree?

116

Erbia eperdi garbitzaile

Gizon bi kazara joan dira. Kauldi kakalarritu da eta sasi-oste baten han dago berea egiten. Horretan dagoala, tiro bat entzun baizen laster, azpitik zeozer pasatu ete jakon.

–Ez zuan erbia izango, dino bere kautan... Eguerdian tabernan sartu eta hor dakar kazalagunak erbi bat eskegita.

–Ene ba! Horra lepoa kaka marroiagaz koloretuta, nire zubipetik igaro dan erbia!

Amaren patata prijiduak

Aintxina baserri aldera kinkailero, parauero, txorroskileru eta natarilelirero asko hurreratzen zan. Joxelion ezaguna zan Oiz aldean. Hor daukazu baserri baten atarian:

- Ea, mutiko, ama nun da?
- Ez dago etxean, baina neugaz konpontzeko esan deust.
- Zuk ama maite dozu, ezta? Hauxe dozu ama dotore ipinteko zapia.
- Ama dan baino dotoreago egin? Ez da posible.
- Orduan, amari bere urtegunean usain gozodun frasko bat edo...
- Amari usain gozoa? Zu zagoz ona! Ez dakizu asko amak zelango usaina eukiten dauan, patatak prijitzen dituanean!

Aita-semeak bai buztarria!

Hor doaz aita-semeak Torrelavegara idi-buztarri bat erosten. Gainera semea soldautzatik etorri barria zan eta erderaz be egiten dau ta... Heldu dira peria lekura eta ikusi dabez hango baztarrak. Baita idi pare gazte ederra begiz jo ere. Aitak semea bialtzen dau euren barri jakin gurarik. Badoa mutil hori eta:

- Oye, éste es aquel?
- No hombre; éste es éste y aquel es aquel.
- Ya me parecía. Gracias. Aitak badauka jakinguria:
- Zer jinok?
- Onetik salbau gara!
- Zer ba?
- Zera: bata adarkaria dala eta bestea ostikaria.
- Eskerrak eure erdereari, bestelan... Goazen bazkari on bat egitera.

Zeintzuk hiretzat andrarik onenak

Tabernan egiten dira gizonak alkate, abade eta Aita Santu. Hor dozuz bikote famatua, Periko eta Pontxo. Perikoren kezka ziri zorrotza da:

- Zeintzuk dozak hiretzat andrarik onenak? Marmartiak, ala besteak?
- Pontxok buruan azka eginaz:
- Besteak? Zeintzuk?

120

Zereko zerak zera zertu

Ea hemendik ateraten badozu ezer argi: Pantxikek dinotso Martinari:

–Zu, Martina, Joxepak esan deust zuk esan deutsozula inori ez esateko nik esan neutsun sekretua.

–Joxepa sugedorri halakoa! Berari esan neutsola zuri ez esateko esan neutson

–Kontuz gero, Martina! Ez esan Joxepari berak esandakoa zuri esan deustudala.

121

Ehun urteko aititaren eskola

Simon ere ehun urtetik gora joian. Eta betiko xilimoniak inguruan:

–Ea ze bizimodu eroan dauan hainbeste urteko bizitza lortzeko? Eta baita erantzun zehatza emon ere:

–Ohi dogun baino erdia gitxiago jan eta egin ohi dogun baino ariketa gehiago egin.

122

Aterkina ala guardasola?

Neskato batek aterkina zabalik eroian gau ilunean. Lagun batek harrituta:

–Zu, zergaitik daroazu aterkina zabalik orain?

–Begira, euria danean aitak erabilten dau aterkintzat; eguzkia danean amak daroa gaurdasoltzat. Nik ez euri eta ez eguzki ez danean, tapakin eroan behar.

123

Kazariaren egirik erdiak guzurrak

Ez da erreza kazariak baino guzur gehiago eta hobeto asmatuak esatea. Hortik esaerea: Txakurrari hazurrak, andreari guzurrak. Domeka gau baten hor dator Txomin, gerriko bete txori eskegita. Badakar zersana andreari:

–Zuk gero hau eta hori esan; begira, honeek geldi egonda ez dira etxerutzen.

–Ez gero! Baina jakin gura neuke zenbat diru gastau dozun honeek erosten, eta zenbat tiro bota dozuzan, eskopetea etxean itzita joan zara ta...

124

Señoritoaren tarratadak

Edurne Bilboko etxe aberats batera joan da zerbitzen, bide batez erdera pixka ikastera. Jakina, erdere da gauza bat, eta moduak beste bat. Heldu jako aukerea:

- Edurne, nun da señoritoa?
- Komunean dago. Señoritoak erakutsi deutso zer zelan esan:
- Hurrengoan esan "okupatuta" nagoala. Handik laser barriro:
- Mesedez, señoritoa?
- Okupatuta dago
- Laster libratuko da?
- Ez dakit, orain ordulauren bat izango da tarradaka joan dala.

125

Jaungoikoak nori jaramon?

Jaungoikoak ere ezin egin danen gustua. Misiolari bat basorik baso bakarrik doala, gitxien uste ebanean, zast sasi artetik tigre haundi bat. Eta harritzekoa: biak Jaungoikoari erreguka: misiolariak negar malkoak igurtziz:

- Jauna, bigundu egizu tigre honen bihotza. Eta tigreak:
- Bedeinkatu, Jauna, jatera noan haragi freskoa

126

Buru haundiak txapel haundia

10 urteko baserri mutil ederra amagana negarrez. Amak kontsolatu nahirik:

- Austin, zergaitik egiten dozu negar?
- Lagunak *buruhaundi* deitzen deuste.
- Ez egin kasurik. Zu orain zoaz dendara eta ekarri egizuz txapelean sei kilo patata.

127

"Kaka" esanda "Kuku" etorri

Peru Korta ingurua garbitzen dabilela, txixa putzura jausi da. Egin ahalak egin arren, ezin dau urten. Haren garraxi arrantzak Pekinen ere entzungo ziran: "Sua!" "Sua!" "Sua"! Auzotarrak etorri eta atera dabe. Pixka bat nasaitu danean, Kristobalek itandu deutso:

- Txixe potzutik "Sua! Sua! deika, hik pasau dozak pasatzekoak!
- Ez zera! "Kaka!" "Kaka!" esanda, Kuku etorriko zuan.

128

Eskolako lekuri onena

Aita harro dago Iñigo eskolan ondo dabilela ta. Neguko hotzak baztarrak izoztuta daukazan baten, badinotso:

- Iñigo, eskolan zelan? Zenbagarren zagoz?
- Lekuri onenean, aita.
- Ez da izango!
- Bai, aita, berogailuaren ondo ondoan nago.

129

Inok nahi ez eta bera ere falta

Gerra ostetxoan ez zan beharleku asko. Eskera jo behar.

- Gaztea eta eskean?, dinotso etxeakoandreak gizon gazte bati.
- Andrea, ez dagoana balego, ez nintzake ibiliko.
- Zer da hori?
- Beharra.
- Beharra falta?
- Bai, nok esango leuken: inok gura ez dauana izan, eta haxe ere falta.

130

Nok handienak bota

Gizon arrantzale bi, munduan zehar asko ibilita gero, alkarri sekulakoak botaten dabiz sarri:

- Julen, hi nundik nora ibili haz?
- Ni Ecuador aldetik.
- Bero haundia, ez dok?
- Haundia ez dok ezer; kontuak atera, arrainak ere izerditan egoten dozak.
Eta heu nundik ibili haz?
- Ni Groelandian.
- Han, oster, hotz haundia, ez dok?
- Haxe hotza! Eskuak garbitzeko ere guanteak ipini behar.

131

Asko pentsau ezkerro, dana sobra

Sokrates filosofoa astero joaten zan azokara. Baztar danak arakatu ondoren, beti eskuhutsik urteten eban kanpora. Behin lagun batek badinotso:

–Jauna, harrituta naukazu; astero ikusten zaitut azokan: hau ikusi, hari ikutu, eta beti eskuhutsik urteten dozu.

–Bai, egia da. Erabagita daukat gero eta gitxiagoaz zelan bizi naiteken. Eta bat ikusi, eta “hau barik be bizi naiteke, bestea ikusi eta “hau barik be ondo bizi naiteke”, eta azkenerako dana daukat sobra.

132

Onak txarto eta txarrak ondo

Gizon haundiki baten panteoi gainean idazkun hau jarri eben: “Hemen dago Fausto kapitan famatua. Gauza onak txarto eginaz eta gauza txarrak ondo eginaz aberastu zana. Dagoanean bego!”

133

Txakurrak begi bat ala bi?

Joxetxok konfiantzaz Pedro lagunari:

–Zu, lehenbailehen okulistiagana joan behar dozu. Zagoz isilik, han datorren txakurrari begi biak ikusten deusadaz.

–Banengoan, ba! Txakurra harantza doa.

134

Zintz eta mintz

Braulio benetan braulio zan. Badoa kalean zehar lagun bategaz eta zintz eginda, dendako kristaleran inkauta itzi eban.

–Hi haz kirten zikina!, dinotso lagunak.

–Ez, eure moduan egingo juat: zapi zurian batu eta poltzikoan gorde.

135

Guzurra, baina egia

Gaurko gaixotasun barri bat loditasuna ei da, umeetatik hasita. Ikusi be egi-ten da bakotzik! Joxepantoni lodi-lodia zan, argaltzeko ahaleginak eta bost egin arren, alperrik. Osagileak badinotso:

- Joxepantoni, holan ezin dozu luzaro bizi; egun gitxi barru jausteko moduan zagoz. Handik hiru hilabete barru, badoa osagileagana hasarre soinuan:
- Berorrek guzurra esan deust; harrezkero hor egon naz ez jan, ez lo. Eta hiru hilabete joanda, hemen nago lehen baino biziago. Zer dinost?
- Guzurra izango zan, baina ez zenduan, ba, argaldu gura?
- Bai, argaldu bai baina...
- Baina zer? Zuk hiru hilabetean 20 kilo galdu...

136

Azkenengoz nasai lo Adanek

Zenbat gora-behera andra-gizonen artean! Bardinak dirala eta ezin bardin jokatu. Noiztik holan? Biblian bada halako kontakizun bat: Jaunak Adan lotan jarri eta haren saihetsetik Eba atera ebala. Tira, dana dala, Eba sortu aurreko egunean, jatsi jakon Adani Jauna eta esan ei eutson: Mutil, gaur egizu azkenengoz lo nasai. Biharko bizilaguna izango dozu eta.

137

"Listo" txakurrak farmazian pix

Gizon askoren harrokeria euren txakurra da. Peru Taketarentzat behintzat bai:

- Zu, begira Listo nire txakurra norainoko zuhurra dan: hor lehengo baten, farmazi baten aurrean begira egon eta, barrura sartuta, kristalera atzeko hanka jaso eta zarrastada ederra egin eban.
- Hori al da listoa izatea?
- Ez zera! Han ipinten eban "análisis de orina".

138

Hemen jakitun asko jagok

Gizon jakitun batek, gizakiak lau klasetan banatzen ebazan: Bat, dakienak eta badakiela dakienak, konsultatu eurai; bi, dakienak ez dakiena, lagundu egiezu dakiena ahaztu ez dagien; hiru, ez dakienak eta ez-jakin dirala dakienak, erakusi eurai; lau, ez dakienak, baina dakienaren itxura egiten dakienak, alde zure ondotik.

139

Metroko mosutxo bat

Kontxi neska gazte ederra amamagaz Bilbora doa, laster ezkondu behar daua ta, amamak sedazko jantzi dotorea erosi gura deutso. Alderdi Zaharreko denda baten sartu eta aukeratu dabe telea. Neskeak dendako gizonari:

–Zenbat da metroko?

–Zeu zaralako, mosutxo bat metroko.

–Ipin egidazuz bost metro.

–Zuri hamar ipiniko deutsudaz. Dendariaren gozamena, telea ebagi eta ebagi.

Pardeltxo baten batuta eskeintzerakoan, neskeak badinotso amamari:

–Amama, emoiozuz dendako gizonari hamar mosu.

140

Loritoaren Agur Mariak

Erregea monjetxe batera doa, han daukan lobeia ikustera. Gomutagarritzat lorito bat eroan deutso:

–Begira, eskumako hankatik tira eta “Agur Maria” esaten dau; ezkerrekotik tira eta Santa Maria. Monjatxoan poza! Erregea

lobeagaz egoan bitartean, monjak loritoagaz esperientziak egiten. Egia, hanka baxotxetik jakituri ezbardina. Bietatik batera tiratuta zer esango ete leuke?

Holan egin deutsoe eta... loritoaren erremuskadea: “No me jodas, hija puta!”

141

Adarkadeak ostikadea zor

Eguerdi aurretxoan On Kalixto abadea herriko taberna batera joan ohi da, zurrutadaxoa hartuaz, herritarrakaz kontu kontari. Behin hiru neskatilakaz aurkitu zan. Iji eta aja, abadea ikustean. Euretari batek eskari hau egin eutson tabernako jaunari:

–Atera egidazu “curasado” bat. Hango irribarre sorginak! Orduan abadeak berea eskatzen dau:

–Atera egidazuz hiru “putitas fritas”.

142

Lazaro, jagi zaitez!

Ai aintxinako sermoiak! Erdiak lelo, beste erdiak lolo... Garizumaldian On Kaxparrek hitzak eta putzak bota ebazan, Lazaroren biztuerea argitzen. Hala-ko baten oihi latz bat botaten dau: “Lazaro, jagi zaitez!” Korupean lotan dagoan Lazaro mutilzaharra zast! tente plantatzen da, ikaraz autortuz:

–Parkatu, jauna, lokuluxka bat baino ez da izan.

143

Nahi ez dana ez da ondo entzuten

On Kelemente eta neskamea ez ziran ondo konpontzen. Neskamea edarizalea zan. Paittar boteileak behinbat beherantza egiten eban. Eta On Kelemente arrautzazalea zan: oilorik ez eta egunero arratza bi prijiduta jaten ebazan. On Kelementek badinotso hilaren lehenengo bariku goizean Isidrari:

–Gaur hilaren lehenengo barikua danez, jente asko etorriko da ta zu zatoz lehenengo. Badoa eta:

–Zu, Isidra, jakin gura neuke paittar boteilatxo beherantza doa eta zer...

–Parkatu, jauna, baina ez da ezer entzuten. Eta holan hiru-lau bider. Azkenean badinotso Isidrak:

–Plantau bedi berori kanpoan eta ni barruan eta ikusiko dau zelan ez dan entzuten:

–Jauna, berorrek oilorik ez dauka, eta goizero nundik hartzen ditu eguneko arrautza biak?

–Egia, Isidra, ez, ez da ondo entzuten. Errazoi daukazu.

–Banengoan, ba, jauna!

144

Kontuak ondo atera, badaezpadan

On Toribio abade argia eta apala zan. Bazan herrian Anton "Zorrizto" izeneko gizon aldrebes bat, abadeari adarra zelan joko beti asmatzen ebilena.

–On Toribio, zenbat urte daukaz berorrek?

–Nik 38

–Eta ihaz?

–37.

–Orduan 75 guztira

–Eta zuk zenbat hanka daukazuz?

–Bi.

–Eta ihaz?

–Bi

–Orduan guztira lau, kortako astoak beste.

145

Lobedarrak ala loberbak?

Hamaika alperriko sermoi baztarretan! Bai abadeak, bai maisu-maistrak, bai gurasoak...

Gaurkoa abadearena da. Txarto lo egiten dauala ta, osagileagana doa.

–Lo zagozanean, berba egiten al dozu? – Ez, nik berba egiten dot, besteak lotan dagozanean.

–Zer ofizio daukazu, ba?

–Sermolariarena.

146

Gonak labur, ulea luze

Santutegi famatu baten, turisten artean, andrazko bat eleizan sartu eta ateko urontzian hatzamar puntak busti eta "Aitearen" egiten ikusi eban bertako parrokoak. Hurreratu jakon eta edukazinoz dinotso:

–Parkatu, andereño, baina hatzamar puntak bustiteko, gonak hainbeste moztu beharrik ez dozu euki".

Oilarraren arrautzak

On Koxme jakitun famatua badoa baserri aldera egunpasa bere kapela, makila dotore eta guzti. Jakitun plantak eginez, oilotegian aurkitzen dauan Txanton baseritarrari itanduten deutso:

- Hor erdian dagoan gangar gorridun horrek arrautza ederrak ipiniko ditu, ezta?
- Oraindik ez dau bat bera ere ipini.
- Zer poza lehenengoa ipinterakoan!
- Orduan bere arrautzak urre gorritan salduko dodaz.
- Zergaitik horrenbestean?
- Oilo hori, zeure antzean, oilarra dalako.

Astoak alkarrizketan maisu

Gizonak beti izan dau zer ikasi asko abereakandik. Entzun honako hau: Auzotar bi hasarretu dira eta Imanol hirugarrena sartu jake erdian baretu gurarik:

- Entzun mutilok! Ez dozuez sarri entzun Mendigoiko astarra eta Urzulokoa alkarregaz ulertzen? Batak arrantza egiten dauan artean, bestea adi egoten dok zer esaten deutson entzuten; ondoren besteak bere barriak bialtzen jeutsozak. Ea, ba, halakoren baten astoen mailara helduten garean!

Astoak injenieruak baino gehiago

Mendialdeko herritxo batera bide zabala egin gura eben. Hango eta hemengo injenieruak burua urratzearainoko ahaleginak egin ebezan, nok baino nok paper zabal haundiagoak beteaz.

Jostomingo azotar zuhurra alkateagana joanda, badinotso:

- Alkate jauna, injenieru danak baino hobeto daki gure astoak nundik nora egin; sarri igon behar izan dau lepoa ondo beteta. Lehengo astobidea ez da onena izango gero? Eta eginak eginda gero, azkenean astoa maisu...

150

Abere arteko eskolan ikasten

Tabernetan zer ez da erabagiten! Han batzen dira, ba, titulu eta tutuludunak. Braulio dozue horreutariko bat:

- Zuen ustez, nor da listoagoa: aberea ala gizona? Hango barre algarak!
- Heu ez ete haz euretariko bat!
- Egin daigun kontu: gure astoari guk arre esan eta badoa, iso esan eta gelditu. Baina eurak arrantza egiten dabenean, guk ezin ulertu zer dinotsen alkarri eta ez guri. Ikusten?

151

Perian abadea eta Pontxio

“Sartu baino lehen, ikusi zelan urten”. Esaera zaharrak erakusi ederrak. On Petronio abadea ganaduzalea zan. Eta lantzean behin ganadu perietara joaten zan. Behin halako lotsabako bat hurreratu eta badinotso:

- Herri honetan abadea eta txarria besterik ez dago. On Petroniok irribarrez emon deutso erantzuna:
- Ni abadea naz; orduan zeu izango zara besteen artekoa.

152

Bariku santuz kalean balantzaka

Bariku Santuz bajoian artzain bat kalean zehar balantzaka bete-bete eginda. Bidean abadeagaz topo egiten dau. Bai agudo berbea luzatu ere:

- Zer, Bariku Santua eta balantzaka kalean?
- Ez ba! Jaungoikoa hilten dan egun batean, gizona balantzaka ikustea harritzekoa al da?

153

Neurri ezbardinak

Pernandok ere morroitzara jo behar izan eban. Ugazaba gogor xamarra suertatu jakon. Behin izerdi patsetan hatxurran ebilela, ugazaba ondoratu jakon.

- Pernando, hatxur hori erdiraino barik hondaraino sartu behar dok. Pernando isilik berean. Handik laster jatorko ugazaba hamarretakoagaz, baso erdi ardau eta guzti. Pernandori heldu jako bere txandea:
- Ugazaba jauna, zer? Hatxurra hondaraino eta basoa erdiraino? Hori ere ez da, ba, gizalegea.

154

Izen arraroak

Mediku jauna, zelan etorri da umea? aitak urduri osagileari.

–Ondo, oxigeno ipini deutsogu.

–Hori ere bai? Nik Isidro ipini gura izan deutsot eta.

155

Lan eta lo ordu bardinetan

Hemen dogu beste ugazaba bat. Jakina, ugazaba bat nahiko da morroi askori agintzeko. Behar orduan Kalixto langilea lo aurkitzen dau. Hasarre egin beharrak zer pentsau emon eutson.

–Kalixto, ondo deritxat gizonak 8 ordu lo eta 8 ordu behar egitea; baina biak batera ezin ba...

156

Biak erdibana dana parkatu

Tarteka-marteka badira ugazaba onak ere. Iñakik zor handiak daukaz Joxegaz. Honek bere bihotz-zabala erakutsiz, esan deutso:

–Ona nazalako, erdia parkatzen deutsut.

–Eskerrik asko, Joxe! Nik ere gitxiago ez dot izan gura, eta beste erdia ere parkatuta dago.

157

Abiadura motela baino motelago

–Zer, Andoni? Karretila horrek ez al dauka beste abiadurarik?

–Bai, ugazaba jauna; bai badauka beste bat, baina berau baino motelagoa.

158

Soldata lan egin aurretik

Lantegi bateko ugazabak demokrata fama handia eukan inguruan. Kontuak atara: Langileakaz tratua egiterakoan:

–Zelan gura dozue kobratzea: astero ala hilero? Askoren artean, lotsea galdu ezin dauan batek (egundo euki ez daualako!), badinotso:

–Nik egunero eta goizean goizetik.

159

Iratzargailuari kordea emoten

Julen baserri batera joan zan morroi. Ugazaba zuhurra zan, eta jagiteko ordua egunsentia ipini eutson. Oilarraren kukurruku hotsera. Geroago konturatu zan oilarrak gero eta goziago jotzen ebala, ugazabak halan iratzargailua jarrita. Egun baten kortara jatsi eta oilarrari oratu eutson samatik. Baina ugazaba baztarrean ezkutatuta:

–Epa! Epa! Zetan habil hor?

–Despertadoreari kordea emoten, aspaldion galduta dabil eta.

160

Txibatoa biztu...

Gure artean txibato hazia zabal egon da ereinda. Baina txibato danak ez dira bardinak. Begira, badoa Jerolimo kotxe zaharragaz aldazgora baten, eta aldatz erdian planto. Goardiazibilak hurreratu eta lehenengo itauna:

–Zer jazo jako?

–Txibatoa biztu. Eta goardiazibilak alkarri begira:

–Onak gagozak!

Lehenengoak garbitu ezinik gabiltzak eta hildakoak ere biztu...

161

Komentuko atean zelan deitu

Komentu haundi haretara joatea alperrikoa zan. Tirrina jo eta jo, eta inor agiri ez. Holako baten, Patxiri suertatu jakon atezain txandea. Urteten deutso atezainak eta entzutekoak entzun behar izan ebazan. Baina erakusi ederra emon eutson Luis anaiak:

–Hemendik aurrera komentuko atean ez jo tirrinik; ostikoz emon ateari, eskuak okupatuta ekarri.

162

Dakianak ez dakiana baleki

Auzotarren artean inbiria da susmo eta hasarre askoren sustraia: kotxeak dirala, seme-alaben karrerak eta tituluak dirala...Markosi ba eutsen inbiri bat auzotarrak! Karrera haundikoa zan eta. Fakundok begitan hartu eban.

Behin lagunarte baten arpegira bota eutson:

–Hik nun ikasi dok, ba? Hor habil harropuztuta, besteoi goitik behera begiratu. Markosek patxadaz emon eutson erantzuna:

–Egia, hik dana dakik, gauza bat izan ezik.

–Zer dok, ba, ez dakidan hori?

–Tontoa hazala, eta hori neuk dakidan ezkerro, bion artean dana jakiguk.

163

Oinez ibili behar

Modu batera ez bada, beste batera lortu. Hori jazo jakon Pepantoniri: Ibilpidea okertu jako eta osagileagana doa. Joan-etorriak amaitu ondoren, hor nun ikusten dauan Kasilda oinez bixkor-bixkor kalean.

–Zer Penpantoni? Ondo ikusten zaitut ibilten.

–Bai, bai, osagileak berbea emon eustan hilabete barru oinez ibilten ipiniko ninduala eta hemen naukazu.

–Eta ipini ere egin zaitu, ezta?

–Bai, berari ordaintzeko kotxea saldu beharra euki dot. Eta hemen nabil oinez.

164

Sabela urez beteta

Gauza bat da gatxari igartea, eta beste bat gatx hori nundik datorren igartea. Osagileak errez eta azkar igarri eutson Mikeli zer gatx eukan, baina zetatik sortu jakon, ezin igarri.

–Sabela urez beterik daukazu. Zergaitik ete?

–Hori neuk bakarrik dakit, osagile: Ezkondua nazalako eta amaginarrebeaz bizi nazalako.

–Eta zer dauka zer ikusirik sabeleko uragaz?

–Eukiko ez dau, ba? Ez dakizu ondo, gizajo haundi horrek, zenbat txistu iruntzi behar dodan bakearen alde!

165

Txandea hartzea ez da erreza

Bazkalosteko lokuluxka nok ez dau gogoko? Etentxo bat sikiran... Gergoriok ezergaitik ere ez dau itziko. Behin osagileagana joan beharra izan eban. Ondo arakatu ondoren, itaun bat:

- Bazkalondoren atsedetik hartzen dozu?
- Nire ordeaz andreak hartzen dau.
- Eta zeuk noiz?
- Nik ere orduantxe bakarrik, andrea orduan bakarrik dagoalako isilik.

166

Ukatu untzinoa, agur funtzinoa

Osagileen artean uste dan baino sinismen gehiago dago; edo gitxienez sinisten dabenakaz errespetu haundia dabe. Hara Txanton azkenetan egoan eta osagilea bera aurreratu jakon egia esatera:

- Txanton, ez zagoz bape ondo; zeure azken eginbeharrak egiten badozuz, hobeto. Hemen dozu abadea ere:
- Abade jauna, itzi untzino kontu horreek; nik ez dot sinisten arima konturik.
- Um, arimarik ez badozu, banoa etxera; ni ez naz albaiterua.

167

Ez dira bat osagilea eta harakina?

Kaxinto osagileagaz dabil aspaldion. Joan zaneke baten, badinotso osagileak:

- Zuk esan ei dozu ni harakin bat nazala.
- Ez jauna, nik ezin dot hori holan esan.
- Zelan ba?
- Harakinak lehenengo hil egiten dau eta gero zatitu; zuk, oster, lehenengo zatitu egiten dozu eta gero hil.

168

Alkarrizketa ez da barriketa

Behi gazteak buztartu-barritan zenbat besaka eta botaka alkarren artean! Eta behia eta idizkoa badira, okerrago. Itxura danez, ezkonbarrien artean ere bardiñtsu: Lehenengo hilean andreak berba eta gizonak entzun; bigarrean, gizonak berba eta andreak entzun; hirugarrean, biak batera berba eta auzoak entzun.

169

Anton, Anton, ez aiton, ez amon

Ezkonduak hau eta hori; eta solteruak zer? Bakotxak bere historia eta bere ganoria.

Anton Kaikuk bere esperientzia kontatzen deusku.

- Zu zergaitik gelditu zinan mutilzahar?
- Esango deutsut: behin andrazko bati hankea zapaldu neutsan eta haren bota beharrak: Saskil, kirten, ganorabako eta etenbako erretolika latza.
- Eta zuk zer erantzun?
- Erantzun? Haundiagoak entzuteko? Pixka bat baretu zanean, holan amaitu eban:
- Parkatu! Parkatu! Neure senarra zinala uste neban. Orduantxe esan neutson neure buruari: Anton, Anton, ez aiton, ez amon! Niretzat ezkontzak hor konpon! Holan hobeto bizi non.

170

Xixilik ezin egon isilik

Ezkondata kuttun, kuttun, alargunduta gero ez mosu, ez mun? Xixilik behin agertu eta argitu eban kezka hori:

- Zu, Txanton maitea, zer egingo zeunke, ni zu baino lehenago hilgo banintz?
- Ene Xixili, egia esateko, zeuk egingo zeunkena.
- Halako lotsabakoa zeu! Ez zenduan esan, ba, ez zinala inoiz ezkonduko?
- Zer? Inori kokoloka eta norbera oiloloka.

171

Susmotik egira, ilunetik argira

Ederra jazo jaken Imanol eta Andresari! Zazpi seme-alaba izan ebezan nahiko jarraian. Handik luzarora beste bat. Gizonari sartu jakon hau ez zala berea. Harrezkero bai andrea eta bai seme hori begitan hartuta eukazan. Uste baino lehen Imanol gaixoak jo eta azkenetan egoan. Hil bano lehen egia jakin gura eban eta andreari badinotso:

- Hara, susmoa daukat seme hori ez dala nirea.
- Konfiantza bardinagaz, dinotsut, Imanol: Horixe bakarrik da zurea.

172

Lehenengo kolpean osorik

Aita-semeak tabernan dagoz. Gose bat bai! Eta aurrez-aurre kordeletik eskegita urdaiazpiko ederra. Aitak badinotso semeari:

–Zuk nundik ebagiko zeunke zatirik haundiena hartzeko?

–Aita, nik kordeletik.

173

Gizona ardaua lez da

Ba zan baserritar gizon bat, karreradun asko baino bixkorragoa bere erantzunetan. Lagun arteko eztabaida bat argitu nahirik, beragana jo eben:

–Pernando, gizonak zahartuz doazan heinean, gaiztotu ala ondu egiten dira?

–Egia esan, gizona ardaua lez da: batzuk urteakaz ozpindu egiten dira; beste batzuk, urteakaz ondu.

174

Noeren kutxa astoaren faltan

Sarri egi bihurtzen da esaera zahar hau: “Beti nahi dauana esaten dauanak, sarri entzungo dau nahi ez dauana”. Santi Kaiku prixaka eta sakaka sartu da martxan hasi dan autobusean, esanaz:

–Zer, beterik al doa Noeren kaxa hau? Estu-estu eginda doan jente artetik batek erantzuten deutso:

–Ez, sartu hadi, astoa falta dok eta.

175

Bereaz konformatu ezina

“Jainkoak ere ezin dau egin guztien gogoa”, esan ohi da. Holan jazo jakon gizonagaz.

–Jauna, eskerrik asko hain eder egin nozulako; baina urte gitxiegi emon deustazuz biziteko. Tira, kejaz egozan piztien sobrak ezarri eutsozan: Astoari 40 urte emon eutsozala, eta 20 nahiko dituala; txakurrak 20 hartu, baina 10 nahiko dituala; tximinoak 20 hartu, baina horrek ere 10 nahiko. Eta hona hemen gizona, piztien hondakinakaz orniduta: bere 20 urteakaz, ondo; beste 20 urte, astoarenak eginaz, familia aurrera atera ezinik; hurrengo 10 urteak, txakurrenak, etxea zaintzen; eta azkenean 10 urte hilobakaz, tximinoarenak egiten.

Andren mezatan monagilo

Aspaldion abade faltaz, "andra-mezak" hasi jatzuz herri askotan. Holan deitzen deutsoe askok meza-ordezko ospakizunei. Sartu da Bilboko Santiago katedralean baserritar bat eta altare eta inguruak abadez beteta. Baserritarra zur eta lur. Hango intzentzu eta kantu artean, badinotso bere buruari:

–110 abade meza bakar bat emoten, txandaka berba eginez eta ordu ta erdi behar. Gure herriko abade zaharra danok baino gehiago dok: berak bakarrik 20 minututan jota garbitzen jok mezea... Ona egoan hori "andren mezatan" monagilo egiteko!

Gorri-zuritik baltzak urten

On Juanitok badihardu sermoginen. Han korupe ilunean Txominek noizean behin "koño" eta "koño" ahopean. Eta holan mezea amaitu arte. Mezea amaitu baino ez, han doa Pedro Mari abadeari kontua eroaten. Txomini deitzen deutso:

–Zer Txomin? Hau eta hau entzun dot.

–Hara, jauna, baltza da jazo jatana: nik kolorez gorrira joten dot; andreak zurira; ez jaku, ba, mutiko baltza jaio? Abadeak entzunaz batera:

–"Koño!"

–Horixe neuk ere, jauna, holako baten aurrean zer besterik esango leike batek?.

Barrero ere zeruan betiko?

Entzundakoa oker ulertu, eta egia eskuratu.

Norberak nahi dauan eran? Ez beti. Amaginarrebea hil jakola eta, Edurne negar eta negar dago. Lagunak kontsolatu nahirik dihardue. Laster aldatu jako arpegia Edurneri:

–Nik ez dot negarrik egiten hil dalako. Ez al deutsozue entzun abadeari esaten: "Barrero alkarregaz egongo garala zeruan eternidade guztian?"

179

Asmatzeko ere holangorik!

Estutasunean asmau ahalakoak asmatzen dira. Monjen kapelau bati jazo jakona: Badoa mezea emotera, eta Ogi santua kontatzerakoan, bat gitxiago kontatu. Ordua heldu zanean, etorri ahala banandu eutsezan, baina nagusiarentzat falta. Zer asmauko? Eta kalizan gelditu dan arda apurrean hatzamar puntea busti eta bera emon miaskatzera. Eta gozoa ere gozoa egon ei zan...

180

Abadearen "pastileak" on egin

Txanton aitita beneragarria azkenetan egoan; abadearen Oliadura sakramentuak on egin eutsen. Biharamonean joan jakon bisitatzera:

–Zelan, Txanton?

–Hobeto, Beniño jauna; atzo berorrek emondako "pastileak" on egin deust.

181

Adarra jotera joan eta ostikadea hartu

Abadearen irudia beti izan da tentagarria; errez hasten jako norbait adarra jo nahirik. Horra Julio gaztea:

–On Pernando, atzo eleiz ondotik pasakeran, halako espiritu antzeko bat ikusi neban.

–Ez da izango! Nun eta zelango itxurea eukan?

–Asto batena.

–Ez ikaratu, gazte, zeure irudia zan, iretargi argitan. Adarra jotera joan eta ostikadea hartu!

182

Izara artean gehien hilten dira

Joseba gazteak marinela joatea erabagi dau. Aititak karinoz dinotso:

–Joseba, marinela joango zara, ba? Ez dakizu zenbat galtzen diran olatu artean?

–Bai, aitita, oheko izara artean hilten dira gehiago eta zu ere gauero joaten zara ohera.

183

Teila zaharrari esker

Kandidok hamaika merienda gozo jan eban monjen kontura, komentuko teila-tu eta baztarrak konpontzearen alde. Behin baten, monjen deia jaso eban, baina ezin joan, gaixorik egoan eta. Eta bere semea bialdu eban teilatuko itogina konpontzera. Eginbeharrak eginda gero, etxeratu zanean, Kandidok kez-kaz semeari:

–Eta teilatuko itogina zelan konpondu dozu?

–Teila zaharra kendu eta barria ipiniaz.

–Ai ene ba! Galdu naz!

–Zergaitik, aita?

–Nik urteak daroadaz zulodun teila zahar bati esker, monjen leptik merienda ederrak jaten, teila zuloduna kendu eta leku baten ipiniaz. Zuk nire teila zaharragaz batera bota dozuz sasira nire merienda gozoak.

184

Berak idatzi bai, baina ez irakurri

Kaxpar lan bila dabil. Ugazabak azterketa txiki bat egiten deutso:

–Idazten badakizu?

–Idazten bai, baina irakurten ez.

–Ea, hartu klariona eta hasi idazten. Tableru osoa zirriborroz bete eban.

–Ea, orain irakurri, mesedez.

–Epa, nik idazten dakidala esan deutsut, baina ez irakurten.

–Egon ere, ez dago hori irakurriko dauan maisurik.

185

Ugazabak beti daki dana

Badiardu Maximo langileak mailu astun bategaz jo ta jo. Eta ez dau , ba, hatzamarra jo? Haren aiena arrantzak! Ugazabak, lagundu beharrean, hasarre eraso deutso:

–Hi haz astakirtena! Biharamonean berak izan eban deskuidu bardina. Musika barik, han jardun eutson hatzamarri puzka, hanka baten gainean dantzan. Eta morroiak hatzamar zauritua luzatuz:

–Hemen txandaka dator musika bako dantzan egin beharra.

–Hago isilik, ugazabak berak nahi dauanean jakik noiz jo eta noiz ja...

186

Igitai eta mailua, a zer kankailua

Aitak amets haundiak egin ebazan semearen etorkizunagaz. Baina bide eskasa hartu eban: lan asko eta arrain gitxi. Inguruan komunista giro gordina egoan. Laster harrapatu eben Juanito. Hilabete baino lehen hor nun datorren etxera komunisten ikur haundi bategaz: mailu eta igitaiagaz apainduta.

–Mutil, zer dok hori? Alperrik ziran semearen azalpen guztiak. Aitak zorrotz dinotso semeari:

–Seme, itzi lelokeri horreek eta hator etxera; hemen ere bajagok mailu eta igitai nahiko lan egiteko.

187

Egun osoa enterradore

Diktadura sasoi a zan. Goardiazibilari zelango bildurra! Hor daukazu baserri mutil bati jazo jakona: Goardiazibilak, mutila bildurtzearren edo, itanduten deutsoe:

–Zuk zenbat ordu emongo zeunkez doan herriaren alde?

–Hiru ordu bai.

–Eta Espainaren alde?

–Beste hiru gitxienez.

–Eta goardiazibilen alde?

–Horreen alde gau eta egun osoa.

–Hi haz mutil zintzoa! Zer beharleku daukak, ba?

–Enterradore.

188

Gorputzez txikiak, zentzunez luzeak

LazkaoTxiki eta Matxin a zelango pareta, karokola eta barea! Gorputzez txikiak, baina buruz, zentzunez eta gizatasunez haundiak.

Euren txikitasunagaitik sekulakoak entzun behar izaten ebezan. Baita erantzun ere. Horra hiru ale:

Behin gizon tantai bi aurrean ikusita, Matxinek:

–Horreek, bai horreek! Gu ez gaituk inora aileatzen.

–Gu ere horreek lez aileatzen gaituk lurrera.

. Beste behin, kankailu bat aurrean dabela, Matxinek harrituta:

–Horreen etxean ez da eskailera beharrik izango, sagarrak batzeko.

–Baina gu hobeak, mailukiak batzeko.

. Hirugarren baten, bertsolari kankalilu biren erdian Lazkao Txiki, bere burua defendidu ezinik. Baina azkenerako isilik gelditu ziran:

–Zuon bion artean botela biren erdian baso bat emoten dot; baina, halan ere, nahiago baso betea, botela haundi bi hutsik baino.

189

Buztana bakarrik falta

Ibili ere bagabilz bakotxik! Hor dator gasolindegira morrozko bizardun eta ule zapadun lodi bat, bera besteko motor katxarro bategaz:

–Zer falta jat Leonera helduteko?, itanduten deutso. Zerbitzariak begira-begira egonda gero, dinotso:

–Ikusten dodanetik, buztana bakarrik

190

Txoferrik ez autobusean

Austin agurea perira joateko asmoz, autobusa hartzera doa. Lehenengoz ikusi eban pixu biko autobusa. Behean lekurik ezta, gora bota eben. Bai azkar salto bitan eskailerak jatsi.

–Zer jazo jatzu, Austin ganbara horretan?

–Zer dinozu? Nora joatea gura dozu hor goian, aurrean txofer barik.

191

Begiak itxita, ahoa zabalik

Osagileak asko irabaziko dabe, baina pazientzi haundiz irabazita. Eurak emon ezin dabena disimulatu nahi eta besteak eskatu eta eskatu.

Dioni osagile zuhurra dozu, baina triperrea ere bai. Behin kalean doala, gaixo batek deia:

- Dioni jauna, zelan nago ni? Gelditu eta soseguz agindu zehatza emoten deutso:
- Ea begiak itxi eta ahoa zabaldu, eta egon zaitetz holantxe isilik, neuk esan arte. Eta badoa Dioni kalean behera eta hor dago Mariñazi ahoa zabalik.

192

Dana kendu eta mina itzi?

Praisku eztarriko minez osagileagana doa. Honek, ispilu eta guzti, zehatz ikusi deutsoz baztarrak. Ondoren dator errezeta saila:

- Erreten dozu?
- Bai, apur bat. .
- Gaurtik aurrera barau.
- Eta edateko konturik?
- Noizean behin zertxobait.
- Gaurtik aurrera bijili.
- Eta juergarik eta...?
- Hori barik ere...
- Gaurtik etxean kieto. Panorama honen aurrean, berotu da Praisku eta badi-notso:
- Dana kendu eta kendu, eta eztarriko minak itzi? Banoa dirua kendu baino lehen.

193

Loa hartu ezin danean, denporea emon

Bernardo baserri gizona osagileagana doa:

- Egun on, osagile jauna!
- Zer dogu, Bernardo?
- Zera, ezin lorik egin. Zer egin neike?
- Hauxe besterik ez: ordu erditik ordu erdira, botela honetatik koilarakada bi bikarbonatu hartu.
- Eta honek lo eragingo deust?
- Lo eragin ez dakit, baina gau osoan entreteniduta euki bai.

194

Anastasiak errua

Aspaldion gure Timoteo ez dabil ondo: alde batetik urte piloa gainera, eta itogin bat konpondu orduko, beste barri bi alboan. Medikurik mediku, berba xelebregin bat ere ikasi dau. Aspaldion ikusi barik daukan Luki lagunak topo egiten dau beragaz:

–Eta, Timoteo, zelan habil aspaldion?

–Barregarri ibili nok, baina orain ondo. Zer, kutxilo eta guzti erabili haue?

–Bai, bai: anastasia emon eta prostituta kendu jeustek.

195

Batzutan bai, beste batzutan ez

Joseba ikazgina doa osagileagana:

–Hemen gara, ba, mediku jauna.

–Zer dakarzu, Joseba?

–Hor dozuz sail ederrak gotik behera arakatzeko. Ondo arakatu ondoren, itaunka hasi jako:

–Burukominik bai?

–Batzutan bai, bestetan ez.

–Bihotzeko ondoezik edo?

–Batzutan bai, bestetan ez.

–Hemen gibel ondoan bai ezer?

–Batzutan bai, bestetan ez. Barriketarako gogo barik, osagileak amaitzen dau:

–Nahi badozu, hartu egizu errezeta hau, nahi ez badozu, ez; nahi badozu, bete egizu, nahi ez badozu, ez. Orain nahi eta nahiezak itzita, urten baino lehen 350 euro ordaindu behar dozuz.

196

Astoa eta zu karrerakoak

Manolo perratzailea herriko osagilearen ondoan egoan asto karrera bat ikusten. Laster hasi jako osagilea adarra jo nahirik Manolori:

–Horra, zure moduko hiru lagun karreran.

–Mediku jauna, oker zagoz; zeu zara karrerakoa, hiru horreen moduan.

197

Zer jaten dozun jakin gura

Prantzisko baserritarrak mediku lagun bati, lepoan joaz:

- Zergaitik itanduten deutozu gaixoari zer jaten dauan? Zer dauka horrek zerikusirik gaixoagaz?
- Gaixoagaz baino gehiago, neugaz: gero zenbat kobrau jakitearren.

198

Tente egon ezin danak nori eutsi

Esperientzia gauza ona da. Baina bakotxak dau berea, bere bizitza pertsonaletik jasota. Horra zer jazo jakon Paulori: Tente egoteko baino makalago egin zan eta osagileagana jo eban. Honek, beste osagai askoren artean, hau esan eutson:

- Jan ugari tomatea, horrek ekarriko deutsu barriro nahibeste indar.
- Bai, zereko indarra! Bera tente egon ezin dana, ona dago inori tente eusteko!

199


Zigarroari eutsi, eta lana itzi

Erretzaile amorratua zan Felix aitita osagileagana joan-etorria egin ondoren, hurrengo domekan, bazan lagun artean jakinguria!

- Zer esan deuk osagileak?
- Lan egiterakoan behintzat ez erreteko. Orduan ondo pentsau beharko dok.
- Pentsauta eta erabagita jeukat: harrezkero ez juat kolperik ere.

Errekak bidean zenbat on egin!

Adiskide, baztarrak pozten ekin!



200

Astoak astakeriak

Legea danez, osagileak ere euren bezerutza zaintzen ahalegintzen dira. Leon morrozkoa joan da osagileagana eta lehenengo itauna:

- Gaur arte joan al zara inoregana?
- Herriko botikarioagana.
- Esango eutsun astakeriren bat.
- Hauxe bakarrik: Berorregana etorteko.

201

Diruaren jabe ala morroi?

Diruak indar asko dauka; ez da erreza jabe izatea, bere morroitzen jausi barik. Gizon bik eztabaida gogorrean dihardue. Joxemielek dino:

- Gatxa da dirua eukitea, baina gatxago, behar dan moduan erabiltea. Peruk beste esperientzia bat dauka:
- Ni hori baino zuhurragoa nok: nik euki barik gastatzen juat.

202

Arduak begiak argitu ala...?

Osagileak nahiko zeregin izaten dabe gaixoei gauzak argi ipini eta ulertuazoteko. Berbak sarri aho biko ezpata bihurtzen dira. Ikusmena galtzen joakola bildurrez doa Pedro osagileagana. Konturatu da arduazaltxoa dana:

- Kontuz, Pedro, edariagaz! Bistea galtzen joatzu, ardu larregi edaten dozulako.
- Jauna, zelan da hori? Ez dabe esaten, ba, gehiago edanda, gehiago ikusten dala?

203

Harrokeria kentzeko botikarik bai?

Ikusi osagileak zelango ardurez ibili behar daben, gauzak gaixoei azaltzerakoan. Nekane, 25 urteko neskea, osagileaz dabil urte betean. Azken ikustaldian, badinotso: Nekane, zorionak! Nik agindutako botikeak mesede galanta egin deutsu. Harrezkero 30 urte ere ez dozuz emoten.

- Ene ba! Ez, ez nago emoteko moduan, 25 baino ez daukadaz eta.

204

Umea eskapularioz katigatuta

Osagileen geletan sekretu asko argitzen da. Eskerrak, bestelan okerrago. Badoaz ama-alaba bi osagileagana.

- Jauna, nire alabeak lehengoan Pragako Niño Jesusen eskapularioa iruntzi dau, eta harrezkero tripakomin ikaragarriak sufritzen dago. Osagileak goi eta behe ondo aztertu ondoren, arnas luzea hartuta, badinotse:
- Hemen badago ume bat, baina ez da Pragako Niño Jesus; alabeak jakingo dau nungoa dan.

205

Andrearen sermoiak konbertsinorik ez

Mozkorren artean ere izaten da zer kontau, batez ere, euren bikotekidearen kontura. Alkarren artean isileko gitxi euki ohi dabe. Horra Kaxtor eta Patxi:

- Zu, zer esaten deutzazu andreari, mozkortuta etxera berandu zatozanean?
- Gau on!
- Besterik ez?
- Beste danak bere kontura izaten dira

206

Komertzio eta bebertzio lagunak

Taberna ugari Euskalerriko baztarretan. Azkenaldian lantegiak gitxitu, baina tabernak gehitu. Bai, ba: andrazkoak dozuz gizonezkoak baino gehiago bertara doazenak. Argibide bat nahiko: Badator erdeldun bat Ondarrura eta zerbait erosi gura dau, eta ondarrutar peto bati itanduten deutso:

- Oyes, dónde hay aquí un comercio?
- Comertzios pocos, pero bebertzios uno en cada esquina.

207

Norbera osagilerik onena

Jesus mozkorra langorik! Egin deutzuz mila eta bost osteria osagileagana, baina ardaug egarria ezin kendu. Behin osagileak asmau eutson asmatzekoa: Boteila bete uretan kokarra sartu eta bizirik; ardaugan sartu eta akabo...

Ondoren osagilearen eraso:

- Ikusten dozu, Jesus, zer jazoten dan? Zer ondorio ateraten dozu hemendik?
- Bat behintzat argi dago: guk ardaugaleok ez dogula tripan biziorik izango.

208

Hago lo eta jango dok mehe

Mutil lagun bi ziran, biak hankako min ikaragarriak jota. Osagileagana lehengoz joan ziranean, sartu da Pello eta haren garraxiak eta berba potoloak! Ondoren sartu da Patxiko eta barre algarak. Pellok harrituta.

–Zelan da hau? Ni aienaka eta zu oienaka?

–Ez zera: Hemen argi ibili behar da. Zuk, kokolo haundi horrek, hanka gai-xoa ipini deutzazu eta nik zindoa. Hago lo eta jango dok mehe.

209

Zahartzaroaren gatxa

Inun izatekotan medikuntzan izan behar dira baleko trukoak: holan edo halan gaixoei zerbait sinistu azotea. Honek osasun-indar haundia dauka. Jose Luis senarra harrituta dago, luzaro kexaz egon dan bere emaztea osagileak hain arin osatu daualako. Pozik doa osagileagana zorionak emotera.

–Eskerrik asko, jauna! Baina zelan osatu dozu hain arin?

–Hauxe esanda bakarrik: Zure gatxa zahartzaroaren seinalea da.

210

Nahi ez dauana ezin da osatu

Osagilerik onenak ere ez dau osatzen, osatu gura ez dauan gaixoa. Eta horregaitik Martolo ezin osatu. Mozkorra zelan kenduko, laguntza eske joan jako osagileari. Egin beharrekoak eginda, azken agindu zorrotza emon deutso:

–Hemendik aurrera ardaua ikusi ere ez. Bere lagunak honetaz konturatu dira tabernan: Martolok begiak itxita edaten dauala ardaua:

–Zu, zer? Ardaua edateko moda barria asmau dozu ala?

–Hara, osagileak agindu deust ardaurik ikusi ere ez egiteko. Agindua beteteko da, ez ba?

211

Osagilea gosez hil

Hau ere ba da, ba! Osagileak gaixoen lepotik bizi behar! Jauntxo bat herri txiki batera doa. Zerbait esaten hasi behar ta:

–Hau leku zoragarria! Aide garbia, baztar dotoreak, alaitasuna, bakea...

Hemen gitxi hilgo dira, ezta?

–Bai, noiz edo behin bat. Azkenean noiz eta nor hil da?

–Lehengo astean osagilea.

–Zer ba?

–Goserik.

212

Txandea hartzeko prest

Osagileak sarri izaten dabez ezusteko galantak, nahizta disimulatzen ahalegindu. Begira: Josexo gazteak, kanean zehar doala, osagileagaz topo egin dau eta zuzenean bota deutso:

–Eskerrik asko, osagile jauna, egin deustan mesedeagaitik!

–Nungo mesedea, ezagutzen ez bazaitut?

–Ni ez, baina bai nire osabea, zeuk hil dozu ta. Neu naz haren erederua.

213

Kontuaren kontuak

Betiko kontua: mundu honetan ondo nahastuta datozala gozoak eta garratzak. Baita mediku eta gaixoen artean ere. Lagunzahar bi, aspaldiko partez, alkatu dira eta hor dihardue kontu kontari:

–Osagileaz pozik al zagoz, Julen?

–Bai, Josu, profeta bat dozu.

–Zergaitik dinozu hori?

–Orain hiru hilabete esan eustalako:

–Laster zuk teilaturainoko saltoa egingo dozu.

–Eta?

–Bai egin ere, kontua bialdu deustanean!

214

Medikua turismoko ministro

Munduan leku guztietan daneterik dago. Hau entzun eta zeuk atera kontuak: Osagileak gaixoari unerik larrienean dinotso:

- Argi eta garbi dinotsut: prestau zaitez beste mundura joateko.
- Zer da berori: medikua ala turismoko ministroa?

215

Haize danak ez dira bardinak

- Zu, gazte, zetatik bizi zara?
- Ni haizetik?
- Ez da izango?
- Bai, flautista nozu: putz eginda bizi naz.

216

Hilda gero, salda bero

Gaztetan lagun izandako kuadrila bat alkartu da herriko jaietan. Alkarren barri kontatzen dihardue. Txanton berbatsuena:

- Gaur dana da kejea eta kejea: etxean, kalean, beharlekuan... Xilbistrok botaten dau berea:
- Nire enpresan inor ere ez da kejatzen.
- Ze beharleku daukazu?
- Enterradore.

217

Egizu lan, eukiko dozu zer jan

Alperraren gosea inoren izerdiz asea. Hor doa baserri batera eskeko gazte bat:

- Mesedez, gose naz eta jateko pixka bat.
- Hain gazte eta eskean? Egizu lan eta eukiko dozu zer jan.
- Bai, baina beharrak gosea kendu beharrean, emon egiten dau.

218

Alperrak lotsarik ez

Braulio gizon errimea eta eskean. Ate baten deituta, etxeoandra pertxanta batek urteten deutso:

- Zer, hain gizon sendoa eta eskean? Ez deutsu lotsarik emoten?
- Lotsea bai, baina eskatu barik ezer hartzen badot, astindu egiten nabe.

219

Inoren lepotik bizi nahia

Beste eskeko harek ez eban suerte ona izan. Bedarretan dabilen asto batek baino karga haundiagoaz etxera heldu dan gizonari eskaria:

- Mesedez, beharra edo lana gura neuke. Barrura sartu eta aste biko ogi kurrusku gogorra eskeintzen deutso, esanaz:
- Eutso, honegaz biak eukiko dozak batera: ogia eta lana.

220

Eskerako eder, lanerako alper

Kale ertzetan, eleiz ateetan eta santutegietan, batez ere, beti eskekoren bat edo bi. Kaxinta kalean zehar doala, andra eskeko bat erreguka:

- Andrea, errukitu nitaz, ez naz holan sekula aurkitu eta. Kaxintak aurrera eginaz:
- Egia dinozu: Atzo ezkerretik zengozan mantxu, eta gaur eskumatik?

221

Haize soinuak barre eragin

On Erasmo parrokoari behin ederra jazo jakon: Hor dihardu domeka arratsaldean Errosario santua errezatzen, udako beroenean. Pulpito zabalean jo ta ke Erasmo; pulpitoak baeukan azpian zulo bat. Eta ez jakon, ba, bertatik errosarioa jausi. Eta beti bertan jesarten zan sakristauaren andrea erdilo errezu soinuan. Ez dau bera joten buruko moinuan. Hartu dauan ikareagaz, ustebako piiit zaratxoak urten eutson. Jentearen barre algarak, baita Erasmo berak ere. Jentea baretu nahirik, parrokoak badino:

- Zenbat bider esan deutsodan bere senarrari, sakristau arotzari zulo hori tapatzeko... Beno! Jenteak gaur ere zeugaz batera barrezka jarraitzen dau.

222

Diruak bai eragina!

On Fakundo eleizgizon baketsua eta maitagarria da. Ustebako jazoeretan ere trankil urtengo eban aurrera. Behin, mezako hasierako "konfiteor" makurtuta, errezatzen dagoala, bat-batera kezka larri bat burura: Diru poltzea ahaztuta itzi dot nunbaiten. Eta "mea culpa" hiru bider esanaz bularra joteko orduan, holan egin eban: kolpe bat paparrean, bigarrena patrikaran eta hirugarren atzeko poltzikoan. Eta bertan aurkitu eta nasai aurrera

223

Badaezpadan danak bedeinkatu

Hor doa Kaxpasio parrokoa, monagilo eta guzti, Justo gaixoari eleizakoak eroaten. Otoitzean jardun dau ohe ondoan:

- Ea, Justo, esan neugaz: "Bedeinkatua Jaungoikoa.... Bedeinkatuka errezkada luze bat. Ondoren "madaikatuka" ekin behar:
- Esan, Justo: "Madarikatua Satanas" . Eta Justo isilik. Alperrik ahaleginak, Justok ez dau jarraitzen.
- Zer dala eta hori, Justo?
- Hara, jauna, oindino ez dakit nora joango nazan, eta badaezpada...

224

Ezkontza butroi antzekoa ei da

Zelango larrialdiak lehenago Pazkualdian "txartelak" zirala eta! Pasadizo asko kontatzen dira, horri buruz. Hona bat: Eustakio mutil zaharrari itauna:

- Zer da ezkontza?
- Garbi esanda, neuk ez daukat horren esperientziarik; baina, dinoenez, butroi baten antzekoa ei da.
- Ze dotriknagaz zatoz, Eustakio?
- Bai, bai; kanpoan dagozanak barrura sartu guran, eta barruan dagozanak kanpora urteteko prest.

225

Nahiago ardauz beterik, balaz baino

–Zu, entzun dozu holangorik?

–Zer?

–Ardauak gerreak baino jente gehiago bialdu dauala beste mundura, dinotso
Kaixparrek Moro bere lagun mozkorrari.

–Bai, holan izango da, baina nik nahiago dot ardauz beterik joan, balaz bete-
rik baino.

226

Beti da leloren bat

Jenaro etxejauna kanpotik da. Hirugarren egunera deitzen dau etxera:

–Zer, honezkero leloren batek deituko eban etxera:

–Ez, ba, zeu zara lehenengoa.

227

Urteak joan ala etorri?

Lehenago auzotar izandako bi, adin ezbardinetakoak, alkartu dira kalean.

–Zu, zenbat urte alkar ikusi barik! Bost urte bai.

–Bai, urteak joan egiten dira.

–Zuri joan, niri etorri.

228

Hori dok sanidadea!

Erroberto osasun sendoko gizasemea izan da, baina aspaldion jota dabil. Bere
lagun batek ustekabea kalean aurrera aurkitu dau, upel txiki bat lepoan
daroala.

–Zu, nora zoaz upel eta guzti?

–Osagileagana.

–Zer, sagardaua daroatsazu, ala?

–Bai, zera; txixa: hilabetekoa eroateko agindu eustan eta...

229

Jakitun asko dago baztarretan

Benito herriko sasijakintsu xeblebre bat dozu. Jenteak era guztietako itaunak egiten deutsoz, eta Benitok beti urteeraren bat, atetik ez bada, tximiniatik. Zeuk ikusi:

- Benito, Zabaleko Prudenek zergaitik dauka ulea zuria eta bizarra baltza?
- Zergaitik izango da, ba? Ulea bizarra baino hogeitaz urte zaharragoa dalako.

230

Sartu baino lehen ikusi zelan urten

Txanton eta Brijilio beti ebilzan alkarri adarra jotzen; bata ulezuri egoan eta bestea burusoil.

- Zer, Brijilio, aspaldion edur asko, ezta?
- Zer ba?
- Mendi kaskoa zuri agiri da ta...
- Tira, gure alderdian edurra, baina zuenean, antza, txarrago jazo da?
- Txarrago, zer?
- Haize zakarrak etxeko teila dana eroan.

231

Itxoin ezkerro, zahartu

Nor luzaroago bizi... Ez da desapio txarra. Lontzok 102 urte bete ebazan, eta lagunak, zorionak emonaz, zirri batzuk egin ere bai. Erramon auzoko lagunak itaun hau egin eutsen:

- Lontzo, hori da adorea! 102 urte! Zer egin behar da horretarako?
- Errez-erreza da: itxoiten egon baino ez.

232

Tentelak ere ez dagoz sobra

Gaztetik lagun diran Kaxtor eta Lukik ez dabe sekreturik alkarren artean. Ezkontzari buruz ere jardunaldi luzeak egiten ebezan. Hauxe dozu egun bateko hautu-mautua:

- Nik, ezkontzekotan, holangoxe andrea gura neuke: ona, polita eta aberatsa, baina tentela ez daitela izan, dino Kaxtorrek. Lukik, ostera
- izenari dagokionez—beste aukera bat egiten dau: Ona, polita eta aberatsa, tira. Baina tentela? Hori lehenengo lekuan, Kaxtor. Tentela ez bada, ez da nigaz ezkontzen.

233

Etxean nor nagusi?

Behin errege batek apustu xelege hau egin eutsen herritarrei: Gizonak aginduten dauan etxeari zaldi eder bat oparituko deusola; eta andreak aginduten dauan etxeari, behi bat. Eta gehienak behia eta behia eroan eben. Prudentzio ez da konforme horregaz.

- Gurean, Jaungoikoak aginduten dauan lez, gizonak aginduten dau. Eta hor doa harro-harro etxera zaldi eta guzti. Biharamonean zaldiagaz erregearengana:
- Zer pozik ezta, Prudentzio?
- Ni bai, baina andreak gurago dau behia.
- Banangoan, ba! Ekatzu zaldia eta zoaz bape barik etxera, lehen guzurre esan deustazulako.

234

Amaginarrebeagaz zelan?

Kasimiro ezkondu eta urte betera bere lagun Errobertogaz alkartu da:

- Aspaldion ondo amaginarrebeagaz?
- Ondo, kostata, baina ondo.
- Zelan lortu dozu?
- Kondizino bi bete behar dira horretarako:
- Bi baino ez?
- Bat: ahoa zarratu, eta bi: poltzia zabaldu.

235

Berbabako berbeta xelebrea

Joxpa ez jatzu, ba, alemandar mutil ulegorri bategaz ezkondu! Gerra ondoren hemen gelditu zan soldau alemandar bat. Joxpa egunero joaten zan bere etxera esnea eroaten eta azkenerako alkarregaz maitemindu eta ezkondu.

Behin kinkaileru ezagun batek badinotso Joxpari:

–Harritzekoa da, Joxpa! Zuk ez dakizu alemaneraz berbetan, ezta berak ere euskeraz. Zelan konpondu zineen?

–Ai ene! Hor beste era bateko berbetea erabilten da: begittu, begittu, zirritxu, zirritxu, ezkondu eta kittu.

236

Zu zergaitik ezkondu zinan?

Jontxu ume bihurriak itaun hau egiten deutso aitari:

–Aita, zu zergaitik ezkondu zinan amatxogaz?

–Ene seme, zeugaitik, zeugaitik.

237

Hori dok eguna ondo amaitzea!

Kalixtro eta Kaxinta baserri zahartxu batera ezkondu ziran. Urte betera, dana goitik behera barriztutea erabagi eben. Erdi eginean egozala, behin ohera joanda, badinotso andreak senarrari:

–Kalistro, hor goian iretargi bete-betea ikusten da.

–Kaxinta, orain itzi egiozu eta egizu lo; bihar hustuko dogu.

238

Adarra jo eta ostikadea hartu

Gurata edo gura barik, hildako gehienak osagilearen eskutik doaz bestekaldera. Harginak ere badaki hori: Pedro Mari hor dabil orma lodia jasoten. Medikua bertatik pasakeran, izerdi patsetan lanean diharduanari hasi jako adarra jotzen:

–Ekin, ekin hortxe, Pedro Mari; hargin txarraren faltak igeltzeruak tapauko ditu ta. Igeltzeru beharrik ez dauka Pedro Marik mediku zorritztoa tapatzeko:

–Eta mediku txarraren faltak enterradorearen hatxurrak eta paleak tapatzen ditu.

239

Hanka bietatik zein zaharrena?

Ibili ezinik dabil Kaxinto. Zoritxarrena erreumeak izurratu deutso ezkerreko hankea. Osagileagana joanda, erakutsi deutso. Honek ondo aztertu ondoren, ez deutso aurrerapen haundirik emon:

–Hanka honek daukazan urteakaz...

–Zer deritxo, jauna? Eskumakoa baino zaharragoa dala ezkerrekoa?

240

Zentzuna, zentzuna da

Gure Joxandres edarizaletxo da. Halako egun batetik gora, taberna lagunak harrtituta daukaz: Lehen paitarra kopatik edaten ebanak, orain basotik edaten dau:

–Zu zer? Martxea aldatu egin dozu, ala?

–Zer ba?

–Lehen kopatik edaten izan dozu, eta orain basotik.

–Bai, medikuaren esana bete egin behar da.

–Medikuak agindu deutsu kopatik basorako pasoa?

–Hauxe esan eustan lehengoan:

–Nada de copitas, e! Zer egingo neban, ba?

241

Inoren haginak minik ez

Lehen haginak jausi egiten ziran, orain atera egiten deutsuez. Halan ere, ahal dala, ez ateratea gurago dabe gehienak. Karmelok gorriak sufritzen ditu haginak aurrean hartuta. Osagileagana joanda, honen aholku garbia jaso dau:

–Nik, neurea balitz, atera egingo neuke. Karmelo ez egoan isilik gelditzeko:

–Baita neuk ere, zurea balitz.

242

Medikuak ere ez dakie dana

Lehenago abadea eta medikua beti ebilzan alkarregaz; adiskide, baina ez senide. Bakotxak bere kapeleari eutsiko eutsan. Behin Joxinixio osagileak On Andres abadeari agertu eutson Bibliari buruz kezka bat:

–Nik ezin dodaz sinistu Bibliako gauza batzuk. Esaterako, zelan bizi leiteken gizona hainbeste urte:

–Joxinixio, eukizu kontuan orandik ez egoala medikurik munduan.

243

Tripazorriak zorririk txarrenak

Zelango ostikadea! Badoa eskeko bat medikuagana, urdaileko minez. Osagi-
leak zehatz-mehatz aztertu ondoren, badinotso:

–Ez deusut ezer ere aurkitzen urdailean.

–Horrexek emoten deust, ba, min, hutsik eukiteak.

244

Enterradorearen borondatea

Mediku barria herriratu jaku. Pepanton da lehenengo joan jakona. Tenzinoa
hartu, odola neurtu eta gainerakoak egin eutsozan. Kontua eskatzerakoan,
eskuzabal agertu guraz edo:

–Bakotxak daukanetik emon dagiala: oilaskoa, erbia...

–Nik, jauna, enterradorea naz eta, hiltan danean, doan lurperatuko dot.

245

Okerraren begiak beti oker

Gure Anton ez da pozik bizi: Dana eta beti txarto, umore txarra dariola.
Behin andra lagun artean botaten deutse loretxo hau:

–Niri orain ere jazo jat ba!

–Zer? Zer, Anton?

–Zera, sei txita jaio, eta danak hil, bost izan ezik...

246

Jakitunak mutu

Behin unibertsitario gazte bi baserri aldera doaz. Tabernara doaz, baserritar-
ren lepotik barre egin gurarik edo, erdian hartu txapeldun bat eta itanduten
deutsoe:

–Zu zer zara, asto ala mando?

–Ez dakit, ba, bien erdian nago ta.

247

Txapela buruan eta ibili munduan

Erramon Errekalde aspaldion dabil bere lagun Txilibristo ikusteko egarriz. Beste barik urten dau bidera, Gasteiz aldera. Kalez-kale hamar mila atzera-aurrera eginda, Dato kalearen erdian gizon baten aurrean jarri zan eta itaun hauxe luzatu eutson:

- Zu, ba al dakizu nun dagoan Erramon?
- Zer dakit nik nor dan Erramon.
- Erramon neu naz, baina ez dakit nun nagoan.

248

Argi ibili beharra dago

Zenbat holango xelebrequeri jazoten dan lagun artean! Erdiak jasoko bagenduz, ilunetan argi egiteko ere... Eutsi bat:

- Hi aixkide, ni gaur erdi lelotuta naiabilk.
- Kia, orduan atzotik gaurkora mejoratu egin haz.

249

Barruko haizeak zelan kontrolatu?

Zer ete da pentsamentu txarraren indarra! Betozkoa astundu, haginak karras-kadaka ipini, eskuak ukabildu... Hain gatxa ete da, ba, barruko haizeak kontrolatzea? Mikelek ba eukan errezeta on bat. Horra trenean gizon bi aurrez-aurre. Mikel behin serio, behin irribarrez, ba erabilen kolkoan zerbait. Eta holan luzaroan. Halako baten aurrekaldeko gizonak:

- Zeri egiten deutsozu barre?
- Neure buruari txisteak kontatzen deutsodaz, eta uxa! umore txarrari eta kurra! irribarreari.

250

Beti ez da benetan ibili behar

Kandido ba ebilen Legutianoko zubian arrankariak harrapatzen. Handik pasakeran, hainbeste gelditzen ziran, ze arrantzu egiten dauan jakin guraz:

- Zer, asko jausi al dira? Amuaren puntan patata bat erakutsiz:
- Zeugaz hogeita bosgarrena.

251

Eskean ere jakin egin behar da

Eskean datorren bati etxekoandreak:

–Zer? Atzo itsua eta gaur gormutua?

–Zer egingo deutsozu, ba, etxekoandra? Gaurko jentea barrizalea ere bada ta:

252

Eskatzea da bat, emotea bi

Eskeko ezagun bat baserrira eskean. Ateko deia entzunda:

–Nor da?

–Ni Maximo eskekoa.

–Ez dago inor etxean.

–Zu nun zagoz ba?

–Ni lo nago.

253

Txandako hankatik herren

Bilbobo gizon aberast batek Atxuriko denda baten herren guztientzat sari ederrak ipini ebazan. Goizean goizetik herren piloa ate aurrean. Ugazabak atea zabaldu eta zezen bihurri bat bota deutse. Makuluak bota eta hango perrotsa! Ez zan herrenik agiri inguruan.

254

Hobe txori bat eskuan, ez mila zeruan

Manuel komentu batera joan da morroi lanaren truke erdera pixka bat ikastera, soldautzara joan aurrretik. Ortu zabala euken praileak. Biharamonean Juan Jose anaia Manueli ortu inguruak erakusten.

–Hatxurrak, areak, igitaiak... nun dagozan.

–Eta, Juanjo, han beheko etxe txikian zer dago?

–Han turbina bat, siketea errekatik ura aterateko.

–Ederra kontua: siketea baserritarrak errogatibak egitera bialdu eta zeuok turbina zabaldu eta errekako ura.

255

Txikienak sarri egirik haundienak

On Andres abadea dotrinea emoten.

–Ea Patxi, Aita Semea al da?

–Bai, jauna?

–Zer esan dozu?

–Entzun dauana: ezinekoa da aita izatea, aurretik semea izan barik.

256

Okerrak zuzentzen

Aintxina baten dotrina txapelketak antolatzen ziran, sari eta guzti. Eta domeka arratsaldetan, Errosario ondoren, umeak altarera aterata, danen aurrean dotrineari erantzuten:

–Ea, Patxi, zer pekatu egin eban San Pedrok?.

–Nik dakidanik, bat bera ere ez.

–Ez al eban Jesus ukatu?

–Ez, Jauna.

–Zer egin eban, ba?

–Jesusek aurretiaz esan eutsona bete: “Zuk laster ukatu egingo nozu”.

257

Sermoi baten balioa

Beti emon dau zer esana abadearen sermoiak... eta zer egina. Batez ere, eska-bide-orduan. Holako baten, Domund egunean, hona zer asmau eban: “Gaur sermoi luze eta latza egiteko asmotan nator. Baina ez dot hasiko, danok limosnea emon arte. Hango txanpon hotsa! Egundo ez ei zan hainbeste batu.

258

Kanposantuko negozioa

Hemen doguz barriren barri abadea eta osagilea, paseatzen eta barriketan. Abadeak zerbait esan behar ta:

–Hori mahasti ederra daukana Pontxiok! Aurten diru asko jasoko dau. Osagilea hasten jako ziria sartzen:

–Baina harek gehiago, eleizea erakutsiz.

–Eta solo arteko harek gehien, zeuri esker (kanposantua erakutsiz)

259

Eleizara joanak ala eroanak?

Abadeak zarata zaleak ei dira; entzule gehienak badakie zarateari neurriak hartzen. Oraingoan Prantzisko jaunak gizonezkoei eraso eutsien:

–Gizon asko, jaio ziranean, amak eroan ebazan eleizara; ezkontzara, andragaiak; hileta eleizkizunera, seme-lobak. Ez litzateke txarto egongo behingoz zeuok zeuon kabuz joaten hastea. Atera ete dau probetxurik?

260

Abadearen oilaskoak bai gozoak!

Badira abade batzuk –izan ziran!– euren ortutxoa eta oilo banaka bat zainduten ebezanak. Gure On Pedrok zazpi oilasko eder eukazan. Gau baten bat ez beste guztiak ostu eutsoezan. Zapigarrenari samatik eskegita karteltxo bat itzi eutsoen:

–“Zazpigarrena ez ostutea”. Abade jauna, besterik ezean, zazpigarrenari begira koformatu zan:

–Beno, sikiran aginduak badakiez eta... on egin deioela!

261

Kontuz sekretuakaz!

Monagiloen eta abadeen artekoak ere asko eta politak dira. Horra bat: Joxetxo monagiloak zozo habia aurkitu eban, lau kume eta guzti. Abadeak handik-hemendik atera deutso sekretua; kumeak harrapatu eta jan ere bai. Handik urte batzuetara, ezkontzako paperak bete beharra heldu jakon monagiloari. Badoa abadearengana eta:

–Ekontzera noa, jauna, eta ea zer paper edo parperondo bete behar dodan”

–Ondo dago; zure andragaiaren izena?

–Ez horixe! Neuk esan berorri!

–Zergaitik ez?

–Zer? Zozo kumeena barrero jazo dakidan?

262

Isilik egoteko aho-zabalik

Petronila andrea, etxe eta auzo barriketa hutsa dariola dabilen bat da. Osagileagana doa. Irripartsu hartu dau Eusebio jaunak; eta hasieratik agindu hauxe emon deutso:

–Zabaldu ahoa, mesedez.

–Ene ba! Holangorik! Eskerrik asko, jauna. Honaxe etorri arte, beti entzun dot:

–Itxi aho hori!

263

Lorik gozoena sermoi denporan

–Osagileak karrera luzea egin ohi dabe, baina liburuetatik baino gehiago gairxoakandik ikasten dabe. Behin hasi jako Bixenteri sekretuak ateraten:

–Zer, lotan zagozala berba egiten dozula?

–Ez, nik berba egiten dodan artean, besteak egiten dabe lo.

–Zer egiten dozu horretarako?

–Sermoa.

264

Tabakorriak bizia luzatu

Joxandres erretzaile amorratua da; eta zigarroak erreago eta bera ere erreago. Kezkaz doa osagileagana:

–Egia al da tabakorriak bizia laburtu egiten dauala?

–Duda barik, Joxandres.

–Bai gero? Ni lehengoan, proba bat egitearren, hiru ordu egon nintzan erre barik, eta eternidatea baino luzeago egin jatan.

265

Gau osoa eztul ensaiatzen

Erikardo hor joako Kepa osagileari, zigarro puru ederra eskuan biztuta ebala eta eztulka eten barik. Bereak eta bost entzun ebazan; osakaiak hartu eta etxera. Handik 15 egunera barrero. Osagileak igarri deutso:

–Gaur eztul hobe daukazu.

–Euki behar! Ez naz alperrik ibili gau osoan ensaiatzen!

Azpitik ziriak, goitik intziriak

Joxe eta Joxpa –senar-emazte edadetuak– osagileagana doaz. Urte asko lepoan, baina egundo osagileak ikutu bakoak. Azpiziriak –supositoriak– hasibarriak ziran. Osagileak eurak hartzeko agindu eustson Joxeri. Nundik hartuko?

–Por el recto. Etxera joanda, hartzeko ordua heldu jake, eta “recto” nundik danik ere ez. Telefonoz deia:

–“Recto” esan deusku, jauna, baina, guk eee...

–Tome por el “ano”. Eskerrik asko!

–Joxe, “anotik” hartzeko esan deust. Eta hori nun da, ba, andrea?

–Zuk ez dakizu ala? Gu gagoz onak! Hirugarrenez deitu beharko deutsogu, hasarretuko jaku, baina:

–Jauna, parkatu, baina...

–Tome por el culo”. Esandakoa, Joxe, hasarretuta “por el culo” esanda, eskegi egin deust.

–Joxpa, jo daigun lehengo bide zaharretik; anotik barik, ahotik esango eutsun eta.

Ulea kontserbatzeko erremedioa

Pertsonari uleak zer pentsau asko emoten deutso: ulezapadunak burusoil izan nahi, eta burusoilak zapadun; baltzak zuri eta zuriak baltz. Eta jausten danean zer? Orduan beharlekuak! Egon behar leuken lekutik jausi, eta egon behar ez dauan lekuan urten... Leonardo kezka doa osagileagana, ule dana jausi aurretik zer egin leiken itaunka. Osagileak kutxatxo polit bat emon deutso, esanez:

–Eutsi haxe, uleak kontserbatzeko oso ona da.

–Eta zer egin behar dot honegaz?

–Jausten jatzuzanak hortxe gorde. Ondo kontserbauko jatzuz.

268

Emotekoa bada, arnasarik ere ez

Arnasea, zer da arnasea... batez ere lehenengoa eta azkenengoa! Saldu edo erostekoa balitz! Eskerrak lehenengoa emon deuskunak azkenengoa ere gutxi kentzen deuskuna... Pantxika bai arnas zalea! Hilzorian dagoala jakinik, bere ahizteak osagileari deitu deutso. Osagileak berba gitxitan dinotso:

–Honek laster emongo dau azken arnasea.

–Zer esan dau? Azken arnasea emon? Emotekoa bada, zati baterako gagoz. Honek emon, arnasarik ere ez!

269

Erleak bai azkar eragin

Apustuak apustu, batzuk bete, besteak hustu. Hamaika tongo eta tango egin da holangoetan! Kontua, irabaztea da. Korrikalari txapelketa baten jazotakoa da. Ezusteko ikaragarria! Gitxien uste ebenak irabazi: Kepak. Zorionak emotera joan jakozanean, ez egoan kilikili egiteko moduan:

–Zorionak dinozu? Harrapatuko banen nire kolkoan eta praktetan erleak sartu deustazana, emongo neuskioz bai “zorion” ederrak.

270

Santuari erreguz, urkoari erneguz

Zenbat bider egoten ete dira santuak, hainbeste eskari entzunda, nori zer emongo asma ezinik! Hor daukazuz bi San Antonioren aurrean: Bata aberatsa, enpresa barri bat zabaldu behar daua eta laguntza eske. Bestea eskekoa, bazkari kopau baten eske. Biak jardun dabe luzaroan; halako baten aberatsak badinotso eskekoari:

–Zuk zer eskatzen deutsozu?

–Eguerdirako bazkari kopau bat.

–Eutsiz 50 euro eta itziozu bakean santuari, ea neuri entzuten deustan.

271

Batekoz beste

Antonio arotza da. Parrokoak behin hilkutxa eder bat egitea eskatu eutsan. Bai ederra et arin egin ere. Bizikletan hartu atautea lepoan eta hor doa. Eroan behar dauan etxeko atera heldu zanean, eupada sendo bat eginaz:

–Hemen bizi al da hil dana?

272

Txori gorrak beti aurrera

Kazariak ere sekulakoak doguz biribilak botaten, ez tiroak bakarrik. Izan ere, eskopetea bizkarrean hartu ezker, etxera eskuhutsik bihurtu baino lehen, edozer. Hemen dozuz kazari bi: uso bat aidean eta tiro batak eta tiro bestea, eta usoa aurrera. Joxek Kauldiori:

–Zu, zergaitik ez da jausten?

–Gorra izango da ta, eta entzun ez dau egingo.

273

Badaezpadan, apatxetara begiratu

Herriko jaiak gainean eta zeozer atondu behar, joko, txapelketa etabar. Prixa-ka dabil udalako jaien arduraduna. Herriko baztarretan iragarki haxe ipini dau: “Domeka goizean karrera bi izango doguz: astoena ta txarriena, baina herriko lagunen artean bakarrik”

274

Behiak eguraldiaren igarle

Baserritarrak atzeratu edo erditontotzat hartzen dabez askok. Baina...bainak ortuan. Erakutsi ederra emon gura eutson Eustakiok kale ume bati:

–Guk baserritarrok behietatik igarten deusogu eguraldiari.

–Zelan?

–Hara: behiak zutunik badagoz, ona; etzunda badagoz, euria. Handik laster erdiak zutunik eta erdiak etzunda.

–Eta honek zer esan gura dau?

–Erdi-laino eta erdi-eguzki egingo dauala.

275

Atzetik primeran

Bazkari baten izanda, etxeratu dira andra-gizonak ondo beteta. Auzokoari holan kontatzen deus gizonak:

–Arrainsopa, indaba gorria, txarriki eta guzti.

–Hurrengo?

–Saiheskiak

–Eta atzetik?

–Atzetik primeran.

276

Asto gainerako hobeto

Herri txiki batetik gizon bat Bilbora doa. Atxurira helduta, jenteari itaunka: Gimón osagileagana joan gura dauala eta zein autobus hartu behar dauan hara joateko.

–29. autobusa, erantzun deusoe. Eguerdia aurretxean ere han aurkitu dabe geldi eta aspertuta.

–Zer begira zagoz hemen?

–29. autobusaren zain nago; oraindik 24 pasau dira; laster izango da 29a honezkero.

277

Hartzeko pronto, emoteko tonto

Praixku diruz eskas dabil. Lagunak aspertuta daukaz, beti eskean dabilen eskeko honek. Gaur Martolo aurkitzen dau eta betikoa:

–Matolo, ez dozuz hemen izango 20 euro izteko moduan?

–Ez, hemen ez.

–Eta etxean?

–Etxean danak ondo.

278

Txikira paso, handira hordago

Nok baino nok... horretan gaituk mutilak gu euskaldunok! Nok bota guzur haundiagoa. Patxik bota dau berea:

–Atzo 20 ahari ikusi ditut aza baten azpian lotan. Kittok parekoa edo haundiagoa:

–Nik, osteria, 40 gizon ikusi ditut galdara baten barruan mailu hotsean; eta ez eutsoen alkarri entzuten.

–Jasaus! Zetarako behar dabe galdara hori?

–Zeuk esandako aza hori egosteko.

279

Txoferraren estu-larriak

Dunixi baserritarra beranduegi hasi da kotxea gidatzeko baimena ateraten. Idi buztarria eroatea dalakoan. Andreak ere ekin eta ekin, eta bakearen alde. Baimena aterateko azterketara badoa eta lehenengo kolpean:

–Pasonibel baten, motorra amatatzen jatzu. Ze martxa jo behar dozu: atzera ala aurrera?

–Seguruenik martxa funebre.

280

Barrabasa! Euliak ere ezin zaindu

Frankok negar asko eragin eban baztarretan, baina barre algara asko kostata. Baina ha ere makurtu zan. Mendira joan zaneke baten, harrituta gelditu zan ederraren ederrez: begiak erdi itxita eta ahoa zabalik. Laster jaso dau andreaken abisua:

–Maitea, itxi egizu ahora; jenteak zer esango dau? Euliak sartuko jatzuz.

–Bai, kariño, eta barruan dagozanak zelan urtengo dabe?

281

Lorito eta txoripito baktotxik!

Loritoak jaso eta batzen dabez hanka bikoen arteko pasadisorik akordagarrienak. Zer esaten daben ez dakie, baina esatekoak esaten dabez. Bazan lorito bat, bosgarren pisuko balkoitik abisu hau emoten ziharduana:

–“Jaso hamar butano” Agindua agindu, Lontzok hartu bizkarrean butano ontziak binaka eta jaso ditu bosgarren pisuraino. Atean deitu eta... lorito bat bere kautan kontu kontari dabilela ohartu da. Sartu barrura, hartu loritoa eta orman josi eban. Eta, ene! Aurreko orman ikusten dau Jesus Kurutzean:

–Zuk zenbat butano jaso ete dozuz, 2.000 urte hor josita egoteko!

282

Auzoko behiak erroak luze

Joseba ibiltari haundia da; ez da munduan izango baztarrik ikusi ez dauanik. Azkenengo Japonen izan da. Etxera etorrira, kontau eta kontau han ikusi dauana:

–Oraingoan ere ikustekoak ikusi dodaz! Nun eta Japonen. Horrek txiki-haundiak dozuz. Ez dakizue ondo: Herri baten –egundo holango herririk!– munarritzat pernilar eukezan jarrita, alanbre postetzat solomoak eta argi alanbretzat, lukainkak.

283

Lolo baino hobeto lelo

Maniak zer dira? Zeuk igarri. Antoniok behintzat onerakoa eukan:

–Lelokeri bat idazten badot, neuk egiten dot barre. Ondo ezagutzen eban batek laster seneratu eban:

–Orduan bizitza osoa daroazu umerotsu...

284

Gona azpiko oilasko pare

Bizimoduak modu biziak sortuazoten ditu sarri askotan. Petra Kakamerke ez zan makala! Zeuk atera kontuak: Badoa trenean Bilbora Santomasetan. Tripa haundi eta guzti, umedun edo egoalako antza emoten eban. Trenean ez zan leku egokirik. Baina tamainu horretan ikusita, Peruk bere lekua itzi deutso. Jagiteko orduan, hor agertzen jako gona azpitik “mutiko pare”, bosna kiloko oilasko pare.

285

Guzurra dalakoan, egia galanta

Guzurra gaur egun merke saltzen da; hainbat karuago egia. Lehenago bazan denporapasa modu bat: nok guzur handiagoa bota. Hasi da Txanton:

–Neu nok munduko tontorik haundiena. Eta Joxerramonek erantzun:

–Hori ez dok guzurra; hori egi hutsa dok, mutil.

286

Lepotzak eta finak, Jainkoak eginak

Guztiok Jaungoikoak eginak garala, abadea esan eta esan dotrinan. Bazan mutiko lepotxa bat, abadeagana kexaz joan zan:

- Berorrek zelan dino gure gorputzak Jaungoikoak bere eleiz eta bizilekutzat daukazala?.
- Holantxe da ta.
- Eta nirea be bai?
- Bai, horixe, bentaja eta guzti: sakristia ere bai.

287

Zerura joateko baino hobea

Zeruko atean ere a zelangoak jazoten diran, dinoenez. Askoren artean bat: Oraingoan Txomini heldu jako txandea. San Pedrok, betaurreko eta guzti, ezin dau zerrendan bere izena aurkitu.

- Ikusi daigun, Txomin: guzurtxorik edo?
- Ez, jauna.
- Ostu edo?
- Ezta
- Koño edo antzekorik?
- Amesetan ere ez.
- Beno, argia dago: orduan zu linbora.

288

Lapurrakaz zuhur

Lapurrak bide laburra. Katxin zapatuan dendara doa eta:

- Ene, ez daukat dirurik! Hurrengoan ordaintzekotan. Ugazabak ikusi dau eta agirika zerbitzariari:
- Ordaindu barik itziko zeuntsan, ba, lapurrontzi horri?
- Ez izan bildurrik, jauna! Laster da hemen; biak hanka bardinekoak emon deutsodaz eta.

289

Bi emon, lau hartzeko

Benetako lapurrak ondo neurtutako pausoak emon ohi dabez. Gainera esperientzia luzea badabe... Juan Pedro eta Petra kontzertu zaleak dozuz. Horra ustekabean sarrerako txartel bi etxera kartaz:

–“Ba al dakizue nok bialtzen deutsuezan sarrerok?” Ez nok, ez zergaitik. Zer dan agertuko dala ta, badoaz kontzertura. Etxerakoan, etxe dana hankazgora. Eta mahai gainean ohar bat:

–“Orain badakizue nok bialdu deutsuezan sarrerako txartelak. Hau ere badok ba! Bi emon, lau hartzeko!”

290

Hil-kanpaiak martxan jarteko bidea

Tabernan gizonen arteko kontua da. Dana dala, eztabaida gogorra sortu zan. Kontua ere aintzat hartzekoa da: Gobernuak, asmoa dau, gizona hiltean, haren pentsino osoa andra alargunari iztea. Patxoren ustez, gizonok ere horren alde egin beharko dogu. Baztarretik batek zarataka:

–Ez kontxo!

–Zergaitik ez?

–Lege hori jarten bada, handik aurrera gizonen baten hileta–kanpaiak egunero entzungo dira herrian.

291

San Pedroren lukainka osorik

Ipuinak ipuin, azkenean egi atalak agirin.

Dinoenez, Jaungoikoak eginak dira zeru-lurrak, gizakiak eta enparau guztiak. Jaungoikoak zeruan lehenengotatik urdaiazpizkoa ipini ei eban ate ondoan zintzilik, hasarretu barik hara helduten dan senar-emazte bikotearentzat. Eta oraindik hasi barik ei dago.

292

“Amen” izena, benetan zuzena

Matrimonio batek hamar seme-alaba izan ebazan, eta orain hamaikagarrena dakarre bateatzera eleizara. Jaungoikoak emon ahala ekarri behar ei zan eta...

Abadeak betiko itaunak:

–Zer izen ipini gura deutsozue? Aitak bat-batera erantzun eutsan:

–Honen izena “Amen” izango da.

293

Etxeko sermoiaren induljentziak

Andrazkoak badauke nahiko meritu, senar-morrozkoak buztarrian ondo heziten. Jaunak talentua emonda edo... Txomin ere, kostata, baina azkenerako menderatu eban.

Behin, domeka gauerdi-aldean, lagunakandik banatzean, bere agurrean nahiko agertu eban:

–Gauon! Neu ere banoa sermoia entzutera.

–Hain berandu sermoia? Norena?

–Gurean 12tik aurrera hasten dok.

294

Ikasi ezkeru, egin behar gero

Gogoan daukat gotzain zuhur batek gotzain egin-barriari emoten eutsan kontsejua:

–Goztainak abadeei erakusten deutse abade izaten, eta abadeak gotzanari gotzain izaten. Antzera izango da senar-emazteen artean ere. Josu eta Imanol gaztetan lagunak izandakoak, ezkondu eta hiru urtera alkartzean, Josuk harrituta Imanoli:

–Mutil, dotore zabiz, prakak erraia eta guzti plantxauta, zapatak dizdiz garbi eta...

–Um! Ikasi beharra, Josu; ezkondu eta behingoa erakutsi eustan andreak; eta ikasi ezkeru...

Jostomingo umedun...

Bizitza bera da eskolarik onena; liburutik barik, narrutik erakusten dau. Baita ezkonduen artean ere. Jostomingo gaixotu jakon, eta andreak osagilea etxera. Ondo arakatu eban gaixoa eta zeregina emon andreari eta joan zan:

–Etorri 15 egunera eta ekarri ontzitxo baten bere garnua. Hor doa Andresa baso bidean zehar. Estropezu eginda ez da, ba, jausten eta ontzia hustu? Zer egingo? Eta bere garnuz bete ontzia eta aurrera. Handik laster analisisia etxera. Eta gizonak irakurri eban: Umedun dagoala.

–Ni umedun? Eta andreak:

–Ezin da izan!

–Bai, bai, oker ibili gara, antza.

Bronkitis egunero gurean

Baziharduen gizon adiskide bik bizitzako gorabeherak jorratzen. Gaixo arloan sartu ziranean, Pedrok Txantoneri:

–Zuk izan dozu inoiz bronkitis edo dalako hori?

–Bai, bai, bronkitis edo dalako hori nik astean hiru-lau bider eukiten dot.

–Bai, zereko bronkitis!

–Ez, hator gurera eta itandu egiozu nire andreari.

Motiborik ez, eta horigaitik hasarre

Itsasoan beti olatuak, behin leunak, behin hasarreak. Baita etxe gehienetan ere. Holan inotson gizon batek bere lagunari:

–Nik neure andreagazko bakeagaitik itzi nebazan zigarroa, ardaa eta jokoa.

–Konxo! Orduan zure andrea zugaz pozaren-pozez zoratuta egongo da

–Bai, zera! Lehen baino okerrago.

–Ez da izango! Zergaitik gero?

–Zera, hasarretzeko motiborik emoten ez deutsodalako.

Eritxi bardinakaitik hasarre

Eulalia sarri doa autorlekura, etxeko gora-beherak argitu nahirik. Baina alperrik, abadeagaz barik, gizonagaz egin behar bakeak. Behin On Joanek argitu nahirik, badinotso:

- Eritxi ezbardinak dozuezanean, zeuk bigundu beharko dozu ba.
- Ez, jauna, ez doguz eritxi ezbardinak; bardinak doguzalako da hasarrea.
- Ez da izango!
- Bai, horixe! Biok agindu gura.

Ezkondu, ezkondu, eta ezin konpondu?

Txokolatea eta ezkontza berotan, esan ohi da. Bai, gero? Eta suak hartuta egiten bada, zer? Hotzean biak ere... Pontxio 60 urtegaz ezkondu zan. Lagunak ba euken adarra jo gurea:

- Zetan egon zara hainbeste urte begira?
- Ez da pentsaubako doministikuna izan. Hara, andra hau zitala bada, ez da luzarorako izango; berak edo nik laster egingo doguz patrifilioak. Eta ona bada, itxaroten egon nazan denporako saririk ederrena bera izango da.

Zelan lorea zelaian
halan da txistea mahaian



300

Maitasunaren ordez dirua

Lehenago amak parte haundia izaten eben seme-alaben ezkontzetan. Dantza-leku baten ama-alabak alkarregaz berbetan. Amaren jakin beharra!

–Entzun, alaba, dantzara atera zaituan mutil horrek maite zaituala uste dozu?

–Bai, ama, zeugaitik ere itandu deust.

–Zer esan deutsu, ba?

–Ea zenbaterainokoa dan emongo deustazun dotea?

301

Neskea ala mutila andrearen kontura

Aintxinako esaera zaharra da: Seme-alabak hazi, eta nekeak bizi. Sarritan hori: maiteenak, neketsuenak... Baina horixe da bizitza; eta gozo-garratzak arintzen ditu sukaldeko laratzak. Ea zer dinotsun ama izateko dagoan Maritxuk

–Hori poza, Maritxu!

–Bai, badaukat gogo bat jaio daiten!

–Eta zure senarrak zer dau gurago: neskea ala mutila?

–Hari bardin deutso; bata zein bestea, neure esku izten dau.

302

Senarra ala dirua gurago?

Ezkontza bizitzan ere ezusteko asko eta latzak izan ohi dira. Esaterako Lazarorena: Kotxe batek jota, bestaldera bota eban. Andreak, abogadu eta guzti ibilita, diru pila ederra jaso eban. Edurnek pozaren pozez badinotso abogadu horri:

–Bai pozik jarriko zala nire senarra hemen egon balitz!

303

Eskubidetik hankabidera

Zorioneko eskubideak! Horreek dirala eta ez dirala, zenbat ixkanbila eta burruka! Senar-emazteen artean ere hasarrebide izan ohi dira eskubideak. Hortik sortzen dira eskabideak, eta azkenean...hankabideak. Begira andra biren arteko hautu-mautuak:

–Ezkonduen artean eskubideak bardinak dira bientzako.

–Holantxe da nire etxean, dinotso Aintzanek: nire senarra eta ni biok gagoz bardintsu gogaituta bata besteagaz.

304

Gosearen gosez ezin ikusi

Berba ondo egitea erreza da, ondo entzutea errezago ete? Eta alkarregaz betiko alkartzeko bada... Erramonek ezkondu gura dau, baina Marianek ez:

- Itxaron diru pixka bat gehiago egin arte, bestelan zer jango dogu?
- Marian maite, nik zu ikusteaz bakarrik nahiko dot. Ezkondu eta hiru egunera estu eta larri.
- Marian, zeozer jan beharko dogu, ezta?
- Ez zeustan esan neu ikusteaz bakarrik biziko zinala?
- Bai, baina gosearen gosez ezin zaitut ikusi.

305

Berandu argitu begiak

Gaztetako mutil lagun bi ezkondu ziran, eta handik urte batzuetara, alkar ikusita, kontu kontari:

- Noiz ezagutu zenduan zuk zeure andrea?
- Oraintxe, mutil, eta ez guztiz ondo. Eta zenbat urte dira ezkondu zinela?
- Bost urte etorriko laster.
- Eta oraintsu ezagutu?
- Orduan maitasunez itsututa nengoan; orain argitu jatazak begiak.

306

Alkarpoderoso, arriskutsua oso

Gaur kontuz! Neska eta mutil danak dabilz lanean, eta bitsuak dira kartilearen jabe. Asko, ezkondu ere, kartilea etxean gordeta ezkontzen dira. *Alkarpoderoso, arriskutsua da oso*. Gogoan hartzekoa da gizon baten deklarazioa:

- Atzo andra bati ukatu egin neutson eskatu eustan dirua. Eta gau osoan egon naz horixe entzun eta entzun, lorik egin ezinik.
- Holangorik! Zuk daukazu bihotz eta kontzientzi ona! Ezagutzen al zenduan andra hori?
- Bai horixe, ondo ere! Ondoan neukan, neure andrea.

307

Kara bota eta karu urten

Gastau bai, gastau ez, zelan eta zenbat gastau... Satorzulo horretan sarri joten dau, lur pilo galantak jasoz. Ikusi zeuk: Andreak kapela eder bat erosi dau. Gizonak behingoan ekinean:

- Hobeto pentsau behar zenduan erosi aurretik
- Egin dot, eta ez gitxi! Kara edo kruz ere bai.
- Eta lehenengoan urten deutsu karak?
- Bai zera! Zazpi bider bota behar izan dot txanpona, kara urten arte.

308

Saihetsak barik makilea apurtu

Patxi benetan gizon zitala da, batez ere, bere andreagaz. Beti erabilten eban aurrean Monika, zigor eta guzti. Halako baten tribunaletara salatu eban. Epailea ez dago barriketarako:

- Zelan apurtu dozu makilea emaztearen saihetsetan?
- Egia esan, ez zan nire borondatea makilea apurtzea; bigunegia zan, antza.

309

Itsua asko daki

Eleiz atean itsua eskean:

- Lagundu, mesedez, seme-alaba asko daukadaz eta.
- Zenbat dozuz ba?
- Ez dakit, itsua naz eta.

310

Diruak itsua ere itzartu

Itsu bat kalean jesarrita diru-eske. Joxpak txanpon bat bota deutso; baina biraka aldendu jako eskekorari. Hor doa itsua atzetik. Joxepak harrituta:

- Ez zengozan, ba, itsu?
- Ez, ni benetako itsuaren ordezkoa naz; benetakoa zinea ikustera joan da.

311

Okerrago izan eitekean

Eskozian ohitura zaharra da: hildakoari lur emon ondoren, herritarrak, batuta, zerbait bere alde esan beharra. Behin gizon gaizto bihurri bat hil zan.

Orduan etorri eta danak isilik. Halako baten baztarretik batek:

–“Okerragoa izan eitekean”. Hori entzunda, arnasea hartu eben guztiak, eta etxerantza abiatu ziran.

312

Abaderik ez zeruan...

Gauzak ez ei dira bardin munduan eta zeruan. Sikiran be! Hemengo itxura plantak eta jakitun tituluak ez ei ditu aintzat hartzen San Pedrok. Zeuk atera kontuak: Hilten da gazte bikote bat kotxe iztripuz eta zerura. San Pedrori agertu deutsoe ezkondu guria. San Pedrok bai agudo esan ere:

–Itxaron beharko dozue, abaderen bat etorri arte. Hamargarren urtera ezkondu ei ziran. Baina gauzak aldrebestu jakezan eta dibortziatu beharra sortu jaken. San Pedrorengana jo, eta erantzun latza: hainbeste itxaron ezkontzeko eta orain abodaduaren zain egin behar...

313

“Eta ez gehiago pekatu egin”

Abadeak ere euren hutsegiteak; bakotxean bat behintzat. On Errikardo, sasoi-ko zala atera eban kotxerako karneta, eta “dotrinea” jakin arren, ezin ondo bete. Behin baten autostopa egin beharreko lekuan, aurrera. Poliziak gelditua-zo dabe, eta abadea dala ikustean, badinotsoe:

–“Zoaz bakean, seme, eta ez gehiago pekatu egin”.

314

Solo orde zera, negozio segurua

Herri txikietan, baserri inguruan, batez ere, abadeak izaten ziran sarri albazearen lanak egiten ebezanak. Begira: Pontxiok abadea eskatu eta esan eutson:

–Nire solo biak pobreentzat izango dira, neu zerura joatekotan. Zer uste dau berorrek?

–Nik bigarrena ezin deusut ziurtatu; baina, halan ere, merezidu dau probatu bat egitea.

315

Pazkuetan Gabon Zorionak

Gustuko ez diran botikak hartzean, kontuz ibili behar dabe gaixozainak. Baita abadeak ere, gogoz kontrako egiak esatean; iruntzi dagiezan nahi bada behintzat. Esaterako: On Joan parrokoak pazko Meza nagusia amaieran, holan agurtu ebazan eleiztarrak:

–Asko poztu naz gaur hainbeste jente ikustean. Bide batez, Gabon zoriontsuak ere opa deusuedaz, bitartean ez dot askorentzat aukerarik izango ta.

316

Zeruko afaririk gura ez

Amama txarto egoala eta lobatxoa hor doa abade bila. Eginak eginda gero, badinotso:

–Pantxike, bai pozik gaur gauez aingeruakaz afaltzen!

–Jauna, nik gitxi behar dot, beioa berori nire partez.

–Ez ba; nik ere afaltzeko nahiko dot esne pixka bategaz.

317

Miloiai eustekorik ez dago

Gabon loterian bihotzetik gaixo egoan bati 200 miloikoa jausi jakon. Senideak bildur esateko. Abadeak dana daki-ta, berari deituko deusogu. Gaixoa-gana hurreratu eta lagun giroan hasi jakon:

–Kaxinto, loterian 50 miloi jausiko balitxatzuz, zer egingo zeunke?

–Erdiak berorreri emongo neuskioz.

–Eta 100 miloikoa balitz?

–Erdiak berorrentzat.

–Egizu kontu 200 miloi jausten jatzuzala

–Erdiak berorrentzat. Hau entzunaz batera, gaixoari barik, abadeari emon eutson bihotzekoak.

318

Lapurrak alkarren maisu

Denda txikietan lapur txikiak, denda haundietan lapur haundiak. Gaur nortzuk izango, eta eskoba saltzaile bi. Joxek erratz bat hiru errialean saltzen dau eta Ini-xiok bostean jenero bardina. Iñixio kezka jakiltzu. Eta jakinmina asetu eban:

–Jose, konfiantzaz, zelan ahal dozu zuk eskoba bardina errial bi merkeago saldu? Nik materiala ostu egiten dot eta egitea bakarrik kobrau. Eta juxtu samar gelditzen jat biziteko.

–Nik suerte hobea daukat: egindakoak ostuten dodaz.

319

Lapurra urkamendian ere lapurra

Xixilio lapurreta asko eta haundiak egindakoa da. Danen ordainetan urkamendira zigortu dabe. Epaileak lapurrari:

–Egizu nahi dozun azken eskaria, eta emongo jatzu.

–Jauna, 2020. urteko txapan boteila bat.

320

Ulea konpondu, barrua ezin ondu

Gilermo gizona Patxi mutikoagaz batera sartu da ulemoztailearenean. Makatza txukun ipini deustonean, nasai dinotso:

–Ni hor alboko tabernara noa, mutiko honi ebagiten deustozun artean. Mutikoa ere dotoretu dau eta dirurik ez. Ulemoztaileak:

–Nun da zure aita?

–Ez da izan nire aita. Kanean ikusi nau eta esan deust:

–Nahi dozu debalde ulea ebagitea? Eta nik baietz. Kalabazea txukuntzen eutson bitartean, ez ekian ondo ze asmo erabilen barruan...

321

Etxe hutsean lapurrak esku zimurra

Joxe Kakalardo gaixorik dago baserri zahar baten. Bakarrik bizi da. Halako ilunabar baten, zaratea etxe barruan. Bera isilik lastamarraga baten zuloan gordeta. Bere gelaraino sartzen jako. Armairu zaharreko atea zabaltzean, badinotso Joxek ohe-zulotik:

–Ibili, ibili! Nik egunez ere ezin dot ezer aurkitu, eta zuk gauez aurkituko dozu! Aurkitzen dozuna erdibana.

322

Baserritarren behia abokatuak jan

Joan Kapotek behia galdu dau, edo ostu deutsoe. Luzaro ibili da bere bila. Baserri bide batetik doala, bere behiaren antzeko bat ikusten dau. Izenez deitu eta bai arin eskuratu. Abokatuak bieri banan deitu eta jokabide bardina emoten deutse:

- Zuk haxe esan eta esanari eutsi: "Behia neuria da". Abokatuaren andreak badinotso bakarrean senarrari:
- Zelan esan deutsezu bieri bardin?
- Ai enetxo! Biak etorriko dira neugana behin eta barriro, izenez deitutako behi mantsoa lez. Laster behiak balio dauan lango hamar bider gehiago ordainduko deuste.
- Denganinoa! Ez dozu karrerea alperrik egin.

323

Ezkondu, ezkondu, eta ezin konpondu

Umeak zer ez dabe entzuten? Horregaitik gero egiten dabez itaun xebreak:

- Aita, zuk uste dozu martitzenean eta hilaren hamairuan ezkontzeak suerte txarra dakarrela?
- Ez, nik uste dot txarrago dala eguenean eta hamabostean ezkontzea.
- Zergaitik, aita?
- Neu egun horretan ezkondu nintzalako.

324

Jaungoikoagaz tratuan

Txistek Jaungoikoa be harrapatzen dabe. Eta nok jakin! Behar bada teologiak baino hobeto. Juantxok ondo gogoan hartu dau abadeak dotrinan esandakoa: Jaungoikoa aberatsa eta jakituna dala eta on hutsa. Hor dozu Jaungoikoagaz tratuan:

- Jauna, zenbat da Zuretzat minutu bat?
- Minutu bat Niretzat mila urte lez da.
- Eta miloi bat euro?
- Miloi bat euro Niretzat euro bat beste da.
- Orduan erregalatu egidazuz miloi bat euro.
- Bai, baina minutu bat itxoiten badozu.

325

Ardiak zelan akabatu?

–Zer egin ardiak hainbeste ziztada egin ez deisten?

–Alkohola bota.

–Zu ez zagoz ondo! Euren senean egonda, holan zulotzen badabe, zer ez dabe egingo mozkortuta?

326

Senar ezkertia nor dan ezagutzen

Hor dabil gure Bernarda kanposantuko hazur tokian bere senarra nor dan ezagutu ezinik. Enterradoreak itanduten deutso:

–Zer ezaugarri eukan, ba, nor dan jakiteko?

–Hara, nire senarra ezkertia zan.

327

Zelan etorri, hain gustura egonda?

Zerua hain ona dala entzutean, Patxik itanduten deutso abadeari:

–Eta zelan daki zerua hain ederra dana, berori bertan inoiz egon ez bada?

–Hara, ez dot inoiz entzun, handik inor etorri danik, han gustura ez dagoala ta.

328

Arduraz hartu gauzak eta eraz egin

Caritas-en eguna dala ta, eten barik ekin deutso abadeak, guztiok urkoari laguntzen parte hartu behar dogula esanez.

–Eta zuk zer egin zenduan?

–Hain geratu nintzan barrutik eraginda, atera urtenda, neu jarri nintzan eskean.

329

Jaungoikoaren eginbearra

–Seme, gaur oso txarto portatu zara. Ez dot uste Jaungoikoak be parkatuko deutsunik.

–Bai, parkatuko deustala sinisten dot nik.

–Zergaitik?

–Horixe dalako bere eginbearra.

330

Batak iso, besteak arre

Osagileak esan ta esan dabilz paseatzea oso ona dala osasunarentzat. Ibili be badabil jentea! Patxik eta Brunok egunero topo egiten dabe bidean. Gaur bata haruntz eta bestea honuntz bide estuan. Batak be txandea emon gura ez. Eztabaida latza sortu dabe. Patxik:

–Nik ez deutsot lekurik emoten holango lelo bati. Eta Brunok, pixka bat alboratuta:

–Ba, nik bai.

331

Beti modan egotea ez da erreza

Loli andreak pozik erakusten deutso senarrari erosi dauan kapela ederra:

–Zer deritxazu?

–Hori beti egongo da modan.

–Bai, zuk sinisten dozu?

–Bai, bai, urteak pasau arren, hori beti izango da barregarria.

332

Eskatzean dago sekretua

Zorioneko zigarroa! Eta hori lehenago galazota barik, ezinean itzita egoan. Zer esanik be ez, praileen artean. Baina nik ezagutu nebazan praile bi, bata errezatzailea eta bestea ez. Honek gogor egiten deutso besteari:

–Ez dakit zelan emon deutsuen baimena zigarroa erretoko. Nik itandu neutsen ea erre ete neiken, Biblia irakurten dodan bitartean, eta ezetz erantzun eusten.

–Adiskide, jakin egin behar da eskatzen. Nik besterantza eskatu deutset:

–Erretzen dodan bitartean Biblia irakurri neike? Eta baietz.

333

Nahiko, bete da!

Badakizu herrenaren eta itsuaren historia? Biak alkartuta sagar lapurretara doaz. Herrenak dinotso:

- Neuk igongo dot gora eta zuk otzarea euki eskuan. Eta dana bete dala sentitzen dozunean, esan:
- Nahiko, bete da! Igon dau eta laprats eginda, ez da, ba, jausi otzarara? Bai agudo zaratea egin itsuak:
- Nahiko, bete da.

334

Ardauari ura, ala urari ardaua?

Lehanago mando gainetan zaharagiz ekarten eben ardaua Errioxatik. Eta betiko bide baztarretan iturritxoak mur-mur... Baina gero autortzerakoan, abadearen orroak entzun behar:

- Ez dakizu, Txomin, ezin jakola ardauari urik bota, eta gero ardau garbia lez kobrau? Txominek dana isilean entzun, penitentzia bete eta etxera. Biharamonean morroiei agindu zorrotza:
- Hemendik Errioxara baino lehen zaharagiak urez laurden bat bete, eta gero bota ardaua gainera.

335

Lapurrak lapurrari

Txanton Kukuprakak ondo ekian lapurretan egiten. Jatetxera joan da, eta menu papera eskatzen deutso zerbitzariari. Dana karu. Buruari eraginda, badinotso:

- Hemen ez dago deskonturik ofizio bardinekoentzat?
- Zu ere zerbitzaria zara ala?
- Ez, zeu lez lapurra.

336

“Aprobetxau egizue okazinoa”

Eta epaileak eurak lapur bihurtzeko biderik ez ete dago? Dana dala, Manolo epailearen aurrera daroe, zapata lapurretan harrapatu dabelako.

–Zuk zapatak lapurtu dozuz?

–Ez, denda honetan hauxe irakurri dot: “Aprobetxatu egizue okazinoa”. Nik horixe bete baino ez dot egin.

337

Ezkontza loteria ei da

Gizonen artean laster konpontzen dira auzoko kontuak; benetako kontuak norbere etxean izaten dira. Behin entzun neutsen morrozko biri ezkontzari buruz barriketan. Martolo ez egoan konforme:

–Askorentzat ezkontzea loteria ei da; niretzat behintzat, ez. Loterian noiz edo behin irabazteko aukerea egon leiteke; ezkontzan behin ere ez.

338

Zoriona eta zoritxarra alkarren hur

Ezkonbarri bikotea Indiarra joan da. Bazan han jakintsu famatu bat. Haregana ere joan ziran, zerbait jakin nahirik. Txilibristoren kezka:

–Zein ete da bikote batentzat zorionik haundiena?

–Ezkontzea.

–Eta zoritxarrik handiena?

–Ezkondu izana.

339

Ezkontza bezperan “zorionak”

Ezkontzea dala eta, aurretik, bitartean ta ondoren, zelango gastuak! Jentearen “zorionak” handik eta “zorionak” hemendik. Behin Kaxintok Lontxo bere lagunari, ezkontza bezperan:

–Lagun, itzi egidazu gaur zuri “zorionak” emoten.

–Baina ni bihar ezkontzen nok.

–Horrexegaitik ba!

340

Hilterainoko maitasuna

Nungo liburuan batu ete leitekez ezkonduak alkarri esandako kuttunkeriak?

Asmau ahalako bihozkadak. Hona hemen ale bat:

–Joxetxo, maite al nozu?

–Bai horixe, Monika

–Egitekorik haundiena ere egingo zeunke nigaitik?

–Baita.

–Niganako maitasunagaitik hilteraino ere bai?

–Hori ez gero! Nire maitasuna ez da hilkorra; betikoa da.

341

Samea ala burua nagusi?

Eztabaida gehienen iturburua honetan datza: Nok aginduko; zerutik aparte enparau leku guztietan. Ezkontzan ere bai. Peru Kirten honetan seguru egoan:

–Hemen neu naz nagusi; gorputzean burua dan lez, holan naz ni neure etxean. Andreak baztarretik irribarrez:

–Zu burua izango zara, baina ni samea, burua nahi dauan aldera jiraka erabilten dauana.

342

Isilik egoteko epea bete

Santiago Apostoluak dinonez, mihina zuzen erabiltea oso gatxa da, eta baztarretan sugar asko biztu ohi dau. Joseba Potolo ez dago nasai:

–Lagun, gaur lurjota nago.

–Zer ba?

–Nire andreak esan deust ez deustala berba egingo hilabetean.

–Tira, ez da horrenbesterako izango.

–Zelan ez? Zoritxarrez gaur bete da epea ta.

343

Maitasunak begirik ez

Madrildar andra motz batek, jakintsu ustekoa bera, talde baten erdian baziharduan, bereak botaten maitasunari buruz:

–Dinoenez, maitasuna itsua da. Entzule batek, txandea hartuta, badinotso: Hori zeure senarragaitik al dinozu?

344

Ordu bete beti ez da bardin

Gizon batek baeukan zeresana bere andrearen kontura:

- Nire andrea beti jabiltzu batzarra han eta batzarra hemen, mila komixino eta kontsejuetan sartu- ta. Ea eguneko ordubete ere ez dauka etxerako.
- Kontxo, holan bada, erruki zaitut.
- Bai zera! Ordubete behingoan joaten da, luzea ondorengoa da!

345

Lapurketaren ondorenak

Bixente gaztea pozik dago bere anaiagaz, mekaniku trebea dalako.

- Ez da izango!
- Begira, zelan osotu dauan kotxe bat: Pegeot baten lau burpilak, Simanca baten motorra, talbot baten karrozeria, mercedes baten bateria eta citroen baten jesarlekuak.
- Holangorik ez dot sekula entzun! Eta zenbat kosta jako?
- Bost urteko kartzelea.

346

Gose danarentzat hazurak ere mamin

Ijitoak ez dakie lapurretan, dagoan lekuan hartzen baino. Hor dozuz ijito bi okaran arbola baten gainean. Hareen jan beharra!

Dana garbituta gero, zaharrenak badinotso gazteari:

- Okaranak hazur eta guzti jan dodaz
- Zer, hazurdunak izan dira ala?

347

Ostutako koilarragaz zorrak ordaintzen

Lapurrak badakie eskuak zegaz garbitu: urkoaren zapiagaz. Txarrena, zapi hori ere zikina egon. Hor dago espetxean Anbrux lapurra, abokatuagaz dago urtenbidea bilatzen:

- Ni oso pobrea naz, daukadan dana soinean daroat. Baina etxean badaukat pitxi ederrezko koilar bat.
- Horregaz nahiko da. Eta zetaz salatzen zaitue?
- Pitxi ederrezko koilar bat ostu dodala.

348

Behiaren bosgarren erroak bai esnea!

Baserritarrak ere ahalegintxoak egin behar: lapurreta haundirik ezin egin, eta gitxika-gitxika egin behar. Zorioneko esnea! Kalidadez eta kantidadez neurtu beharra! Patxik behi ederra dauka. Leonek jakin gura dau haren barri:

- Behi ederra, ezta, Patxi?
- Bai, esnetsua da.
- Zenbat litro eguneko?
- 30 litro bataz beste.
- Eta asko saltzen dozu?
- Bai, 50 litrotik gora.

349

Lapurrazen ondu beharra

Lehenago, autortzerakoan, argi eta zehatz esaten zan: "onduteko asmoa". Ez dakit, ba, asmo guztiak baino, hartu dan ohitureak ez ete daukan indar gehiago...Sergio kartzelan dago. Bere lagun bat bajoako bisitatzera, kontu batzuk esanez:

- “Hemen hainbeste denporan gauzak hobeto pentsauko dozuz, Braulio?
- Bai, bai; hurrengoan hobeto neurtuta egingo dodaz joan-etorriak.
- Hori da bihotz ona, Braulio!
- Ez zera! Hurrengoan guante eta guzti joango naz.

350

Lapurrak kartzelan dana debalde

Joseba Petralanda lapurretan harrapatu dabelako, kartzela baztarrean dago. Bere auzoko lagun bati badinotso lehenengo bisitaldian:

- Ondo pentsau ezkerro, harrigarria da nigaz egiten dabena.
- Zer ba?
- Zera: Jatekoa harrapatzeagaitik sartu nabe; eta hemen gura dodan guztia doan emon egiten deuste.

351

Zaldiak lapurra salatu

“Abadinoko San Blasetan, mutil zaharrak bentanetan”, eta lapurrak mila plaza baztarretan... Justo tratulari azkarrak hor dakar zaldi eder bat trailan. Txantonek, zaldia falta jakola ta, hor dabil banan-banan aztertzen. Batengana hurreratzen da eta xuabe belarrira bere izenez deitzen deutso. A zelango irrintzi zoliz erantzun deutson!

- Entzun gizon: Zaldi hauxe pozik erosiko neuskizu. Zenbatetan daukazu?
- Itziko deusut probatu daizun. Eskuak libratzeko, sardina lata bat emoten deutso eskura eta hor doa Txanton, zaldi eta guzti, etxera. Ijitoa laster konturatu da. Lagun bat ondora etorrita:
- Zenbatetan saldu dozu?
- Erositako presiotan eta sardina lata bat gehiago.

352

Lotan berbetan jardun behar

Joxepatantoni aspaldion burumakur dabil. Badoa osagileagana:

- Nire senarrak gau osoan berba eta berba jarduten dau, lo egiten ere ez deust izten. Zer egin neike?
- Hara Joxepantoni, horren giltza zeuk daukazu eskuan.
- Esan, esan, egingo dot eta.
- Hemendik aurrera itzi egiozu egunez behar dauan beste txanda berba egiteko.

353

Gozoa bai arin amaitu!

Ezkonbarrien artean jasotako “maspasa” bat dozu.

- Juan txo, zein zoriontsu ginan orain bost urte!
- Zer dinozu, Kalixto? Oraindino ez ginan ezkondu ta?
- Horixegaitik dinot, ba...

354

Ezkondu aurretik mila promesa, ezkondata gero dana amesa. Baziran ezkon-
gai bi, alkarregaz kuttun-kuttun.

–Ene Fakun, ezkontzen garanean, zigarroa erretzea itziko dozu, ezta?

–Bai, kuttuna.

–Eta edatea?

–Baita.

–Eta kasinora joatea ere bai?

–Zelan ez!

–Eta gehiago zer itziko dozu?

–Zeugaz ezkontzea.

355

Gero eta punteri hobia andreak

Gaur dana juezen eskuetan dagoala dirudi. Baita ezkonduen artekoak ere.

Holan uste dabe askok, baina ez da holan. Justo Mendibe justu-justu ebilen
bere andreagaz. Behin juezagaz topo eginez, badinotso:

–Epaile jauna, zer egin behar dot dibortzioa lortzeko?

–Zer ba?

–Zera, nire andreak plater, katilu eta harrapatzen dauan guztia burura bota-
ten deust.

–Zenbat urte da ezkondu zinela?

–Hogei urte

–Hainbeste urte aguantau deutzazu eta orain banandu?

–Hara, gero eta punteri hobia dauka eta nire buruaren erruki.

356

Botaka eta besaka urtea luze

Nok jakin zergaitik diran gauzak diran lez? Sarri ataritik barik, osteko atetik
urten behar. Ezkongaien artean zenbat susmo eta kezka! Hara bat: ezkonduak
gehiago bizi ei dira ezkongek baino.

–Bai gero! Luzaroago bizi ez; denpora bardina luzeago egin bai. Hori bai!

357

Matriza ala patrizia jausita?

Zenbat gauza erakusten deuskuzan bizitzak berak! Bera da libururik aberatse-
na eta beti eskuartean daukaguna, nahi badogu ikasi. Sarritan tituluak tutulu
bihurtzen dira. Begira, hor dago Lazaro; ezin dau umerik lortu, ezkondu eta
urte askotara. Joan da osagileagana. Eta beti lez, andreak horren errua ere.
Osagileak ere holan uste eban:

- Andratxoa, zelan eukiko dozu umerik, ba, matriza jausita daukazu ta? Bero-
tu jako Justa eta:
- Bai, beti andrearen matriza; gure kasuan, nire matriza barik, gizonak dauka
patrizia jausita.

358

Ai Peru, Peru, andrak ez dira aingeru

Peru andreagaz eta hiru alaba gazteakaz bizi zan. Eta aspertuta egoan betiko
kontuak entzuten: jantzi luzeak edo motxak, ezpanak edo bernak... Halako
baten sekulako trumoiak jo eban etxean:

- Aspertuta naukazue: zapata edo soineko, ule edo ezpan... Ez al daukazue
kontu altuagorik barriketarako?
- Ene ba, Peru! Zuk entzun egin deuskuzu, antza: gaur erabili dogu sonbreru
kontua.

359

Ona zalakoan, neukana galdu neban

Auzoko Praisku, etxean bronkaren bat entzunda edo, burumakur agertu zan
tabernan. Holango lekuetan jentea beti prest adarra joteko. Batek lepoan jota,
min daukan zaldarrean ikutu eutson:

- Zu Praisku, zein da zure bizitzan egunik ederrena?
- Ezkondu nintzana
- Eta txarrena?
- Handik geroko guztiak.

360

Zer esan norbere buruari?

Zer idazten dozu hor, Julen?

–Eskutitza

–Nori?

–Neuri

–Eta zer esaten deutsozu?

–Ez dakit, hartzen dodanean jakingo dot.

361

Buruan jota maitemindu

Maritxu urteetan aurrera doa. Ezkondu nahi eta ezin. S. Antoniori bededera-tziurrena egin deutso. Handik sei hilabetera barriro; eta alperrik. Hasarre jarri da eta bota dau santuaren irudia leihotik kalera. Hango garraxi larria! Mutil bat burutik odola dariola. Etxera jaso dau eta osatzen ahalegindu da. Kontau deutso zer izan dan. Eta horra mutilak nun esaten deutson:

–Neu nago prest, baina lotsatia naz.

–Neugaz ezkondu zaitetz eta neuk kenduko deutsudaz lotsak.

362

Barriro ezkondu? Ezta...

Andrea bizimodu txarra emoten deutso senarrari. Hilteko egoala, esaten deutso senarrari:

–Ni hil orduko zu ezkonduko zara.

–Nogaz ezkonduko naz, ba, ni?

–Deabruagaz.

–Ezta... Bere alabeagaz ezkondu berrogei urte egon naz eta nahiko da.

363

Jesus futbol zelaian

Jesus futbol partidua ikusten katolikuen eta protestanteen artean. Katolikuak gola sartu eta Jesus txaloka eta goraka. Ondoren protestanteak sartu eta bardin Jesusek. Batek badinotso:

- Zu nor edo nungoa zara? Alde bietako golak ospatzen dozuz?
- Ikuskizun ederra benetan, hau dibertsinoa!
- Katoliko nahiz protestante, zuk ez dozu errespetatzen ezelango federik.
- Ez, nik txalotzen dot sartzen dan gola

364

Gosea ezin da saldu

Poeta bat goserik lurjota dago. Lagun bati, ondotik pasakarean, eskua luzatuz dinotso:

- Mixerian nago, neukan guztia saldu dot.
- Behar ez dozun zerbait saldu barik eukiko dozu.
- Bai
- Saldu egizu.
- Ezin dot, baina
- Zer da ba?
- Gosea da.

365

Eskolan lekurik onena

Mutiko bi eskolara doaz. Batek bere poza agertzen deutso lagunari:

- Ni maisuak lekurik onenean ipini nau
- Zein leku emon deutsu, ba? Lehenengo lekua?
- Ez azkenengoa, baina berogailuaren ondoan.

366

Pekatu-papera galdu

Don Bosko santua umezale amorratua zan. Behin ume bati, olgetan ebilela, autortzako pekatuen papela galdu. Don Boskok topau deutso, eta irribarrez mutikoari:

–Zer, triste?

–Bai, pekatu-papera galdu dot.

–Ez negarrik egin, esku onetan dago; neuk topau dot. Mutikoari autortzeko txandea heldu jakonean:

–“Autortzen deusodaz... berorrek poltzikoan daukazan nire pekatuak”.

367

Ardaurik zaharrenak ulea urtenda

Tabernan ardaua edaten sartu zan gizonak zerbitzariari:

–Ekarri deustazun ardauak ule zuri bat euki dau barruan

–Ez da harritzekoa; ardaurik zaharrena ekarteko esan deustazu ta..

368

Zergaitik negar egin leiteken

Mutiko bat negarrez erreka ertzean

–Zergaitik egiten dozu negar?

–Andres errekerera jausi da

–Zure anaia al zan?

–Ez, baina neure zapatak eroan ditu aldean.

369

Zerbitzea Jauna gurtzea

Behin Jesusek gizon bat lurrean ahuspez aurkitzen dau.

–Zer egiten dozu hor?

–Jainkoa gurtzen nago

–Eta jaten nok emoten deutsu?

–Anaiak

–Hara, zure anaia zu baino gurtzaile hobea da.

370

Ohean eguzkiak jo, baina norbera majo

Benetan morroi lotia hartu eban etxean Joxantonek! Behin badino bere kautan:

–Gaur nahi beste lo egin dagiala. Iluntzeruntz morroia jagi da eta arin nagusiagana:

–Harritzekoa, bestetan eguzkiak ezkerreko leihotik emoten izan deust eta gaur eskumakotik. Zelan da hau?

371

Taxista bat zeru goiengan

Taxista bat zerura helduda. Hango jai haundia! Bera harrituta berba barik:

–Niri hau? Ni ez banaz inor izan lurrean. San Pedrok lepoan joaz:

–Bai, bai, ondo merezita zatoz: taxian eroan dozuzan gehienak txilioka ez ezik, errezuka eta “Aitearenka” ipini izan dozuz.

372

Zigarroa erre, zaplatekoaz arre

–Nik lehenengo zigarroa erre nebanean, zelango tripako mina sufridu neban!?

–Tripakoa bakarrik? Nik gorputz osokoa be bai.

–Zelan horrenbeste?

–Aitak jakin ebanean emon eustan belarrondokoaz...

373

Euskeraz egin eta arabe ulertu

Lazkao Txiki Afrikan soldau dago. Han moro bategaz lagun egin zan eta beragaz euskeraz.

–Zuk zelan euskeraz?

–Gerran Espainian egon nintzan eta han euskaldunakaz ikasi neban. Erdeldun jenteak harrituta inoan: “Estos vascos hablan pefectamente el árabe”

374

“Mal de gotas” ala “mal de tragos”?

- Zer, Garbiñe, Tanta-hezueria edo “mal de gota” horrek senarra eroan deutsu?
- Bai, bai, eroan dau bai.
- Nire senarrak suerte hobea izan eban hilterakoan
- Hil egin jatzu ala?
- Bai, Garbiñe. Baina ondo aserik joan da: mal de gotak barik, “mal de tragos” izan da bere gatxa.

375

Arrautza eztarrirako ona ei da

- Praisku, eztarriko minez nabil aspaldion. Zer da ona?
- Arrautzak, mutil
- Bai gero? Ez dot inoiz entzun.
- Bai oso onak; oiloak ere, arrautza jarterakoan, kantuz eta kakarakaka isildu barik ibiltzen dira.

376

Pepanton mozolo, teatrura joanda lolo

- Han zein hemen, sarri men egin behar bizilagunari, bakearen alde. Bestelan: “Hi haundi eta ni haundi, nok egin gure astoari arri?”. Pepanton ez zan teatrüzalea, andrea bai, ostera. Behin baten hor doaz biak. Andrea begi eta belarri adi; Pepanton lo gozoan ondoan. Holako baten alboko andrea lo zurrunga eta guzti. Joxpak Pepanton ukondoaz ikutuz, badinotso andreak:
- Atso mozola, teatrura etorri eta lo zorroan... Pepanton ez egoan teatrarako; hasarrez erantzun deutso:
 - Eta hori al da motiboa ni lotatik itzartuteko?

377

Andrea emoteraino arerioa maite

Kepa azkenetan dago. Timotea andreagaz luze egin jako alkarbizitza. Auzoko Patxik ere inpernu gorria sufriduazo eutson. Etxean bata, auzoan bestea, hau bai benetako erbestea! Timoteari agertzen deutso azken borondatea:

–Timo, zu orandik sendo zagoz eta jarraitu nahi dozun lez zure bizitza. Nire partetik, Patxigaz ezkontzea ere ondo deritxat.

–Baina zer dinozu, Kepa? Hori zure areriorik okerrena izan bada?

–Horixegaitik, ba!

378

Patxi “berandu”, ezkontzan ezin ekandu

Bai, bai, ezkontuta gero, alkarrentzat dira... Baina bakotxak bere haginak aldean. Tiburtzio eta Mariñaxi beti hasarre alkarregaz. Hogeita hamar urtetik gora hasarre baten. Horra adibide bat:

–Gaur ere berandu? Ezkontzara ere berandu heldu zinan eta bardin jarraitzen dozu zuk.

–Bai, ezkontzara berandu heldu nintzan, baina ez behar baizen berandu.

379

On bila, on bila, bonbila

Ez dozu inoiz entzun: “On bila, on bila, bonbila”? Norbere mugak ahaztuta, inor gura osorik eta gozorik. Hori agertzen eutson Mirenek Katalin bere neska-lagunari:

–Ezin naz ezkondu, ezin dot neure gustokorik aurkitu.

–Nahibeste mutil ganorazkoak dozuz, Miren. Zelangoa behar dozu, ba?

–Nire mutilak baldintza honeek bete behar ditu: Ez erre, ez edan, berbatsua izan, kontrarik ez egin...

–Ai Mirentxu! Hobe dozu telebizinoa erosi eta bake.

380

Gizon txorta bat bost zentimotan

Badoaz andra-gizonak lotara. Laster andrea amesetan, entzuteko moduan.

Senarrak ezin dau ezer ulertu. Itzartu danean, itandu deutso:

–Zer amets gaizto erabili dozu bart?

–Hara, plaza bete andra euren gizonak saltzen.

–Saltzen?

–Eta zenbatetan?

–Zu lango bost gizonakaz txorta bat egin eta bost zentimotan.

381

Ahoko txanbeleta, teilatuko beleta

Holangorik! Nik zuri, zuk hari, harek urliari... Egi edo guzur, mamin edo hazur... Zelan edur bolak, halan belarrian guzur-bolak. Ea honek arritzen bazaitu: Pantxikek Martinari:

–Zu, Martina, Joxepak esan deust zuk esan zeuntsola inori ez esateko, nik esan neutsun sekretua.

–Joxepa, sugegorri halakoa! Berari esan neutsola zuri ez esateko esan neutsun.

–Kontuz, gero, Martina! Ez esan, gero, Joxepari, berak esandakoa zuri esan deutsudanik.

382

Batek nahi ez, orduan ez bai, ez ez

Kontuak kontu, badira gure familietan andra-gizon bedeinkatuak; biak ez bada ere, bitik bat, behintzat. Honetarikoa dogu Errupiña. Gizonak nahita ere, ezin hasarre jarri andrea. Beti umore onez. Behin, gizonak hasarretu eragin behar eutsola ta, hara zer asmau eban: astoa kortara atzeraka sartzen hasi zan. Haren zaratak entzunda, han da Errupiña:

–Hori, hori, Patxiko! Ondo egiten dozu, asto alper petral hutsa da ta, emon.

Ikasi dagiala horrek ere!

383

Hemen danok pasoko txoriak

Turista bat Kairora doa, hango jakintsu bat ikusi gurarik. Sartu dau bere gelan eta huts-hutsik.

–Nun dozu zure liburu eta gainerakoak?

–Eta zuk?

–Ni hemen pasoko txoria naz.

–Baita ni ere.

384

Saltzea da kontua!

Arte azoka baten, bertako maisuak harro dino:

–Kuadru honen gora-behera zortzi urte kosta jako egileari.

–Zelan hainbeste?

–Bat egiten eta zazpi saltzen.

385

Hilda gero, salda bero

Lontxo eta Miren ezkonbarriak jatetxean. Mirenek konfiantzaz Lontxori:

–Zuk zer egingo zeunke ni hilgo banintz?

–Zeuk egingo zeunkena.

–Lotsabakoa! Ez zinala gehiago ezkonduko eta hau orain?

386

Trean ibiltea bat, trena ibiltea bi

Pantorrilako minez medikuagana:

–Hori gitxi ibiltegaitik da.

–Ni egun osoan nabil batetik bestera.

–Nun eta zelan?

–Treneko interbentorea naz.

–Orduan trena da ibilten dana, ez zu.

–Baina Bilbotik Donostira eta Donostitik Bilbora...

387

Pozik biziteko lastoz bete

Gizon txoriburu bat txorimalo bategaz berbetan:

- Gixajoa, hor egon behar gau eta egun aspertuta.
 - Ez, ba, arriskua aldentuteak emoten dauan pozak dana balio dau.
 - Neu ere aspaldi baten bardin nago:
- Aspertuta, eta poztasun barik.
- Baina horretarako barrua lastoz beterik euki behar da.

388

Pobreen oinetakoak zenbakirik ez

Eskeko bat dendara joan da:

- Mutiko honentzat zapatak, mesedez.
- Ze zenbaki dauka?
- Honek ez dauka zenbakirik.
- Zenbaki bako zapatarik ez daukagu.
- Honek erabilitako zapatak ere ez; gaur arte ortozik ibili da ta.

389

Ebaren sagarra ez da galdu oraindik

Jone sarri hasarretzen da Patxi senarragaz. Lagunak lagundu guraz badinotso:

- Zergaitik hasarretzen zara hain sarri senarragaz?
- Isilik euki, baina hasarretzen nazan bakotxean adiskidetzeko oparitxo bat emoten deust.

390

Asto bi eta zorro bat

Gizon bat errotara doa asto gainean eta zorroa berak daroa bizkarrean hartuta. Lagun batek hori ikusita:

- Zu, aixkide, zein ete zaree astoago? Zergaitik zoaze holan?
- Zu bai asto ta erdi! Holan astoak karga gitxiago daroa, aspaldion makal dabil eta.

391

Eskean ibilteko ere eskolea behar da

Eskekoa limosna eske etxera, umetxoa besoetan hartuta, ondo ezkutatuta.

Andra batek aurre egiten deutso:

–Ume hau kartoizkoa da.

–Bai, gaur hotz egiten dau; benetakoa etxean itzita etorri naz.

392

Agindua bat, eta emona bi

Gaixoa estu eta larri osagileagana:

–Osatzen banozu, kortako behirik onena zuretzat. Osatuta geroago baten:

–Zu, zer? Emondako berbea zer?

–Ahaztu hori, orduan sukar haundia neukan, ez nekian zer esaten nebanik ere.

393

Hartzeko pronto, emoteko tonto

Adiskide biren artean:

–Zu, Txanton, mila euro behar dodaz, baina inori ez esatekotan.

–Egon trankil, nik ere ez deutsat inori esango.

394

Men eginda, amen entzun

Mozkorren artean:

–Nik edaria ondo baino hobeto kontrolatzen dot.

–Zelan? Esaidazu.

–Hara, egunean birritan bakarrik edaten dot: jaten dodanean, eta gero jaten ez dodanean.

395

Txakur asko hazurren atzetik

Neska gazteen artean, ederrago baten inbidiz. Edurnek lagunari:

–Karmentxu hori hor dabil mutil danak atzetik dituala, txakurrak lez.

–Bai, ba, hazur luze eta asko daukaz eta.

396

Loritoaren zentzuna, etxean entzuna

Askotariko animaliak saltzen dituan denda batera doa Kasilda, bere loritoa kaiolan dauala:

- Hemen dakartsut lotsabako hau, berdekeriak baino ez ditu esaten. Zer egin neike?
- Jakina, letxuga orriak baino ez deutozuz emoten eta, berdekeriak bota behar.

397

Goitik hustu, behetik bete ezin

Baserritar bat badoa soldautzara. Bildur bat bai! Haginik ez daukana libre gelditzen dala entzun dau. Banan-banan danak atera ditu. Badoa kuartelera eta erakutsi deutso haginlariaren agiria. Eta nagusiak badinotso:

- Zu libre zagoz; hanka planoak daukazuz eta.

398

Aitak sarri astoarena egin behar

Joxetxo umea beti negarrez dago:

- Nik asto gainean ibili gura dot, ama. Andreak abisua gizonari:
- Praisku, umeak asto gainean ibili gura dau eta emoiozu pasealdi bat kalean zehar.

399

Oi amaren amantalaren balioa!

Ezkonbarriak ezin dira buztarri barrira egin. Andreak hasarre gizonari:

- Ni banoa amaren etxera.
- Baita neu ere, zure amak behintzat janaria ipinten ondo daki.

Izan umeen antzeko

bizitza gozatzeko



400

Mozkorraren bildurrak

Mozkor bi tabernan kontu kontari:

- Nik badaukat edaria izteko gogoa, baina bildur bat daukat.
- Zeren bildur zara, ba?
- Aurrekoan, izten hasi nintzan eta biharamonean gerra mundiala hasi zan.

401

Ta...ta.ta... artilero

Hiru mutil doaz soldautzara; euretarik bat tartamutua. Biharamonean kapitana:

- Zu, Tomas, zer izan zara?
- Mekanikoa
- Zu armatokira.
- Eta zu, Julen?
- Ni barman
- Zu kantinara.
- Eta zu, Enrike?
- Ni ta...ta...ta...ta...
- Ta... ta... ta... ezta? Zu artilero izango zara.

402

A zelango ontzia itogina batzeko!

Andra-gizonak telebista ikusten dagoz.

Euria hasi eta itogina euren ondora.

- Gizona, itogina?
- Eee?
- Itogina. Eta alperrik. Jarlekua mobiduten deutso eta itoginaren parean jarri. Gizona aho zabalik dago zurrungaka. Andreak nasai:
- Sikiran, itoginak parean dauka ontzia.

403

Badira pixurik ez dauken kilo astunak

Oporretan dira Lukene eta Ander. Eroan daben ardura nagusia: Kilo mordo bat gaisetarik kentzea. Etxeratu diranean, andrea pozik:

- Hamar kilo galdu dodaz oporretan. Eta gizonak albotik:
- Eta nik hiru milla euro zeu zaintzen.

404

Oilo esnea bai gozoa!

Tentel antzeko bati Martolok:

- Eutsiz hiru euro eta zoaz oilotegira eta ekarri litro bat oilo-esne.
- Oilo-esne?
- Bai, entzun dozuna. Oilorik eskasena erosi eta Martologana:
- Eutsi, esne-oilorik onena emon deust Peruk; horregaitik dagoala hain argala. Hogeita hamar euro dala eta zeuk batzeko esnea.

405

Batek galdu, besteak irabazi

Osagilea nekatuta dator etxera, itxura baten, umore txarraz.

- Okerren bat izan al dozu, Josu?
- Bai, bost bezero galdu ditut.
- Zer, ba, hil egin jatzuz ala?
- Ez, andrea, bostak osatu dirala.

406

Astakeria zelan kitutu?

Urrezko ezteguak ospatzen dabez Tiburtziok eta Joxepak. Andrea pozik dabil:

- Tiburtzio, bihar 50 urte ezkondu ginala. Oilo bat hil beharko dogu.
- Ez, ez, astakeri haundia egin genduan orduan, baina oiloak ez dauka errurik.

407

Belarri danak ez dagoz soinurako

Andrea pianozale sutsua zan; eta beti kantuz ebilena. Behin pianoa joten egoala, gizonari dinotso:

–Zer gauza ederra dan kantuz jardutea! Txoria izan gura neuke.

Gizonak kantu-soinuz burua haundituta eukan eta erantzun deutso:

–Ba, nik eskopetea izan gura neuke.

408

Joateko eta joateko, baina auzora

Amama bi ekinean alkarregaz. Joxepak:

–Nik suin bi daukadaz, bata Bartzelonan eta bestea Madrilén. Biak eske eta eske joateko eta joateko.

–Pozik egongo zara, orduan.

–Bai zera! Batak dinost:

–Zoaz Bartzelonara. Eta besteak:

–Zoaz Madrilera.

409

Sinismena urdaiazpikoa balitz

Gurasoak katekista izan behar dabela. Errez esaten da. Baina katekista, gero! Kaxintok semeari sinismena zer dan erakutsi gura deutso:

–Seme, nik esango baneutsu hor kaxan urdaiazpikoa dagoala, sinistuko zeunke?

–Bai, aita.

–Horixe da sinsimena. Hurrengo astean abadeak dotrinan:

–Zer da sinismena?

–Kaxan gordeta dagoan urdaiazpikoa.

410

Bai, badira hanka biko astoak

Joxiñixiok arotzari:

–Patxo, asto bat erosteko asmotan nabil. Egidazu berarentzat aska bat.

–Ze alturakoa nahi dozu?

–Egin nire okotzerainokoa. Asto haundia izan arren, ez da ni baino haundiagoa.

411

Behin jausi eta kotxean eroan

Mendigoizale bat Anboto barreneko baserri baten gora begira. Bertako gizonari itanduten deutso:

–Horra igoten diharduenak sarritan jausten dira?

–Ez, behin bakarrik: gero kotxe baten eroaten dabez luze-luze eginda.

412

Bai nago eta ez nago, nun ete nago?

Gizon bat baserriko atera deika:

–Eup! Kobradorea naz. Atera urteten deutson mutikoari dinotso:

–Aita etxean al dago?

–Ez, kanpoan da. Ze ordutan etorriko naz bihar?

–Itxoin, berari itanduko deutsot.

413

Harroak burua motza, belarriak luze

Gaur ateo izateak harrokeri-usaina hartu dau. Behin kankailu batek:

–Begira, ni ez noa eleizara, baina gizon ederra nago. Entzuten egoan baserri-tar batek:

–Nik badaukat kortan txarri bat eta zuk baino hiru arroa gehiago daukaz, eta ez da sekula santan mezatara joan.

414

Osagileak bizia luzatzen

Patxi, oso pozik ikusten zaitut. Ez eutsun, ba, osagileak hilabeterako bizia emon?

–Bai, horregaitik astero beste osagile batengana noa; holan bakoitxak hilabetera luzatzen deuste.

–Badaukazu, orduan, zati baterako bizia!

415

Jatekoak ez, jandakoaren kontuak ase

Jatetxe baten Peru jan eta jan, ase ezinik, ekarri ahala iruntzi. Zerbitzariari deitu eta:

–Ekatzu zeozer gehiago, ez naz ase ta.

–Oraintxe ekarriko deusut orain artekoaren kontua, eta asetuko zara.

416

Amaginarreba ikusi eta osatu

Mozkor batek edatea zergaitik itzi ebalu uste dozu? Martolok berak esango deusku:

–Aspaldion edateari itzita nago.

–Zer ba?

–Hara, amaginarreba bat daukat etxean, eta edanda etorten nazanean, baten ordeztu bi ikusten dodaz. Horregaitik; bategaz ere nahiko daukat...

417

Makilea da nahiko atxaki

Felipa alkateagana doa negarrez: Gizonak jo ta jo egiten dauala, esanez:

–Bizimodu txarra daroat gizonagaz.

–Eta zer atxaki hartzen dau horretarako?

–Ez dau atxakirik hartzen, makilea baino.

418

Mozkorrari danak igarri

Joxe mozkor-mozkor eginda etxera dator balantzaka.

–Ai Joxe, Joxe! Daukazun mozkorra gorde ezinik zatoz gaur ere zu.

–Harritzekoa da hauxe: egarri nazanean inor ez da konturatzen; edaten dodanean, danak txistuka.

419

Zapatila bat gorri, bestea zuri

Txanton sikiatrikoan luzaro egonda, etxera dator dotore samar, txapel eta guzti. Auzotarrak ikusmiran. Batek harrituta dinotso:

–Txanton, dotore, gero! Zapatila bat zuria, bestea gorria.

– Jakina, etxean daukat beste pare bat bardin-bardina.

420

Gizonak zoro, andrak loro

Txomin eta Gotzone, senar-emazteak, zoroetxean dauken senide bat ikustera joan dira. Egitekoak eginda, etxerantza datoza, biak isilik eta pentsakor.

Halako baten Gotzonek badinotso:

–Konturatu al zara, Txomin? Gizonezko gehiago dago zoroetxean, andrazkoak baino. Txominek laster orraztu dau bere burua:

–Bai, baina nok zoratuta?

421

Zure ondoan nahiko inpernu dauka

Andrazkoak gizonezkoak baino eleiz zaleagoak ei dira. Holan agertzen dabe behintzat. Fededunagoak ere bai? Dana dala, andrazkoak abilidade haundia ei dabe, gizonezkoak nahi daben lekura eroateko. Eta hori Adan eta Ebagandik hasita. Zerura nahiz inpernura. Begira, ezkondu jatzu Garbiñe, neska pertxanta eta eleiz zalea bera. Egun gitxi barru amagana etorrita badinotso:

–Ama, nire senarrak ez dau sinisten inpernua dagoanik.

–Ez deutso ardura, Garbiñe, zure ondoan laster aldatuko dau eritxia.

422

Hilaren azkena, egunik onena

Beste leku gehienetan lez, ezkontza-bizitzan ere dirua izaten da hasarrebide ugariena, modu batera edo bestera. Luis Marik hau esperientziz daki. Lanetik etxerakoan, bere lagun bati badinotso:

–Gaur nire andrearen eguna da.

–Zer, bere santua ala bere jaioteguna?

–Ez bata eta ez bestea; hileko azkenengo eguna.

423

Dirua ala maitasuna nagusi?

Maitasunean ba ete dauka diruak zerikusirik? Zer deritxazu? Zalantzarik badozu, entzun honako hau:

–Koldo, zelan zabilz neska lagunagaz?

–Ez dau nahi nigaz ezkondu.

–Zer ba?

–Ni pobrea naz eta berak aberatsa nahi.

–Esaiozu osaba aberatsa daukazula.

–Hor dago, ba, untzea: horigaitik galdu naz.

Beragaz hasi da.

424

Zuk bai kontuak ondo atera!

Bat nahiko ez bada, hor doa bigarrena. Edurne eta Kaxpar ezkonbarriak dozuz. Laster agertzen deutso Kaxparrek bere poztasunaren erraioia:

–Edurne, gu biok alkarrentzat eginak gara.

–Zergaitik dinozu hori?

–Hara, zuk diru asko dozu eta nik nun gastau asko.

–Kaxpar, hori bai dala kontuak ondo ateratea!

425

Komunean dirurik ez

Etxegintza baten jo ta ke dihardue beharrean. Zoritxarrez, aldaminoak alde batera egiten deutse eta hor doaz sei gizon kale gorrira, eta guztiak hil dira. Bitarte horretan Kasimiro komunean da. Badoa etxera eta andreari kontau deutso dana. Gainera, seguru-etxeak bakotxaren andreari 30 miloi emongo ei deutsozala. Andreak kotsolatu eban gizona:

–Eta zu, kokolo haundi hori, bitartean komunean kakaginen, ezta?

426

Ikasteko motz, ihes egiteko zorrotz

Bizimoduak, ibilian ibilian, berak bixkortzen gaitu guztiok. Umetatik hasita. Joxe Txiki ere bai. Etxeko deberrak egin barik eukazan baten, badinotso maisuari:

–Egin ez dan gauza bategaitik izan daiteke zigortua inor?

–Horixe bai ezetz!

–Hau poza!

–Zergaitik dinozu hori?

–Ez dodaz eskolako deberrak egin eta.

427

Eskerrik asko, osagile jauna!

Osagile jauna, bizkarreko minez nator. Ondo aztertuta gero:

–Ez izan bildurrik. Astebete barru lanera joango zara.

–Eskerrik asko, berorrek emoten deustaz osasuna eta lana gainera, paroan nago ta.

428

Gauza onari txakurrak ere igarri

–Bai, bai, dana aldatzen doa, lagun.

–Zergaitik dinozu hori?

–Hara, txakurrak eurak ere guztiz aldatu dira.

–Zetan igarten deutsozu?

–Zetan? Lehen gure txakurrak berak ekarten eustan samako katea paseora aterateko. Orain kotxeko giltza ekarten deust.

429

Usaina ez da nahiko

Manolo, edanaren edanez, bihotzekoak emonda oso txarto dago. Osagilea etxera etorri eta haxe eskatzen deutse:

–Ekarri ozpina.

–Ez daukagu etxean ozpinik.

–Bardin da, ekarri paittarra. Bai agudo ekarri ere. Eta osagileak sudur ondora hurreratu deutso. Gaixoak berehala:

–E, e, ontzitxo hori beheratxoago, mesedez.

430

Gizona ez da ogiz bakarrik bizi

Gizon bat epaileagana, okindegi baten ogia ostuten harrapatu dabela ta:

–Egia al da zuk ogia ostu dozula okindegian?

–Bai, jauna.

–Eta dirua gainera?

–Baita, Bibliak dinoana betetearren.

–Zelan izan leiteke hori?

–Bai, han esaten da: “Gizona ez da ogiz bakarrik bizi”.

431

Ateko giltza poltzikoan eta aterik ez

Hau zoroetxekoa dozu. Han dihardue arduradunak zeintzuk zuhurtu ete diran aztertzen. Aurreko horma zuri baten ate bat pintatu dabe. Ea nok zabaltzen dauan atea? Eta danak hor dihardue horman egin ahalak egiten. Batek izan ezik. Beragana hurreratuz, itandu deutsoe:

–Eta zuk zergaitik ez dozu zeozer egiten?

–Ateko giltza neuk daukadalako.

432

Kontrakoa egin eta nahi dana lortu

Abundio baserritarrak bereak eta bost egiten ebazan, txarria kortan sartu behar eban bakotxean: ez tiraka, ez bultzaka. Halako egun baten, bere soldau lagun bat etorri jakon, eta berak erakutsi eutsan zelan jokatu: Ez ibili atzetik tiraka, ez aurretik belarrietatik tiraka. Mantxo-mantxo ipini atean kortara begira, eta kontuz buztanetik tira eta txispaz armaturik kortan sartuko da.

–Ez dot sekula holangorik entzun!

–Zu, ez ahaztu: bai txarriei eta bai antzeko askori kontrara indar egin behar jake, norberak nahi dauana lortzeko.

433

Denporeak asko balio dau

Lantegi batera lan bila doanari nagusiak itanduten deutso:

–Lehen egon zarean beharlekuan zenbat urte egin dozuz?

–Berrogeita hamar urte, jauna”.

–Ze adin daukazu, ba?

–Berrogeita sei urte.

–Orduan, zelan ulertzen da hori: berrogeita sei urte euki eta berrogeita hamar urte behar egin?

–Ordu extra asko sartuta, jauna. Zer ba?

434

Politikak ez dauka gauza politikan

Politika txarra dala, guzurra besterik ez daukala, lapurra besterik ez dagoala euren artean, lagunak egin eta ahaztuteko makina bat dala... eta zenbat holango. Aita batek ekinaldi latza egin eutsen seme-alabei:

–Zeuk atera kontuak: Hartu hiztegian dagoan berbarik ederrena; zalantza barik, “ama”. Horra, ba: ezarri egiozue atzetik “politika” eta ea zer gelditzen da?

435

Osagile zuhurra

Osagile batek besteari belarrira:

–Lagun, gaixo hau lehenbailehen operatu behar da.

–Zer dauka, ba?

–Dirua ugari.

436

Banan ezagutu gaitu

Keleto hiltzorian dago. Han dagoz gelan bere ondoan: osagilea, andrea, abokatua eta seme-alabak. Guztiak dagoz gaixoa noiz hilgo zain. Baina horra ustekabeen itzartuten da, eta bere ingurura begiratuta badino:

–Halako hiltzaile, lapur, esker txarreko eta lotsabako piloa! Eta barriro be etzun egiten da. Osagileak badino:

–Nik uste dot hobetuten doala. Eta andreak:

–Zergaitik dino hori?

–Guztiok banan-banan ezagutu gaitualako.

437

Hartu taxisa, ta izan prixia

Hirurogei urteko andra batek osagileari:

–Osagile jauna, nire etxerako bidean aldapa haundia dago. Zer hartu neike?

–Nire ustez, onena taxi bat hartzea dala.

438

Maitasunak ere bere neurriak?

Gizon bat hospitalera doa, bere andrea zelan dagoan jakitera. Osagileak oso txarto dagoala dinotso. Aurrerantzean berak jaten emon beharko deusola, berak jantzi-erantzi, bainuan garbitu eta abar. Hor hasten jatzu gizona negar muxinka. Osagileak kontsolatu nahirik:

–Ez negarrik egin; adarra joten ibili naz. Zure andrea hilda dago.

439

Autopsiak dana argitzen dau

Andra bat oso kezkatu ebilen: osagile batek ere ez eutson igarten zer eukan, edo ez eutsoen esan gura behintzat. Andrearen urduritasuna gozatzeko badinotso:

–Ez izan ardurarik, edozein duda autoptsiak argituko dau.

440

Badaezpadan behetik goruntz kontau

Zu, Joxe, egia al da zure aitita osagilearen kontsultan hil zala? Zer esan eutson, ba, hil aurretik?

–Hauxe bakarrik: Justo, kontau egizu neugaz: bost, lau, hiru, bi, bat zero....

441

Mozkorraren errezuak

Mozkor lagun bi aterpetxe baten gaua pasatzen ostatuan. Litera bitan jarri ebezan, bat bestearen gainean. Gaineko mozkorrak errezatzeari emon eutson: Jaungoiko maitea, ez itzi niri hemendik jausten. Aingeru jagolea, lagun gaiztoakandik zaindu nagizu. Karmengo Ama... Halako baten, garragarraka egin-da, azpikoaren gainera jausten da. Gainetik kendu ezinik, badinotso azpikoak: –Jakina, hainbeste lagun batera egon ezkeru, jausi egin behar.

442

Letra ona, musika txarra

Gizonen gauzak eta andrenak; batzuetan nahastau egiten dira. Auzoko gizon batek alboko gizonari:

- Zure andreak zergaitik ez deutso umeari kanturik kantatzen, negarrez hasten danean?
- Lehen kantatzen eutsan, baina goiko pisukoak esan eustan:
- Gurago dot umea negarrez entzun, andrea kantuz baino.

443

Astoa injieneruen maisu

Gaur egun bada injieneru eta abar luze bat gure artean, Hor daukazu talde bat mendi aldera nundik eta zelan bidea egingo erabagiten. Bertako baserri gizon batek dinotse:

- Guk baso mendietara bide barri bat ebagiten hasi baino lehen, asto bat botaten dogu, eta berak egiten dauan bidetik ebagiten dogu.

444

Don Benito... Don Ostia

Donostiar bat Madrilera doa trenez. Bere ondoan berba eta berba dihardu batek; baina Donostiarrak jaramonik be ez. Azken baten, aspertuta edo, lagunak brausta hasi jako:

- Ni Don Benito urikoa naz. Eta zu?
- Ni Don Ostiakoa, hasarrez.
- Tira! Ez zaitez holan jarri, gizon!

445

Txarriburua aldean

Gizon bat harategira. Sarreran ispilu haundi bat. Hara begira badinotso jabeari:

- Mesedez, txarriburu bi.
- Parkatu, ez daukagu.
- Eta aurreko hori?.
- Hori, lagun, ispilua da.

446

Ertzainen eskuetan suertea

Kalean zehar kotxea deabrauren abiadan. Ertzainak gelditu eta kontuak hartzen. Nagusiak irribarrez:

- Gaur kapitana bodara joanda, eta gu umore onez gagoz. Suertea euki dozu.
- Bai, zereko suertea! Neu naz ezkontzeko dan nobioa ta.

447

Otoitzaldiko zurrutzadak

Monjatxo bat autortzen:

- Jauna, nik otoitzean lo egiten dot.
- Ez bildurtu, Jesusek badaki zure barri.
- Ez, baina zurrutzadaka egiten dot.
- Nahiko penitentzi egiten dozu.
- Txarrena hauxe, jauna: Monja lagunak ere itzartu egiten dodazala.

448

Inoren lepotik bizi gura

Gazte bat Trapan sartu da. Lehenengo egunetik arauak jaso ebazan:

- Hemen isiltasuna da nagusi; urtean berba bi bakarrik esan leitekez. Bai ondo bete arau hori! Lehenengo urtean: "Jateko txarra". Bigarren urtean: "Ohe gogorra". Hirugarren urtean: "Ni banoa".

449

Zein gatxa dan begiak garbi eukitea!

- Ikusten dozu, Txomin, hor aurreko etxeko Pantxikek zelan daukozan izarak?
- Zelan daukaz, ba?
- Ez dozu ikusten ala, zelango zikinak dagozan? Biharamonean ere izarak eskegita, baina garbi ikusten ditu:
- Gaur behintzat ondo garbituta agiri dira. Eta gizonak isildu eban zati baterako:
- Hemen zikin egon dana zeure etxeko kristala izan da eta neuk garbitu dot. Hori da errezena: etxeko zikinak auzoko leihotik eskegita ikustea.

450

Jainkoa ere euskaldunen alde

Euskaldun bat Madrilera doa. Taberna baten hor dago telebistan eguraldiarena ikusten: "Espainia osoan sikete itzela, Euskadin izan ezik". Bibotedun batek laster jo dau trumoia:

–Txarriok, Jainkoak ere eurai lagundu behar!

–Ez zera! Hor egon zaree 40 urte luzeetan "Cara sol" kanta eta kanta eta orain siketeaz kexa?

451

Botoa boto, ez egin poto

Auteskundeak datozanean hemen ibiltzen da perrotsa boto eske! Zelango eskeintzak eta opariak! Policarpo ezaguna zan zeregin berezi honetan. Base-ritar batengana joanda, ekin eutson:

–Zuk nire alderdiari botoa bota behar zeunskio.

–Ez, nik honetan ez daukat idearik.

–Hartu neureak.

–Eta zeu bape barik gelditu?

452

Lau gizaki mota munduan

Asko bizi gara munduan; baina On Gergoriok lau aldratan banatzen ebazan diran guztiak: Bat, *zuzenak*: nirea neurea eta zurea zeurea. Bi, *maiteminduak*: Nirea zurea eta zurea, nirea. Hiru, *egoistak*: nirea neurea eta zurea ere nirea. Lau, *santua*: nirea, zurea eta zurea, zeurea.

453

Hamabi bide miloidun izateko

Joxandres izen haundiko gizon egin zan bere libururei esker: "*Hamabi bide dagoz miloiduna izateko*". Inok sinistu ez edo, orain eskean dabil. Bere joan-etorriak ondo dakizan batek arpegira bota deutso:

–Zu, halako liburua idatzita gero, zeu eskean?

–Bai, ba; hauxe da hamabi bidetatik bide bat.

454

Legebiltzarrekoen listia pasatzen

Legebiltzarra (parlamentua) badakizu zer dan, ezta? Gazteak han ere lekua gura, baina botoak falta. Behin gazte aldra bat batu da Palamentu ondoan, eta zaunka eta zaunka, hango esan beharrak: *alperrak, lapurrak, ustelak...* Handik zehar doan gizon batek:

–Zu, zetan dihardue?

–Listia pasatzen.

455

Lo egon eta lo egin, ez da bardin

Manolo lehenengoz joan da Parlamentura. Gogaitu zan betiko; baina jango bada, egon egin behar dala ta... Behin ez eban, ba, loak hartu? Ondokoak kontu haundiz:

–Parkatu, baina lo zagoz.

–Ez, ez nago lo, lo egiten baino.

–Ez al da bardin?

–Ez; bardin al da "edanda nago" edo "edaten nago"?

456

Dendara baino lehen semea pixau

Ama batek semea bialtzen dau dendara mailukiak erosten. Salto baten ekarri deutsoz, baina amaren pixuak emoten dauana baino gitxiago emoten eban: 20 gramu falta. Kexatu jako dendariari:

–Nik kilo bat eskatu deusut et lau gramu falta izan dira.

–Zu, Matxalen, zergaitik ez dozu semea pixatzen dendara bialdu aurretik eta ostetik?

Fisst Madriler... fusst Euskadira

Hor doaz hiru euskaldun mutilzahar trenez Madriler. Euretarike bi alkartu eta aurretik doaz, eta txartela atera ondoren, kobradoreari errekadua:

- Guk hemen txartela, baina eske zatozanean, fisst egingo deusugu eta libre itzi. Badator, esandako moduan, fisst egin eta libre. Martolo harrituta gelditu da. Handik honuzkoan, hegazkinez etortekotan dagozala ta, Martolori kontsejua emoten deutsoe:
- Badakizu gu zelan librau ginan. Martolok sortu eban ixkanbila trenean, fisst eta fisst kobradoreari! Hurrengo domekan tabernan bazan adarra jo beharra:
- Zelan trenean, Martolo?
- Zelan dinozu? Zeuon antzera fisst eta fisst egin neban, baina bakotxeko 200 pezetako fit eta fit.
- Zelan egin dozu?
- Holan eskumeagaz: fisst, eta fisst.
- Hi haz kokoloa! Eskumeagaz fisst Madrilerantza dok; Euskadirantza ezkerzagaz fisst egin behar dok. Holan etorriko dira transferentziak gurera.

Amerikanuaren kapelapeko txoria

Bazan baserritar bat "amerikanua" deitzen eutsoena. 30 urte Amerriketan izanda, dirua besterik ez eukan. Ardiak zaintzen hainbeste urte emon ondoren, oraindik ahal dan ondoen bizitzeko, korbata, kapela eta guzti badoa Bilbora. Janak janda gero, "gerokoak" datoz... Hustu behar eta ez jakin nun. Harrapalada batzuk eginda, gero eta estuago. Azkenean sartu da zabalik dagoan ate batetik, eta hirugarren pixuko deskantzuan, berak bai hartu ebala deskantzua! Zoritxarrez, hor dator gizon bat, eta kapelapean ezkutatu eban. Gizonak badinotso:

- Zer egiten dozu hor?
- Txori bat erosi dot eta kaiola bat erosi gura neuke, baina...
- Neuk eutsiko deusot. Hamar minutu igaro eta hor dago Eustakio txorizain. Halako baten, aspertuta, txoria kontu haundiz eskuan hartzea erabagi dau. Kapelea jaso eta ondo lumatutako txoria jaso dau bai!

459

Ordaindu ezkeru, dana libre

Apainak egoten dira gure herrietako plaza baztarrak erromeri biharamonean! Ibili eta ibili, banaka bat jausten da gauzainen eskuetan. Batzuei asko ardura! Iñakik hor dihardu puxika hustuten. Serenoak harrapatzen dau eta 50 ogerlekoko izuna.

–Eutsiz 100.

–Ez daukat buletarik.

–Ez deutso ardura. Eta lagunari deitzen deutso:

–Hi, Endrike” Egik hik be, ordainduta jagok eta.

460

Tiberiadesen oinez ur gainean

Tiberiades itsasoa zeharkatzen doaz turistak. Badator kobradorea eta:

–Ea bakotxak 50 euro.

–Zoratuta zagoz ala? Zelan hain karu? Eta gidamutila aurrera berean:

–Laku hau ezaguna da, hementxe ibili zan Jesus oinez ur gainean. Eta Martolok:

–Ez da harritzekoa, kostaten danaz...!

461

Ostutako kotxeaz ezin urrun joan

Ertzainen bizimodua bada ba! Euretarik askori gogor egiten jake izunak bota beharra. Halako bikote batek urten dau umore onean, eta bien akorduz, “gaur ez dogu izunik botako; ondoen portatzen danari 100 euro emongo deusoguz”. Egotaldi luzean hainbeste ganorabako igaro jakez aurrean, baina “gaur ez dago izunik”. Tira, azkenean be hor dator kotxetxo bat astiro eta ganoraz. Gelditu eta berari saria emoterakoan, itaun batzuk egin eutsoezan:

–Zetan gastatzeko asmotan?

–Karneta be atera barik daukat eta...

Andrea ondolik ertzainei:

–Ez egin kasurik, erdi edanda dago ta. Ertzainak alkarri belarrira zerbait esaten. Atzean etorren amamak argitu eban arazoa:

–Seme, esaten neutsun nik ez zinala urrunera joango ostutako kotxe honegaz.

462

Sopa gaineko eulia

Jatetxe baten sartzen dira senar-emazte bi bazkaltzekotan. Hasieratik atzerakadea: eulia sopa gainean.

–Zu, eta euli hau zer?

–Bai, baina hilda dago, ez izan bildurrik. Gainera, prezio honetan, bizirik nahi zenduan ala?

463

Ikopeko zozo baltza ezin uxatu

Eskerrak pasadizu gehienak isilean gordeten dirana... Andra-gizonak kanporamartxa bat egiteko gogo bat bai! Baina dirurik ez. Andreari burutazino polit bat loratu jako:

–Kortako asto zaharra saldu eta bere kontura egingo dogu gaurko egunpasa. Gizonak onartzen deutso eta bere aspaldiko gogo agertu be bai:

–Badaukat gogo bat oraintsu agertu diran txipiroiak jateko! Esan eta egin.

Andreak ikusiaz batera, okadaka hasi zan. Kauldiok platerkada biak jan ebazan. Etxeratu dira eta a zer lo gozoa Kauldiok! Andrea goizean goizetik jagi ta ortuan ikopean zozo xeble bat uxatu ezinik, ez txaloka, ez harrika.

–Kauldi, hor ikopean zozo arraro bat dago eta ezin dot uxatu.

–Sebastiana, itzi egiozu bakean, hortxe euki dozu gau osoan zeure ondortxoan.

464

Babak eperditik ateraten dozak

Bertsolariakaz kontuz! Gitxien uste dozun aldetik urtengo deutsue. Txantonek baba baltzak igitaiaz ebagiten dihardu. Herriko alkatea ondoratu jako erakutsi nahirik:

–Txomin, gurean babak eperditik ateraten dozak.

–Bai gurean be, baina janda gero.

465

Bozinea bakarrik zarata barik

Gure Kaxintok ez dau alperrik ezer galduko. Haren etxe inguruan txakur-katuak beti argal. Halan be, herrian lehenengotarikoa izan zan kotxea erosten. Demontresa! Eukazan danak atera eutsozan. Ibiliko bazan, konpontzera eroan behar. Tailerreko ugazabak ondo aztertuta gero, badinotso:

–Hau da kotxe modua! Pieza danak zaratea ateraten dabe.

–Ez danak; bozineak ez.

466

Ekarri markakoa

Lehenago bazan “escoba” deitzen eutsoen tren bat, gau berandukoa. Hor etorren behin Fakun etxera. Argi indarra joan zan eta trena geldi. Treneko nagusiak agindua emon eban:

–Danok kanpora! Zornotzara arteko bidea laburra da eta oinez joan beharko dogu. Fakun ez egoan prest:

–Zergaitik hori?

–Korrienterik ez dagoalako.

–Hori be bai? Ekarri orduan litro erdi “markakoa”. Markakoa harek gainean eukan.

467

Ardaubako egunak amaibakoak

Mozkorren artean eskola berezia egon ohi da: orduan argitzen dira itsuak eta bixkortzen mantsuak. Pruden eta Kelmen lagun haundiak ziran, batez ere ardaub kontuan.

–Hi, Kelmen, ardaubak bizitzea laburtu egiten ei jok.

–Egia, Pruden, ardauba edanbako egunak amaibakoak dozak.

468

Manolo, ekarri kontua!

Mozkortu ezker, dana da ezbardin, dana jarten da aldrebez. Lontxok hamai-ka egotaldi egin dau taberna baztarrean, apalostean! Auzoko bat sartu da bertan gaueko 12etan; eta holan ikusita, badinotso tabernariari:

–Itzartu egizu eta bialdu etxera.

–Hori egin deusot hiru bider, eta itzartu orduko, zarata egiten dau:

–“Kontua, kontua”. Eta kontua ordaindu eta barrero be lo.

–Holan bada, merezi dau aguantatzea, daukazan danak gastau arte.

469

Kotxea eta mozkorra ez dira bardin

Mozkorrak txispaz dagozanean, kontuz. Gitxien uste dozun aldetik joten dabe. Horra pasadizo bat:

- Txispaz, kotxe barri bat erosi dot. Kontuak atera: litro bat gasolinaz 22 kilometro ibilten da.
- Kontxo! Hara, nik litro bi ardauaz ezin dot pauso bat be emon.

470

Zortzi egun edan barik!

Ardaua dala eta ez dala, andra errukarriak gorriak eta baltzak ikusi behar izaten dabez. Eta nok eta zelan zuzendu? Joxe Xelebrek komeriak izaten eban andreagaz:

- Joxepa, zelan izan leike hau egia?
- Gaur be gure Joxek badakar lelokeriren bat.
- Begira, kameluak 8 egun egon leitekezala urik edan barik.
- Ba, nik ezagutzen dot gizon bat, 8 egun edaten egongo litzatekeana, beharrik tautik egin barik.

471

Bizioen kontra ardaua onena

Eskola maisua arduraz ebilen umeei erakusten:

- Mutilak, kontuz ardaugaz! Begira, hor mahai gainean boteila bi: bata urez beterik eta bestea ardauz beterik. Bietan bota koko bana, eta uretako bizi-rik eta ardautakoa hilda. Hortik zer ateraten dogu? Kuadrilako nagusienak laster atera dau ondorena:
- Tripako bizioak garbitu gura badoguz, ardaua dala onena.

472

Kopa bat gaitik hainbeste ostikada!

Gure Braulio Atletik zalea zan, baina kupelekoaren zalea gehiago. Hor dago San Mamesen begira, sama gaineko baloiari eutsi ezinik. Halako baten botaten dau berea:

- Zergaitik hainbeste ostikoka? Eta alboko lagunak:
- Kopa bat gaitik.
- Halako zoro piloa! Eta horrei txaloka zabilz? Nik ez kopa bat gaitik, pitxar bete gaitik be ez neuke horren erdirik egingo.

473

Izena Leon, "Ardo" apelidua

Mozkorrak baztarretan negar asko eragiten dabe, baina barre algarak be bai. Mozkorrentzat ezezagunak lagun biurtzen dira, eta ezagunak ezezagun. Kalixto kalean doala, bati eraso eutson:

- Kaixo, zuk zelan dozu izena?
- Nik Pilipe.
- Eta zuk?
- Nik Leonardo.
- Bai zera! Izena Leon eukiko dozu eta "ardo" apelidua.

474

Gurean ez al da inor normalik jaio?

Kontxi gero eta arduratsuago ebilen bera nun eta zelan jaio zan jakin nahirik. Aitagaz egoan baten, agertu eutson barruko kezka hori:

- Aita, ni zelan jaio nintzan?
- Azaburu baten azpian.
- Eta zeu?
- Txori hanka luze batek Paristik ekarri ei ninduan.
- Eta ama?
- Gurasoak Erromara eskatu eta handik etxera bialdu.
- Zer, aita, ez al da gurean inor normalik jaio?

475

Gure txotxok bai indarra!

Aitita-amamak esatekoak eukiten dabez lobatxoen alde. Nok baino nok haundiagoak. Julen eta Koxme sarri egoten ziran iloben kontuak biribiltzen:

- Gure txotxo txikiak daukan indarra harritzekoa da. Bost urte baino ez, eta hamasei kiloko harria tapa lepora.
- Gure potxolo txikiagoa da, sei hilabete betebarri eta gaurik gehienetan etxeko guztiak jasoten gaitu ohetik eta auzokoak be hormajoka ipinten ditu.

476

Gitxiago ikasi eta merkeago

Sarri esan ohi da ume bat mundura datorrenean, besapean ogi bat dakarrela.

Beste hau be bai: Umeak hazi, nekeak bizi. Entzun aitak Mikel semeari dinotsona:

–Benetan karu dira zure eskola-kontuak, gero!

–Ba, aita, neu be horrek arduratzen nau; horregaitik ahal dan gitxien ikasten dot, merkeago urten deizun.

477

Iruntzi dauan kanika neurea da

Ume artean ezusteko asko sortzen da; beti dagoz mobimentuan, antza. Kanika jokoan dabiltzala, Harkaitzek ez dau, ba, kanika iruntzi? Hor doaz Koldo eta Harkaitz osagileagana.

–Zer jazo da? Aldrebeskeriren bat?

–Jauna, Harkaitzek kanika bat iruntzi dau.

–Holangorik! Eta zuk?

–Hara, iruntzi dauan kanikea neurea da, eta galdu ez daiten...

478

Ni San Pedro naz

Ebaristok tripak zulatuta eukazan, eta ez jan, ez lo, ez lan. Errufiño bere lagunak ebakuntza egitera komentzidu dau. Joan da eta eginbeharrekoak egin eutsoezan. Bere senera bihurtu zanean:

–Kontxo, hemen gozak, Ebaristo!

–Zer Ebaristo eta Ebaristondo! Ni San Pedro naz.

479

Hori dok errebotia!

Eibartarrak gatza ugari dauke. Danik baltzena be laster zurituko deutsue.

Holan kontatzen deutso Plantxiar batek Eibartar bati:

–Badakizu zer jazo jakon Kontxi Petralandari?

–Ez.

–Zortzigarren pixutik jausi da.

–Eta zer?

–Orain zeruan dagoala

–Karanba! Hori dok errebotia!

480

Adan zilik bako bakarra zeruan

Eibartarrak ei dira Euskalerriko lehenengo sozialistak. Eta luzaroan, sozialista esan eta fedebakoa edo antiklerikala esan, bat. Plantxiar batek inoan:

–Eibartar bat bakarrik sartu ei da zeruan, eta bera zelan sartuko, eta hara:

Zeruko atera joanda, San Pedrori desafioa:

–Itzi egidazu Adan hori ezagutzen; triskantza hau beragaitik da ta.

–Hori ezinekkoa da, hemen miloika dira ta.

–Itzi egidazu, mesedez, eta gero bota naizu inpernura. Eta ibili eta ibili, laster da Adan eskutik dauala eibartarra.

–Zelan ezagutu dozu?

–Ezagutuko ez dot, ba? Berau da bakarrik zilik bakoa.

481

Urteak joan ala etorri?

Iloba gazteagaz aitita kontu kontari:

–Zenbat urte bete dozuz, Julen?

–23, aitita.

–Bai, urteak arin doaz.

–Joan zuri, niri etorri.

482

Errezatzen ez dabenak

Aitita-amamak bihotz minez dagoz etxeko lehengo errezu murmurioa isildu dala ta. Irratia lagun gau ta egun behar. Iloba gazteak badinotso amamari:

–Etxe honetan neu bakarrik errezatzen ez dodana.

–Ez ba; badira beste batzuk be.

–Zeintzuk?

–Astoa, katua eta txakurra.

Hirurok huts egin dogu

Ene, zenbat luzatu dan bizitza! 100 urtetik gora parra-parra doa jentea; arnas estuka edo hanka-zabalka, baina aurrera.

Gorputzak beherantza egin arren, badira buruz eta gogoz bixkor dabilzanak. Joxe Miel beneragarria da gaur eskolamaisua: Baziran mutil gazte bi, bata baino bestea azkarragoak, batak Madrilen eta besteak Berlingen mediku karre-
ra ona egindakoak. Amaitu barritan, Bilboko Areatzan topo egin dabe, eta hik haundiak, nik haundiagoak. Afaria jokatu dabe, aurrean doan aitita batek zer gatx ete daukan hanka-zabalka joateko. Ezdabaida gogorraren ondoren, bera-
ri itanduten deutsoe:

- Parkatu, aitita, esango deuskuzu zergaitik zoazen hanka-zabalka? Honek lepazurreko gatxa dozula dino, nik mokorretakoa dala. Zuk zer dinozu?
- Ene semetxook, hirurok huts egin dogu. Neuk be haizea zala uste neban, eta zirinak urten deust.

San Pedroren erlikiak makilau usaina

Lehenago estimagarriak ziran santuen erlikiak; famailia aberats askotan be gordeten ziran. Zubiritarren etxean galdu egin eben San Pedroren erlikia. Semea arrantzalea eben, eta Erromaldera joian baten ekarteko diru pila bat emon eutsoen. Makilau asko harrapatu ebazan, baina lehorrean, batez be. Gero dirurik ez erlikiak erosteko. Bere okotzeko bizar txorta bat ebagi eta hor doa etxera kutxa dotore baten erlikia eta guzti. Amak kontu haundiz hartu eta usain eta usain ibili jakon bizar txora horri:

- Baleiteke hau San Pedrorena izatea, makilau usaina be badauka ta.

Santua eta astoa mahaikide

San Jeronimo gizon jakituna zan. Ereje harroputz bat joan jakon behin, bera-
gaz erlijinoko puntu batzuk eztabaidatzera. Ezin izan eban santua menperatu eta irainka hasi jakon:

- Ikusi dot Jeronimoren eta asto zahar baten artean ez dagoala tarte haundi-
rik. Eta Jeronimok mahaiari begira:
- Zehatz esanda, mahai honek zabalean daukan beste.

486

Limosmea erdibana

Felipe Neri apala eta behartsuen alde ongile zintzoa izan zan. Behin baebilen umezurtzentzat eskean. Lotsabako batek, limosna odez, zaplateko bat emon eutson. Felipek apal-apal erantzun eutson:

–Hau niretzat, orain emoidazu zertxobait ume errukarrientzat.

487

Elefanteak uxatzen

Zorotik danok dogu pitintxo bat; gehienak tranpaz disimulatuta. Bere burua udaltzaingotzat eukan bat hor doa kalean zehar txaloka eta zarataka. Goarda batek alto emoten deutso:

–Zetan zabilz hemen baztarrak astintzen?

–Baztarrak astintzen ez, elefanteak uxatzen baino.

–Hemen ez dago elefanterik.

–Ikusten? Nik bai arin uxatu.

488

Zoroak be norgehiagoka

Zoro egon arren, gizonak ez dau galtzen nor gehiagoka ibilteko grina. Antza danez, zorotik baino haruntzago dago hori. Hona zoro biren apustua:

– Egin daigun nor zoroago: ezetz igarri zer daukadan hemen esku barruan.

–Elefantea.

–Ez dau balio, hartzen nagoala ikusi dozu.

489

Nok jakin nor dagoan lo edo itzarrik?

Doktore jauna, atzo amets egin neban.

–Zer izan zan?

–Amets egin neban itzarrik nengoala. Eta itzartu nintzanean, konturatu nintzan lo negoala.

490

Nor baino nor haundiago

Zoroetxeko osagileak badinotso bati:

–Zelan dozu izena?

–Ez al nozu ezagutzen? Ni Napoleon naz.

–Eta zelan dakizu hori?

–Jainkoak Berak esan deustalako. Ondotik doan zoro lagun batek entzunda, argitu dau korapiloa:

–Guzurra, nik ez deustot esan hori.

491

Betaurrekoak telefonorako

Gaur zoro bi dira telefonoz alkarregaz berbetan:

–Ezagutzen al nozu?

–Itxaron apurtxo bat, betaurrekoak ipintera noa.

492

Kontuz aldrebez dabilenagaz!

Burutik kaskauta egoan bat trenera doa, maleta eta guzti. Eta erdi-erdian izten dau. Ondokoak dinotso:

–Kendu hori hortik. Eta ikararik be ez.–Kentzeko! Eta bardin. Hartu maleta hori eta botaten dau leihotik. Eta zoroak negar egin beharrean, barrez dino:

–Ez da izan nirea.

493

Ezinak ez dauka legerik

Gizakiaren gatxa da ezinaren atzetik ibiltea. Zoroen artean holangorik asko ikusten da. Gergoriok egun osoa emoten dau hanka baten gainean eta bestea be jaso nahirik.

–Zetan zabilz izerditan, Koxme?, dinotso arduradunak.

–Erdia asmau ezinik.

–Zer da, ba, asmau ezinik zabilzana?

–Begira, hanka bat aidean daukat, eta bigarrena be jaso gura dot, eta ezin dot lortu. Ezin asmau, demontres!

494

Ametsak eder, egiak oker

Hor doaz zoro bi alkarregaz jaupadaka:

- Nik dirua aurreratu eta motorra erosiko dot.
- Nik behi eder bat erosiko dot.
- Halako itxurea behi baten gainean!
- Eta zeuk hobe, motorraren burpiletatik esnea batzen!

495

Aurrekoa ezin ikusi ta izarretara begira

Haundi izan nahia zoro egitea ete? Holan balitz, hamaika...! Gure Txilibristo astronomo famatua da. Hor dago egun osoan leiho ondoan, eskoba kirten bat begian goruntz luze ipinita, izarretara begira. Lagun bat bajatoroko eta.

- Zeri begira zagoz?
- Izarretara.
- Emoidazu neuri be. Eta luzaro begira egon ondoren:
- Ez bada ezer ikusten.
- Zu zagoz ona! Neu hemen egon hiru urtean begira eta ez dot bat be ikusi, eta zuk hiru minutuan ikusiko dozu.

496

Jesus, Jose eta Maria

Gure Pontxio azkenetan dago. Hor doa Kelmen abade jauna, monagilo eta guzti txilin hotsean. Eta ekin deutso aguratxo berotzeari:

- Pontxio, esan neugaz: "Jesus, Jose eta Maria". Hamar bider esanazo, eta alperrik, Pontxio isilik. Monagiloa Pontxioren ilobea da. Honek abadeari belarrira dinotso:
- Jauna, itzi neuri, neuk aterako deutsot.
- Aitita!
- Zer?
- Badakizu? Gure kortako astoak hiru txarrak egin ditu. Eta Pontxiok "Aitearen" eginaz: Jesus, Jose eta Maria"

497

Sakristauaren "kurutzea"

Hor dago Txanton hilzorian. Ez dau autortu nahi. Abadea estu, zer egin ez dakiala. Txantonek argi dauka: esatekoa Jesukristori bakarrik esango deustola. Abadeak asmau dau zer egin: sakristauari deitu eta eskatu deustoa mesede bat: Jantzi zaitez Jesusen antzik gehien hartuz, bizar, kurutze eta guzti. Txantonengana joango zara. Ea niri esan gura ez deustan pekatua zuri esaten deustun. Ni ate ostean egongo naz eta bota orduko emongo deustat absolutuzinoa. Gaixoaren poza aurrean Jesukristo bera dauala!

–Hara, Jesukristo neure Jauna! Nire pekatua haundia da, baina Zu on hutsa zara ta...

–Bai, bai, esan.

–Hara, ba, sakristauaren semea ez da berea, neurea baino. Sakristauak atera eban perrotsa eskailaretatik behera!

498

Zer? Beherazkoa etorri iak ala?

Baldomero abadea autorlekuan dago zain. Bajoako gizon bat autortzera eta biak pixka baten isilik. Halako baten Baldomerok:

–Zer? Maldizinerik edo?

–Bai, mekauguen pilo bat.

–Nori horrenbeste?

–Jesus, Ama Birjina, San Pedro, San Judas, San Kristobal....

–Ixo! Ixo! Beherazkoa etorri jatzu ala?

499

Trinidaddea ikusi gura?


Andra bat, erdi burutik egina, sarri joan ohi da autor-entzuleagana: "Aita, Semea eta Espiritu Santua ikusten ebazala, baina erdizka bakarrik. Azkene-rako asper-asper egin eban On Pedro. Laster asmau eban biderik onena:

–Zu, Petronila, autortzera etorri aurretik ezer edaten dozu etxean?

–Bai, hatzamar lodierako paillar pixka bat.

–Ba, hurrengoan edango dozu hatzamar nagusia tente jarrita beste. Hirurak ondo ikusten ebazala joan jakon hurrengoan.

**Izarrak zeruan ñir-ñirka
txisteak barruan zirrika**



500

Sasieskolaren ondorenak

Sasieskola egitea eskolea bera baizen zaharra da, kontizu. Gero izaten dira kontuak, etxeok konturatuten diranean. Iker Unibertsitatean ere sartu zan, baina kosta jakon urtetea! Hirugarren urtean, azterketako barri jakinda, amari deia:

- Amaitu dodaz esaminak; nota guztiak ustel urten deuste. Preparau egizu aita, noanerako. Amak biharamonean erantzuna:
- Txotxo, aita preparauta dago; orain preparau zaitez zeu.

501

Ulezapaduna zeruko atean

Aintxinako urteetan ulezapa ta bizar moltzodunak itxura eta izen txarreko tximinoak ziran. Euren artean be zabaldua egoan albistea: “Horretarikorik ez dala zeruan sartuko”. Periko Kirten izan zan horretariko bat. Begira zelan asmau eban zeruan sartzea: San Pedro zaharra, itsututa egoala ta, prakak erantzi eta hankazgora jarri zan San Pedroren aurrean. Holan ulezaparen orde, burusoila ikutuko eutson. Honek eskuakaz eperdia ikutuz, badinotso:

- Ondo, ondo, baina banan-banan sartu behar da, ez binaka.

502

Txakurrak ez dakiezan kantuak

Udaldian herriko jaiak ez dauke azkenik: dana zaratea eta zikina baztarretan. “Hegan” taldeak hamaika mokor astindu dau, baita hamaika hamabiko txakurrak zaunkaka ipini be! Halako herri baten, baserritarrak alkartu eta alkate jaunagana doaz, kontuak eskatzen:

- Kantari honeek ez deuskue lorik egiten izten; euren konpasera, gure txakurrak be uau, uau, juau ikasi dabe.
- Eta nik zer egitea gura dozue?
- Errez-erreza, alkate jauna: Ikasi dagiezala txakurrak ez dakiezan beste kantu batzuk.

503

Sakristauak bai jakin!

Pontxio baserriko mutilzaharra, sakristau egoan herri txiki baten. Ezkondu nahi eta inori esateko arpegirik ez. Bazan herrian bertan Gumersinda neska-zaharra, asmo eta gogo bardinagaz. Hamaika kandela erre eban Ama Birjinaren aurrean! Behin baten Pontxio ezkutatu zan Ama Birjinaren atzean, erantzuna emoteko asmotan. Gumersinda argia biztu eta hasi da eskean:

–Ama Birjina, emoidazu mutil lagun on bat.

–Bai, badaukat bat zuretzat.

–Nor, nor, Ama?

–Sakristaua.

–Ene ba! Ni bai pozik be, berak gura baleu.

–Zu nasai, neuk konponduko dot. Egun gitxi barru, sakristaua albiste onagaz, gainera zeruko nahaia dala esanez. Eta Gumersinda pozarren.

–Eskerrik asko, Ama! Ni prest nago, Pontxio.

504

Aukera aukera

Alkarren konfiantza osoko mutil bi ziran. Korapilo ederra sortu jaken bien artean! Joxtomingok dinotso Luzianori:

–Lagunduko deustazu kontseju on bat emonez?

–Bai horixe! Zer da, ba?

–Hara, ezkontzeko aukera bi daukadaz: bata alargun aberatsa eta bestea gaztea eta pobrea, baina dotorea. Zuk nire lekuan nor aukeratuko zeunke?

–Hara, holango gauzetan bihotzak agintzen dau; hartu egizu gazte dotorea.

–Eskerrik asko, pozik izten nozu. Zu, Joxtomingo, nor da alargun aberats hori?

505

“Niño Jesús de Praga” sabelean

Ama-alabak osagileagana doaz. Alabea oso txarto dabil, tripako minakaz.

Osagilea hasi da arrasto bila:

–Zer eta zelan jazoten jako?

–Gauza garbirik ezin dogu atera; berak dinonez, “Niño Jesús de Praga” ren eskapularioa iruntzi dauala. Osagileak barruak arakatu deutsoz eta agertu jako zetatik datozen tripako minak:

–Zure alabeak ez dauko “Niño Jesús de Praga”-rik; Niño Jesús barik, “Jesusto barri” bat agiri da beragan.

506

Maitasunak urteak ere aldrebestu

Maiteminduak itsutu egiten ei dira; bihotza haunditu edo... Lontxo eta Ines benetan itsututa dagoz alkarregaz. Lontxok ez daki zelan agertu bere maitemina:

–Zoragarria zagoz, Ines! Zenbat urte dozuz?

–27.

–22 emoten dozuz.

–Beste batzuk 32 dodazala dinoe.

–Nortzuk dira lerdo horreek?

–Kontuz! Neure aita eta ama dira!

507

Astotik astora

Periko gaztetan Ameriketara izandakoa dogu. Han ganadu artean luzaro ibili eta gero, arimarik eta ez dagoala inoan, harro plantak eginez. Hil ondoren bakotxaren arimea abere bati ezarten jakola, inoan. Esaterako, ni hil eta asto bati ezarri. Entzuten egoan batek irribarez:

–Ez daukazu hil beharrik horretarako, bizirik be badaukazu asto antza.

508

Zure amak erdi-tontotzat nauka

Aintxina gurasoak konpontzen ei ebezan seme-alaben “buztarri-lagunak”.

Mutil ezkongai batek

–gixajo lotsatia bera!

–badinotso Loli neska lagunari:

–Zure amak ez nau begi onez ikusten.

–Zergaitik?

–Erdi-tontotzat nauka.

–Ez izan ardurarik; oraindik erdi baino ez zaitu ezagutzen.

509

Astoa belauniko erreka erdian

Mutilzahar anai bi perian izan dira asto zahar bat saltzen. Baina ezin saldu inundik inora. Asto eta guzti etxera. Bitartean euri asko eginda, zekarkatu behar eben errekea urez gainezka. Hor doaz biak asto ganean. Aurrerago eta estuago. Atzean doana, Aitearen eginda, errezatzen hasten da. Aurrekoak a zelango orrua botaten deutson:

–Hago isilik! Lehen goaz juxtu-juxtu; eta hire errezueta astoa belaunikotzen bada, gureak egin jok!

510

Txakur-katuen lekua

Lehenago be txakur-katuak maite ziran baserrietan; baina euren lekuan eta zereginetan. Honetan ondo hezita egozan. Horra Joxepa bere neskameari deika: Maritxu, etorri da semea etxera?

–Ez dot ikusi, baina uste dot etorri dala, katua buztana aidean dauala, ziztu bizian ezkutatu da sabai baztarrean.

511

Itaun arriskutsua

Badira itaun arriskutsuak, egia esateko orduan. Esaterako: Zenbat urte dozuz? Senargeiak bere neska lagunari:

–Kontxi zenbat urte dozuz?

–Nik 25.

–Igaz be bardin esan zenduan.

–Bai ba! Zer uste dozu: gaur gauza bat eta bihar beste bat nabilela, ala?

512

Astoentzat hazi ona

Badihardu Juan Pedrok soloan hazia ereiten. Ondotik igaro dira gazte bi, nekazariari adarra jo nahirik:

–Zuk erein hazia, eta guk jango dogu frutua.

–Ederto, ni garagardo hazia ereiten nabil; pentsu ona izan leiteke zuontzat.

513

Nirea ala zurea? Hobe gurea

“Neure” eta “geure” berbak egoki erabiltea ez da izaten erreza. Teresa behintzat mingostu jako senarrari:

- Beti diharduzu “nire etxea”, “nire kotxea”. Ezin dozu esan “gure etxea”, “gure kotxea”? Eta gizona isilik.
- Ez dinozu ezer?, andreak. Zeren bila zabilz?
- Ea nun ete dan “gure” korbatea”.

514

Dana partiduarentzat

Gizonari asko eragiten deutso politika alderdiak. Zenbat batzar, zarata eta hasarre! Luki ezaguna zan horretan. Eta zelango ahokadak bota! Behin auzoko lagun batek badinotso:

- Zuk partiduagaitik zer ez zeunke egingo!
- Hori bai gero! Kinieleak urtengo baleust, partiduarentzat.
- Eta diru moltzo bat aurkitu ezkerok?
- Dana partiduarentzat.
- Eta behi bat euki ezkerok?
- Epa! Horiii...
- Zergaitik epa?
- Behia euki daukat eta....

515

Lehenengo zigarroaren gomutak

Gaztetxoan artean:

- Zu Anton, gogoan daukazu lehenengo zigarroa erre zenduanekoa?
- Eukiko ez dot ba!
- Zer? Eztulak emon eutsun ala?
- Eztulak ez, aitak emon eustazan belarrondoak baino. Kendu eustazan, bai, hautsak eta keak!

516

Kartagina barik, karterua ezkondu

–Aspaldiko Mikel! Ondo zabilz?

–Ez hain ondo.

–Zer ba? Gaixoren bat ala?

–Bai zera! Nor ibili naz neska lagunari egunero kartaginen.

–Eta zer? Papera kastau ala?

–Bai, zereko papera! Karterua bera ezkondu da nire neska lagunagaz.

517

Haunditik haundira

Aita-semeak sarri hasarretzen ziran, batez ere, eskola kontuakaitik. Aitak behin:

–Zure sasoiari Felipe Gonzalez eskolan lehenengo zan.

–Eta zure sasoiari, aita, Espainiako Presidentea.

518

Ohitu gorriak ikustera

Gazte batek patrikarak ez ditu izaten eskuak berotzeko, erabilteko baino. Zer erabili euki ezkerre, behintzat. Kezkaz ebilen Periko zer etorkizun izango ete eban jakin nahirik. Eta Igeldoko andra igarleagana jo eban:

–Ni zer izango naz etorkizunean?

–Hogei urtean gorriak ikusiko dozuz.

–Eta gero zer?

–Gero ohitu egingo zara gorriak ikustera.

519

Hobe telebista bat erosi

Miren hor dabil baztarrik baztar ezkondu gurarik. Edurnek lagundu nahi deuto, baina bere gogokorik ezin deuto inguratu.

–Ez, Edurne, nigaz ezkondu gura dauanak baldintza honeek izan behar ditu: ez erre, ez edan, berbakoa izan eta kontrarik ez egin.

–Orduan, hobe dozu telebista bat erosi eta kito.

520

Oraingoan enkargau egin dogu

Bernardo, ezkonbarri zala, soldautzara jaso dabe. Ez jan eta ez lo, andra barria etxean bakarrik itzita. Urtebete baino lehen, nagusiagana doa etxerako baimen eske.

–Zer dozu, Bernardo?

–Zera, ezkonbarritan etorri nintzan, eta umetxo bat ekarri behar dogula ta, amesetan gengozan biok, eta...

–Zoaz hilabeterako. Handik osterakoan, kapitanak Bernardori:

–Zer, neskatoa ala mutikoa izan da?

–Hara, kapitan jauna, hori hemendik 9 hilabetera jakingo dogu; orain–goan enkargau egin dogu.

521

Ez ito ez pito, izena eta kito

Kuarteleratuta biharamonean, etorri barrien argitasunak jasoten kapitana, izen-abizenetatik hasita.

–Ea, zure izena?

–Nik Pepito.

–Eta zuk?

–Nik Joselito.

–Karajo! Beste ito eta pito bat entzuten badot, neuk jakingo dot zer egin.

–Ea zuk? Eta gure Agapito estu eta larri; azkenean badino:

–Ni Agaputo. Hango barre algarak!

522

Kapela gaisetik azka

Soldau zahar batek baeban ohitura xeble bat: buruan azkura egiteko, kapela gaisetik egiten eban hazkura. Sartu barri dan batek adarra joaz, badinotso:

–Zergaitik egiten dozu kapela gaisetik hazka?

–Zer ba? Zeuk eperdian hazkura zareanean, prakak kentzen dozuz ala?

Prakak ez zulorik, baina nik bai

Kapitan odol bero batek kuardelean sartu barrien artean beti aukeratzen eban lagun zintzo eta adoretzu bat. Behin Patxo euskaldun gazte sendoa begiz jo eban. Probatzeko hara zer asmau eban: plaza erdian bera bakarrik ipini, kapela bat buruan ebala. Tiroz kapelea jotzen ebanean, geldi egon behar eban. Gero eskuak gora jaso, eta manga zati bat kendu eutson.

–Ederto mutil! Hori dok adorea! Gaurtik neure lagun izango zara. Erosi kapela eta arkondara barriak.

–Eta prakak, kapitan jauna?

–Prakarik ez deusut zulotu.

–Zulotu ez, baina goitik behera zirinez erreta daukadaz.

Irakurten dozunean, entzun ez dagizun

Lontxok bildur bat bai soldautzara joateko! Ez erderarik, ez idazterik, ez irakurterik ez ekian pulamentuz. Egin ebazan komentu baten hiru-lau hilabete morroi, erderaz ikasi alde. Baina auzora joateko be ez... Baeukan bere herrian bihotz-bihotzez maite eban neska lagun bat eta honek hilero kartatxo bat bialtzen eutson, eta berak ezin irakurri, ez idatzi... Kartatxoari mosu bat emon eta buruko azpian gorde. Gehiago egon ezinik, badinotso Joxe Mari lagunari:

–Zu, Joxe Mari, ezin dot lorik be egin.

–Zer jazoten jatzu, ba?

–Neska lagunaren kartak dirala eta. Neuk ezin dot, eta irakurriko deustazuz?

–Bai, mutil, eta pozik gainera! Eta irakurten hasteko egoala, atzeko aldetik joanda, algodoi bolatxoak sartu eutsozan belarriko zuloetan.

–Zetan, zabilz?

–Badakizu, ba, irakurten dozun artean entzun ez dagizun.

525

Direkto a Afrika

Soldautzan ez da egun gozoa izaten nor nora joan behar dauan erabagiteko eguna. Hor dozuz euskaldun mutil lagun bi, bata kapitanaren areto aurrean eta bestea barruan. Sebastianek berea entzunda, harek emon eban pozezko saltoa atetik kanpora!

–Zu, Kerman, hau da suertea!

–Nora bialtzen zaitue?

–Director de frabika edo.

–Bai zera! Directo a Afrika esan deutsue. Ez da bardin!

526

Tontoaren jakituria

Sasijakintsuak baino jakintsuagorik ez dago, euren ustez. Benetako jakintsuak beti dabilz gehiago jakin nahian. Lazkao Txiki entzute haundiko egin zan euskaldunen artean. Bazan erdeldun bat hori entzun ezin ebana. Behin hauxe bota eutson arpegira:

–Zuk zer dakizu, ba, nik baino gehiago? Ze karrera egin dozu?.

–Hara, lagun, zuk eta nik, bion artean, dana dakigu. Zuk dana dakizu, gauza bat izan ezik.

–Gauza bat? Zer?

–Tonto bat zarala, eta hori neuk dakidan lez...

527

Bildurak zulo txikia behar sartzeko

Soldadutzan atsedenaldira gozo eta luzeak be izaten dira, baina baita estularriak be. Esaterako, parakaida sailera doazenak. Orduan izaten dira sikologo eta antzeko kontuak. Holan dinotse kapitanak salto egin behar daben batzuei:

–Ez izan bildurik.

–Ez zera!

–Ezetz ba! Normalki milatik bat haustuten da lurra jota. Baina zuek 40 baino ez izanik, ez jatzue bat bati tokatzen.

528

Mozkorraren lagun txarrak

Kapitan batek badihardu soldau edalari bat konbentzidu gurarik:

- Gitxiago edango bazendu eta formalago izan, edozelango graduak eskuratu-ko zeunkez.
- Bai, baina lagun txarrak daukadaz horretarako.
- Zergaitik lagun txarrak?
- Begira, seiko kuadrilatik neuk bakarrik edaten dot, eta danak neuk edan behar.

529

Aldrebes be ondo esanda

Baserri mutil bi soldautzara joan dira. Batak erderaz tutik be ez daki. Korone-lagaz zelan konpondu? Sartu zan lehenengo zerbait ekiana eta, kanpora urtenda, lagunaren jakinmina itzela. Besteak nasaitu nahian badinotso:

- Erreza da; hiru itaun egiten dabez: Zer adin?
- Hogei urte.
- Zenbat egun hemen?
- Egun bi.
- Lurrez ala aidez egin nahi dozu zerbizioa?
- Bietara.
- Badoa erderaz tutik ez dakiana eta:
- Zenbat egun hemen?
- Hogei urte.
- Zenbat urte dozuz?
- Egun bi.
- Tontotzat ala inuzentetzat hartu nozu?
- Bietara.

530

Agintari gaiztoen ezaugarriak

Maisu batek mutil koxkondui onbideak erakusten dihardu. Hona itaun bat:

- Nortzuk dira agintari gaiztoak?
- Behar ez dan moduan eta orduan janzten diranak.
- Zuk esateko ez da asko!
- Berorrek esango deust: Beste danak gerrikoa estutzen dabenean, eurak botak ipinten dabez.

531

Sartaina bedeinkatzen

Zelango barrabaskeria egin, halango txixazko zarrastadea sartainera. Bai, hori zan Kalixtok, itsasontzi bateko sukaldariak egiten ebana. Danak aurrean erabiltzen eben. Kalixtok dana isilik hartzen eban, baina isilean txixazko bedeinkazinoaz erantzuten eutsen: zelango barrabaskeria berari egin, berak halango bedeinkazinoa. Behin esan eutson lagun batek: Parkatu, Kalixto, gaur artekoa, gaurtik aurrera ez dozu holangorik izango. Eta bere erantzuna:
–Ezta nik be txixazko bedeinkazinorik.

532

Azkenean osorik zeuontzat

Gure Prantziskok bizimodu gogorra eroan eban: behar asko eta irabazi gitxi; eta horrez gainera, Foru Hazienda atzetik. Agolinean egoala, abokatuari deitu eta azken borondatea bere eskuan itzi eban:

- Ni ez lurperatu, erre eta errauts bihurtu.
- Eta zure kontu eta errautsakaz zer?
- Sartu kutxatxu baten eta Haziendara bialdu, mezu honegaz:
- “Azkenean osorik zeuontzat”.

533

Luzeagoa bai, baina haundiago ez

Napoleon txikia izan ei zan. Behin han ebilen bere areto bateko kuadrura heldu ezinik. Zerbitzariak badinotso:

- Kendu, zu txikia zara, neuk jatsiko deusut.
- Zelan esan dozu? Hori ez da egia; ni baino luzeagoa izango zara, baina haundiagoa, ez.

534

Kanposantura deika

Telefonoz deika Joxpiñixi:

–Hor al dago Perez jauna?

–Ez, ez da etorri.

–Asko luzatuko ete dau bere etorrerea?

–Ez dakit, egun bat, hilabete, urte bete, nok jakin?

–Baina zer? Ez al da hau Perez jaunaren etxea?

–Ez, hau kanposantua da.

535

“Errespontso” merkeak

Baztarretako bildurgarri izan zan bat, kanposantuan lurperatu ondoren, etxerantzean jentearen “errespontsoak” entzutekoak ziran. Batek dino:

–Inok ez daki hau zetatik hil dan. Alboko batek argitzen dau:

–Txarrago, inok ez daki zetatik bizi izan dan.

536

“Autobusak bihar eta berandu”

Hamaika aldrebeskeri idatzi da euskera “modernoan”! Edozelan esanda be, beti eta dana egoki. Euskaldun bat, erderaz akats txikiagoagaitik botaten dabe kirtentzat. Hor dozu bat: urteak dira Durangotik hondartzara, jentea eroan-ekarri egiteko, jarri eben ohar xeblebre hau: “Autobuses mañana y tarde”. Eta euskera “modernoan”: “autobusak bihar eta berandu”.

537

Aurkitu ete dau Brasil nun dagoan?

Patxiko mutikoa etxera dator negar baten. Aitak errukiz dinotso:

–Zer jazoten da, seme?

–Maisuak jo egin nau, Brasil nun dagoan jakin ez dodalako.

–Ondo egin deutsu. Hurrengoan gogoan hartu gauzak nun izten dozuzan.

538

Trinidadea arrautzea lez da

Bada "teologia popularra" deritxona. On Tiburtzio karrera laburreko abadea zan, baina asmamen zorrotzekoa. Horra zelan erakusten eutsan herriari zer dan Trinidadea?

–Arrautza baten antzekoa da Trinidadea: gorringoa, zuringoa eta oskola.
Horra hiru baten.

539

Lotsearen sekretua

On Kaspasio, ostera, abade argia zan; dotrina asko ez ekian, baina ipuin eta esaera zorrotzen bidez, esan ahala guztia ulertzen eutsan herriak. Horra lotsabakoen gorabehera guztia argituta:

–Bada munduan gauza bat, gitxiago daukanak gehiago daukanari emoten deitsana: lotsea.

540

Mailukadea nun emon jakin behar!

Braulioren kotxeak zarata txarra ateraten dau aspaldion. Tailerrera eroan dau eta bertako langileak mailukada bat emon deutso eta, beste barik, primeran gelditu da. Zenbat izango? Eta lehengo 500 peseta ederrak.

–Ezin da izan horrenbeste! Minutu bateko beharra 500 peseta?

–Ez, Braulio, peseta bat mailukadeagaitik, eta 499 peseta nun emon jakiteagaitik.

541

Hago lo eta jango dok mehe

Abokatu eta juizioa, deabruaren ofizioa. Hor dozuz baserritar bi jo ta su demandan. Basiliori notizi txarrak emon deutsoz abokatuak.

–Eta epaimahaiko nagusiari erregalu on bat bialduko baneuskio?

–Ez holangorik gero! Handik laster pozik Basilio:

–Neuk irabazi dot.

–Zelan?

–Eskerrak neure erregaluari!.

–Bai gero?

–Bai, bai; sari on bat bialdu deitsat epaimahaiko nagusiari, baina arerioaren tarjeteaz, eta mahaiburuak salatu egin dau eta zigortu.

542

Burua zetarako dok, ba?

Umearoko eskolan gitxi, baina bizitzakoan asko eta ondo ikasitako gizona zan Joxemiel. Hamabost egun kanpoan izanda, etxerakoan maletaz beterik dator. Taxi bat eskatzen dau:

- Zenbat kobratzen deust Elorriaga baserrira?
- Zuretzat 1000 peseta.
- Eta maletakaitik?
- Bapez.
- Orduan eroan maletak eta ni oinez joango naz.

543

Astoak alkarren parean

Joxepak ez eban hutsik egingo astelehenetan Gernikako azokara. Azokarantza asto otzara biak ortuariz beterik; eta etxerantza bera asto gainean, Errosarioa errezatzen. Martzelino kamiñerua beti egoan prest Joxepari ziria sartzeko. Halako baten kendu eutsazan Joxepak alper usainok. Astoa ez jakon, ba, gelditu Martzelinoren parean arrantzaka?

- Oraintxe ederto, Joxepa! Astoak be Errosarioari erantzuten ikasi deustu ta.
- Ez, ba, Martzelino; gure astoak arrantza egin ohi dau, beste asto baten parean.

544

Garagardo epela

Esteban Xelebre trenez Donostiara doa. Geltokian garagardo pote bat erosi dau, etxetik dakarren kopauagaz edateko. Baina txixalarri da eta nun eginik ez. Potea leihotik hustu eta potera egiten dau. Hurrengo geltokian jagi eta badoa. Ondoan etorri danak dinotso:

- Zu, garagardo pote hau?
- Nik prixa daukat eta zeutzat hartu. Eta bere lekuan Paulo Errekalde jesarten da. Lagunak dinotso:
- Zeutzat garagardo pote hau. Lagun barri horrek bai agudo potea hustu!
- Zer, nahi al dozu besterik?
- Ez, orain kakazko pintxo bat hartzera noa.

545

Oiloak uxatzeko sekretua

Baserritarren artean zenbat hasarre sortzen dan oiloak auzoko ortuan aztarka egiten dabela ta. Auzoko lagunak badinotsoe Andresi:

–Auzoko oiloak hamaika aztarkaldi egiten dabe zure ortuan gustura! Ezin dozuz uxatu?

–Bai, uxatu dodaz behingoz!

–Zelan lortu dozu?

– Erreza izan da: gauez azape zabal baten dozena bat arrautza gorde nituan. Eta hurrengo goizean, Pepito leihotik begira egoan baten, dozena arrautzea jaso neban, altu kontatuz eta berari erakutsiz. Gehiago ez dira agertu.

546

Begibakarrak doble ikusi

Txanton begibakarra zan, baina buru-azkarra. Sarri lagunak irri eta barre egiten eutsoen. Halako baten lagunartean apustu bat jokatu eutsen:

–Nok nahi dau jokatu afari bat, nik begi bakarraz, zuetako edozeinek begi biekaz baino gehiago ikusi baietz.

–Eginda dago, dinotso Jexuxek. Begibakarrak dinotso:

–Zuk niri zenbat begi ikusten deustazuz?

–Bat.

–Ba, zuk zuri bi.

547

Hartzeko pronto, emoteko tonto

Mundua tranpaz beterik dago; hango edo hemengo sastrakaren baten lumaren batzuk itzibako gitxi dago. Behin Joxe Listo gose be gose zan. Eta horra taberna baten idatzita zer ikusten dauan: “Sartu ta jan, zure ilobak ordainduko dabe”. Sartu eta saihets bitarteak ondo bardindu ondoren, jagi ta kanporantza doa. Tabernako jabeak ordain-papertxoak erakutsiz:

–Zu, lotsa pixka bat mesedez!

–Zer? Hor ez dau ipinten, ba, “Sartu ta jan, zure ilobak ordainduko dabe”?

–Bai, paper hau zure aititak jandakoarena da.

Txakurraren kontura bizi

Pobreak ziran eta zer janik ez. Etxean euken txakur ederra herriko plazan saltzea erabagi eben. Zer zelan egin aurretik ondo asmatuta, badoaz andra-gizonak txakur ta guzti plazara. Jentea ugari inguratu jake ikusmiran. 10.00 peseta eskatzen eben. Eta hasi da gizona burutik buztan puntaraino arraka neurtzen:

- Bat bai, bi ez. Begira dagoan gizon aberats batek 12.000 eskeini eta eroan eban txakur hori. Handik hiru hilabetera topo egiten dau lehengo txakur jabeagaz eta badinotso:
- Zu, gure txakurra alper hutsa da; jan eta lo baino ez dau egiten. Zetarako neurtzen zenduan lepo gainetik txakurra?
- Bere narrua neurtzeko.
- Eta bere narrua zetarako?
- Tanbolin narrua egiteko.
- Eta buztana?
- Txistua gordeteko azala.

Lizentzia barik, pazientzia

Txilibristo, amu eta guzti, errekan arrantzuari dabil. Udalzaingoa bajatorko eta lizentzia eskatzen deutso.

- Lizentzia behar dozu horretarako be?
- Bai.
- Zu, hemen lizentzia barik, pazientzia behar da.

Astoaren pareko

Ugazaba-morroiaren artekoa dozu hau. Ugazabak morroi barria eskolatzen dihardu: Bedar bat hartuta:

- Badakik hau ze bedar klase dan?
- Ez.
- Halako kirtena! Hori astoak be badaki. Hurrengo baten morroiak ugazabari:
- Badakizu hau ze bedar klase dan?
- Jakingo ez dot ba!
- Orduan zeu zara astoa.

551

Lagunak hasarre eta guzti

Peru eta Txanton lagun onak ziran, baina hasarrealdiak be izaten ziran bien artean, burrukaldi eta guzti. Behin alkarri kristonak emonda gero, Peru lurre-ra luze. Eta arpegia haunditzen hasi jakon. Txantoni eraso deutso lurretik:

–Hau ez dok holan geldituko.

–Ez, hori hazi egingo jak.

552

P.L.P.= Pertsona lodien partidua

Joan XXIIIa adar jotzaile fina zan. Bere etxeko horma bat konpondu nahirik, igeltzeru bati deitu eutsan; bera baizen lodikotea zan. Behingoan zirika hasi jakon:

–Zu seguru partidu baten zagoz.

–Ez, ba; hortik ez nabil.

–Baina nik esan gura dodan partiduan ez dago izenik emon beharrik, berez sartzen da. P.L.P. da bere izena. Ezin konturatu zer esan gura eutsan.

–Hara, lagun, gu biok partidu batekoak gara: P.L.P= Pertsona lodien partidua.

553

Erretzaileen tranpak

Jokin eta Ander erretzaile amorratuak dozuz. Egun baten Jokinek apustua botaten deutso Ander lagunari:

–Gaurtik aurrera ez dot bat bera be erreko.

–500 euro ezetz itzi. Eta Jokin lehengo bestean, aintxinako tren zaharrak lez.

Ander ez dago lo:

–Zu, apustua zer?

–Hori dinot neuk be.

–Neuk irabazi dot; gehiago ez zenduala erreko esan zeustan eta.

–Horixe, ba: lehen beste bakarrik; bat be ez gehiago.

554

Garan modukoak gara

Joan XXIIa ez zan fotogenikoa; argazkilariak senperrenak egiten ebezan berari argazki dexente bat aterateko. Behin baten esan eutsen:

–Jainkoak ba ekian orakin 66 urte ni Aita Santu egingo ninduela. Zergaitik ez ete ninduan egin fotogenikoagoa?

555

Arroza jan ezin

Anbrux jatetxe batera joan zan baten, arroza ekarri eutsoen. Handik laster badator zerbitzaria eta:

–Arroz hau ez dago jaterik.

Joan eta plater barria dakartso. Eta bardin bigarrenez eta hirugarrenez. Azkenean zerbitzariak berotuta:

–Zelan ez dagoala jaterik?

–Zelan jango dot, ba, ez badaukat zegaz jan.

556

Butano-pisuak banatzen

Ha bai aita aberatsa! Neska batek behin bere mutil lagunari entzun eutsan:

–Nire aitak gaixotu orduko eukazan gauza danak ondo erabagita. Hiru semeoi deitu eta argi eta garbi esan euskun:

–Zuri, Patxi, Zehar kaleko 10 pisuak izten deutsudaz; zuri Dunixi, Kale Nagusiko 20 pisuak; eta zuri, Juanito, Erdi Kaleko 30 pisuak. Neskeak eskuak igurtziz, argitu nahirik:

–Zure aitak horrenbeste pisu eukazan?

–Bere pisuak ez; butanoa banatzeko pisuak ziran.

557

Azkenengo komedia ikasi barik

Komediante famatu bat azkenetan egoan. Ondoratu jakon medikuari arduratsu dinotso:

–Mediku jauna, azkenengo komedia egiteko ordua heldu jat, eta lehenengoz papera ondo ikasi barik harrapatu nau.

558

Guzurrak oker urten

Behin errepedean iztripu gogorra izan zan. Jentetza haundia batu zan inguruan. Guztien artean periodista bat argazki makina eta guzti, zaurituaganako bidea zabaldu ezinik:

–Leku, mesedez, leku pixka bat. Baina inok itzi gura ez. Jentea mobidu nahirik dino:

–Mesedez, leku egin, umea egiteko dago ta; neu naz bere aita. Azkenean lortu eban beragana hurreratzea. Zer aurkituko? Eta tximino amea umea egiten.

559

Bada tartamutua baino txarragorik

Dendariak irabazi be egingo dabe, baina petardo askori ez aguantatzearren... Eta Kontxesi lez tartamutua danean... Pantxike joan jakon baten, arpegira bota eutson:

–Ez al dago besterik, zuk baino bixkorrago berba egiten dauanik?

–Bai, baina zu atean sartzen ikusten zaituaneko, barruko ate ostera ezkutatzen da.

560

Larria kentzeko, haundiagoa bota

Itsasoan ibiltea be ez da askorentzat atsegingarri. Olatuen etenbako eraginak larritu egiten ditu. Agate andrea holako baten, larri be larri jarri zan, ea konortea galtzeraino. Kapitan jaunari badinoso:

–Jauna, zein da hurren dagoan lurra?

–Ai Agate, zeure azpiko urpean.

561

Enterradorea gosez hil

Hurroneko gizon haundiki itxurako bat sartu zan herri txiki bateko tabernan, eta zeozetatik hasi behar ta:

–Herri honetan osasun ona ezta?

–Bai, joandaneke urteetan ez da inor hil. Eta horra nun daroen hildako bat.

–Eta hori?

–Hori enterradorea; inor ez da hiltzen izan, eta azkenerako bera hil da gosez.

562

Andreaz oroituz, ardau-egarria gehitu

Ai Antonio, Antonio! Edari biziak izteko asmotan ez zabilz, ba?

–Bai, benetan, holan da.

–Ezin itzi ezta? Oraintxe hasi behar zeunke; erretzeko gogoia jatortzunean, andreagaz gomutau zaitetz.

–Hori egiten dot, baina egarria kendu beharrean, gehitu egiten jat.

563

Astakumeen aita

Ez dalakoan be, familian hasarre olatu galantak sortzen dira txitean-pitean.

Martolonean bai, behintzat. Berak nahi izaten dau danak isiltzea eta ezin.

Horretariko baten, aho betekoa bota eutsen seme-alabei.

–Astakume batzuk baino ez zaree. Seme zaharrenak laster osotu eutson puntua:

–Zeuk atera kontuak, astakume honeen aita zeu zara ta.

564

Lotsea, daukanak galtzen dau

Abiadurea dala eta, zenbat heriotz bideetan! Ertzainak, kontrolak eta abar badira, baina askorentzat dana alperrik. Hor dagoz ertzainak kotxeak kontrolatzen; eta horra ziztu bizian bat aurretik hegaz. Hurrengo bikoteak gelditu dau:

–Badakizu ze abiaduran zoazen?

–Ez, ba.

–140 kilometro orduko.

–Eta hori karneta atera baino lehen.

565

San Mames ez da San Pedro

Futbol arbitro bat hilten da eta zuzen zeruko atera. Eta bizardun agura bat atean. Arbitroa parkeske: "Nik badot pekatu bat: Atletik Real Madrilen aurka ebilen baten, penaltiz gol bat sartu eta irabazi. Nik banekian ez zala izan legezkoa, baina... Gainera partidu bardinean hiru penalti argi eta garbiak Real Madrilen alde, eta nik ez-ikusi egin.

Santuak errukiz begiratu eta badinotso:

- Tira, zatoz, sartu zaitez, Jaungoikoaren bihotza zabal eta samurra da ta.
- Eskerrik asko, San Pedro!
- Zagoz isilik! Zer San Pedro eta San Pedro oste! Ni ez naz San Pedro, San Mames baino.

566

Noeren arkan astoa falta

Bizitzan badira unekada batzuk, besteak baino gozoagoak. Zeozelan estutu ezkerro, batez be. Xeledonio astako samarra da; matxan hasi dan autobusean sartzen da:

- Zer, Noeren kutxa hau beterik al dago? Tente eta estututa dagoan batek botaten deutso errespontsua:
- Ez, astoa falta dok.

567

Lebatz hotza ez da freskoa

Munduko gauzetan asko dakian bat doa Saloura, hamabosta handik emoteko asmotan. Lehenengo gauetz lebatz arraina zerbidu eutsoen. Mahairik mahaira zerbitzen dabilenak itandu eutson:

- Zer, ondo jan dozu?
- Gurago neban zortzi egun aurretik etorri izan banitz.
- Pozgarria da hori entzutea. Eskerrik asko! Zer ba?
- Lebatz hau askoz freskoagoa egongo zan.

568

Harrokeriak itsuta egiten dau

Prudentzio harro dabil, bere sasoikoak baino bista hobeia daukalako. Desapioa bota deutso lagunari: Nok hobeto ikusi.

–Esaterako, han datorren txakurrari begi biak ikusten deusadaz.

–Zagoz isilik kirtenko halako hori! Harantza doan txakurrari zuk begi biak ikusi?

569

Lagunarteko zirikadak

Lagunarteko giroan xeibrekeriak berez urteten dabe, batez be, apur bat bus-tita egon ezkeru. Joxe Antoniok behin bota deutse amua:

–Zuetariko inor egon da inoiz klinika baten? Danak isilik.

–Zeu bai ala?

–Bai, amagaz.

–Zer euki eban ba?

–Neu.

570

Amamen harrokeritxoak

Amama asko harro ibiltzen jatzuz euren iloben kurrikulumak kontatzen.

–Txanton nire ilobea Erromara joan da, injieneru ikasten.

–Nirea mediku ikasten Madrilera joan da.

–Ba, nirea Ingalaterrara joan da.

–Zer ikastera?

–Ingelesa, gero interprete egiteko.

–Eta zer da interprete hori?

–Hara bati entzundakoa besteari kontatzea.

–Hori baino ez? Horreri hemen alkauete esaten jako eta haraino joan barik be errez ikasten da hemen.

571

Ahi va Dios!

Hiru mutiko kontu kontari, nok baino nok senide haundiagoak izan.

- Nik badot osaba bat Erroman, botoi gorri eta guzti ibiltzen dana; "excelentísimo" deitzen deutsoe.
- Nik Madrilen daukat osaba Martin, "eminentísimo" aurretik ipinita deitzen deutsoena. Hirugarrenak zer esanik ez dauka, baina zeozer asmau beharrez, badino:
- Nik badot osaba bat lodi-lodi-lodia, bera ondotik pasakeran, danak esaten dabe: Ahi va Dios!

572

Mozkorra mozkor, askotan bixkor

Kontuz mozkorragaz! Hezibako aberea lez dozu ta. Hor daukazu Txato gauerdian kaleko argiposte bati oratuta geldi. Neska gazte bati, ondotik pasakeran, bere loretegiko larrosa bat botaten deutso:

- Gauon neska motza! Bestea motza bazan be, laster luzatu zan:
- Gauon mozkor zantar hori!
- Ai ene! Hau laster joango don, baina hirea ez.

573

Komeni ez ur zikinik

Peru Haundi -mozkor haundia be bazan ta- ahaleginetan ebilen ardauari neurria hartu gurarik. Medikungana be joana zan.

Baina behin bai, eta behin ez, beti berean aurrera. Bera gehienetan joaten zan tabernara huts egiten hasi zan. Halako baten Benito tabernariak eraso eutson:

- Peru Haundi, zer? Aspaldion ez zaitut hemendik ikusi.
- Hara, Benito, medikuak esan deust ez jatala komeni ur zikinik.

574

Baso bete arda baino ederragorik zer?

Sarri entzungo zenduzan mozkorrak alkarrizketan:

- Zu, ezagutzen al dozu munduan baso bete arda baino gauza ederragorik?
- Ezagutuko ez dot ba!
- Ea, esaidazu bat.
- Upel bete arda.

575

Eguzkia ala iretargia dan igarri ezin

Gaur ardauskolako hiru lagun dozuz, nok gehiago jakin alkarri erakusten. Patxik:

–Zu, hor goian dagoan biribil hori eguzkia da, ezta?.

–Bai, zereko eguzkia! Hori beti izan da eta izango iretargia. Isilik egoan Joxandresi itanduten deitsoe:

–Zu, zuretzat hori zer da, eguzkia ala iretargia?

–Nik ez dkit, ni hemengoa ez naz eta.

576

Bere burua ezin errekonozidu

Mozkorren historia: kalean jiji eta jaja, etxeratuta, pix-pix eta kaka. Joxepantonik baekian honen barri. Auzoan eukan gaztetako lagun batek lagunduten eutson bizimodua gozaten:

–Atzo be galanta ekarri eban Joxeantoniok!

–Bai, bai, gaueko orduetan han ebilen ispilu aurrean, behin barre eta behin negar, bera ete zan errekonozidu ezinik.

577

Osatu nahi, baina ezin

Kontuz ibili ezik, mozkorrak edozein aterako leuke senetik. Jakina, eurak be “kanpotik” bizi dira ta, barruan kabidu ezinik edo. Jarri zaitetz Kepa osagilearen lekuan. Bajatoroko Peru mozkorra, ea zer egin leiken ardauari neurria hartzeko.

–Hemendik aurrera ardausk baino ur gehiago edan behar dozu.

–Ezin baina, jauna! Hilgo nintzateke.

–Zer ba?

–Egunero hiru litro ardausk edaten dodaz eta.

578

Nahi bai, baina osorik ezin mozkortu

Garizumaldian kristoren larrialdiak izaten ebezan mozkorrak autorluetan.

Lotsa-bildurrak kentzeko, tabernatik pasau behar.

Misiolariagana joanda, laster antz emon deutso Patxori:

–Zelan? Gaur be erdi-edanda, Periko?

–Hara, ba, jauna, erdi-edanda ibili behar, gehiagorako dirurik ez daukat eta.

579

Astoa beti asto

Txomin be antzera ebilen “mahatsaren orpotik datorren mama goxoaz”. Perikok esanda, dardaraz doa autorlekura:

–Eta ardau kontuak eta zelan?

–Hara, jauna, badaki, ba, bakotxean deskuidotxoren bat.

–Asko da, ba! Ezin hartu neurria? Ikusten dozu astoak berak be zelan neurriz edaten dauan?

–Edan zer?

–Ura.

–Ai, neuk be bai ura.

580

Ni oinez eta hi motorrean?

Amak Patxi dendara bialdu dau. Baina mutikoak Erregeak oparitutako motor-txoan joan gura. Eta ezetz. Azkenean kokoteko bat emonda bialtzen dau.

Bidean doala hor nun ikusten dauan oilar bat oiloaren gainean. Hurreratu eta emoten deutso ipurzoloan ostikada bat esanez:

–Ni oinez eta hi motorrean. Ala hortik!

581

Ondo kopiatzea ez da erreza.

Eskolako bidean sasi eta piper egitea aintxinako jokoa da. Gero gerokoak. Santi bihurria gurasoen buruhauste bihurtu zan. Sarri dator etxera "suspenso" oparia hartuta. Behin umearen negarrak bigunduta, aita maisuagana doa:

–Zer dala eta nire semeari suspentsoa?

–Ondokoari kopiatu deusolako.

–Zelan dakizu ondokoari kopiatu deusola, eta ez bestek semeari?

–Ondokoak azkenean ipinten izan dau:

–Ez dakit; eta zure semeak:

–Neuk be ez.

582

Atzean zuloa

Ume barriak, jaiokeran, ogi bat besapean ez bakarrik, praka pare bat be ekarri beharko leuke. Josu aspaldion dabil amari esan eta esan:

–Ama prakak atzean tarratada bat dauke. Eta amak beti biharko itzi. Bitarte horretan maisuak eskolan Josu erdira ateraten dau azterketa bat egiteko:

–Ea, Josu: aurrean iparra, eskuman sortaldea, ezkerrean sartaldea; eta atze-
kaldean zer? Eta Josu isilik eta burumakur. Azkenean negarrez dinotso:

Atzean zuloa.

583

Dirua pianoa baino gehiago da

Umeak maitagarriak dira, baina sarri erabilgarri bihurtzen doguz nagusiok geure gustura. Edurne musikazalea da. Gurasoak piano bat be erosi eutsoen. Hasi oso pozik hasi zan, baina apurka gogoa galtzen joan zan edo behintzat gitxiago emoten eutson joteari. Amak hiru euro agindu eutsozan joten eban bakotxeko. Laster autortu eutson zergaitik ez eban joten:

–Auzoko Patxik joten ez dodan egun bakotxeko 5 euro eskeini deustaz.

584

Oilarrak bai igarri guzurrari!

Umea beti dago jakinminez: Aita-ama, hau edo hori zergaitik da holan? Eta ez da beti errez izaten erantzun egoki bat asmatzea. Hara zer jakin gura dauan Antolinek:

- Ama, noiz egiten dau oilarrak kukurruku?
- Guzurra esaten danean.
- Eta zergaitik gehien goizeko hirurak aldean?
- Orduantxe urteten dabelako egunkariak guzurrez beterik kalera.

585

Nik enbarazu baino ez dot egiten

Eskolan maisu-maistra onak asko esan gura dau; ez da nahiko gramatika, beharrezkoa da praktika. Kontxik sarri ekiten deutso arlo honi:

- Etxeko lanak danonak dira, bakotxak bereak.
- Ea, Miren, zuk zetan laguntzen deutsozu amari?
- Ohea egiten, eskaratza garbitzen...
- Eta zuk, Ander, zer egiten dozu?
- Amak dinonez, nik enbarazu baino ez dok egiten etxean.

586

Goizean lehenengo lanak

Andereñoak nahiko lan dauke ume bakotxa ezagutzen. Txikiak txiki diralako, eta haundiak haundi. Hemen daukazu Karmele andereñoa kurtsoaren hasieran, ume bakotxa ezagutuz batera, euren lagun egin nahian:

- Eta zuk, Iker, zer egiten dozu goizean?
- Nik txixa.
- Eta gero?
- Kaka.
- Eta gero?
- Gero ohetik jagi.

587

Ordu egokian tontorik ez

Umeak apustuzaleak be badira. Edozer gaitik dabilz norgehiagoka. Hor daukuzuz mutiko bi trenari begira geltokian. Joxtomingok badinotso lagunari:

–Joxe, trena txokolategkoa balitz, nundik hasiko zinake jaten?

–Ni burpiletatik.

–Zergaitik?

–Joan ez daiten.

588

Gurean etxeako alkar ezkontzen dira

–Patxi, gu haundi egiten garanean, alkarregaz ezkonduko gara. Patxi, mutila danez, pixka bat atzeratxoago dabil:

–Edurne, hori ezin da izan, gurean etxeako alkarregaz ezkontzen dira: aita-amagaz, aitita-amamagaz...

589

Umeentzat ispilu garbiak izan behar

Geu nagusiok gara umeentzat ispilu eta eredu. Ondo hezi eta zuzendu behar dira, baina ejenplu emonez, batez be. Bestelan kontuz! Eskolako eginbeharretan laburtxo dabilen semeari aitak halako eredia ipinten deutso aurrean:

–Jon, George Washington euki behar dozu eredutzat: zure urteetarako eskolako lehehengoa zan. Jontxuk ederra bota eutson:

–Eta zure urteetarako, aita, Estatu Batuetako Presidentea.

590

Guzurra luzarora hazurra

–Xanti, ez esan, gero, guzurrik! Guzur bakotzeko ule zuri batek urteten dau buruan.

–Ene! Orduan aitita-amamak zenbat guzur bota ete dabe bizitzan?

591

Haginetan aititaren antza

Umeak beti dira maitagarri. Jaiobarritan ala zazpi urtegaz maiteago? Jaiobarritan behintzat zer poz eta zorion izaten dan senitar-tean! Danak hur-hurretik aztertzen dabe zeinen antza daukan igarteko:

- Begiak amarenak daukaz, arpegia aitarena... Erdian, dana entzuten dagoan Jontxu anai zaharragoak be parte hartu gura dau:
- Eta haginetan aititaren antza. (Bakotxak bina baino ez, eta loka).

592

Makileaz eulia akabatu

Esturasunetan umeak be asmatzen dabe zer zelan esan. Nagusiak igarri egin behar berbetan edo arpegikeran. Kepa aitagana doa gauza haundi bat kontatzen:

- Aita, makila bategaz jota euli bat akabatu dot.
- Ondo egin dozu, Kepa.
- Eskerrik asko, aita!
- Eta nun egon da eulia?
- Ispilu gainean

593

Aita Gure bi errezatze-ko penitentzia

Lehenago ume-umetatik autortu behar zan, eta zehatz-mehatz autortu be. Gehienak autortza xebreak. Antontxu holako egun baten negarrez etxeratu da. Amaren ahaleginak umea kontsolatzen:

- Zergaitik egiten dozu negar, Antontxu?
- Abadeak emon deustan penitentzia ezin dot bete ta.
- Zer penitenti emon deustsu, ba?
- Aita Gure bi, eta nik bat bakarra dakit.

594

Alperkeriaren ondorenak

Maisu-maistrak badakie umeen barri, inok jakitekotan. Zenbat pasadizo! Hona bat:

- Gaurko eginbearra alperkeriaren kontrakoa da, beharrak ondo egitearen alde. Hasi da maistrea:
- Hartu papera eta idatzi bakotxak alperkeriaren ondorenak. Handik laster Patxik papera zuri-zuri erakusten deutso maistreari.
- Eta hau zer da, Patxi?
- Zer izango da, ba? Alperkeriaren ondorenak.

595

Oilarrak eguzkia argitara atera

Umeak alkarri egindakoak eta esandakoak batu ezker, a zer algarak guk nagusiok!

- Guk badogu osaba bat, txoriak lez abesten dauana. Berari entzutearren, txori aldrak etorten jakoz ondora. Bestea be ez egoan isilik egoteko:
- Guk badogu oilar bat, goizetan kukurruku eginaz, eguzkia be ezkututik ateraten dauana.

596

Ezin esan Jaungoikoa nun ez dagoan

Danean danetarik dago, gurean eta zurean.

Irakasleen artean be badira kukuprakadunak. Bere burua "agnostikotzat" eukan maisu batek harro-harro itanduten deutse eskolaumei:

- Bost ogerleko emongo deutsadaz Jaungoikoa nun dagoan esaten deustanari. Danak isilik. Halako baten nagusitxoena, zutunik ipinita, badino:
- Nik hamar ogerleko emongo deutsadaz, nun ez dagoan esaten deustanari.

597

Zaldi perrak barik astoarenak

Azterketak izaten dira umeentzat egunik latzenak. Orduan jorratzen dabez ortu eta mortu: Jainkoari promesak, santuen estanpak, amamari errezu eska-riak...

Alasnek hortik aurrera: zaldi perrak suerte ona dakarrela ta, eroan eban pare bat ondo gordeta. Baina, bai zera! Inoizko kalabazarik haundienak etxera.

Lagun bati negar muxinka agertu deutsa bere porrota, perrak erakutsiz.

–Ai Alasne! Zeurea da errua, zaldi perrak barik, astoarenak eroan dozuz ta.

598

Belarri biak kenduta, ezin ikusi

Kontuz umeakaz, erantzun ederrak emoten be badakie ta! Orduan, “lotsaba-koak isilik” esatea ez da nahiko. Umeak ikasi ez bakarrik, erakutsi be asko egiten dabe. Eskolan maisuak Xabierri:

–Xabier, zuri belarri bat faltako balitxatzu zer?

–Gitxiago entzungo neuke.

–Eta biak falta ezkeror?

–Orduan ikusi gitxiago.

–Zelan da hori?

–Betaurrekoak nun eskegi ez neukelako eukiko.

599

Madariak batzeko ordurik onena

“Inuzente” berbeak ez dau esanahi bardina euskeraz eta erderaz. Inuzente danak ez dira “inuzenteak”... Patxi talde bietatik zeinetan ipiniko zeunke zeuk? Hara, maisuak itanduten deutsa:

–Patxi, noiz da madariak batzeko denporarik onena?

–Onena, onena, guardearen txakurra lotuta dagoanean.

**Izan zaitez egunsenti
ilunetik argira jo beti**



600

Nahi dodana noiz egingo dot?

Ume izatetik gazte izatera aldaketa zubia arriskutsua eta neketsua da, bai eurentzat, bai ingurukoentzat.

Kaixpar 13 urtegaz ez da sentitzen ume; modu askotara agertu ohi dau hori. Aitagaz ez bada, amagaz egiten ditu konponketak. Zer suertea, bera dala ta, aita-amak eztabaidaka ipinten baditu! Kaixpar oraingoan aita beragandu nahirik dabil:

–Aita, noiz izango naz ni, neuk nahi dodana egiteko baizen haundi?

–Ez dakit, seme; oraindik inor ez da bizi izan munduan hainbeste denpora.

601

Aberatsen umeak Paristik datoz

Familian ume barri bat agertzea pozez senetik aterateko albiste pozgarria da. Patxi eta Joxe ume lagunak dira. Patxik, familia aberatseko semeak badinotso Joxeri, familia pobreako lagunari:

–Ni bihar ez nator eskolara.

–Zer ba?

–Ume txiki barri bat dakarre bihar Paristik.

–Zuok aberatsok umeak be erosi egiten dozuez; guk pobreak ezin, dana etxean egiten dogu.

602

Himalaya amak gordeta

Gaurko umeak zer ez dakie! Hori da, ba, guraso eta aitita-amamen harrokeri-txo. Baina baita erantzun ezinaren larritasuna be. Begira, Josebak aititari:

–Aitita, nun dago Himalaya?

–Joseba, holango gauzak amak eukiten ditu gordeta, itandu berari.

603

Kontuz mihina aterateaz!

Errazoa eta motiboa ez dira beti bardinak. Perminek kolpeka ikasi eban hori. Badaroe osagileagana eta lehenengo agindua:

–Ea, Permintxo, atera mihina.

–Ez, ez dot aterako.

–Zergaitik jarri zara holan?

–Hara, atzo maisuari mihina atera neutson eta emon eustan belarrondokoaz oraindik gaur be durundia kendu barik daukat.

604

Zenbat begi dakaguz?

Matematikak dira ume askorentzat burukominik haundiena.

–Ea, Txomin, zenbat begi dakaguz?

–Lau begi, maisu jauna.

–Zelan lau?

–Bai, nik bi eta zuk bi, lau.

605

Zelan umezurtz izan

Maisuak Ander mutikoari:

–Zeri deitzen jako antropofago?

–Ez dakit.

–Hara, zuk aitatxo eta amatxo jango bazenduz, zer izango zinake?

–Umezurtza

606

Begi bi eta hogeita hamabi hagin

Bizitzarako umeentzat zer karrera aukeratu, horra gurasoen buruhauste sako-
na. Hemen dozuz aita-seme bi:

–Seme, zer izan nahi dozu hundi egiterakoan?

–Nik okulista.

–Seme, ondo pentsaizu; ez al dozu hobe izango dentista?

–Zergaitik hori, aita?

–Hara, pertsoniak begi bi baino ez daukaguz eta 32 hagin.

607

Urtebete eta piku

Esaminetan:

- Gorka, egin kontu batera jaioten dirala katakume bat eta txita bat. Handik urte batera zein izango da zaharrago?
- Biak bardin.
- Ez, ba, katakumeak urtebete eta txiteak urtebete eta piku.

608

Kurtsoa suspendidu ezker...

- Kaxinto, zenbat urte dozuz?
- Bederatzi.
- Igaz be horixe bera esan zeustan.
- Bai, baina kurtsoa suspenditu egin neban eta lehengoaz jarraitu behar.

609

Haragia jaten daben animaliak

Haragia jaten dauan animalia erderaz

“carnívoro” deitzen da, eta bedarra jaten dauana “herbívoro”. Juanito eskola mutikoa pobrea zan, baina zuhurra.

- Ea, Juanito, zelan deitzen dira haragia jaten daben animaliak?
- Aberatsak.

610

Txixa egin eta argia biztu. Miraria!

Justo goizean aitari kontuak kontatzen:

- Aita, goizean txixa egiten hasi eta argia biztu jat, eta amaitu dodanean, barriro amatau. Hori miraria da, ezta?
- Bai zera! Zuk komunean barik, hozkailuan (frigorifikoan) egin dozu.

611

A, e, i, o, u.

Maisuak a, e, i, o, u irakasten dihardu ume txikiei:

–Ea, Angel, esan: I, o, u eta bi falta dira, zeintzuk.

–Eeeee?

–Tira, orain bat falta jatzu:

–Aaaaa!

– Danak esanda dagoz

612

Aitaren praka zaharren kontua

Umeei abereak eta euren kontuak ezagutzea guztiz gogoko jake, alkarren lagun be errez egiten dira. Andereñoak be sarri joten dau arlo horretara, isildu gura ditueanean. Zein onak diran abereak gizonarentzat. Danen artean gu manteniduten gaitue, bakotxak zeozer emonez.

–Ea, Imanol, ardiak zer emoten deuskue?

–Artulea.

–Eta artulea zetarako?

–Ez dakit.

–Zure parkak zegaz eginda dagoz?

–Aitaren praka zaharrakaz.

613

Anbruxen abarkak jantzita zerura

Behin baserritar bat Asentzio jai goizean, abarka eta guzti, elizara doa autor-tzera. Lapurren bildurrez edo, abarkak nun eskegiko? Eta eleiz sarrerako Santokristo haundiaren oinetako untzeburuan. Abadea, entzunak entzunda gero, Jesusen zerura igotearen argibideak emoten hasi zan. Anbrux, beste barik, hor doa arineketan abarkak kurutzetik kentzera, Jesukristok abarka eta guzti zerura iges egin ez dagion.

614

Itsulapikoa Jaungoikoarentzat

Zerua eta inperua dirala eta, ez dira garraxi makalak entzun gure eleizetan! Handik kanpora, baita xelebrekari asko be. Hemen dozu bat: Jainkoaren ize-
nean diru batzen dabil kalez kale Xexili gaztea. Aguretxo batek:

–Norentzat da?

–Jaungoikoarentzat.

–Ekatzu itsulapiko hori neuri, eta neuk eroango deusat, zu baino lehenago
joango naz ta.

615

Zeruan be umoretsuak gurago

Zerua, Jaungoikoa eta antzekoak aspergarriztat hartu ohi dira leku askotan.
Inoiz ikusi dozu Jaungoikoa irribarrez? Entzun hau: Badoa umoretsu bat
zerura, eta Pedrok lepoan jota, badinotso:

–Ea, erakutsi eskuak.

–Ene ba! Hutsik eta garbi.

–Zer egin dozu?

–Nik txisteak kontau eta umorea zabaldu.

–Ederto, Kasimiro! Zatoz barrura, besterik egin ez badozu be, asko egin dozu ta.

616

Inori emon baino nahiago gosez hil

Zerua eta inperua zer diran esatea be ez da erreza. Baina hurreratu leiteke
parabolatxo batzuen bitartez. Hemen dozu On Pedrok bota ebana: Inperuan
bada nahaibeste jateko eta edateko, baina gosez amorratuta bizi dira. Zeruan
be bardin, baina sendo eta gizen dagoz. Hemen dozu sekretua: Zeruan koilara
luzeakaz emoten deutse alkarri jaten eta danak beterik. Inperuan be bardin
baina bakotxak beretzat hartu nahi eta ezin. Inori lagundu baino nahiago
gosez hil.

617

Adarra jotera joan eta ostikada hartu

Anbrux fedebakotzat egoan, berak harro-harro autortzen eban jente aurrean. Behin adarra jo nahirik, monastegi batera joan zan. Teodoro monjeak urten eutsan atera

- Zu, Jonas profetea hiru egun egon ei zan arrainaren barruan. Zer dinozu?
- Itanduko deusat zerura noanean.
- Eta inpernura joan bada?
- Han zeuk itandu.

618

Azkenengo mosua be ahaztuta

100 urte bete ebazala ta, Poloniori handik eta hemendik "zorionak" heldu jakozan eta bere kontu batzuk jakin nahian, egunkarietatik bila. "Deia" egunkariko batek:

- Zuk, Polonio, hainbeste urtegarrenean, gogoratzen dozu lehenengoz hartu zenduan andrearen mosua?
- Ona nago ni lehenengoa gogoratzeko, azkenengoa noiz hartu dodan be ahaztuta daukat eta.

619

Ez jakinak muga asko daukaz

Behin edade batera ezker, begitik ez bada belarritik, edo bietatik izurratuta. Joxe Martinek herriko plazako jazarlekuan apatx egin dau aguretxo baten ondoan. Ezezagunak dira. Aurretik egoana gorra da, eta ondoan jarri jakona ahoari eragin eta eragin dabil. Ondokoak badinotso:

- Parkatu, ez esan ezer, gorra naz ta.
- Zeuk parkatu, txiklea darabilt ahoan. Eta mihinaren puntan txiklea erakutsi eutson. Burlatzat hartu eutson eta eskuko makileaz laster aideatu eban ondotik.

620

Korokoak harrapatzen

Hor dabil Txanton herriko plazan batetik bestera, euliak harrapatzeko plantak eginez. Jente piloa inguratu jako, zetan dabilen jakin nahirik.

–Zetan zabilz hemen izerditan?

–Korokoak harrapatzen.

–Zer dira, ba, korokoak?

–Neuk baneki! Lehehengoa harrapatzen dodanean esango deutsut.

621

Zoro askok zoroetxe haundia behar

Gero eta bisitari gehiago dator Euskalerrira, hara-hona sekulako bidaia zora-garriak eginez. Behin Arrasate aldera jo dabe, gidari eta guzti. Gauza on bat ikusten ebeneko, mesprezuz erantzuten eben:

–Holangoak milioika daukaguz Amerikan. Santa Ageda aldera heldu zira-nean, hango etxe ederrak ikusita, bardin:

–Haundiagorik badaukagu guk han! Euskaldun baten erantzuna:

–Ez da harritzekoa, hau zoroetxea da ta.

622

Platanoari azala zergaitik kendu?

Zoroetxea ikustera joan zan batek hara zer ikusi eban: Zoro bat azal eta guzti platano bat jaten. Bisitari batek gogo onez dinotso:

–Zergaitik ez deutsozu azala kentzen?

–Kendu barik be, badakit barruan zer daukan.

623

Ijitoen pazku-txartela

Zer esan haundiak emon deuskuz aintxinako pazku-txartelak. Badakizu ijitoarena? Badator bidez karrukada bat ijito, txakur polit bat karru azpian lotuta dakarrela. Eleiz ate aurrean jente errezkada luzea, eta txandaka urteten eben sakristiatik, paper zuri bat eskuetan erakutsiz. Karruko nagusiak badino:

–Hortxe zeozer interesgarria emoten dabe, antza. Badoa gazte bat errezkadara eta txandea heldu jakonean, abadearen itauna:

–Nok hil eban Jesukristo?

–Nik ez, behintzat! Eta hiru bider itaun-erantzun bardinak izanda, ijitoaren abiadea karrura:

–Goazen, goazen hemendik arin! Jesukristo deritxonen bat hil dabe hor baztarren baten, eta guri botaten deuskue errua.

624

Kopau gozoa, trago hotza

Juanito azkenetan dago. Abadeagaz eleizakoak hartzen dago; baina ezin dau Gure Jauna iruntzi. Ur pixka bat eskeintzen deutsoe. Juanitok ondo daki edarien barri; eta ura hartuaz batera, badinotse ahopean:

–Halako kopau gozoak ur hutsa eta hotza baino hoberik merezidu eban!

625

Leon bai eta Lagartijo ez?

Umetxo jaiobarria bateatzera daroe, lehengo ohiturea zanez, jaio eta bertatik bertara. Izena ipinterakoan, zelan deitzea gura daben, itanduten deutse senideei abadeak. Eta aitak, aurretiz ondo erabagita eukanez:

–Honen izena Lagartijo izango da.

–Kristau bati ezin leikio ipini holango izenik.

–Ezetz? Eta Aita Santuak zelan dau izena?

–Leon.

–Horra! Leon bai eta Lagartijo ez?

626

Ahuntzaren haginak zenbat dira?

Kristobal artzainari be heldu jako pazku-txartela jasoteko txandea. Abadea hasi jako itaunka:

–Ea, Kristobal, esan Kredoa. Hasi bai, baina ezin amaitu. Abadeak hasarre.

Baina Kristobal be ez da isilik egotekoa:

–Berorrek badaki gure ahuntz gorritxoak zenbat hagin daukazan?

–Ez.

–Ba nik Kredoa ikasi bitartean, berorrek astia dauka ahuntzarena ikasteko.

Handik hamabost egunera han da barriro Kristobal.

–Ea esan Kredoa. Eta lerrenak egin arren, ezin amaitu.

–Eta berorrek ba al daki ahuntzak zenbat hagin dituan?

–Bai, zortzi.

–Goitik ala behetik?

–Hori ez dakit.

–Biok enpate.

–Zoaz, zoaz, Kristobal, Jaunaren bake santuan!

627

Hil bazina, nora joango zinan?

Luki ikazgina be noizean behin helduten zan autorlekura. Abadeak egiten ebazan ahaleginak sinismenean berotzeko. Behin eraso gogorra bota eutsan:

–Luki, Luki! Eta bertan hil bazina, zer? Nora joango zinan?

–Joan? Inora be ez.Hoba!

628

Aita Jaungoikoa al da?

Lehenago ezkontz-aurrean be “kartileari” erantzun beharra egoan. Gaur egun hori baino lehenago eztropezu egiten dau jenteak. Nikasio nasai doa abadea-gana.

–Ea Nikasio, errez-erreza gaur zuretzat:

–Aita Jaungoikoa al da?

–Hobe bai, holan ez nintzake beharrera joango. Behargin triste bat baino ez da nire aita.

629

Sobra edo falta, inor be ez alta

Neska-mutil bikotea luzaro xamar dabil alkarregaz, behin goxo eta behin moxo. Gaur jatetxe baten daukaguz bazkaltzen. Mutila benetan argal dago. Eta neskeak okelea eskeiniz badinotso:

–Horra zuri falta jatzuna. Eta mutilak neskeari txahalaren mihin zati bat eskeiniz:

–Horra zuk sobra daukazuna.

630

Nahi dana esan, nahi ez dana entzun

Juan Pedro Kaxkazuri burusoilak badinotso burlazahar Txanton lepotxari:

–Zer daroazu hor lepo gainean?

–Zeure orrazia, Kaxkazuri.

631

Andrak beti andra

Andrak beti andra! Joxepinak badinotso Edurneri:

–Zuk bai ule ederra!

–Horixe dinosat sarri neure buruari. Horregaitik hainbeste ardura bera zaintzen eta gordeten. Ondoan egoan alabatxoak argitu eban dana:

–Bai, bai, egia da: Neuk ikusten dot gauero komoda haundian gordeten.

632

Mundua noiz geldituko zain

Hor dakazu mozkor bat etxe ondoko intxaurrari sendo oratuta.

–Zer egiten dozu, Julen?

–Ez dozu ikusten, ala?

Mundua bueltaka dabil eta hemen nago, ea noiz gelditzen dan etxeke ate parean, salto baten barruan sartzeko.

633

Farmaziarako bide zuzena

Txinar gizon bat farmazian izan da: barrutik siku dagoala ta, aste bitan ezer egin barik dagoala ta... Erositako botika-poltsatik eskukada pastila iruntziten dau batera. Kanean zehar dariola doa. Beste bategaz topo egiten dau:

- Esango deustazu, mesedez, nun daukadan farmazia bat?
- Errez aurkituko dozu: ikusten dozu erraia marroi hori? Segidu berari eta berak eroango zaitu zuzen bertara.

634

Guzurrez, baina hamar kilo kendu

Manuela lodiaren lodiz etxeko atean be albokeraz sartzen zan. Argaltzeko ahaleginak egin, eta alperrik. Osagileak gogor be gogor dinotso:

- Hamar egun barru hil egingo zara. Hamabost egun barru han joako osagileari:
- Guzurra esan deust berorrek. Harrezkero ez jan, ez lo, ezin izan dot ezer be egin. Guzurra esan deust.
- Guzurra bai, baina hamar kilo kendu.

635

Hartzeko pronto, emoteko tonto

- Zu, Pontxio, laster San Joanak.
- Bai, Presen, holan da. Eta zer?
- Konbiterik edo? - Etxera noanean errepatatuko dot listia, ea igaz nortzuk konbidatu ninduen.

636

Mozkorrak damurik ez

Kaxintori kotxea erabilteko baimen agiria kendu deutsoe, edanda harrapatu dabelako. Handik hilabetera beste leku baten be bardin.

- Ea gida-bakimena.
- Ederra kontua! Zeuok lehengo baten kendu eta orain niri eskatu. Galdu egin dozue ala?

637

Mundu bueltan bajagok bakotzik!

Martin "maisuk" bai jakin!

-Ni mundu guztitik ibili naz: Chicagon, Moscum... Hango plazak, zubiak...Ikusita be ez sinistekoak.

-Hik orduan geografia ondo ezagutuko dok.

-Bai, bai, geografian be egon naz; erdi-erditik erreka haundi bat doa.

638

Asmatzen hasi ezker...

Ordu larria benetan! Hegazkina sutan jarri da. Ahal izan ebenak parakaidase-tan salto. Parakaidas bakar bat gelditu zan hirurentzat. Zotz egin dabe: izen motxena daukanarentzat. Txinoak dino:

Nik -0.

Prantzesak: -Nik Ca-si-o.

Euskaldunak: -Nik Ni-ca-si-o

639

Txiki nahiz haundi, baina beterik

Behin Lazkao Txiki bertsolari kankailu biren erdian plazan. Bien artean jota egurra Txikiari. Honek laster bota ebazan biak hankazgora:

-Nahiago dot boteila txiki bat beterik, haundi bi hutsak baino.

640

Pontzio pilotoa zan

Eztabaidaka lagun bi: Jesukristoren denporetan be bazirala abioiak. Bakotxak esan ahalak esan ondoren, Brauliok emon eban azken kolpea:

-Bai, baziran; zelan dinoe, bestelan, Pontzio pilotoa zala?

-Koxmek hau entzunda:

-Horren aurrean "amen" esan behar!

641

Pronostikorik onenak behiak

Kaletar bat badoa baserriko laguna ikustera. Honek kortatik hasita, erakusten deutsa etxalde guztia. Bere jakituritxoa be bai:

–Guk baserritarrok eguraldiari behietatik igarten deutsagu.

–Zelan?

–Hara, behiak zutunik badagoz, ona; etzunda badagoz, euria. Handik laster, erdiak zutunik eta beste erdiak etzunda.

–Eta orain zer?

–Agirian dago: erdi laino, erdi eguzki.

642

Mozkorrak partidua irabazi

Xabier Goiburuk apustu galanta egin eban behin, upea lango mozkorra aldean ebala. Tabernan lagun biri apustu egin eutsen: Bioi batera partidua hamarrera. Hango txalo, txistu eta iskanbilak ez euken amairik. Nok irabaziko? Eta Xabier Hankamotz mozmorrak. Jentearen jakin nahiak laster ase eban, sekretua argituz:

–Zelan joten izan dozuz pelota danak, bape huts egin barik?

–Joko ez neban, ba? Baten lekuan hiru pelota ikusten izan nebazan, eta beti erdikoari egurra.

643

Puruaren ordez giltza erre

Mozkorren erretirua dala eta, zenbat xelebrequeri! Batzuk erdi egiak, beste batzuk erdi guzurak. Eutsi bat: Bernardo hor dator goizaldean etxera, narru beteko kargea eroan ezinik. Eta hor dago luzaro etxeko atean, giltza sartu ezinik. Gauzaina ondoratu jako eta:

–Zu, zetan zabilz?

–Zetan ibiliko naz, ba! Giltza ate zuloan sartu nahi eta ezin.

–Zelan sartuko dozu, ba, giltzaren ordez purua daukazu eskuan ta.

–Ene ba! Ederra egin dot! Giltza erre...

644

Lauretatik zein etxeko?

Kidekoak errez alkartzen dira, mozkorrak be bai. Hor doaz lau gizon gauerdian etxera, lauren artean upel bete gitxienez daroela. Eta balkoi baten andra bat begira. Euretariko batek eupadaka dinotso:

–Zu, hemen bizi al da Juan Txibete?

–Bai, zer nahi dozu ba?.

–Jatsi zaitetz, mesedez, ea laurotatik zein dan esatera.

645

Kikara bako argipostea

Kaxinto gizon argia dozu, batez be gauez. Alperrik egongo dira kalean hantxemen argi biziak, berak argiagoa erabili ohi dau barruan. Holako baten, badoa kalean zehar eta danba! argipostea jotzen dau eta

–“Parkatu, jauna, ez zaitut ikusi” esanda, aurrera. Hurrengoari be danba!, kolpea emon, parkeskatu eta aurrera. Eta holan bedeinkatu ebazan dozena bat poste. Azkenerako zuhurtu zan:

–Tira, hobe izango dot manifestazinoa amaitu arte jesarrita egon. Bera egoan, ha, kikara bako argiposte makala!

646

Ardaua emoten dauan behia nahi

Aurelio Baserri ardauaren kontrakoa zan. Berak be jakin eban behin ardaugoaren barri. Taberna batera joanda, ilun be ilun egola, katilu bete esne eskatu eban. Tabernariak katilu hutsa eta paittar boteila bete ekarri eutsan. Danga-danga edan ebanean, tabernariari aparte deituta, badinotso:

–Hauxe esne gozoa! Esne hau emoten dauan behia zenbatetan daukazue salgai?

647

Gizon txikia, baina mozkor haundia

Hemen daukazu gaur Txepetx –gizon txikia baina mozkor haundia–etxeko ate zuloan giltza sartu ezinik:

–Zer Txepetx, habian sartu ezinik ala? Ekatzu, neuk lagunduko deutsut.

–Ez, giltza neuk; zuk eutsi geldi etxeari, mobidu egiten da ta.

648

Konortera ekarteko botika ona

Bixente mozkorra gauerdian lurra jota bide ertzean luze dago. Sasimediku bat hasi jako konortera ekarri nahirik:

- Ea, hurreratu sudurrera usaindun zeozer. Tabernara joanda, païttar boteila bat ekarri eta sudur azpian ipini deutsoe. Bai azkar igarri Bixentek”!
- Hau bai gozoa! Baina hain goian ez, beheratxoago jarri.

649

Kopeari ezpanez ikutu be ez...!

Mozkorra mozkor da makaltasunez, ez borondate txarrez. Zenbat promesa andreari! Zenbat baiezko berbea autorentzuleari! Horretarikoa dozu Koxme. Pazku ondoren, tabernan lasto bategaz edaten hasi jatzu. Lagunartean laster hasi jakozan adarra joen:

- Zer, burutik zagoz ala?
- Ez, oraingoa benetan hasi naz. Andreari berbea emon deusat, bertan hiltzeko!, gaurtik aurrera kopeari ez deusodala ezpanez be ikutuko.

650

Nortzuk doaz eleizara?

Umeak dana jakin beharra dauke, sarritan aspergarri izateraino. Kepak aitari:

- Aita, zergaitik ez doaz txakurrak eleizara?
- Txakurrak ezin dira eleizara joan, pertsonak bakarrik joaten diralako.
- Orduan zu zergaitik ez zoaz eleizara?–Alde hemendik lotsabako hori!

651

Penak kentzeko hau asmakizuna!

Osagileak argi berba egin deutso gaixoari:

- Sei hilabete gelditzen jatzuz bizirik. Ni zu banintz, ezkondu egingo nintzateke eta amaginarrebearen etxera joan.
- Eta horrek osatuko ninduke?
- Osatu ez, baina sei hilabete horrek zeure bizitzako luzeenak begitanduko litxakizuz.

652

Osagilearen pazientzia...

- Jauna, min baten daukadaz guntzurrunak, burua eta sabela.
- Ea, kendu erropak.
- Zer ba? Ez dau sinisten esan deutsudan berbea ala?

653

Lo baten, hori bai osasuna!

- Osagileak ebakuntza egin deutson gaixoari:
- Zelan egin dozu lo bart?
- Lo baten: lokartu nintzanetik goizean itzartu arte.

654

Nekez irabazi, errez galdu

- Zetan dira alkarren antzeko sorgina eta behargin baten soldata?
- Biak hegaz doazela.

655

Ustea da bat, eta jakitea bi

- Ba al dakizu zetan diran ezbardinak gizon lelo bat eta jakintsu bat?
- Ez dakit.
- Hara, ez dago diferentziarik; biak uste dabe dana dakiela.

656

Akats batzuk hobe isilik gorde

- Osagile jauna, nire semeak erre (r) letrea ezin dauala esan, konturatu naz.
- Noiztik dauka akats hori?
- Betitik.
- Ea ikusi dagigun: Zelan da zure izena, mutiko?
- Pedo

657

Bakotzak bere asmoak eta gogoak

Gizonak be badakie emazteak dotore janzten. Pruden dozu hau:

–Neure andrearentzat buruko zapi bat gura neuke.

–Ze koloretakoa?

–Bardin da. Dana dala, bera etorriko da aldatzera.

658

Plaka baten indarra

Rok abeslari bat igaro da musikari famatu baten etxe aurretik, eta plaka gomutagarria irakurten dau. Eta zirrara eragin deutso.

–Ni hiltzen nazanean be plaka bat ezarriko dabe nire etxeko horman.

–Eta zer idazkun ipiniko dabela uste dozu?

–“Salgai dago”.

659

Diru asko bai, baina urte gehiago

Gizon heldu-heldu bat psikiatra batengana doa, bere sentimentu arazoei buruz konsulta bat egitera:

–60 urte daukadaz eta 18 urteko neska bategaz maitemindu naz. Uste dozu berak onartuko nindukela, 50 urte daukadazala esango baneuskio?

–Baleiteke... Zu aberatsa al zara?

–Tira, batu dodaz hainbat miloi.

–Holan bada, dana erabagita dago.

–Orduan, 50 urte dodazala esango deusatz?

–Ez, bestetara baino: 80 urte daukazuzala.

660

Medikuen letrea, paperaren leprea

Farmazia baten atzerakada galanta hartu dau Julenek:

- Errezeta hau faltsua da.
- Zelan! Hemen dauka osagilearen izena, zenbat sustantzia daukazan, zenbat eta zelan hartu behar dan...
- Zeuk gura dozuna, baina errezeta hau faltsua da.
- Egia da, neuk egin nenban errezeta hau, eta ahalegindu nintzan berak ipinten dauana ipinten. Zelan igarri ete deutso faltsua dala?
- Ez dagoalako osagilerik hain argi idazten dauanik.

661

Nok baino nok haundiagoak

Hillary eta Bill Clinton behin gasolindegi baten gelditu ziran.

- Ene bada! Gasolina botaten dagoan gizon horixe da nire lehenengo ezkon-
gaia unibertsitatean nenbilla, dino Hillarik.
- Konturatzen zara, Hillary? Beragaz ezkondu bazina, gaur langile errukarri
baten andrea izango zinan, dinotso irribarrez Bill senarrak.
- Ez Bill. Bera izango zan Estatu Batuetako Presidentea.

662

Osasun ederragaz hil zan

Idazle famatu bat 72 urte gaz hil zan. Hil aurreko egun baten bisitatu eban osagileak:

- Pultsoa ona daukazu, bihotzak hobeto ezin dihardu, birikiak ez dabe atsedetik, sukarra jatsi jatzu... Gaixoak zorrotz erantzun eutson:
- Holan dala, osasun ederragaz hilgo naz.

663

Ni barik Bilbo zer?

Bazan Bilbotar bat egunero Artxandara igoten ebana. Zetarako? Ea Bilbo bera barik zer dan ikusteko.

664

Gasteizko farol-kalea

Gasteizko kale bat argi farolez beterik. Lagun batek besteari:

–Zergaitik daukaz Gasteizko kale honek hainbeste farol?

–Bilbotarren kalea dalako.

665

Bilbotarrak mundialak

Sartzen da Bilbotar bat liburudenda baten eta zer eskatu ebala uste dozu?

–Zu! Salgai al daukazu Bilboko mapa-mundi bat?

666

Ahí va Dios!

Ba al dakizu ze alde dagoan Jaungoikoaren eta Bilbotar baten artean?

–Jaungoikoa leku guztietan dagoala eta Bilbotar bat lehenago egonda dagoa-
la bertan.

667

Ez genduan besterik behar!

Bilboko alkateak hiru jokalari famatu sarituten ziharduan: “Hiru bilbotar honeek saritzera noa... Entzule batek eraso deutso:

–Alkate jauna, hirurotatik bat Burgostarra da. Alkateak bai agudo erantzun:

–Eta zer? Bilbotar batek nahi badau, jaió leiteke nahi dauan lekuan?

668

Hainbeste apaltasun be!

Baserri aldeko abade bat Bilbozale amorratua zan. Hara zer bota eban behin

Gabon aldian: “Begira zein apala dan Jesus Jauna, Bilbon jaió beharrean,

Belenen jaiotea aukeratzeko!

669

Zeruko ateko esaminak

Badoaz hiru gizon zeruko atera eta San Pedroren esaminak gainean:

–Peru, zenbat pekatu dozuz?

–Nik hamabi.

–Emon hamabi jirabira inguru zabal honeri, gero sartu barrura. Eta zuk Txanton?

–Nik hamabost.

–Zuk emon hamabost jirabira eta sartu barrura. Eta hirugarrenak alde egiten dauala ikusita, dinotso:

–Eta zu, Nikola, nora zoaz?

–Ni lurrera, motor baten bila.

670

Zero aurretik ala ostetik

Umeai sarri igarri egin behar, zer esan gura daben jakiteko. Eskerrak nagusiok be ume ta gazte izandakoak gareala! Hiru etapetako txarrak eta onak aldean daroaguz. Igoitz mutikoa dogu gaurko sasimaisua. Amama pozik dago bere notak ikusita:

–Igoitz, zorionak! Danetan “bikain” atera dozu, matimatiketan izan ezik. Eta zelan hor 0?

–Amama, ez esan inori, baina bestai lez aurrean 1 ipintea ahaztu egin jat.

671

Arraroak doaz zerura

Lehenago nor gelditu eleizara joan barik? Orduko abadeak ez ziran gozoza-leak, samurrak. Dotrinatik etxerakoan badinotso Kittok bere aitari:

–Aita, seguru zerura zoaz?

–Zergaitik dinozu hori?

–Gaur abadeak esan deusku dotrinan, arraroak doazela zerura; eta amari sarri entzun deusat esaten, zu arraroa zarala.

Izenak zuzendu ezinik

Gaur eskolako lehenengo eguna dozu. Gaur egun umeak oinez ikasi orduko eskolara hasten jatzuz. Baina lehenago hamabost urtegaz be ez sí ez no erde-raz. Ordukoa dozu, antza, honako hau:

- Zuk zelan dozu izena?
- Nik Martolo.
- Bartolome esaten da, me eta guzti. Beste bati:
- Eta zuk? -Nik Juanme.
- Juan, me barik.
- Me-gaz esan dozu ta.
- Eta zuk?
- Me-gaz ala me barik?
- Me barik.
- Nik Kox.

Siesta tanbor eta guzti fiesta

Umeak dagozan lekuan gauza bi dira beharrezkoak: maitasuna eta aguantea. Erregenetan Josuneri tanbor bat ekarri eutsoen. Harrezkero ez da zaratarik falta etxean. Aitari, egunkaria irakurten egoan baten, gainez eragin eutsan Josunek:

- Zagoz behingoz isilik!.
- Parkatu, aita, gaurtik aurrera eguerdi ostekoa egiten zagozanean bakarrik joko dot.

Negar eta barre kakabarre

Umeen negarrak zergaitik diran jakitea ez da errez izaten sarri. Begira, Ker-
man negarrez doa kalean zehar. Izeoak deitu eta kontsolatu gura dau:

- Ez egin negarrik, potxolo. Zer jazo jatzu?
- Zera, seigarren pixuko gizonari atepak hatzamarra harrapau deutso. Eta mal-dizinoka, saltoka eta hatzamarrari puzka hasi da.
- Ene, Kerman, zuk dozu bihotz ona!. Ez negarrik egin horigaitik.
- Ez, horigaitik ez, baina hori ikusita, neu hasi naz barre egiten eta ostikada bat emonda, eskaileretan behera bota nau.

675

Inor egon ezik, zetarako negar?

Umearen negarra gauza askotarako deadarra. Jakina, nok entzun egon ezkerro... Joxetxok kristoren eperdikoa hartu dauala, kontatzen dihardu lagunartean. Lagunak errukituta dinotse:

–Negar asko egingo zenduan, ba?

–Negar zetarako? Inor ez egoan entzuteko ta...

676

Aitak esan jeustak hiri berori esateko

Etxea da umearen lehenengo eskola eta eleizea. Etxe gehienetan hitano erabilten dabe euren arteko berbetan. Gero handik kanpora be bardin jarraitzen dabe. Behin herritxo batera abade barria dator. Kepatxu dabil monagilo. Handik laster betera, abadeak aitagaz topo egiten dau. Semea goraldiaz batera, dinotso:

–Baina ohitura txar bat dauka: Beti hitano berba egiten deust. Aitak laster erakutsi deutso semeari:

–Abadeari beti esan “berori”. Hurrengo goizean berorika emon eutson egun ona. Abadea pozik:

–Nok erakutsi deustsu hori, Kepatxo?

–Aitak esan jeustak hiri berori esateko.

677

Ume honen izena Pilarmonika da

Etxaburu baserrian neska polit bat jaio jake. Danak pozez zoratzen; baina gehien Monika eta Pilar amama biak. Bateo eguna heldu da. Izena ipintera-koan, bakoak bere izena ipini gura. Leandro parrokoak laster egin ebazan bakeak: Ume honen izena Pilarmonika izango da. Hor amaitu zan amama bien arteko soinua, pilarmonika eta guzti.

Titiriteruaren penitentzia

Inok ez daki autorleketan zer jazo dan, Jainkoagandik aparte. Laurenak balegoz liburuetan batuta... Behin On Keletori titiriteru bat joan joko autor-tzera:

- Zer ofizio dozu?
- Ni titiriteru-komediantea naz.
- Zer egiten dozu, ba? Eta, beste barik, hanka biak aidean eta esku biak lurrean, haren xilimoniak! Txandazain egozan andrak, hori ikusita, guztiak eleizatik kanpora. Abadea atzetik deika:
- Nora zoaze?
- Etxera, prakak jazten, holango penitentzia bete behar badogu be.

Zenbat tonto oso dagoan munduan!

Gaur On Keletori erditonto bat joan joko autorlekura. Berak be hori uste eban:

- Ave Maria puisima.
- Ni Juan Jose naz.
- Eta?
- Okerreko indar batek nakar gaur hona.
- Zer dinozu?
- Bai, bai, pekatuak nakar.
- Zer egin dozu, ba?
- Hara, gauez hor ibili naz, -erdi tontoa be banaz ta.
- Eta?
- Eta auzoko ezkortatik bildots bat aldatu dot gure ezkortara.
- Hori egingo zenduan ba?
- Ez hori bakarrik; lehengo astean auzoko oilategitik oilandatxo bi be bai geurera. Badaki, ba, jauna, erdi tontoa be banaz ta...
- Eta inoiz ez deutsu buruak emon zeuenetik auzora bildots eta oilandaren bat eroatea?
- Ai ene jauna! Orduan ez erdi tontoa, tonto osoa izango nintzan.

680

Onguria negarrez agertu...

On Bruno atso aberats bati Untzinoa emotera joan da. Andresak arnasea ozta-ozta hartzen dau, baina burua argi. Hasi baino lehen abadeari:

–Jauna, hor kanpoan dagozan nire ilobak negarrez ala barrez dagoz?

–Bazenki, Andresa! Guztiak negar baten dagoz.

–Ederto! Asko pozten nau horrek; horrek esan gura dau orandik ondo nagoala.

681

Zegaz kendu leiken gosea

Euskaldun bat soldautzara joan zan eta hiru urte Madrilen etxera barik.

Librau zanean, trenerako txartela jaso, eta egun osoa parrandan emon eban.

Eta trenea galdu. Nun lo egingo bila ebilela, alarguntxo baten barri emon utsoen: doan eta pozik ostatu emoten ebala. Badoa eta bai pozik hartu be.

Afaltzeko katilu bete esne eta ogi-sopak prestau eutsozan, haginakaz ogi gogorra zatituz. Hori ikusi ebanean, beste barik, gosea be joan jakon. Oheratu bai, baina gosearen gosez ezin loak hartu. Jagi eta zeozer aurkitu dau.

Hurrengo goizean, alaguntxoak badinotso:

–Zer erabili dozu gauez jagita?

–Parkatu, baina gose izan naz eta zeozeren bila ibili naz.

–Eta ezer topau al dozu?

–Bai, urdai zatitxo bat eta ogi kurruxku bat.

–Ai ene nire urdai bedeinkatua! Gauero erabilten izan dot odol-pikoak (almo-ranak) igurtziteko. Eta hori jan al deustazu? On egin deizula!

682

Orduan erreketete izango nintzan

Joxelion soldautzara joan-barritan, kapitanak, pipermin eta guzti, itandu deutso:

–Zuk zer politika dozu?

–Ni nazionalista naz.

–Zergaitik?

–Nire aita eta aitita be holan izan ziran eta.

–Holangorik! Zure aita kabroi bat eta zure ama puta bat izan baziran, orduan zu be bai?

–Ez, orduan erreketete izango nintzan.

683

Lapurrak harro, difuntuak marro

Sagar lapurretan eginda, hor doaz laguntxo bi kanposantuko panteoi ostean jatera. Bitartean, harro eta lotsa barik, defuntuen kontura edozer esanez.

Baina Kaixpar hor dago, aurretiaz joanda, beste panteoi baten ostean. Lapurrok, janak janda gero, mutxikina boteaz badinotse defuntuei:

–Mutxikinok zuentzat, defuntuok, honezkero gose izango zaree ta. Nahi al dozuez? Eta Kaixparrek erantzun:

–Zer, gozoak dagoz ala? Jasaus! Hareen perrotsa kanposantuko horma gainetik kanpora...

684

Kanposantuko hormak zetarako?

Badihardue igeltzero bik kanposantuko horma zaharrak txukuntzen. Handik doan aguratxo batek dinotse:

–Zetan diharduzue alperrik lanean? Barrukoak ez dabe iges egingo eta kanpokoak be ez doaz barrura, derrigorrean eta inoren lepoan izan ezik.

685

Gorraren hazurren bila

Lagun bat han ebilen kanposantuko hazurtokian bere lagun baten hazurren bila. Enterradoreak badinotso:

–Zeren bila zabilz?

–Neure lagun baten hazurren bila.

–Zer ezaugarri eukan?

–Tiburtzio gorra zan.

686

Oilarraren arrautzak karu

Kaleume bat baserrira doa, kinto lagun bat bisitatzera. Han dabil oilo aldra bat, oilar eta guzti, aztarka. Oilarrari begira badinotso:

–Oilo honek arrautza ederrak ezarriko ditu, ezta?

–Gaur arte bapez.

–Lehenengoa ezarten dauanean, a zer poza, ezta?

–Hara, oilo eta arrautza, urre gorritan salduko deutsudaz.

–Zergaitk hain karu?

–Oilo hau oiloa barik, oilarra dalako.

687

Eskola bako jakituria

Bakotxak dauka bere jakituria, eta kontuz ibili! Gitxien uste danean, egiten dau oilarrak kukurruku. Behin baten pintura kuadru eder baten aurrean gizon batek:

- Honek ez dau asko balio. Eta jabeak dinotso:
- Zuk zer dakizu pintura kontuan? Inoiz pintau al dozu?
- Nik badakit zein dan arrautza ona eta txarra, eta ez dot inoiz arrautzarik ipini.

688

Hipopotamo baten antza

Amak a zer eperdikoak emon deutsozan semeari! Aita zarataka:

- Zergaitik joten dozu umea?
- Lehengo batean ipopotamo deitu deustalako.
- Eta gaur joten dozu?
- Bai, gaur joan naz zoologiko batera eta han ikusi dot zer dan ipopotamoa.

689

Andrearen berbetea ezin ulertu

Patxiko lan bila dabil. Ugazabak dinotso:

- Zuk lenguaje danak menperatzen ei dozuz.
- Bai, bat izan ezik.
- Arranopola! Hori benetan gatxa izango da. Zein da?
- Neure andrearena.

690

Txakurrak zortzi hanka

Maisuak estu hartu dau Mikel mutikoa eskolan:

- Zugaz ez dago zerginik. Ez dakizu ezer, ezta txakurrak zenbat hanka daukazan be.
- Jakingo ez dot, ba! Zortzi.
- Ikusten? Nundik zortzi hanka txakurrak?
- Kontau ondo: atzean bi eta aurrean bi, lau; ezkerrean bi eta eskuman bi, lau. Horra lau eta lau zortzi.

691

Egunak moztu, baina egunak luzatu

Kontuz erdi mozkorrakaz, beste erdia zuhurra dauke ta! Entzun Kristobalek zer dinotson osagileari.

–Zu, Kristobal, ezin deutsozu gehiago egin ardauari? Holan zeure erruz egunak moztuten zoaz zeure bizitzeari.

–Bai, egunak moztu, baina gauak luzatu.

692

Trumoi ostean, euri zaparradea

Nahikoa dauke etxeakoak holango bategaz! Batez be bere andreak... Zer asmau? Zer egin? Martolo badator behin goizaldean etxera, zorro eta guzti. Andreak ahoz eztula, baina atzez uzkarra bota deutso. Eta gizonak zarrazarra txixa eperdira.

–Zer da hau?

–Trumoi ostean euri zaparradea.

693

Sigi-saga, baina aurrera

–Zu, atzo gauez kalean balantzaka joan zinan bidean kabidu ezinik. Ze ardau klase izan zan?

–Errekak be sigi-saga egiten dabe, eta hori urez beteta joanda.

694

Mundua ate parean noiz geldituko

Ardau ona Jainkoak egina. Baina gizonak bere jauntasuna morroi bihurtzen dauanean, ardauaren esanera jarriaz, orduan zer? Hor daukagu Braulio gauerdian etxe aurreko intxaurrari oratuta geldi. Auzoko lagunak holan ikusita:

–Zer egiten dozu hor, Braulio?

–Hara, gaur entzun dot mundua bueltaka dabilela. Eta hemen nago ea noiz gelditzen dan etxeke ate parean.

695

Hidropesia barik, arda presia

Gauza danak dira onak, zetarako eginak diran, hatarako erabilten badira. Bestelan, gizonaren lagun diranak bere arerio bihurtzen jakoz. Horixe jazo jakon Ernestori: Medikuagana joan ondoren, lagunak jakin minez:

- Zer esan deutsu osagileak?
- Gauza onik ez; hidropesia aukadala.
- Txarto ulertu deutsazu: ez da hidropesia, arda presia baino.

696

Iturri bi alkarren ondoan

Mozkorra kalean harrapauta mendiko baserrira eroan behar... karga astuna benetan. Hor doaz lagun bi mozkor-mozkor eginda, pausu bi aurrera eta bat atzera, kamino betean balantzaka.

Jakina hainbeste edan ezker... Kakux eta Kitto lagun biak zarra-zarra, batak sasiari kontuak esatera eta bestea iturri ondora. Kakux berea amaituta bidean aurrera, baina Kitto bota eta bota, agortu ezinik edo. Bost minutu zain egonda, badinotso:

- Zu, ba zatoz ala zer?
- Itxoizu apur baten, ez dozu entzuten zarrastada hotsa?
- Zuk zarrastadea edo zartadea buruan daukazu. Zarata hori ez da zurea, ondoko iturriarena baino.

697

Itzi bai lana, baina ez edana

Kaxinto eta Manu lagun haundiak ziran. Manuk bereak eta bost egin ebazan Kaxinto mozkoretik askatzeko. Halako baten komentziduta badinotso Manuri:

- Itzi beharko dot: lo txarto, jateko gogorik ez, eta lanean ezin kolperik emon.
- Itzi egin beharko dot.
- Zuk itzi edaria?
- Edaria ez, lana.

698

Patxi eta Petra, mozkor eta muleta

Patxi Mozkor deitzen eutsoen. Franko oraindino sasoi betean egoan. Patxi eta Petra lagunak ziran. Patxi mozkortuta, Petra jausi ez zedin eutsika. Holako baten goardiazibilakaz topo egiten dabe:

–Y uzté? No le da vergüenza que tenga que sostenerle la pobre muxhasha pa no romperse la crisma?

–Mira tú, normalmente poste sostiene alambre; pero a veces alambre sostiene poste.

699

Onean ona, baina txarrean...

Ezkontza zer dan jakiteko, ezkontuta egon behar da eta luzaro, ahal bada.

Asko dakian batek begira zer dinon: Emakumea maitasuna da eta bakea be bai. Baina gizonak gerrara jotzen badau, dana galduko dau: gerrea, andrea eta bakea...

**Iturriak dario bor-bor
alkarri txiste bana zor**



700

Whiski baino ez dot edaten

Iñazio edale bixkorra zan. Mozkorrak ohi dabenez, bere burua eta grinak zuritzeko berebizikoa. Lagunartean holan agertu eutsen bere egikerea, asko edaten ebala ta, zuzendu gura eben baten:

–Egia esateko, nik whisky baino ez dot edaten: lehenago uragaz edaten neban, gero ur barik eta orain ura lez.

701

Gitxiago edan, eta mozkor haundiagoa

Gure Justo “Seikopas” ezaguna zan inguruan, lagunartean sekulako apustuak egiten ebazan, batez be ardua bitarteko zala. Behin apustu haxe egin eutsen: hamar paittar kopa edan ezetz. Aitearen egin barik, baina aitearen baten edan ebazan hamarrak: lehenengo lau sailean, gero hiru, ondoren bi eta azkenean bat. Lagunak ziria sartzen hasi jakozan:

–Zelan zagoz?

–Zeuok ikusten dozue: zenbat eta gitxiago edan, mozkor haundiagoa.

702

Egarri nazanean inok ezin igarri.

Ahaleginak egiten ditu, ba, mozkorrak bere gatxa disimulatzen, baina mihinetik ez bada hankatik, ezagutzera emoten dau ze gasolinaz dabilen. Jaiegun arratsalde baten hor doa balantzaka bideak betean. Holan ikusita, auzoko batek ekinean:

–Alperrik diskimulatu, zuk gaur be lebatz galanta harrapatu dozu. Prontxiok erneguz erantzun deutso:

–Hau be bada, ba! Edanda nagoanean danak igarri; egarri nazanean inok be ez.

703

Ura ardua balitz, orduan bai indarra!

Ze indar ete dauka arduak, oiloak otso bihurtzeko, epelak burrukalari, jentilak kristau? Hor daukazu Brijilio errotarriari begira isilik. Azkenean irribarrez badino:

–Urak holango indarra badau, zelango harria erabiliko ete leuke biraka, ardua balitz?

704

Bat joan eta bi etorri

Goizeko ordubietan sartzten da Patxo etxera, euliak hegaz baino isilago, sermoirik ez entzutearren edo. Eta logela ondoko erlojuak ez ditu, ba, dangada bi joten. Julen berotu da eta badinotso erlojuari:

–Hi be nire aurka? Ordubatak izanda, ez dok euki bi jo beharrik. Ohean izarapean egoana be ez egoan mantso:

–Bai, zu bai zarala beti bat: bat joan eta bi etorri.

705

Mozkorraren amets argia

Edanaren eta esanaren faltaz ez da bat mozkorra: batetik dauka sobra eta bestetik falta. Kalixtok behin amets bat kontau eutsan andreari:

–Bart lau arratoi ikusi ditut, laurak triste eta argal; beste bat itsua; eta azkenean beste bat lodia eta dantzaria. Zer deritxazu? Daniel profetarena eginaz, andrearen erantzuna:

–Triste eta argal dagozanak, hiru semeak eta neu gara; itsua zeu; lodia eta saltaria tabernaria, zure diruaz ondo konpontzen dana.

706

Aita-semeak deberrak egiten

Aita-semeak eskolako deberrak egiten dihardue. Aita bildur da maisua konturaturako ete dan. Mikelek irribarrez badinotso:

–Aita, konfiantzaz, baina badaki. Atzo esan eustan: harritzekoa dala pertsona bakar batek hainbeste “disparate” botatzea.

707

Hazur bat gehiago gorputzean

Maisuaren ahaleginak eskola umeei zenbat hazur doguzan erakusten! 207 hazur doguzala gorputzean. Biharamonean Patxiri:

–Ea, Patxi, zenbat hazur doguz bakotxak?

–208 hazur.

–Zenbat esan neban atzo?

–Bai, atzo neuk be 207 neukazan, baina hazur bat apurtu egin dot, eta orain bat gehiago daukat.

708

Jesusek ez dauka gorrik, amamak bai

Jesus Maisuak ume-bihotza behar dogula dinosku, Jaungoiko Aitagaz hartuemonak egiteko. Hau ondo ekien Mendigoiko anaitxo biak. Gabonaldian Jontxuk amesetan egiten dau gauero, zarataka egin be: "Jauna, nik tren bat gura dot jolaserako. Andoni anaiak isilago otoitz egiteko dinotso, Jesusek ez daukala gorrik eta. Jontxuk argitu eutsan sekretua:

–Jesusek ez dauka gorrik, baina amamak bai, nik amamak entzutea gura dot.

709

Umearen zentzuna, etxean entzuna. Esaera biribila dozu hau lehen eta orain. Umeen urteera asko ez dira eurakandik sortutakoak, etxean entzundakoak baino. Zer deritxazu Nikolas umearena: Amak hasarrez dinotso:

–Zergaitik deitu deutzazu "lela" izekoari? Zoaz eta esaiozu asko sentitzen dozula. Badoa Nikolas eta aho betean dinotso

–Izeko, asko sentitzen dot zu lela bat izatea.

710

Domistikumak ez dau balio

Gure Jokin lehenengoz doa ikastolara. Maisuak:

–Ze izen daukazu?

–Nik Jokin, baina domistikun egiten dodanean, "Jesus" esaten dot.

711

Ikastolako lekurik onena

Edurne pozik doa ikastolara. Sekretoren bat dauka eta aititak jakin gura dau:

–Edurne, zein pozik zoazen ikastolara!

–Bai, aitita, neuk daukat lekurik onena, batez be orain neguan.

–Zeu zagoz lehenengo lekuan ala?

–Ez, aitita, estufearen ondoan.

712

Domekearen ezaugarria

Maisuak leherrenak egiten dihardu, ikasleei aditza (berboa) irakasten:

–Ea nok igarten deutson:

–Ni orrazten naz, zu orrazten zara..., ze denpora da hori? Manolok jasoten dau eskua:

–Hori domekea da.

713

Tximinoaren antza

Iker pozik dabil zoologiko baten izekoagaz hango piztiak ikusten. Tximinoak ikustean, Iker adi-adi dago, behin tximinoari begira, behin izekoari begira.

–Zer ikusten dozu, Iker?

–Hara, hango tximinoak zure antz haundia dauka.

–Zagoz isilik ez da holangorik esaten.

–Baina tximinoak ez dau ulertzen.

714

Bardin da, itsua da ta

Dinoenez, ilobak aitita-amamakaz ondo konpontzen dira. Diferentziak diferentzi, bitsuak umearo barruan. Jazintak ez dauka bere aitita saltzeko. Berak egiten deutsoz errekadu guztiak; itsututa be badago ta. Gaur tabernara doa ardaua erosten. Eta tabernariak:

–Zer, baltza ala gorria?

–Bardin da, itsua da ta.

715

Dirua gorde ezin

Dirua da gauza bat umeak ondo ezagutzen dabena. Estimadu, baina gorde ezin. Amak astero "pagatxo" emoten deutso Margaritari. Inun gordeteko astirik be ez.

–Margari, atzo emon neutsun diruagaz zer egin dozu?

–Agura zahartxo bati emon deusat.

–Zuk daukazu bihotz biguna!

–Zer eukan, ba, aguratxo horrek?

–Karameluak saltzen.

716

Pertsona ala aberea zuhurrago?

Andreñoak Juli txikia zenbaterainokoa dan aztertzeo, itaun bat egiten deutsa:

–Juli, abereak ala pertsonak dira zuhurragoak?

–Abereak.

–Bai zera!

–Bai, bai; nik txakurrari berba egiten deutsat eta berak ulertu egiten deust; berak niri zaunka eta nik igarri ezin.

717

Umeen zuhurtasuna

Maisuak sartu-barritan umeen zuhurtasuna aztertzen ibili ohi dira.

Hemen dozu maisua Bitorigaz:

–Bitori, mahai gainean 10 euli dagoz; zapla eskuz jota bat akabatzen dau.

Zenbat geratzen dira mahai gainean?

–Bat, hildakoa.

718

Lehenengo zigarroaren indarra

Umeak alkarri kontuak kontari ez dira aspertzen. Eta... noiz edo behin egi galantak bota be bai. Peru, egi edo guzur, beti ebilen zuhur:

–Nik lehenengo zigarroa erre nebanean, belarrondoa zehatz baltzitu jatan.

–Ze zigarro modu zan, ba?

–Zigarroaz ez, aitaren belarrondokoaz baino.

719

Neuk ebagiko deutsadaz hegoak horri

Umeak isilik bai, baina sarri belarriak zuhur; eta beste gauza batzuetan dihardualakoan, sarri nagusien autu-mautuak entzuten. Hortik gero euren urteera xelebreak. Koldok aitari:

–Aita, zu txoria zara?

–Zer dinozu? Zetara dator itaun hori?

–Amak lehengoan esan eutsan izekoari: Neuk ebagiko deutsadaz hegoak txori horri.

720

Munduari ezin azala kendu

Ikastolan maisuak badihardu munduaren barri emoten:

- Munduak zer forma dauka, Edurne?
- Laranja formea, baina...
- Jarraitu, jarraitu.
- Baina ezin jako azala kendu.

721

Zergaitik lehenengo gizona?

Maisuak harro itandu eutsan neskato bati:

- Jainkoak zergaitik egin eban lehenengo gizona? Maritxu, estu eta larri zer erantzungo. Baina behin amak aitari esaten entzundakoa bota eutsan:
- Lehenengo gizona egin eban aprobarako; gero andrea, lehenengoaren okerrak zuzenduta.

722

Ikusiak ikusita be, ez dozue sinisten?

Mozkor bat doa bide zabalean kabidu ezinik. Ertzainak geldituta:

- Ea jatsi hortik, kontrola egin behar dogu.
- Ikusiak ikusita be, ez dozue sinisten ala?

723

Hau panoramia etxe baterako!

Kalean mozkor bi:

- Hau da egarria! Ezin naz bete. Goazen geure etxera eta han jarraituko dogu.
- Ez, goazen erdiko kalera, 25era.
- Neu bizi naz han.
- Bai zeu! Ha neure etxea da.
- Goazen eta deitu daigun ea norena dan. Jo tirrina eta andreak leihotik:
- Hau panoramia, aita-semeak, batak baino besteak haundiagoa hartuta.

724

Ispilu aurrean pertsona bat ikusten

Mozkor bat gauerdian etxeratzen da. Eta ispilu aurrean pertsona bat ikusita, dino:

–Kontxo, nundik ezagutzen haut hi? A, bai, pelukeriatik.

725

Garbitzen dana txikitu egiten da...

Alabea ezkondu zan eta ama egunero kontsejuak emoten:

–Ez hainbeste garbitu erropak, txikitu egiten dira.

–Ez ardurarik izan, ama; umeak be garbitu egiten dira, baina hazi eta hazi egiten dira.

726

Kontu asko mihinean, bankuan gitxi

Txomin bankura doa diru eske. Bankua nun danik be ez. Halako baten sartzen da banku batera eta bere kontuen garbitasuna eskatzen dau.

–Nun daukazu, ba, kontua?

–Kontuak ugari mihinean, baina diru gitxi bankuan.

727

Inori gustatzen ez jakona Jainkoari

Baserritar bat klausurako izeko monja bat ikustera doa. Bere bizitza latza kontatzen deutso. Monja izekoak lagundu gura deutso:

–Eskeini Jaungoikoari eta aurrera egin.

–Ez hori, hori ez dago ondo. Inori gustatzen ez jakona Jainkoari eskeini?

728

Sopearen gainean koipea

Jatetxe baten sartzen dira Joxe eta Joxepa. Oilosopa gozoa eskatu dabe lehenengo. Eta zerbitzariak:

–Sopearen gainean zer gura dozue?

–Esateko be! Sopearen gainean koipea.

729

Ni langorik nor?

Bilbotar bat daukazu ispiluari begira eta irribarrez zarataka:

- Ni bai ni haundi! Dirua nahibeste... Atletik-n sozioa naz, Bilbotarra gainera... Eta ustebarik sartzen jako ama, esanez:
- Seme, albiste barri bat emon deuste: Zure arreba Benita monja sartu dala.
- Ez neban besterik behar! Esanaz gainera, Jaungoikoa be koinatu.

730

Trago bat jo orduko "ostiak" banatzen

Abadea eta bertsolaria be hasarretu jatzuz. On Kaxintok bertsolari edanzale bati dinotso:

- Zuok bertsoak botaten hasten zaree ondo edanda gero.
- Eta zuok abadeok trago bat jo orduko, "ostiak" banatzen.

731

Zelan amaitu leiteken mundua!

Filipinasko gerra amaitu zanean, etxekoandra batek senarrari:

- Entzun dozu, Pedro?
- Zer entzun?
- Zera, "gerra de pitiliñas" amaitu dala
- Onak gagoz! Orduan bai amaituko dirala ez Filipinaskoa bakarrik, baita mundu guztikoak be betiko, munduagaz batera.

732

Upelak hustuteko aukera

Patxo sagardotegiko ugazaba dozu. Baso erdika baso erdika, upel bete diru egindakoa. Bajoako bertsolari bat eta baso erdia jasota badinotso:

- Zenbat upel hustuten dozuz astero?
- Upel bi.
- Neuk erakutsiko deusut zelan hustu hiru.
- Zelan? Zelan?
- Basoak goraino beteaz.

733

Gaur dana doa gora ta gora

Pedro Mari petrikilo batengana doa. Dana gora ta gora doala, kexaz jardun jako luzaro:

- Ea, ahoa zabaldu. Almorranak daukazuz, eta euki be haundiak.
- Zelan? Almorranak eztarrian?
- Badakizu, ba, gaur dana doa gora ta gora ta...

734

Errebueltetan begiak itxi

Senar-emazteak kotxean doaz. Emili emazteak kexaz dinotso senarrari:

- Sarri esan deutsut: ni bidaietan larritu egiten nazala; batez be errebueltetan.
- Egin neuk egiten dodana.
- Zer egiten dozu, ba?
- Errebueltetan begi biak itxi.

735

"Ita" gaz datozen berbakaz kontuz!

Explosiboetan lanean dabilzanei ohar bat emoten deutse:

- Kontuz "ita" amaitzen diranakaz: dinamita, melanita...
- Patxik errez sinisten dau:
- Banengoan, ba, nire amaginarreba Margarita da ta, zergaitik dan halako elementua...

736

Hilda gero gaztetu

Zeintzuk dira hilda gero gaztetzen diran abereak?

- Oilaskotzat eta oilandatzat saltzen deuskuezan oilar eta oilo zaharrak.

737

Erloju ona eta merkea

Erloju on bat eroatera doa Matxin. Dendariak bat erakusten deutso, ona eta merkea: hiru mila peseta.

- Zelan hain merke? Holan ezin da ezer irabazi.
- Hori neuk konponduko dot, laster konpontzera datorrenean.

738

Zer egiten dau txakurrak eguzkitan?

Ezetz igarri txakurrak zer egiten dauan eguzkitara urtenda lehenen-lehenengo?

–Horma ondora joan eta...

–Ez, mutil, keizea.

739

Hamarretako merkea

Lontxo eta Benito sartu dira tarbernara. Benitok zerbait hartu nahi dau. Bera gorra da. Zerbitzariak Lontxori:

–Zer nahi dozu?

–Nik ezer ez.

–Eta zuk, Benito?

–Lontxok lez, patata erreakaz.

740

Astakumeen aita eta amaren bila

Bazkal ondoan, zarata haundiak eskaratzean. Aitak “isilik” hiru bider, baina alperrik. Azkenean orruka:

–Astakume batzuk zaree. Eta seme zaharrenak:

–Eta astakume horreen aita eta ama nortzuk hemen?

741

Gozoak eta garratzak ordainetan

Sendagileak zapatak bialdu eutsazan zapatariari konpontzeko. Honek ikutu barik bialtzen deutsoz eta mila pezetako kontua.

–Ezer konpondu ez eta mila pezeta?

–Bardin egin zeustan zuk niri: nire gaixoak ez eukala osatzerik eta 2.000 pezeta kendu.

742

Berakatza ona ei da kiloak kentzeko

Lodiegi dagoan bat petrikilo batengana doa.

–Berakatza ona da, goizero bat jan eta laster igarriko deutzazu. Handik laster badoa barrero eta:

–Eta, zer barri

–Igarri deutse bai! Kiloak ez, baina lagunak uxatu ditut ondotik neure berakatz atsagaitik.

743

Haginak kenduta, hagineko minik ez

Xanti ohean hotzez dardarka baten. Osagileagana joanda esan deutso. Honek aztertzen dau:

–Eta hotzikararik eta?

–Bai.

–Eta haginak dardarka?

–Ez, kajoian gordeta geldi egoten dira.

744

Atso bi eta makila bi etxean prest

–Zer, Praisku, ardaua edateari itzi deutsozu ala?

–Ze erremedio!

–Zer ba?

–Ezkondu egin naz eta.

–Eta horrek zer dauka zer ikusirik ardauagaz?

–Ez zera! Edanda joan ezkerro, atso bi eta makila bi etxean prest.

745

Ertzainak jakin ez zer egin

Ertzainak kotxeen abiadea zaintzen bide ertzean. Bat arinegi joan da. Hor doaz bere atzetik. Neska gazte bat dozu.

–Ba dakizu ze abiadatan zoazen?

–Ez

–140

kilometroan.

–Aibala! Eta hori karneta atera baino lehen.

746

Erdi tontoa banaz, baina ez osoa

Martolo erdi tontotzat euken herrian. Behin epaitegira deitu eutsoen, oilo bat ostu ebalata.

–Zuk oiloa ostu dozu.

–Ez nik, bera etorri da hegaz gure oilotegira, eurenean ez eutsoen jaten emoten eta. Nik lehenengo berari jaten emon, eta gero bera neuk jan. Erdi tontoz, baina ez osoa, e!

747

Lotsea bai, baina dirurik ez

Lagunartean:

–Zu, noiz bihurtuko deustazu zor deustazun dirua? Ez daukazu lotsarik?

–Lotsea bai, baina dirurik ez.

748

Meriendatzeko zeruan konbite

Peru gaixorik txarto dago; fede kontuan nahiko hotza gainera. Abadea handabil zeozelan lagundu nahirik: Errezau Ama Birjinari. Afaltzeko zeruan izango zara.

–Martxa honetan meriendatzeko be bai!

749

Beranduko autortzak

Ezkondu eta lehenengo gauean andreak badinotso senarrari:

–Hauxe autortu beharra daukat: nik postizozko haginak daukadazala, begi bat kristalezkoa eta esku bat artifiziala.

–Holan bada, zuk ez dozu zeurerik ezer?

–Bai, semetxo bat, baina bildurrez ez neutsun aurretik esan.

750

Gorri buztan motz

Amaginarrebak zergaitik ete dauke hain entzute txarra? Iparburu baserrian behintzat holan zan Pantxike. Etxejaunak hartu eutson amorru bat! Baina atariko txakurrak ikusten eban bakotxeko buztanari ederragaz agurtzen eban. Julen etxejaunak ezin ikusi eta zer egingo? Zast! buztana ondotik ebagi eta kitto!

751

Neskazahar baten eskaria

Neskazahar gatek egunean ehun bider gitxienez Jaunari otoitz hau egiten eutsan:

–Jauna, badakizu zein ona dan nire ahiztea; neuretzat ez deusut ezer eskatzen. Baina nire ahizteak koinatu on bat izan dagiala.

752

Sekula be ez disgustorik

Alargunduta gero, lagun batek Antoniri:

–Zelan alargunduta gero?

–Nahiko ondo.

–Egia al da egundo be alkarregaz ez zinela hasarretu?

–Sekula be ez disgutorik beragaz, ezta hil danean be.

753

Baikorra eta ezkorra zetan ezagutu

Zer dan baikorra eta zer dan ezkorra izatea zetan ezagutu?. Txominek laster argitu eutsan lagunari:

–Baikorra poztu egiten da euria danean, laster eguzkia aterako dauala ta. Ezkorra, barriz, negarrez egon ohi da eguzkitan, laster euria egingo dauala ta.

754

Mandoaren esnearen indarrak

- Zu, barku bete gatz ekarri dot Ameriketatik; baina dana izan da alperrik.
- Zer ba?
- Dana harrez beterik dago. Zer egin?
- Errez daukazu, mando-esne beroa bota.
- Zer dinozu, mandoak ez dauka esnerik.
- Ezta gatzak be harrik.

755

Ona hago inori bidea erakusteko!

- Mozkor bat tabernatik etxera bete-bete eginda. Bere lagun Patxiri dinotso:
- Patxi, lagundu egidazu, ez dot biderik ikusten.
 - Heldu neuri gogor, nik bi ikusten dodaz eta.

756

Aingeruak eta deabruak futbolean

- San Pedrori deabruak desapioa bota eutsan:
- Zer, gura dozue futbol partidu bat alkarren aurka?
 - Ez daukazue zer eginik; hemen daukaguz jokalaririk onenak.
 - Baina arbitro guztiak hemen dagoz neugaz.

757

Adorea eta zaldia gura dodaz

- Errege batek, baseritar batengana hurreratu eta hona zer aukera ederra eskeini eutsan:
- Eskatu egidazuz gura dozuzan gauza bi.
 - Adorea eta zaldia.
 - Zetarako behar dozuz gauza biok?
 - Adorea egia esateko eta zaldia, ondoren ihes egiteko.

758

Eskolak amaitu orduko zahartuta

Gurasoak kezka maisuagana, euren semearen arduraz:

–Zer izango da gure semea ikasketak amaitzerakoan?

Seguru, martxa honetan izango da zaharra.

759

Zerua hurrean

Esango deustazu, lagun, zein dan zeruak hurren daukan herria?, dinotso bilbotar batek Donostiar bati.

–Bilbo izango da, hasarre antzean.

–Ez, ba, gizona! Donosti, Bilboren ondo-ondoan dagoalako.

760

Santu eta asto baten arteko tartea

San Jeronimo eta ereje harroputz bat eztabaidan. Ezin izan eban meperatu santua. Eta irainka hasi jakon:

–Ikusi dot Jeronimo eta asto zahar baten artean ez dagoala tarte haundirik.

–Nik argi daukat zenbat: mahai honek luzeran daukan tartea haina.

761

Txarriak urten, eurak patatak sartu

–Aita, ortuan patatak sartu nebazan eta ezetz igarri zek urten dauan?

–Patatak.

–Bai, zera! *Urten* txarriak kortatik eta *sartu*, eurak sartu dabez patatak tripan.

762

Guzurtien alkartean sozio sartzeko

Zer asmauko? Eta guzurtien alkarte bat. Bertan sartzeko baldintza bat bete behar zan: guzur haundi bat bota. Horra konbite bat:

–Zu, sartu nahi dozu gure artean?

–Nik ez: egundo ez dot guzurrik bota.

– Ederto! Nahiko da. Gaurtik zu be sozio zagoz gure artean.

763

Belarri batetik sartu eta bestetik urten

Hainbeste gauza entzunda, ez da errez danak gogoan hartu eta gordetea. Belarri batetik sartu eta bestetik urten ez dagian, hara lagun batek asmau ebana:

- Belarri baten algodoia sartu.
- Zetan zabilz, mutil?, dinotso auzokoak.
- Batetik sartu orduko, bestetik urten ez dagian.

764

Hogeita hamar urte etxetik urten barik

- Patxi, 30 urte etxetik urten barik, hori da emazteaganako maitasuna!
- Hau maitasuna baino gogorragoa da: erreumea.

765

Pantxikek ingelesa ikasi nahi

Pantxike andra bizia da, beti gehiago ikasi nahian bizi izan zan. Behin badi-notso senarrari:

- Pozik hasiko nintzateke ingelesa ikasten.
- Zagoz isilik andrea; dakizun bakarraz be nahiko berba egiten dozu.

766

Sekretoa gorde ezina

Eztabaida zitala atera eban gizon aldra batek: Andreari esan ete leikion sekretorik? Baztarrean isilik dagoan Kalixtok emoten dau azken ebatzia:

- Bai, baina sekretoa dala esan barik.

767

Ez praka eta ez gona

Badakizu behiak arratoiari zer esan eutson?

- Hain txikia eta bibote haundiagaz!
- Eta arratoiak saltoka behiari:
- Eta zu hain haundia eta ez praka eta ez gona barik.

768

Poliziak ortua hatxurtzen

Kartzelan dagoan gizonak karta luze bat andreari, errekiatuko ebela jakinik:

- Ez hatxurtu ortua; gitxien uste dozun lekuan gordeta dagoz pistolak eta morterua. Laster jaso eban andrearen erantzuna:
- Poliziak dana hatxurtu dabe.
- Orain da ordua porruak eta azak landatzeko.

769

Tortila frantsesa ala espainola?

Martolo jatetxe baten sartu da zeozer jan gurarik.

- Zer gura dozu?
- Tortilatxo bat.
- Frantsesa ala espainola?
- Bardin da, nik ez dot eurakaz berba egin behar eta.

770

Farmaziatik urten ezkerero...

- Txomin, gaixorik ala?
- Zergaitik dinostazu hori?
- Lehengo baten farmaziatik urteten ikusi zindudan eta...
- Hurrengoan kanposantutik urteten ikusten banozu, behar bada hildakotzat hartuko nozu?

771

Adarra ez bada, ostiko

On Tiburtzio trenean doa, beste kirtenko bat aurrez-aurre dauala. Laster hasi jako lagun ezezagun hori lotsea galtzen:

- Nik seme bat tontoa izan banau, abade sartuko neban.
- Zure aitak ez eban bardin pentsau zutaz.

772

Jan aurretik burrukan egin beharra

Jenerala kuartel batera doa, bisitatxo bat egitera. Bazkal orduan jantokira doa:

- Zu, gazte, zelango jatekoa emoten deutsue?
- Egunero burruka egiten dogu jatekoa dala eta ez dala, erantzuten deutso errekluta barri batek.
- Hori entzutea pozgarria da niretzat.
- Baina ez da zuk uste dozuna, jeneral jauna. Burrukan galtzen dauanak danena jan behar dau.

773

Ez dago lapurren bildurrik

Gazte batek bere kotxea aparkatzen dau Moncloa aurrean. Udalzaingoa hurre-ratzen jako, esanez:

- Hemen ezin dozu aparkau; laster ministroak urtengo dabe ta.
- Ez deutso ardura, antiroboa –lapurretaren kontrako turuta– jarrita dauka.

774

Lege Batzarrean aho zabalik

Diputadu batek Lege Batzarrean badinotso lagun bati:

- Ez dakit zetan zatozan Lege Batzarrera, etorri eta egundo ahorik ez zabal-tzekotan.
- Hori bai ez dala egia! Zuk berba egiten dozun bakotxean, arrausinga ahoa itxi ezinik egoten naz.

775

Otso gosetiaren aurrean zer egin?

Lagunzahar bi mendirik mendi doaz pasealdi bat emonez. Eta ustekabeen hor agertzen jake otso haundi bat gosez eurakana. Harri eta horma eginda, baina behingoan hasten dira zeozetan: batak laban luze bat atera dau; besteak lepoko zorroa bota eta oinetako astunak kendu eta zapatila arin batzuk jar-ten. Labana eskuetan daukanak begira dinotso:

- Ez dozu pentsauko otsoak baino arinago egingo dozunik.
- Ez horixe! Nahikoa dot zeuk baino arinago egitea.

776

Ikusi barik ezin izan testigu

Testigos de Jehová diralako horreek nahiko zer esan eta zer egin emoten dabe baztarretan. Zer esanik izaten da, euren autuak urteten dauan bakoitzean.

Hona hemen bat:

–Zu, Pepe, izan gura dozu Testigo de Jehová? Pepek duda asko barik erantzun:

–Nik zer testigu egin behar dot, iztripua ikusi be ez dot egin! Eta.

777

Hatzamarragaz ikutu eta danean min

–Osagile jauna, gorputz guztian mina baino ez daukat: buruan ikutu, belau-
nean ikutu hatzamarregaz..., eta aienaka jarten naz. Zer daukat, mesedez?

–Zuk daukazuna hauxe da: hatzamar muturra apurtuta.

779

Zeruko frontoian partidua

Euskaldun pelotazale biren artekoa dozu ondorengo hau. Ba ete dan frontoirik zeruan. Zeruan on guztia badago, ezin falta frontoia.

–Holan bada, lehenengo doanak emon deiola hango barri besteari. Handik urte bira Patxi hilten da eta biharamonean Enrikek hilobiaz handiko partetik ahots misterioitsu bat entzuten dau:

–Enrike... Enrike... Enrike... Patxi naz.

–Zer nahi dozu?

–Albiste bi emon behar deusudaz: bata ona eta bestea txarra.

–Zein da ona?

–Nik errazoi nebala, hemen frontoirik ederrena dagoala, ikusgarria.

–Eta txarra?

–Zeuk daukazula partidua bihar 11tan.

780

Politikoa zer eta nor dan nok jakin!

Politiko batek “Bai” badino, esan gura dauana hauxe da: “Beharbada”.

“Beharbada” badino, esan gura dau: “Ez”.

–Eta “Ez” esaten badau?

–Orduan ez da politikoa.

781

Beharra osasuna ei da

Pernando benetan gizon alperra, soloko alper harria baino areago. Zeuk kontuak atera:

- Gizona, jagi zaitetz behingoz; alper bat zara. Mogidu zaitetz beharrera. Beharra osasuna dala dinoe. Eta Pernandok nagiak atereaz:
- Orduan, gaixoak egin dagiela.

782

Jabea bere etxean sartu ezinik

Bruno eroan ezineko mozkor galanta aldean dauala, etxeko atean barrura sartu ezinik. Andreak leihotik:

- Zer, gura dozu giltza bota dagitsudan?
- Ez, giltza badaukat, bota egidazu sarrailea, ezin dot aurkitu eta.

783

Arduaren bentajak

Edaten dauana mozkortu egiten da. Mozkortzen danak lo egiten dau; lo dagoanak ez dau pekaturik egiten; pekatu egitean ez dauana zerura doa; eta zerura joan gura dogunez, edan dagigun!

784

Gizonaren arerioak

Erraimundok argi eukan hau: Gizonaren arerioak asko dirala munduan; baina okerrenak hiru. Amaginarrebea, koinatea eta emaztea.

785

Kameleoi bat zara

Aznar Presidentea heldu da Zornotzara eta udalako batzorde batek urteten deutso bidera. Aznarrek alkatea ikusiaz batera dinotso:

–“Esan deustie, bai, zu kamaleoi bat zarala: Primo de Riveraren aldian alkate zengozan; Errepublika aldian, alkate; Frankoren aldian be alkate; Arias Navarro etorri eta alkate; Suarez agertu eta zu alkate; Calvo Sotelo jarri eta zu alkate; Felipe Gonzalezen aldian be alkate; eta ni etorri eta zu alkate. Zu kamaleoi bat besterik ez zara: ingurua zelangoa, zu halangoa.

–Aldatu ni? Berori oker dago. Ni ez naz sekula aldatu. Aldatu diranak Madrilgoak dira. Ni beti Alkate.

786

Ekin hor!

–Baneukan gogoa zu ikusteko! Lehengo baten Bilbon kotxean zure atzetik ninoiala, aspertu nintzan kale baten inguruan, jirabuelbaka eten barik zenbilzala ikusita. Zetan ibili zinan?

–Demontresa! Ezin izan neban eskuratu intermitentea ta...

787

Hemen danentzat dago

Patxik etxera konbidatu dau Floren laguna. Bero be baegoan eta, hozkailura jo eban, zerbait eskeintzeko. Florenek botela haundi bat ikusten dau barruan, baina hutsik.

–Eta hau zetarako dozu hemen hutsik?

–Ezer be gura ez daben lagunentzat.

788

Kanposantura bidean

Kittok jakin dau kanposantura joan-etorriak egiteko autobus zerbitzua dagoa-la. Hor doa autobus baten ondora itaunka:

–Mesedez, autobus honek kanposantura daroa?

–Ikusi egin behar! Bere aurrean jarten bazara, bai.

789

Aukerako dieta

Joxandres jatetxera heldu eta zerbitzariari egiten deutso eskea:

–Ekarri egidazuz indaba gorria platerkada bete, lebatz freskoa eta txuletoi eder bat.

–Eta postrerik?

–Kia! Ez egidazu postrerik ekarri; dieta egin behar dot eta.

790

Ahari-jokoa

Ahari-jokoa euskaldun askoren gustokoa da. Kanpotar bat hurreratzen jako baserritar bati Markinan, ahari-jokoa ikusiz, zer zelan dan jakiteko:

–Zu, zure ustez, zein da ona?

–Ahari zuria da ona. Kontsejua onartuz, hainbeste diru eder jokutzen dau zuriaren alde. Jo eta jo jardun ondoren, zuriak galdu dau. Kanpotar lagun horrek ba eukan zer esana baserritarrari:

–Ez zenduan zihurtzat emon zuria zala ona?

–Bai, jauna, eta barriro be bardin dinotsut. Zuria dala ona. Baltza hiltzaile bat da.

791

Harek bai bide egokia hartu

Osagileak gogor hartu dau Peru, ardauari neurririk hartzen ez deutsalako, gibela haustuta euki arren.

–Jakizu, nik hilero hambost mila euro gastatzen dodazala alkoholaren aurka.

–Ni be horretan nabil, osagile jauna: neuk zenbat eta gehiago edan, gitxiago gelditzen da besteentzat

792

Mozkorrontzia

Kaxintok arratsaldero emoten deutse errepasoa herriko dozena bat tabernei. Noizean behin auzo herrietara joaten da, nasaiago edateko edo. Holako baten begira zer jazo jakon: Hurreratu eta berehalako eskabidea:

–Hiru litro ardau gorri ekarri egidazuz.

–Ekarri al dozu ontzirik?

–Bai, zeugaz berbetan dagoan hauxe berau.

793

Funtzionariotara jokatu

Patxi eta Jazintoren semeak aspertuta dagoz baserriko bakardadean, zetara jokatu ez dakiela. Patxi gogoratzen da, aitari entzunda, politika munduan, diru-kontuetan zer saltsa dabilen. Zer pentsau asko emon deutso. Lagunari bota deutso:

- Lagun, jokatu daigun funtzionariotara.
- Eta zelan jokatzen da joko horretara?
- Oso erreza da: biok geldituz gara eta lehenengo mobituz danak galdu egiten dau.

794

Sekretuak gordetea sekretua da

Etxekoandreak kriadeari:

- Zuk ba al dakizu sekretuak gordeten?
- Ez dakit, ba, ez dot egundo aprobarik egin eta.

795

Hiru 0, 1 aurretik dala, asko dira

Laster ezkontzeko dala eta, lagunak dinotso Koxmeri:

- Zer, ezkontzekotan ala?
- Bai, neskaxa oso ederra eta liraina aurkitu dot eta. Ernesto lagunak makileaz lurrean biribil bat egin eban.
- Gainera lanpostua izango dau datorren hilean. Lagunak makileaz beste biribil bat. Hori gitxi balitz, buru argikoa dozu. Eta hirugarren biribila. Baina ederrena zera: urrezko bihotza dauka.
- “Zorionak” Koxme; 1 hau jarri beste danen aurretik eta mila miloi balio deutsu andreak.

796

Nok jakin mandoak zenbat dakian?

On Bixente Gotzain zintzoa badoa misino lurretan bisitatxoak egiten mando eder baten gainean. Behin bideak estutu jakoz eta gainbehera ikaragarria aurrean. Gotzainak mandoa handik aldendu gura dau. Baina indio laguntzailerak dinotso:

- Itzi begio mandoari bere bidea egiten; honetan mandoak berorrek baino gehiago daki ta.

797

Alargunaren poza

Gizonagaz ez zan konforme Jeronima. Gau askotan nundik danik be ez. Herri-an sarri entzuten ebazan soinu txarrak. Hil zan eta andrearen poza: Hemen-dik aurrera, gauez falta danean, jakingo dot nun dagoan.

798

Usain gozozko guzurra

Hor doaz mutil bi, neskazahar bat aurretik dabela. Mutilak hasi jakoz lora politak botaten:

–Ze neska polita!

–Nik ezin dot beste horrenbeste esan zuokaitik.

–Ba, egin geuk egiten doguna: guzurra esan.

799

Laster dok biajea

Lehenago ohitura sakratua zan hilzorian egoanari eleizakoak etxera eroatea.


Hor doa On Felipe Goiburura txilin hotsean. Auzotarren artean marmarra:

–Bai, On Felipe etorri da; ez dago bape ondo gure Juanito.

–Zeozer izango da, bai; etxeko burdiari orioa emoten jakonean, laster da biajea.

Eguzkiak bai bizi-indarra!

Halan bedi zure irriparra



800

Idien azeleradorea

Idi probak ikusten dagoz madrildar bat eta baserritar adiskide bat. Madrildarrak lehenengoz ikusten dau jolas mota hau:

–Hori zer da?

–Idiak ondo janda, nok irabaziko.

–Eta atzekoa?

–Harria, 2.000 kilokoa. Eta atzeko gizonak eskuan daroana?

–Hori azeleradorea.

801

Ai, Pedro! Ederra sartu deutsut!

Julenek a zelango porru saila landatu dauan. Baina biharamonean ekatx gogor bat egin eta danak hondatu jakozan. Biharamonean, bardin ekin eutson, baina porru landararik ipini barik. Eta sekulako ekatxa barrero. Hor daukazu Julen atarian zerura begira barrez:

–Ai Pedro, Pedro! Oraingoan ez nozu harrapau. Ederra sartu deutsut! Plantak egiten ibili naz, baina ez dot ezer landatu.

802

Goitik bero, behetik hotz

Ezkonbarritan hortik zehar doaz Matxalen eta Pedro Mari. Leku hotzetara joan dira eta gizona gaixotu jako. Ezin oinak berotu. Hotelekoak badinotso:

–Ipini egiozu hanketan boteila berogarri bat.

–Zelangoa? Wiski ala koinaka?

803

Galdu dan bakeak asko balio dau

Etxera ez konduta etorri diranak ondo konpontzen ez badira, bakotzak ekarri dituanak gogoratu behar alkarri:

–Hemen dagoan dana neuk ekarri neban, ez zuk. Zer zeunkan ba?

–Zure danak baino gehiago balio dauana.

–Zer?

–Hara, bakea.

804

Balitz eta bazan, biak alkarren kasan

Sartzen da andra lodi bat trenean eta zutunik joan behar, lekurik ezta. Gizon egun bat ondoan eta hari ekin deuto:

- Orain 30 urte izan balitz, laster jagiko zinan, lekua neuri izteko.
- Bai, baina zu orduan beste bat zinan eta gainera gaur baten lekua barik, birena behar dozu. Alperrik da nik iztea.

805

Kurbetan badaezpadan arinago

Pernando andreagaz kotxean doa. Andreak sarri esan deuto:

- Zoaz astiroago; ni oker-unetan larritu egiten naz-ta.
- Horixe da neu ere larrituten nauana. Hagaitik, kurbak datozanean, egin neuk egiten dodana.
- Zer egiten dozu, ba?
- Begiak itxi eta arinago joan.

806

Hilda gero, zelango bakea!

Bakea, bakea, gauza ederra da bakea, batez ere etxean. Hori ez badago, dana sobra. Hemen dozu argibide bat: Jontxuk atsekabez baino poz haundiagoz dinotso bere lagunari:

- Atzotik gure izekoari “resquiescat in pace”.
- Zer, ba? Ez nekian hil zanik.
- Ez, osabea hil dalako, izekoak ha zelango atsedena!

807

Gerra batetik urten, bestean sartzeko

Zoritxarreko gerrak! Hamaika umezurtz eta alargun izten dabe baztarrean! Hor dozu bat: Juanita. Baina laster baten ezkondu zan beste bategaz. Baina aurreko gerrea kanpoan zan, eta orian etxe barrura sartu jako. Behin badinotso:

- Gerrea izan ez balitz, senar santu haregaz biziko nintzan; hau zoritxarra! Joxandresek ba ekian gerra kontu hori:
- Bai, gerra honek danoi ekarri deusku zoritxarrik asko, ez zuri bakarrik.

808

Gizonaren ordezkooak

Agurtzane gazterik gelditu da alargun. Laster agertu jakoz ordezko barriak. Eta danen kontsejua.

- Zu ezkondu egin behar zintzatekez, eta ez bakarrik bizi. Agurtzanek sekulako erantzuna emon deutse:
- Ez naz bakarrik bizi, badodaz txakurra, katua eta papagaioa.
- Ha zelango lagunak andra gazte batentzat!
- Ez ba! Txakurra egun osoa zaunkaka daukat; katua gau osoan kanpotik dabil; eta papagaioak biraoak bota eta bota dihardu. Hiruren artean beteten deuste senarraren hutsunea. Eta gainera hasarrerik ez!

809

Gogorrena alkate

Joxepari alaba zaharrena etxera ezkondu jako. Sartu dan barria benetako katamotza suertatu jake, aidean darabile bien artean. Behin amak alabeari:

- Alabatxoa, indarra hartu baino lehen, zezen barri hau hezi beharko dogu, bestelan gure azkena. Eztabaida gogor baten, egur bategaz jota, beso biak apurtu deutsoz amaginarrebeari. Osagileagan joan dira, besoak ondo lotu, 500 euroko kontua suinaren kontura itzi eta etxera. Honek 500 euro barik, 1000 euro emon deutsoz, esanez:
- Eutsiz beste 500 euro, hankak apurtuta datorrenerako. Amaren larria:
- Alabatxoa, kontuz ibili beharko dogu; laster apurtuko deuskuzan hankahazurrak ere aurretiaz ordainduta itzi ditu.

810

Kalean harro, etxean marro

Kepa Kaxkazuri hor dator tabernara arnasestuka. Aldean dakarren estugurea baretu nahirik, zazpi kopa iruntzi ditu behingo baten. Tabernako lagunak nasaitu nahirik:

- Zer jazoten jatzu, Kepa?
- Zera, Andreari kolpetxo bat emon, eta han gelditu da lurrean luze. Handik laster han jatorko semea erreguka:
- Aita, amak esan deust joateko etxera, ez zaituala gehiago joko ta. Hori bai kolpea!

811

Lore politak, baina usain gozorik ez

Mozkorra, mozkorra, horra etxe askotako hasarre motorra! Eta ondoren, berandu etxera. Behin Keletori andreak ez eutson atea edegiten. Han dauka kalean erreguka:

–Mesedez, edegi egidazu, maitetxo!

–Ez, gaur ez, berandu eta gainera gaur be mozkortuta.

–Hara, lora txorta ederra dakartsot gaur munduko andrarik politenari. Azkeneko edegi eutson, baina lorerik ez

–Eta nun da, ba, lore txorta hori?

–Eta nun da munduko andrarik politen hori?

812

Abokatua da bat eta belea beste bat

Zer diferentzi dago bela baltzaren eta abokatuaren artean?

–Abokatua harrapakaria, lapurra eta traidorea dala eta ahal badau begi biak aterako deusuzana; eta belea txori baltz, errubakoa.

813

Epaileak eurak nok epaitu?

Epaiketa baten fiskalak:

–Begira, begira errudunari: begirada bihurria, betozko astuna, itxura bildur-garria. Hau entzunda, errudunak zorrotz:

–Zer?

Hiltzaletzat ala pertsona motz eta itsusitzat behar nozue?

814

Parekoak alkarregaz

Zergaitik gurago izaten dau berrogei urteko gizonaekoak hogei urteko andragai?

–Zentzunez eta heldutasunez alkarren pareko diralako.

815

Gabonetako erosketak egiten

Epaileak lapurrari:

- Zergaitik salatzen zaitue?
- Gabonetako erosketak denporaz aurretik egin dodazalako.
- Hori ez da erru kondenagarria. Zenbat denpora aurretik ibili zara?
- Dendea zabaldu baino lehentxoago.

816

Asto kirtena

Jaungoikoak mundua sortzerakoan, abereak sortuaz batera, izena be ezarten eutsen:

- Zure izena oiloa izango da, zure izena otsoa, zurea idia. Astoaren txanda etorri zanean:
- Zure izena astoa izango da.
- Zelan esan dozu?
- Astoa. Eta bost minutu geroago: Zelan dala nire izena?
- Asto kirtena.
- Hori gainera! Lehengoa ikasi ezinik, eta orain abizena.

817

Haginartean txartela hartuta

Hegazkinean doazela, kea barruntau dabe bertan doazenak. Kezkea, susmo txarra eta bildurra zabaldu da bidailarien artean. Eta hor dator pilotoaren abixua:

- Bakotxak hartu dagiala hagineta estututa bere nortasun agiria (karneta).
Jentarteko bigotedun batek:
- Hori zergaitik?
- Hara, gero gatxa izaten da ezagutzea gorpua norena dan.

818

Bizitzako egunik tarrena

Joxetxo tabernan dago mahai baten jesarrita, aurreko edontziari begira. Sartzten da kamioneru morrozko bat izerditan eta trago baten iruntziten deutso basokadea. Eta Joxetxo negarrez. Kamioneruak kontsolatu nahirik dinotso:

- Tira, ez egin negarrik, oraintxe ekarriko deusut beste ontzi bete.
- Ez, ez da horigaitik. Gaur niretzat bizitzako egunik txarrena da: Lehenengo, beharlekura berandu heldu nazalako, kalera bota nabe; bigarrena, kotxea itzi dodan lekura heldu eta kotxea lapurtu; hirugarrena, etxera joan eta andrea beste gizon bategaz; hona etorri eta neure buruaz beste egitera noala, zu etorri eta neuretzat prest neukan benenoa, zuk iruntzi.

819

Hori da bedeinkazinoa!

Gizon bat tabernan sartu eta bertako tabernariagaz apustu egiten dau: Baietz txixaz bete hor bost metrora dagoan basua, tanta bat lurrera bota barik. 200 euro jokatu dabe. Atera eta jarri dau indarrean isopoa, eta ontzira izan ezik, tabernan dagozan kamareru eta inguruak bedeinkatu ditu. Tabernariak 200 euroak jasoaz, barrez badinotso:

- Halako tentela zeu holan 200 euro galtzeko! Eta txizaginak erantzuten deutso:
- Ikusten han baztarreko hiru mutilak? Hareekaz jokatuta euki dodaz 500 euro baietz taberna osoa txizaz bedeinkatu, eta zuk, hasarretu beharrean, barrezka amaituko zenduala. Ikusten? Irabazi egin dodaz 300 euro.

820

Nok zaindu behar dau nire zaldia?

Baserritar bat doa eleiz ondotik domekaz, zaldi eder bat sokatik dauala.

Abadeagaz topo eginda, honek badinotso:

- Zelan zoaz domekaz mezara barik?
- Eta zaldia nok zainduko deust?
- Itzi Jaungoikoaren eskuetan. Badoa mezara eta abadeak mezaren hasieran badinotse:
- “Gure artean dagoan Jaungoikoa izan bedi zuekin” . Baserritarrak hasarrez tente jarrita dino:
- Gugaz badago, nok zaindu behar dau nire zaldia?

821

Haginak ondo zainduta

- Osagile jauna, alboko hagina galdu egingo ete dot?
- Hori ez dakit nik; nik papertxo baten batuta emongo deutsut; galtzen badozu, zeuk galduko dozu.

822

Kilo bat azukre erosten

- Domeka goiza zan. Goiburu baserriko amak bere seme Jesus dendara bialtzen dau azukrea erosten. Ez ekian dendarako bidea. Baina amak emon deutsoz seinaleak. Jente asko sartzen ikusten dozun lekuan sartu eta haxe da. Sartu da herrian eta jentea eleizara sartzen da. Bera be han sartu da. Eta abadeak sermoitan itaun bat egin eban:
- “Zetan etorri da Jesus gure artera?” Eta gure Jesus mutikoak bai azkar erantzun:
 - Kilo bat azukre erosten.

823

Asmatzeko be holangorik!

- Amama zahartxo bat osagileagana hurreratzen da:
- Jauna, azkenaldian oso gitxi entzuten dot. Eta osagileak ondo aztertu ondoren badinotso:
 - Ez da harritzekoa! Belarriko zuloetan supositorio koxkorak sartuta daukazuz eta.
 - Ene ba! Orduan badakit nun itzi dodan entzuteko aparatua.

824

Vivaporru osagai barria

- Martolo baserritarra, hotzak hartuta ebilen, eta farmaziara joanda, egiten deutso zerbitzariari bere eskabidea indartsu:
- Vivaporru! Vivaporru! Eta entzuten egozan guztiak erantzun:
 - Viva!

825

Txakurra gizonaren lagunik onena

Zergaitik dinoe txakurra dala abereen artean gizonaren lagunik zintzoena?

–Antzekoen artean, guztiak alkar ondo hartzen dabelako.

826

Kotxe-motorrak gizonentzat

Zergaitik gustatzen jakez gizonezkoei kotxe eta motorrak?

–Horrexeek bakarrik manejatzen dakielako.

827

Zenbat nire gizonagaitik?

Andren artean erabilten dabe autu-mautu bakotxik! Horra bat:

–Leonarda, zuk zenbat emongo zeunke nire gizonagaitik?

–Zure gizonagaitik ezer bez.

–Hori don! Tratua eginda dago.

828

Zentzun barik alargun

Joxpantoni andra bizia da; erantzun zorrotzak daukaz. Behin itaun hauxe egin eutsoen:

–Zelan deitzen deutsoe gizonei, zentzuna galdu dabenean?

–Alargunak.

829

Txanpon faltsuak

Dinonenez, gizonak txanpon faltsuak lez ei dira: eskuz-esku erabili ondoren, andra tentelenagaz geldittzen dira.

830

Pisu biko astoa

Andrazkoak be badakiez gizonezkoaren kontrako barregarrikeri batzuk. Isilean gordeten dabe. Hor dozu bat:

–Zelan deitzen deutsoe gizon bat gainean daroan astoari?

–Pisu biko astoa.

831

Zuk atzean motorra daukazu

Indio batek eta behizain batek apustu egin eben nok arinago egin. Biak doaz jo ta su luzaroan alkarren parean. Azken aldera, behizainak soltatzen dau bere atzeko atetik preso bat, orru eta guzti, eta sekulako esprinean irabazten dau karrerea. Geroago heldu da india, nekeak jota eta hasarrez zarataka:

–Zuk tranpa egin dozu; zuk atzean motorra daukazu.

832

Sekulako ugazaba daukat

Gizon bi tabernan mama baltzaren argitan barrikeltan daukazuz:

–Nik suerte haundia daukat lanean nagusiagaz.

–Zer egiten dau ba?

–Egun osoa lotan emoten dau.

–Eta zuk zer egiten dozu?

–Berari lagundu, morroi zintzo lez.

833

Lapurrari argizuzi eta guzti laguntzen

Lapurra gaez baserri batera sartzen da. Eta bere zaratakaz ugazaba itzartuten dau. Eta arpegira botaten deutso:

–Ni diru bila nator.

–Ederto! Itxoin pixka bat, argia biztu eta lagundu egingo deusut, ea bion artean zeozer aurkitzen badogu, bakarrik ez dot inun ezer aurkitzen eta.

834

Hormarik ez iges egiteko!

Zoroetxean zoro bi daukazuz, handik iges egiteko bideak asmau ezinik. Hala-ko baten aurkitu dabe igesbidea. Argienak dino:

- Hormea txikia bada, gainetik salto egingo dogu; eta haundia bada, azpitik egingo deutsogu zuloa. Zuloginen joan dana, handik hiru ordura izerditan dator:
- Zu, alperrik gabiz.
- Zer ba?
- Ez dago hormarik.

835

"Ni naz Jaungoikoak bialdua"

Beste egun baten zoro bi eztabaida gogorrean aurkitu ebazan bertako ardura-dunak:

- "Ni naz Jaungoikoak bialdua". Eta lagunak bardin:
- "Ez, neu naz Jaungoikoak bialdua". Hirugarrenak etorrita, erabagi dau eztabaidea:
- Itxoin! Itxoin! Nik ez dot inor bialdu.

836

Euli arrak eta emeak

Badator andrea plazatik eta etxean aurkitzen dau gizona, euliak akabatzeko itzuzkina eskuan dauala.

- Gizona, zer egiten diharduzu?
- Euliak hiltzen.
- Eta zenbat hil dozuz?
- Hiru ar eta eme bi.
- Eta zetan igarri deutsezue arrak edo emeak zirala?
- Hiru egozan garagardo baso ondoan eta beste biak telefono harian.

837

Tximinoagandik ei gatoz

- Ama! Ama! Argi dago gu tximinoagandik gatozana.
- Bai gero? Baleiteke; baina, badaezpada, hobe dozu aitari itandu; inoiz ez deust erakutsi bere familia.

838

Oilaskoa oso gozoa egon da

Ama alargun batek hiru seme ditu. Aita hilda laster, bakotxa bere aldetik joan zan, ama bakarrik itzita. Eta batak baino besteak suerte hobea izan eben. Handik urte batzuetara amagaz gogoratu eta berari gehien gogoko jakozan gauzak oparitzea erabagi eben. Batak txaletik ederrena; besteak kotxerik ikusgarriena, eta hirugarrenak loro txori eder galanta, Biblia buruz ekiana. Gure amari hori da gehien gustatzen jakona, baina itsututa dago. Diruak diru, 12 frantziskotar euki ebazan 20 urtetan loritoari Biblia irakasten. Amak nahiko eban halako kapitulua esan, eta loroak parra-parra zehatz eta mehatz esango deutso.

Amak jaso ebazan hiru opari ederrok eta hona hemen erantzuna:

–Julen, zetarako dot nik txaleta; gela bat nahiko dot, eta etxe haundi hori garbitu behar? Patxi, kotxerik nik ez dot behar honezkero. Eta zuri, Martin, eskerrik beroenak. Zuk bai jakin amari zer jakon gogoko! Patata erreakaz nahaste, ez dakizu zein gozoa egon dan zuk bialdutako oilaskoa!

839

Txarritegian senideak

Hor doaz mezatara senar-emazteak, etxean eztabaida gogorra izan ondoren, biak isilik. Biderdian txarritegi bat ikusten dabe ezkurra jaten.

–Zer? Zure senideren batzuk ala?, dinotso senarrak andreari. Eta bai azkar eta zorrotz jaso erantzuna:

–Bai, bai, zeure aita eta amaginarrebak.

840

Seiren ama... lauren aita

Bazan etxekoandra bat, sei semeren ama. Eta zelango semeak! “Seiren ama” deitzen eutsoen izengoitiz herrian. Ez jakon atsegin izenorde hori Juanitari. Behin eztegu batera joanda, amaieran badinotso senarrak:

–“Prest al zagoz “seiren ama”? Laster kendu eutsozan Juanitak zati baterako azkurak!:

–Bai, bai, prest nago “lauren aita”.

841

Lehengusuak ama baten zerbitzuan

Mutil lehengusu bi soldautzara joan dira. Eta jeneralak Joantxori:

- Joantxo, zuretzat zer da Espainia?
- Hara, neure ama balitz lez, jeneral jauna.
- Ederto! Eta zuretzat, Peru?
- Nire izekoa, jeneral jauna.
- Zelan hori?
- Bai, ba, Joantxo nire lehengusua da ta.

842

Asto eske etorri eta aita kanpoan

- Aita, aita! Goizean etorri da gizon bat asto eske.
- Eta zer esan deutsozu?
- Ez zengozala etxean.

843

Ha bai kuadrúa!

Isabel atso zaharra, karterako zimurrak ondo lirainduta eukazan, baina arpegia zimurrez beterik. Eta marimaistra bat bai bera! Bilboko Aste Nagusian artisten kuadru erakusketa bat antolatu eben. Hor doa gure marimaistra kuadru erakusketa ikustera. Kuadru baten aurrean luzarotxo egoan baten, hurre-ratzen jako gidaria eta marimaistraren itauna:

- Zu, hau al da kuadu famatu hori? Hoberik badaukat nik etxean!
- Parkatu, baina hori kuadrúa barik, ispilua da.

844

Gauerdiko ahuntzaren ametsa

Eskolako kontuak amaibakoak dira. Jaso egizu txikitxo hau. Edurne andreñoak badihardu umeei aditza erakusten:

- Ea, Jontxu, nik esaten badot:
- “Ni aberatsa izan nintzan”, hori lehenago izan zan. Baina esaten badot: “Ni polita naz”, hori zer da?
- Hori gauerdiko ahuntzaren ametsa.

Ezkontzako egunean kartzelara

Mutil gazte bat, ederto jantzita bera, kotxean doa legezko abiadurearan gainetik. Ertzainak gelditu eta kontuak eskatzen hasi jakoz. Gazteak arnas-estuka:

–Parkatu, baina prixaz, prixaz nabil, itzi egidazu joaten. Luzaroan eztabaidak jardun ondoren, kartzelara bialdu eban, nagusia etorri arte. Baina ertzaina bera ere ez egoan nasai egin ebanagaz. Joan jako kartzelara eta poztu nahirik dinotso:

–Gaur nagusia eztegu batera joan da eta umore onez etorriko da eta aterako zaitu, seguru nago.

–Ez zaite hain seguru egon; ezkontzekoa izan dana neu naz eta.

Salto haundiegia motxileaz egiteko

Hegazkinean doaz politiko bat, abade bat, futbolista bat eta ume bat. Hegazkinaren motorra ketan hasi da eta jentartean zabaldu da ke usaina, susmo txarra eta bildurra. Pilotoaren abisua:

–Hor dagoz hiru parakaida eta zeuok konpondu. Politikoak mila errazoi daukaz bat hartu eta salto egiteko. Futbolistak ere ordu batzuk barru partidua eukala eta, hor doa. Abadeak, parakaida bi gelditu dirala ikusita, badinotso umeari:

–Zelan gelditu jakuz hemen parakaida bi?

–Jauna, politikoa nire motxileagaz joan da.

“Lehendakaria hil daitela!”

Politiko ipurterre bat badoa kalean zehar eta berari esanda lez entzun dau:

–“Lehendakaria hil daitela!” Berotuta badoa bosgarren mailako solairura puzka:

–Ni bihar pasauko naz barrero kaletik eta ez dot holangorik entzun gura.

Andrea badoa abadearengana, eta bien loritoak truk egin dabez. Biharamonean lehendakaria harro kalean zehar, eta loritoa isilik. Pixura igonda, loritoari dinotso:

–Zer? Gaur ez dinozu “Lehendakaria hil daitela”? Eta hor entzun dau loritoaren bedeinkazinoa:

–“Jaungoikoak entzun deizula, ene seme, Jaungoikoak entzun deizula”.

848

Funtzionario publikoa

Praisku Txiki udalaren kontura bizi da, Harro-harro esan ohi eban:

–Ni funtzionario publikoa naz. Ez hori bakarrik: hortxe ikusi eta ikasi dot ez dagoala Jaungoikorik, ni hortxe egin naz ateo. Entzuten egoan Pernandok kendu eutsozan ugerrak:

–Jakina, ez dozue sinisten gero bititza hoberik egon leitekenik.

849

San Perminetako goxokiak

San Perminetan hor dabil gizontxo bat bolatxo goxokiak saltzen kalean zehar.

–Zetarako dira?

–Bat jan orduko igarriko deutzazu.. Erosi dau Justok bat eta zuzen ahora. Bai laster lurrera bota be, esanez;

–Hau lur hutsa baino ez bada!

–Hor beste batek be laster igarri!

850

Haginak gorde eta kitto

Marinaxi hasarre dabil aititak daukan mania txarragaz: beti hatzamar oskolari haginakaz tiraka egon behar...

Maritxuk dinotso euren be bardin dabilela. Eta zer egin?

–Nik laster kendu deutzat ohitura txar hori.

–Zelan? Eskuak lotuta?

–Bai zera! Haginak ezkutatuz.

851

Miazkatutako kakahueteak

Hamaika gaixo eta jubilatuta joan da Lurdesera urteetan zehar! Gernikaldekoak dozuz gaurko honeek. Bada amama irripartu bat, txoperraren ondora joan, eta kakahueteak emoten deutzat jateko. Hiru bider gitxienez opatu deutzat.

Azkenean txoperrak badinotso:

–Joxepa, nahiko dot. Hor atzean dozuz 45 jubilatuta eta banandu euren artean, pozik jango deutzat.

–Baina guretzat gogorregiak dagoz barrutik; gaineko txokolatea geuk miazkatu deutzat.

852

Atetik ez bada, leihotik

Sarjentoa heldu da komandanteagana eta badinotso:

–Albiste bat dakartsut: Antolin presoak ihes egin dauala.

–Ez neutsun esan atea ondo zaintzeko?

–Bai, baina leihotik ihes egin dau.

853

Nundik begi eder horreek?

Juanito txotxolotuta dago bere neska lagunagaz:

–Bai begi zoragarriak daukazuzala, Jone! Nundik lortu dozuz?

–Arpegi osoagaz batera etorri ziran.

854

Seguru nago seguru nagoala

Jontxuk behin ahokada hau bota eban:

–Tontuak eta leloak bakarrik esan ohi dabe:

–“Ni seguru nago”

–Zuk zeuk sinisten al dozu hori?

–Bai, seguru nago.

855

Gizona ez da ogiz bakarrik bizi

Lapurretan egin dauala-ta, dakarre Pepanton epaileagana:

–Holan dala, zuk hainbat ogi ostu dozuz, gose zinalako.

–Bai, epaile jauna.

–Eta zergaitik eroan zenduan, ogiagaz batera, kutxan egoan diru guztia?

–Jesusek esandakoa da:

–“Gizona ez da ogiz bakarrik bizi”.

856

Halan nahiz holan, bada nahiko lan

Emilio aitita ondo aztertu ondoren, osagileak kontsolagarritzat esan deutso:

- Zu 70 urterarte biziko zara.
- 70 urterarte? Gaur bertan beteten ba dodaz.
- Badakit, horrexegaitik esan deutsut.

857

Agindu bai, baina jaramonik ez!

Agindu, agindu... hori da etxe ta kanpo lege nagusia. Ume bati eskolan mai-suak argibide pixka bat eskatu eutson:

- Pedrotxu, dinozunez, zure etxean aitag aginduten dau.
- Agindu bai, baina ez deutso inok jaramonik egiten.

858

Itandu zeure aitari

- Zu, tontoak euki al dabe seme-alabarik?
- Errez jakingo dozu hori.
- Zelan?
- Itandu egiozu zeure aitari.

859

Irakurtea be ordaindu...

Lantegi bateko nagusiak Patxi langilea egunkaria irakurten aurkitzen dau:

- Zer? Nik irakurtearren ordaintzen al deutsut?
- Ez, nik irakurri doan egiten dot.

860

Aitak bai suertea!

Aita gogoan daukazu bizikleta bat eskeini zeustala, esaminetan ondo urteten baneban?

- Bai, eta?
- Ba, suerte itzela daukazula.
- Ze suerte, gero?
- Ez dozula erosi beharrik izango.

861

Okaran hazurraz hazur bat gehiago

- Ea, Ander, esazidazu: Zenbat hazur daudaz gure gorputzak?
- Berrehun eta zortzi, maisu.
- Ez, Ander, berrehun eta zazpi.
- Bai, baina oraintxe iruntzi dot okaran hazurra.

862

Ene Jainko laztana!

- Zelan urten dozu esaminetan, Kalixto?
- Ondo, maisu oso erlijiosoa suertatu jatan esaminetan.
- Erljiosoa?
- Bai, bai; nire erantzun bakotxeko, eskuak eta begiak zerura jaso eta esaten izan dau: "Ene Jainko laztana!".

863

Lo egiteko jarrerarik onena

- Ba al dakizu zein dan lo egiteko jarrerarik onena: albokera ala ahoz gora?
- Nire ustez onena begiak itxita.

864

Ehun urteko amama haginak ateratera

- Amama batek bete-barri daukaz ehun urte. Eta dentistearengana doa:
- Jauna, haginak atera beharra daukat.
- Zuk ez badaukazu haginik.
- Postizozkoak iruntzi dodaz eta atera, mesedez.

865

Euskaldun txinarra

Kaurtelera joanda, nor nor dan jakin guraz, arduraduna itaunka:

–Zu zer zara?

–Ni euskaldun frantziarra

Eta zu?

–Ni euskaldun espainola

Eta azkenik txinar bati:

–Eta zu nor zara? Pixka bat pentsatzen egonda:

–Ni euskaldun txinarra naz.

866

Seme idazle onaren aita

Zure semeak ze lanetan dihardu?

–Idazlea da, eta oso ona, izan be. Idazten dauan guztia jente askok ardura haundiz irakurten dau.

–Zer, nobelak idazten al ditu?

–Ez, jatetxe bateko menuak.

867

Indaba putzegileak

Paulo, lau urteko mutikoa, sukaldean dago, bazkaria prestatzen dagoan amagaz. Laster agertzen deutso bere gogoia:

–Amatxu, ez ipini niretzat indaba putzegileak.

–Putzegileak? Ze indaba mota dira putzegile horreek?

–Neuk baneki! Jaten dodazan bakotxean atzetik putz eta putz hasten naz.

868

Zeure zigarroentzat

–Semetxo, eroan al dozu Justo jaunaren enkargua?

–Bai, ama.

–Emon al deutsu ezer?

–Hauxe esan deust: Eutsi zeure zigarrotxoentzat.

–Eta zer emon deutsu?

–Posporo bat.

869

Koiñateagaz ezkontzen naz

Holan dala, barriro ezkontzen zara?

–Bai, neure koinateagaz.

–Ez da izango. Zeure koinateagaz?

–Bai, holan ez dot izango amaginarreba barririk.

870

Ama be mandatuan sartzen da

Aitak bere alabeari:

–Auzoko Julenek zugaz ezkontzeko mandatua egin deust, eta nik baietza emon deustot.

–Baina nik ez dot gura amagandik banatzea.

–Ama be mandatuan sartzen da.

871

Ezin laztandu andragaia

Hor dator Pontxio mutil gaztea begi bata haundituta eta itxita, hasarre antzean esanez:

–Ez dot gehiago nire andragaia laztanduko.

–Zer, hasarretu egin zaree ala? —

–Ez. Hain dauka sudurra luzea, laztantzen dodan bakotxean begi bat pikatzen deust.

872

Bost mila pezeta txanponetan

Andra lodikote batek igoten dau autobusera eta, diru txikiagorik ez eukala ta, bost milako papera emoten

deutso. Gidariak adar joteari ostikoz erantzun deutso, atzerakoak txanponetan emonez, esku biak gainezka jarriz. Andrea bera be ez alproja makala:

–Zerbait gitxiago emon deustazu; zenbatu egizuz barriro, mesedez.

873

Ez al dago gusto hobeagorik?

Andra-gizonak sukaldean dagoz, andrea telebista ikusten eta gizona aldizkari batzuetan andrazkoak bilozik ikusten. Halako baten andreak badinotso:

- Itzi egizu hori, gogoko ez bajatzu.
- Zergaitik dinozu hori?
- Zera: badaroazu orduerdi marmarrean:
- Hau da lotsabakokeria! Ez al dago gusto hobeagorik?

874

Amar urtean urte bat be bete ez!

Satur eta Anbrux lagun zaharrak dira.

Urteetan aurrera doaz. Satur kexaz dago. Egun baten Anbruxi agertzen deuto bere egoera tristearen barri:

- Benetan tristea da bakarrik zahartzea. Nik hamabi hilabetero behin beteten dodaz urteak; baina nire andreak joandaneke 10 urtetan ez dau bat be bete.

875

Ikusi barik igarri

Badoaz gizon bi kalean aurrera, eta batek badinotso lagunari:

- Zein dotorea dan hor atzetik datorren andrazko hori!
- Zelan dakizu zuk hori, ikusi ez badozu?
- Nahiko dot aurrez datoza gizonen begiradak ikustea.

876

Ez jaramonik egin, guzurti bat da

- Luisita, zu bai zarala neska polita, zoragarria, liraina!
- Harritzekoa da! Alejandrok be bardin-bardin esan deust.
- Ez da asko lelo horrek esateko! Zuk ez sinistu. Guzurti bat da.

877

Ni ez nago hain zoro

Hau zoroetxean jazotakoa dozu:

- Eta zuk zergaitik ez dozu beharrik egiten?
- Zorua nazalako.
- Halan be, beste zoro batzuk behar egiten dabe.
- Bai, baina ni ez nago hain zoro.

878

Ardiak kontau eta kontau...

- Osagile jauna, bart zeuk esandakoa bete dot logurarik ezaren aurka: Ardiak kontatzen hasi eta hamabost mila kontatzeraino heldu nintzan.
- Eta orduan lokartu zinan?
- Lokartu bai! Orduan jagi behar izan neban, eguna argitu eban eta.

879

Lekua aurkitzeko modu aproposa

- Teatroa ikusten dagoan andra pisutsu bat, ekitaldiarte kanpoan izanda, bere lekura dator. Bere ondoan jesarrita dagoan gizonari itanduten deutso:
- Zu al zara urtekeran hankea zapaldu deustadana?
- Bai, neu naz, andrea.
- Eskerrik asko, nire lekua nun dagoan jakiteko egin dot.

880

Zoritxarreko zorionak

Aintxinatik dira lagunak Ander eta Lontxo. Honek lepoan jota dinotso:

- Pepantonigaz urteten jarraitzen al dozu?
- Ez, dagoeneko ez.
- Zorionak emoten deustudaz: neska traskil, motz, ganorabako hori ez da zuri tokatzen jatzuna.
- Ez. Orain neure andrea da.

881

Ez dot besterik ezer behar

Jatetxean ondo janda dago Juan Pedro. Zerbitzariak badinoso:

–Orain zer gehiago gura dozu: kafea ala kontua?

–Hain ondo jan dot, ez egidazu besterik ezertxo be ekarri.

882

Osagilea enterradore?

–Zer jazoten jatzu, lagun? Txarto sentitzen bazara, Ramirez osagileari deituko deusat.

–Ona al da?

–Oso ona. Bere eskuetan hil ziran nire aurreko senar biak. Goian begoz!

883

Andrea hil zanetik alargun

Beharleku baten bila doa Joxeba. Lantegiko ofizinateak itanduten deutso:

–Ezkondua, ezkongea ala alarguna zara? Alarguna.

–Noiztik?

–Neure andrea hil zanetik.

884

Hobe dozu galdutzat bota

Cherlos detektive famatua izan zan. Gizon bat joanjako estu eta larri:

–Zu al zara Cherlos detektive famatua?

Neure andrea aurkitu daizula gura neuke, nun egon ete leiteken.

–Polita al da?

–Ez ba, motza, lodia, ule gitxigaz eta garatxo bat sudurrean.

–Holan bada, ez zaitetz leloa izan, hobe dozu galdutzat bota.

885

Andragaiaren ama ezagutu beharra

Kelemente kontseju emoile ona dozu. Hor dozu, ezkontzera doan lagun bati aholku emoten:

–Ezkondu aurretik zeure andragaiaren ama ezagutu behar dozu.

–Zertarako?

–Hemendik hogeit urtera zure andragaia zelangoa izango dan jakiteko.

886

Aititak irabazi abadeari

Abadeak mutiko bati eta isilean dinotso:

- Mila pezeta emongo deutsudaz, zeure aititari sermoi denporan itzarrik eusten badeutsazu. Meza ondoren, deitu mutikoari eta irribarrez dinotso:
- Ezin deutsudaz mila pezeta emon; ez dozu bete esan deutsudana.
- Ez ba, aititak bost mila emoten deustaz lo egiten iztearren.

887

Amaginarreba iretargira

Ipar Ameriketako NASA bide barriak hartzen hasi da; andrak iretargira bialtzen. Gizon bat baino gehiago hurreratu jakoz, itaunka:

- Noiz da hori? Nahi dozunean neure amaginarreba bialduko deutsuet.

888

Zetarako behar dozu oilaskoa?

Jatetxe baten, Brauliok ondo janda gero, zerbitzariari deitu eta erreklamazioa egiten deutso:

- Oilasko honek hanka bata bestea baino txikiago euki dau.
- Esaidazu, Braulio, mesedez, zetarako behar dozu oilaskoa: beragaz dantzan egiteko ala jateko?

889

Beti neure buruari entzuten be...

- Osagile jauna, neuk neutara bakarrik berba egiteko ohiturea hartzen noa.
- Hori ez da oker astuna.
- Ez, astuna ez da izango, baina neuk neure buruari beti entzuten egotea be...aspergarri egiten naz.

890

Bost mila pezeta, beste barik emon!

Kalean lehenengoz ikusita, bide batezko lagun batek:

- Prestau al deustazuz bost mila pezeta?
- Zelan baina? Ezagutu be egiten ez bazaitut.
- Horrexegaitik eskatzen deutsut, lehendik ezagutzen nabenak ez deustez emoten eta.

891

Arerioak, urten ahala, garbitu

Abade batek sermoitan entzuleei:

- Adiskidetasuna arimearen atsedena da. Uxala zuen artean areriorik ez dauanen bat balego!
- Neu, zarata egiten dau behizain batek. Nik arerioak, bidera urten ahala, garbitu egiten dodaz.

892

Errepikatu dagiala!

Gorka esaminak izanda, pozez goraka dator etxera. Bere aitak itanduten deuto:

- Zer, dana ondo?
- Bai horixe! Maisu-maistrak esan eta esan jardun dabe:
- “Errepikatu dagiala!” “Errepikatu dagiala!”

893

Hanka bat beste munduan

Iker aitagaz hospitalera doa, han dagoan aitita ikustera. Eta aititaren hankak ikutu eta ikutu dihardu.

- Zetan zabiz, Iker?, dinotso gaixoak.
- Zure hankak kontatzen nabil, eta hanka biak daukazuz.
- Eta zergaitik ez nebazan eukiko ba?
- Aitari entzun deutsot zuk hanka bata beste munduan daukazula.

894

Hobe kikil bat bizirik, ausarta hilda baino

Soldautzan nengoala, arerioa etorten ikusi, eta nik atera neban aptax hotsa!

–Eta hori ez al da kikilkeria?

–Bai, baina neure kautan esan neban: “Hobe da kikil bat bizirik, ausarta bat hilda baino”.

895

Autobusa harrapatzeko tranpa

Baserritar bat denda baten sartu eta arratoi-tranpa bat eskatzen dau, baina prixaz dabilela esanda.

–Itxoizu apurtxo bat, gizon!

–Azkar, autobusa harrapatu behar dot eta.

–Autobusa? Holangorik ez gero! Ez daukagu hain haundirik.

896

Amak beste urte Jontxuk

Jontxu mutiko argia dator. Eskolara joanda, lehenengo itauna:

–Zenbat urte daukazuz?

–Neure amak beste.

–Hori ezin izan leiteke.

–Bai, izan ahal da, ni bere seme izaten hasi nintzan, bera nire ama izaten hasi zan denpora berean.

897

Lur Santuetara joan gura hil aurretik

–Hil aurretik Lur Santuetara joan gura neuke eta neure begiz ikusi Jaungoikoak Hamar Aginduak emon ebazan lekua. Lagunak plausta bota deutso:

–Hobe egingo zeunke bertan gelditu eta Hamarretik bat behintzat ondo bete.

898

Joan-etorriko bidaia erdian itzi behar

Itsasontzia hondoratzen hasi zan eta hango tripalariak! Inundik be ez salbatzeko itxaropenik. Batzuk errezatzen, beste batzuk zarataka. Eta guztien artean batek, zerura begira dino:

–Hau be ba da, ba! Nik joan-etorrikoa osorik ordainduta euki, eta erdia baka-
rrik eginda joan behar!

899

Beti amaginarreben aurka berbetan

Maritxuk hasarrez dinotso bere senarrari:

–Harritzekoa da zu egunero amaginarreben aurka marmarrean jardun beharra.

–Zergaitik kexatzen zara? Ez dot zure amaginarrebearen aurka berba egiten,
nerearen aurka baino.

**Gogoan izan gaurko albistea
guztiak zain dagoz zure txistea**



900

Hobeto entzuteko pastilak

- Osagile jauna, bildur naz gortuko ete nazan. Kontuak atera: neure eztula be ez dot enzuten.
- Hartu pastila honeek.
- Hobeto entzutekoak al dira?
- Ez. Sendoago eztul egiteko.

901

Hori laguntzea baino gehiago da

- Paulo mutikoa ez ebilen ondo matematika arloan. Hara, behin beste guztiak baino zuzenago eginda ekarri ebazan. Maisuak, harrituta, itandu eutson:
- Zeure anaiari eskatu al deutozu problemak ateraten laguntzeko?
 - Ez, maixu.
 - Esaidazu egia, ez deutsu lagundu?
 - Ez, berak bakarrik egin ditu.

902

Kale-garbitzalea miloi askoren jabe

- Lantegi haundi bateko ugazabak sartu barri dan kale-garbitzaileagaz:
- Ez lur jota gelditu. Ni kale-garbitzaile izaten hasi nintzan eta gaur miloi askoren jabe naz.
 - Horra, ni miloi askoren jabe izan nintzan eta gaur kale-garbitzaile izatera etorri naz.

903

Esan bai, baina igarri behin be ez

- Nik zaldien perrotsa entzunaz, beste barik, berehala esaten dot ze koloreko zaldia dan.
- Leku onean!
- Baietz ba! Begiak estalduta, esaten joaten naz: zaldi zuria, baltza, nabarra...
- Harritzekoa! Eta igarten deutsazu?
- Esan bai, baina igarri behin be ez!

904

Lehorrean ito beharra

- Lagundu! Galdua naz! Salbau nagizu! Laku baten itolarrian dagoan baten dei larriak.
- Itxoin, itxoin pixka baten. Salbatzea gura badozu, esaidazu nun lan egiten dozun. Esaten deutso eta han doa lauhankan.
- Jauna, lakuan ito dan langile baten beharlekua eskatzera natortzu.
- Sentitzen dot, baina emon deusot bultzatu deutson lagunari.

905

Diruak ez dakar jakituririk

Aberastu dan gizon bat opera bat entzutera doa, andra eta guzti. Azkenerantz heldu diranean, badinotso andreari:

- Ikusten denez, lehenengotan banan-banan kantatzen izan dabe, baina denporarik ezagaitik edo, orain guztiak batera hasi dira.

906

Hau parkamen gozoa!

- Parkatu egidazu, Felipe, baina oraindik bost mila peseta zor deustazuz.
- Bai, bai, parkatzen deusut, adiskide, parkatzen deusut.

907

Argitik ihesi, putzuan jausi

- Adiskide, zer jazo jatzu, makulu biren gianean ibilteko?
- Atzo gauean kalea zeharkatzen ninoala, bizikleta biren argiak ikusi neban, eta neu bien erdian jarri nintzan.
- Eta ondo apartau zinan?
- Bai zereko ondo! Bizikleta bi barik, kotxe bat izan zan. Zeuk kontuak atera.

908

Madril lehendik daukat ikusita

- Kaixo Pepe! Zer, Madril aldetik, ezta?
- Bai, sekula ez naz egon eta aukera ederra izan dot hauxe.
- Lagunen bat ikusten ala?
- Ez ba; ezkondu egingo naz eta ondorengo bidaia.
- Eta andrea?
- Andrea etxean; berak Madril lehendik daukala ikusita, dino.

909

Ardaua hartu eta beharra itzi

- Hau be ba dok, ba!
- Zer dok Katxin?
- Ardaua edaten dodanean, ezin juat beharrik egin. Itzi egin beharko juat.
- Ardaua hik itzi?
- Ardaua ez, beharra.

910

Ezin isilik eta geldi euki

- Ume arteko esamesak.
- Hau be bada gero! Gure gurasoak gugaz egiten dauanak ez dauka zentzunik. Lehenengo berbetan eta oinez erakutsi ezinik ibiltzen dira; eta ikasten dogunean, ezin gaitue isilik eta geldi euki.

911

Urte beteko bizia emon deust

- Zer jazoten jatzu, lagun? Zergaitik zagoz tristerik?
- Atzo osagileak urte beteko bizia emon deust.
- Horigaitik ba da, ez zaitetz ikaratu; denporea igarri barik joaten da.

912

Etxekoak giltza galdu, auzokoak aurkitu

Emazteak senarrari:

- Zergaitik ez zinan bart etxera etorri?
- Giltzak galdu nebazan eta ez neban gura izan zu molestatzea.
- Holan dala, giltzak galdu zenduzala, ezta?
- Bai. Bakarrik sentidu zinan ala?
- Ez. Zorionez beste gizon batek aurkitu ebazan.

913

Merkatarien arteko sekretuak

Julen merkatariak badinotso beste merkatari lagun bati:

- Bide bat baino ez dago dirua ganoraz irabazteko.
- A, bai? Eta zein da bide hori?
- Banengoan, bai, zuk ez zenduala ezagutzen.

914

Gaueko amets gaiztoak

- Osagile jauna, gau guztietan amets egiten dot zezen bat atzetik dodala.
- Hartu egizu botika hau eta behingoan joango jatzu amets gaizto hori. Baina amets gaiztoa ez da desagertzen, eta osagileak beste bide batera jotzen dau:
- Ezelan be lagundu ezin deusudan ezkerro, hobe izango dozu zeuk toreatzen ikastea.

915

Auteskunde aurreko promesak

Martolok emazteari:

- Ezkondu aurretik, nire erropak zainduko zenduzala berbea emon zeustan.
- Eta zuk berbea emon zeustan teatrura eroango ninduzula astean behin.
- Gizonak beste aldera begiratzuz, ahopean dino:
- Ikusten danez, auteskunde aurreko promesak izan ziran.

916

Etxeko zikinaz kalea garbitzen

Etxekoandreak badinotso neskameari:

- Ur zikinak bota egizuz kalera, baina kontuz, ez dagiala inor busti.
- Bete dot esan deustazuna
- Ez dozu busti ez andrarik, ez gizonik?
- Ez, etxekoandre, polizia bat bakarrik busti dot burutik oinetara.

917

Goitik ala behetik ebagi?

Eskumakila bat erosi eban Patxikok eta biharamonean dendara bihurtu zan erreklamatzera:

- Luzuzeegi egiten jat. Heldulekutik ebagitea gura dot.
- Ez da hobe izango behetik ebagitea?
- Ez, jauna! Ez dozu ikusten goiko aldetik sobratzen jakona?

918

Berbea emon, berbea jan

Ez da erreza guraso ona izatea. Paulok hori uste dau:

- Antolin, ez zeustan berbea emon ondo portatuko zinala?
- Bai, aita.
- Eta nik ez neutsun berbea emon, bestelan astinaldi bat emongo neutsula?
- Bai, aita, baina nik neure promesa bete ez neban lez, ez da beharrezkoa zuk be zeurea betetea.

919

Diplomazia diplomatik ete dator?

Diploma saritzat ez da hartzen? Atzetik datorren *hazia* da kontua. Patxik ondoren hauxe atera dau, diplomatiko asko ezagutu eta gero: Diplomatiko batek “bai” badino, “beharbada” esan gura dau. Eta “beharbada” esaten badau, “ez” esan gura dau. Eta “ez” esaten badau, errusoa da.

920

Danak ez dana harrapatu

- Txomin, zer jazu jatzu bendaz lotuta etorteko?
- Hara, bart erdi edanda ibili naz... zezen bi neugana etorten ikusi dodaz, eta leiho batera salto egin neban, eta nengoan moduan egonda, leiho bi ikusten nebazan...
- Eta gero zer?
- Zera, leihorik ez egoan leihora salto egin neban, antza, eta zezenak harrapatu ninduan. Ha bai, ha benetan zezena zan!

921

San Pedro eta Satanas auzitan

Behin baten San Pedrok deitu eutson Satanas telefonoz:

- Zeuk apurtu zenduan zerua eta inpernua banatzen dituan hesia, eta konpon-tzea zeure kontura da. Bestelan, auzitara joko dot.
- Auzitara jo! Ja! ja! Eta nundik lortuko dozu abokatu bat, guztiak hemen dagoz eta?

922

Jentaurrean berba egin behar dozunean

Hizlari hasibarra bat estu eta larri dago, lehenengoz jente jakitunaren aurrean berba egin behar ebanean.

- Gaur da nire debuta jentaurrean berba egiten eta, egia esateko, larri nago. Berak baino esperientzi gehiago daukan batek berehala baretu dau:
- Ez egizu horren ardurarik izan. Nasai sentitzeko, entzuleei begira jarri zaitetz, zeure buruari esanez: "Ez dot neure bizitzan astakirten gehiago batera ikusi".

923

Tontoa zoriontsu ez dana

Langileen arteko autu-mautua dozu hau.

- Txarto ordaintzen deuste eta beharra gero eta gehiago eginazo. Gorroto dot nire beharlekua
- Ni, ostera, gustura nabil.
- Zelan baina, neure antzeko kondizinoetan egonda?. Holan egonda, zelan egon zeintekuz gustura?
- Garbi esanda, egunero uste dot galdu dodala.

924

Beharlekuan norbere etxean lez

Gizon ezkondu batek beharra eskatzen dau, emakume batek zuzendutako lan-tegi baten. Bertako idazkariak itaun hau egiten deutso:

–Ez deutsu ardura izango emakume batengandik aginduak jasoteak?

–Ez dot uste. Neure etxean nagoala uste izango dot.

925

Errez eta agundo aberasteko sekretua

Etxe baten propaganda hau jaso eben:

–“Neke haundi barik eta agudo aberastu gura badozu, bialdu egizuz mila pezeta norabide honetara eta handik bialduko deutsue errezeta zehatza”.

Jakinguraz bialdu eban dirua eta egun gitxi barru jaso eban erantzuna:

–“Egizu neuk egin dodana”

926

Gortasuna ona da musikarentzat

Jakintsu batek hauxe aurkitu dau: “Musika modernoa ona dala gortasunaren-tzat. Baina Julenek ez dau gogoko, antza, musika moderno hau, eta irribarrez dino:

–Nire ustez, gortasuna da dagoanik onena musika modernoarentzat.

927

Senar lapurraren kontura bizi

Senar lapur baten emazteak bere amagaz berbetan dihardu:

–Nire senar errukarriak hogeitau urte emon beharko ditu espetxean, bostehun miloiko bitxiak ostu ditualako.

–Holangorik! Eta orain zuk zetara jo behar dozu?

–Ez izan horren ardurarik.

–Zer egitea erabagi dozu?

–Astiro eta banan banan bitxiak saltzen joan.

928

Prezio honetan, hobe isiltzea

Epaitegi baten:

- Ehun mila pesetako multa zigorra dozu, autoritatearen kontrako irainakaitik. Ba al dozu beste esatekorik ezer?
- Bai, baina prezio honetan, hobe isiltzea.

929

Gaixoak gatxa ezarri

Goizaldeko hiruretan telefono deia osagilearen etxean:

- Osagile jauna, ezin naz lokartu, lorik ezak jota nago.
- Eta zer gura dozu, epidemia zabaltzea?

930

Saltxitxa aberatsa, demontresa!

Jatetxe baten kezka zerbitzariari:

- Zu, jakin leiteke saltxitxa hau zegaz eginda dagoan?
- Hiru nazionotako zatirik onenakaz:
- Urdaiazpiko frantzes, urdai espainola eta saltsa ingelesa.

931

Dibortzioaren ondorenak:

- Zer, Joxandres, dibortziatu al zinan?
- Bai, sasoi izan da.
- Eta gauzak argi gelditu jatzuz?
- Bai, semeak neugaz gelditzen dira.
- Eta etxea?
- Nire andreagaz.
- Eta zure diru kapitalagaz?
- Horregaz abokatua.

932

Lo egiteko ordu egokia

Osagileak gaixo bat aztertzen daukazu:

–Zetan emoten dozu bizitza?

–Filosofiako irakasle naz.

–Konturatu zara, lotan zagozala, berba egiten ete dozun?

–Kontrara, osagile jauna. Besteak egiten dabe lo, nik berba egiten dodanean.

933

Negar batzuk egurra merezi dabe

Miloi askodun gizon bat lurperatzen dabe, bere ondasunak senideen artean bananduz. Hiletetan parte hartzen dabenetariko bat hor dago negar eta negar.

Lagun bat hurreratzen jako:

–Zer? Familikoa zenduan?

–Ez, zoritxarrez ez. Horregaitik egiten dot negar.

934

Pobreak aberats, aberatsak pobre

Zer dala ta, zer dala? Aberatsak gorde eta pobreak bota egiten dabena?

–Ez dakit.

–Mokoak.

935

Zer da traidore izatea?

–Bere politiko alderdia itzi eta beste baten izena emoten dauana.

–Holan dala, bardin da traidore, beste partidu batetik zurean izena emoten dauna?

–Ez, hori konbertidu dan bat da.

936

Zapata pare xelebrea

–Zu, adiskide, zapata bat morroia eta bestea baltza daroazu.

–Bai, eta txarrena zera: Etxean daukadala beste pare bat bardina.

937

Senar doblea jornal erdiagaz

Hau emazteen arteko autu-mautua dozu:

- Joan dan hilean jubilatu zan nire senarra.
- Holan bai ondo! Luzarago eukiko dozu etxean.
- Bai, orain senar doblea daukat, eta jornala erdia.

938

Hor dago untzea

- Ez, ama, ni ezin naz Errobertogaz ezkondu: ez da gaztea, ez ederra, ez aberatsa, eta gainera...
- Gainera zer?
- Gainera eskatu be ez deust egin.

939

Ulertzen deutsut, Mariñaxi

Atez ate saltzen dabilen horretariko batek deitu dau Mariñaxiren etxean eta hasarre-arpegiz urten deutso atera:

- Ez dot ezertxo be erosten. Eta saltzen dozuna gizonentzat bada, gitxiago. Apenas ikusten dodan.
- Ulertzen deutsut, Mariñaxi, ulertzen deutsut.

940

Edozer edozelan ez da bardin

- Etxean al dago ugazaba?
- Bai, baina lo dago. Ordubete geroago:
- Etxean al dago ugazaba? Bai, baina lo egiten dago.
- Entzun, lehen esan deutzazu lo dagoala eta orain lo egiten dagoala?
- Bardin da.
- Zelan dala bardin? Bardin al da izurratuta egotea eta izurratzen egotea?

941

Eskupekoen neurriko irribarreak

Zerbitzaria heldu da jatetxera eta, lanean hasi orduko, ispilura doa, eta han emoten dau hainbat denpora keinuak egiten. Lagun bat hurreratu eta itanduten deutso:

–Zer egiten dozu?

–Era askotako irribarreak ensaiatzen nago, egunean zehar banatzen joateko: eskupekoak zelangoak, irribarretxoak halangoak.

942

Osagileen txartela inok igarri?

Osagile batek, inok irakurri ezineko idazkeraz, bere lagun bati bazkarira konbite egin eutson. Baina hau ez zan agertu. Geroago telefonoz deitu deutso:

–Jaso al zenduan bialdu neutsun txartela?

–Bai, eskerrik asko, adiskide; beragaz joan nintzan farmaziara eta orain askoz hobeto nago.

943

Eskutitz misteriotsua

Andreak ezustean harrapatzen dau gizona eskutitz bat zabaltzen. Kartatxo hori usain gozoz dator, letrea andrazkoarena da, eta gizona kolorez aldatzen doa, irakurten dauan artean. Susmo txarrez dinotso:

–Emoidazu eskutitz hori. Ikusten dodanez, beste andra batena da; bertan dinotsunaz kolorez be aldatu egin zara.

–Errazoi dozu, andrea; zeure jostunaren kontua da.

944

Sei seme-alaba ala sei miloi nahiago?

Ezkonduen arteko gorabeherak.

–Nire ustez, sei seme-alaba dituan gizona pozago eta beteago dago, sei miloi dituana baino.

–Zuk holan uste dozu?

–Bai, bai; sei miloi dituanak gehiago nahi ditu; bestea nahikotu da.

945

Autorlekuko estularriak

Nok kontau autortza dala-ta esaten diranak? Hona hemen bat:

- Jauna, neska bategaz zazpi bider ibili nazala autortzen dot.
- Ezin deutsut horrenbeste pekatu parkatu, beste barik.
- Zergaitik, jauna?
- Ikusten danez, ez zagozalako damututa, ezta?
- Bai, damututa nago!
- Holan bada, errezatu egizuz lau Agur Maria, esan dozun guzurragaitik.

946

Ona nago ni inor zuzentzeko!

Exploratzaile bat galduta dabil baso haundietan zehar aste betean noraezean.

Ustekabean beste esploratzaile bat aurkitzen dau:

- Jaungoikoarren! Hemen nabil aste betean atzera eta aurrera galduta; zuk jarriko al nozu bide zuzenean?
- Leku onera zatoz! Zuzendu dinozu? Neu nabil ni ia urte betean galduta...

947

Testiguak ezkontzan zetarako?

- Esaidazu, aita: Zergaitik behar dira testiguak ezkontzan?
- Ene semetxo! Testigu barik inok sinistuko ez leukelako.

948

Gizonak gixonkeriak!

Gizonak bai bota harrokeriak, eurak bakarrik dagozanean! Txantonek dino:

- Ez da andrarik, ni tontotuko nauanik.
- Ez gero! Orduan nor izan da?

949

Zuretzat zer da bankua?

- Zer da bankua?
- Egia esateko, hauxe: eguraldi ona danean, aterkin bat emoten deutsuen lekua, eta kendu euria hasten danean.

Zaldiko maldiko

Baserritarra beti izan da zaldi zalea. Gauza askotarako behar izaten dau. Baita dirubide egokia be. Kasimirok benetan ederra dauka bat. Bajartorko bat zaldi eske, ibilaldi bat egiteko asmotan:

–Zenbatetan prestatzen deustazu zaldia?

–Berrogeitamar eurotan, baina aurretiaz ordaindu behar deustazu.

–Zergaitik hori? Zaldi barik etorriko ete nazan, ala?

–Ez, zaldia etorriko ete dan zeu barik.

Barre egiteko gai dan izaki bakarra gizakia da. Giza-kiaren ezaugarrietatik bat horixe da: barre egitea. Negar beste barre egingo bagendu... Edo eta negar beste barre eragingo bagendu... Zer dala eta ipini dabez martxan han-hemen "risoterapia" zerbitzuak? Bada gaur gatxen bat gizakia burumakur darabilana eta menperatu gura dana.

Esanak esan, ezin da adierazo txisteak eta barre egiteak dauken garrantiza. Ikaragarrizko indarra dauka betozko ilunak argitzeko, saihetsak nasaitzeko eta bihotzak gozatzeko. Jakintsuak dinoenez, pertsona batek, hasarretzen danean, 34 muskulu mobidu behar ditu eta irribarre egitean 4 bakarrik. Eta aholku on bat ondoren: "Energia aurreztu egizu, irribarre eginez"

ISBN 849241366-2



9 788492 413669